

ATAÑO

Txantxangorri kantaria

9254
GAS-128/21

TXANTXANGORRI KANTARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA
(137-138)

EDITORIAL AUSPOA

Plaza Santa María, 2 — Tolosa - Guipúzcoa
Teléfono 67 12 82

ATAÑO

TXANTXANGORRI
KANTARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA
1979

Azaleko marrazkia, liburu ontatik artua degu:
Henry Wilkinson: Sketches os Scenary on the Basque Provinces of Spain, London, 1838.

Liburu au, Donostia'ko Aurrezki-Kutxa Munizipalak berriz ere argitara eman du, ingelesez eta gaztelez eta izenburu onekin: *Henry Wilkinson: Apuntes paisajísticos y musicales de las provincias vascas (1838), San Sebastián, 1976.*

Marrazkiaren barrenean esaten danez, or ageri diran erriak Alza, Errenderia eta Lezo dira. Liburu onetan kontatzen diranak, inguru orretan gertatu ziran.

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)
Inprimatzaille: E. Itxaropena, S. A. Bitor Pradera, 2 Zarautz
Depósito Legal: S. S. 485/79
ISBN 84-7158-065-9
Agosto - 1979

ARKIBIDEA

Txantxangorri kantaria	9
Bordaxar	25
Jaio ta lenengo urteak	31
Aitona	41
Guda ondoa	57
Mutil koxkorretan	63
Juan Kruz	71
Sendi-bizitza	83
Aldaketak	101
Txirrita	109
Gaztearo	113
Kinto-urteak	119
Kanpoan uso, etxean otso	123
Arrapazka	137
Donosti'ra	147
Atsolorra	153
Nekepean	161
Izurritea	169
Alargun	179
Semeak	185
Semeen jolas ta biurrikeriak	189
Erkala edo errepublika	205
Azkeneko gudatea	217
Guda ondorean	243
Saturnino	249
Nere azken urtean gaur arte	263
Atea zabaldu	269

TXANTXAGORRI KANTARIA

Zarrast! Zarrast! Etxe gañeko aldapa arri-tsu batean segan ari zan. Ille moztu berriko gizon baten lepondoa bezin berdin ta txukun uzten zituan arkaitz-inguruak, almitz ximelak ere arruntean ebakiz. Lekurik erosoena bukatu ondoren, segaren orpo-barrenarekin gainbera arri-ondoetako belar banakak mozten ari zan.

Altzairu ta arri-ots ugari bazebilkin, baña segaren aoak etzuan arri-mutur txikienik ere ukuituko. Erremintaren berri, gutxik zekiten ark bezin ongi.

Eguna ordurako gainbera zetorren, eta, artu zuan salla bukatu nairik noski, burua jasotzeko ere betik gabe an ari zan, jo ta jo, gerri makurka. Orrengatik, itz egin nion arte ez niñun nabaitu ere.

— Arratsalde on, Joxe! Ori da sasoia, ori! Ez al zerate zartzen edo...?

Burua jasoz nor nintzan ezagutu ondoren, segaren esku-lekua galtzarpean jarri ta atsedent-puska bat artuz, erantzun zidan:

— Baita iri ere, Ataño! Ongi etorri! Larri ta arnaska abil! Apusturen bat egin al dek?

— Txerri koskor bat bezela gizentzen ari naiz, Joxe, eta izerdi puska bat ateratzen ote detan presaka igo bainaiz.

— Gizentzen? Eta argaldu egin nai? To sega xar au. Eman akiok oni, aldapa gora eztanda gaizto egiten ibilli gabe. Jetxiko dituk, bai, ire erraldeak. Zer uste uan, bada: jan da edan oparo ta alperkerian biziz, lirain ta serail irautea? Etzeukat nik sobrante aundirik!

Eta bertso au kantatu zidan:

Erraldiak geitzeko
ez badek gogorik,
ez daukak zertan utzi
mokadu goxorik:
eman akuyok oni,
sega xar au torik;
metu ta liraintzeko
ire gerri lorik,
botiketari etzegok
olako pildorik.

— Ori ere bizi-modu tristea da, Joxe. Illunetik illunera lanpean itoa, eta gaur bezin beartsu biar ta etzi. Zure urteekin gañera!

— Alare ez diguzute, bada, esker aundirik ematen. Bazirudik danen almazena baserria dala. Onuntz datozen geienak utsik zetozek, eta beti zer edo zer eraman nai. Biziko bagera, berri, jo bearra zeukagu guk emen. Ez baidute oraindik guretzat erretirorik asmatu. Kaletik

dakarkigun gauza urtearen truke zetorrek; gu-
rea, berriz, garestiegi dala-ta, lana zer dan ez
dakin batek jartzen zioek sal-neurria. Gu beti
galeran. Ongi gure kopeteko izerdiz oretzen die-
gu, bai, jaten degun ogia. Zenbat agure bezela
ibiltzea ere ez dek neretzat egiña. Irurogei ur-
tetarako, agure gordin askoak, kolperik jo gabe,
besteren bizkar jan da edanez, makil txiki bat
eskuan, millonario batzun gisa, lasai asko pa-
sian or zebiltzak. Alperrak aleenak! Gauza dan
arte lan egin bear dik gizonak. Jainkoak berak
ere sei egunean lan egin omen zin; zazpigarrena
jai. Egun ori ez dek oraindik neretzat iritxi.

— Eta guk ez degula lanik egiten uste al
dezu?

— Etzaidak adarrrik jo, Ataño! Ire gilbor
aundi orrek ezetz zioek. Zuek urtearen lautatik
bat ez dezute lanerako; iru ta geiago alperke-
rirako, berriz. Lautatik iru lanpean zeramazki-
gu baserritarrok; atsedenerako bat etzaiguk iris-
ten, eta itxuak ere ikusten ditek ori. Egunaren
irutatik bat sartzen dezute lanean; bitik gora
guk. Zuen lana ez baita txantxetakoa; lertzen
baitzerate; eta, jakiña, larunbat-arratsaldea ere
jai. Igande ta jaiak zer esanik ez, berriz. Gero,
ongi pagatutako opor-aldia. Kontuak atera itzik,
bai, ta, tontoa ez baaiz, laxter igerriko diok ez
gerala gezurretan ari. Etzeok guretzat olako mo-
kadu goxorik. Alare, gure gauzen sal-neurria,
alper oiek jarri bear. Kontzientzirik ere bai al
dezute zuek?

— Barkatu, Joxe: gauz oek utzi ditzagun
bazterrera ta batu gaitezen, danean dago praka

bete lan-da. Baña arritzen nauzu. Leku zakar ontan orren garbi ta arruntean ez dakit nola ebaki leiken. Belar xamurren bat izango da ori?

— Larogei ta lau urte bete-beteak zeuzkat. Belar zallik etzeok alare neretzat. Segak aurrean arrapatzen duna, an ziak ipurdiz gora.

— Larogei ta lau urtetaraño bai? Berrogei ta amarretik gora ezetz jokatuko nizun ta!

— Arrayia! Nere semerik zarrenak ere ondotxoz beteak zeuzkak. Norako asmoak dituk?

— Ibilgiro ona dagon arratsalderoko joera det nik au. Kale-zulo oietako ke min orrek ez dit onik egiten.

—Bejondeikela, motel! Orain al ator alaruka? Alako baserri polita utzirik kalera jetxi ta gero! An ere txakurrak ankutsik alegia?

—Nere kalerako abian aitaren begiratu triste artaz oroitzean, urteak dira, baña gaur oraindik ere biotza korapillatu egiten zait. Ongi edo gaizki egiten nunik etzidan esan, baña zer pentsatzen zuan igertzen etzegon zalla:

Ere buruari bakarrari begiratu bear badiok, baoake, motel! Gure azken urteak goxatzeko, ama ta biok i azitzen ez gaituk alperrik nekatu! Erekoia aleena, oa nere begien aurretik!

Eta ni joan egin nintzan, gurasoak laguntzik gabe utzita. Ongi egin al nun? Ez, Joxe. Gaizki egin nun. Seme on batek, batez ere kristau danak, il arte zaindu bear ditu bere gurasoak; il da gerora ere, aien oroitza beti maite. Ni lasai ta ongi bizitzearren, ez daukat nere gurasoak bear gorrian uzteko eskubiderik. Nere igesak, aien eriotza aurreratu besterik etzuan

egin. Gaur bezela pentsatu izan banu, ez nuan egingo. Orain an dago besteren mende alako baserri polita; mendi-gain zoragarri oek ikusi gabe ezin bai det etsirik artu, biotzak damu badu ere, onuzkero ala bearko du ba. Baña gaur, beste egiteko danak utzita, zure billa nator, Joxe. Zurekin itz bi egin nai nituzke.

— Eskerrik asko, motel. Banaizela oroitzea ere ez dek gutxi egin, neskatx gazteren baten ondoren abillela uste nin-ta. Ori besterik ez bada, nai dekanean asi eike. Egokiera oberik ez dek askotan arrapatuko. Al detana egiteko kupirik etzeukat.

— Lotsa ematen dit aitatzek ere, baña egi biribilla izaki. Euskeraren bizi-eusle zeraten oiek, gaur arte egon zerate, bada, orren zokoratuak. Esnatzen asi ote geran... Itxurak ala dira beintzat. Noizbait bear-ta, bazan ordu. Zure bertso ta bizitzako gora-beraren batzuk eman-go ote zizkidazuken eskean natorkizu, Joxe.

— Zokoratuak diok? Orixe bai gezur biribilla dala! Nere larruan bizi baintz, ez uke ori esango. Ankapean, makilka, astaputz batzuk bezela, parregarri ibilli gaituzute, ta zokoratuak egon gerala, ala-zankua? Bejondaikela, motel! Ik jotzen diguk Astigarraga aldetik!

Nere bizitzaren berri ikasi nai al uke orain? Ondo ixil ta illunpean bizi izan gaituk. Alare pake aundirik etzigutek eman, ez. Gaur iñun ezin kabitu ta ezin egon dan jende berri oni, nere ixilleko bizitz onek etziok argi askorik egingo. Bizimodua ateratzeko, leku gutxi aski izan dit nik.

Paperetan jarritako bertsoak nai badituk, berriz, or dituk nunbait. Errenderi'ko *Bertsolari-ya'n* atereak ere bakarren batzuk izan bear dituk. Aixa billatu ezake oien aztarrena. Oraintxe urte batzuk ere, beste liburu txiki bat atera zidateken, baña ez bertso guziak; eta ez nik biali bezela ere: komeni etzitzaien lekuan aldaketa parregarri batzuk eginta, besteak zearo kendu, berriz. Bertso-sail osoak galdu nizkin betiko, ez baintun nik ordezekoak etxean gorde. Oiek egin dutena guk esatea ere zillegi ez. Baña, bat-batean aurrez-aurre kantatutako bertsoak liburu batean baleude, gazte ta indartsua baaiz ere, ez ioke lurrari kenduko. Mingañetik atearalean aizeak eraman zizkin; arrapa itzik orain! Idazten ere ez baigendun ikasi. Emendik Ameriketaraño argi-indarra jartzeko aña *palo-palo* egiña nauk ni. Ortantxe joan itun nere eskolako urte aleak. «Tontoa ziñalako!» esango dituk askok. Beartu izan nauten lanetan, iñoren atzetik ibiltzeko ez nauk ona izan. Nere aurrean ez uan beti giro. Begira akiok, bestela, ia larogei ta lau urteko aiton baten sega-modua dan au. Bertsotan, lasterka ta segan, iru azio oetara neurtzekotan, larogei ta lau urteko aiton kaskazuririk bada iñun, nai duana ta nai duanean datorrela. Gipuzkoa guziko erronka botia zegok; bandoa ere jo zak, nai badek.

Gizon txiki bat, gantz ta koipe-kutsurik gabea, zaña ta gia besterik ez daukana; kitarraren lokarriak bezin tiran, eten zori, bere lepoko zañak; baña aren biotzak bazeukan kemena. Ume bat bezin zauli; diz-diz zegioten begiak;

aren ibillera ta imintzioak amalau urteko gazte batenak ziruditen. Olakoxea da Joxe bertsolaria gorputzez; lan au bukatzerako, zedorrek eza-gutuko dezu zenbaterañokoa zan espirituaz.

Ubel batetik gerrian txintxilik zeukan sega-potoaren gañean jarri zuan sega, bi beatzekin aoa garbituz; arin-arin eragin ondoren, sartu zuan arraitza bere lekuan; orpoz bota zuan sega, altzairu-ots bizi bat beraizik ere atereaz, eta an asi zan, nere aurrean bertan, belar ebakitzen. Bide-puska batean jarrai ondoren, sega belar-pean sartuta utzirik, nere aldera itzuliz ala esan zidan:

— Onenbeste urterekin orren zauli nago-nean, zer ote nintzan ni gaztetan?

Eta, erdi parrez, erdi serio, bertso au kantatu zidan:

Nere denboran egiña naiz ni
majiña bat aztarrika,
txiki xamarra izanagatik
etzait palta indarrika;
munduan bada larogei ta lau
urtez gorako zarrika,
desapiyua egiten diyet
sega, bertso ta korrika;
nolanaikua etzan izango
ni sortu niñun paurrika.

Ni zer erantzun ez nekila ikusi niñunean, alai parrari eman zion bereala, berean jarraituz:

— «Auxe dek aguretxoa! Zertaz ote dauka onek bere burua?» esango dek noski. Zer

nai uke, bada? Olakoxeak egin gaitzik Jainkoak, eta ni beti umore onaren aldekoa nauk. Negrerrez ere aspertuxea bainago.

Gero, serio jarriz, sega bere eskuetan artuta, jarraitu zuan izketan:

— Oraingo zenbait gaztek etzekit, motel, kortsea daramaten eta burruntziren bat irentsi duten. Ezin ditek gerririk bigundu; segarako, berriz, bigundu bearra zegok. Arraizten ere iñork etziek erakutsi; berak ikasteko algorik ez ditek izan, berriz. Asi orduko, zizel-muturra zirudik oien segaren aoak. Pikatzeko aitzakitan, itzalera gero. Orduak eta orduak pikaldi batekin irauteko, onak zeudek oiek. Asieran bai: bazirudik belaze guzia gosaltzeko ere ez dutela. Ordu erdirako, tomatea baño gorriago jarriko zaizkiguk, eta kitto. Ankapetik ezin kendu. Akulluarekin zirikatuta ere, ez litekek pausorik emango. Basakarana bezin beltz-berde izango nauk ni; baño oiek ez bezelako iraupena zeukat. Tabernan arronkak jotzea balitz, orduan bai: ni bezelako amar ikusteko ere ez lizkitek. Lanak erakusten, ordea, nor nor geran! Xentero! Garai batean arrapatu bear nik oiek aurrean! Anak moztuko ez banizkioten, atzera pasa bearko ziteken, bai; aguro asko gañera. Oiek esango zigutek gero arpegira guri, lengo zarrak lanean ezkenikigula. Gaur bertan ere, nere aurrean arrapatuko banitu, bateonbatzuk gaizki ibilli bearko litekek.

— Bejondeizula, Joxe! Zedorrek aurrea artu didazu; orixe galdetu nai nizun: lengo zarrak gaurko gazteak aña bazirala, eta oraingo aurre-

rapenik gabe lan bikain askoak egin zizkigutela; sendi zoragarriak azi ere bai iskanbilla aundirik gabe; iritxi ziran lekuan beren bertso ta ateraldiekin, umore on ugari zabalduaz gañera. Orixe azaldu-erazi nai nuke: zartzaroan, indarrak aitu ta bat auldu danean, eskaxa dala-ta zokoraztea errez da.

Begiratu zorrotz bat egin zidan, ondoren esanaz:

— Ni zirikatzerá al ator? Liburutxoak egin ta salduz txanpona poliki ateratzen dekala entzun dit, bai. Olako doairik etzeukat nik; ez bainuan idazten ere ikasi. Semeak bai; nik asmatutako bertso-mordoska polita jarri zidaken paperean; aiek ere, zoritxarrez, leioan zeuden lekutik aizeak eramanta, beien azpiak egiteko izan itun.

Eskatzen didaken au iñoren onerako bada, bijoa. Ai, baña errukarri aut. Aiton gizajo onen bizkar jolas ta par egin-araziz txanponak irabazi nai badituk, ar biurtuko al zaizkik danak! Jakiñaren gañean jartzen aut, gañera, nere burutik ateratzen diran bertsorik gaiztoenak iretzat izango dirala. Ni il da gero argitaratuko bauke, berriz —diruarengatik orixe ere egingo genikek euskaldunok—, semeak or geratuko zaizkidak; zeñek ortzak erakutsi, etzaik paltako.

Urtetxo batzutan bizi al gaituk izan ere. Lanpetik burua ezin jasorik dabillen baserritar gizajoa, euskaldun garbia dalako, danen jostallu ta parregarri or dabilkizute. Persona ez balitz bezela edozer biurrikeri egin ondoren, eraman aundikoa dalako, «*¡Es casero!*» esanta egiña

zeok. Iñungo paper zikin, antzerki edo zirko-
tan, baserritar galtz ipurdi gizajoren bat, gilbor
aundi, piper-morruzko sudur gorri, gerrikoa
arrastaka, adabaki desberdiñez osatutako galtza
zarrakin, erdera mordolloan itz egiñaz, ez bade-
zute azaltzen, jaiak gexak dirala, ez dutela gra-
zirik diozute. Euskalerrian bere lekuan zein ze-
gok: euskotar euskalduna edo euskotar erdal-
duna? Zergatik orduan oien bizkar ez dezute
irririk egin nai? Kaikuak aleenak zuek! Ama
beraren semeak ez ote gera, bada, danok? Arek
erakutsitako izkuntzan ari gaituk gu; oiek ez;
alare, gu parregarriak. Nork bere izkera dabil-
kinak merezi al dik olakorik? Amaika iseka
gaizto egin diguzute beintzat. Geron buruak pa-
rregarri jartzen ari gaituk. Berriz ere egongo
gaituk gauden lekuan! Euskalduna ez dek, ezer-
tan ere, oiek baño eskaxago.

Nai dezutena esan ta egizute, guregatik ajo-
la aundirik ez dizute beintzat-eta; baña agure
kaskatxuri onek lengo lepotik zeukak burua.
Sartu dan jende berri onen eder egitearren, ez
dit nere nortasunik saldu; diru ta losintxak ez
ditek nere biotzik usteldu; nere guraso maite
aiek erakutsitakorik ez dit ukatu; lurpean sar-
tzen nauten arte ere ez nauk ixilduko. Zarrok
joan-alean euskera ere baziak. Euskaldun erdal-
zale oiek ez dezute errurik txikiena izango.

— Ez dezu arrazoi makala. Dirua bitarte-
ko danean, euskalduna ez da euskaldun. Ain
diru-zaleak al gera, izan ere, gu. Esnatzen asi
ote geran... Galdu gendun bidea arkitu ote de-
gun berriro... Ala dirudi. Gañontzean, nik azio

txarrik egiteko bildurrik ez eduki; irabazi billa ere ez nabil. Euskerak dakarkidan irabaziakin, praka berri asko ez degu egingo. Maitasunak bakar-bakarrik nabilki ni orrela.

Gaurko egunari berea eman diozu onuzke-ro, eta kezka gaizto oiek bota itzazu bein betiko, bai, ta exeri gaitezen emen, eguzkiaren azken laztan epel ta ipar aize arin ta maitale onen intzirira. Zure bertso ta bizitzako gora-beraren batzuk emazkidazu meserez.

— Nere bizitzako berri jakin nai al uke? Ez didak gutxi eskatzen, motel! Ez baidira danak bart arratseko kontuak. Nere burua ere nekatuxea zegok. Gertakari asko, buruko ganbarazokoetan traste artean galduak. Illunpean dau-den zatar zarrak egoara aidatzea, ez dek askotan komeni, berriz, eta badakik norberak bere bu-ruaren alde egiten dula.

Solasean ari giñan lekutik gainbera, beko txokonean, ke jario, ikusten gendun ainbeste maiten zuan bere baserri xar ura. Ordurako, itzalak, ezkoa ixuriz, zokoak menderatzen ari zitun. Gu alako patxaran ikusita, noski, alda-meneko meta-ziri-muturrean kantari asi zitzai-gun txantxangorria. Entzun zuan orduko, bertsolaria izaki, irriparrez ala esan zidan:

— Ona nekazariaren laguna dan txantxan-gorri maitea! Orixe nauk ni: txantxangorri kanta-ria. Orretxek zeramak nere antzeko bizitza. Urte-giro guzietan kantatzen duan beste txori-rik ez dek. Otz ta bero, udara ta negu, gose ta egarri, zorion ta zoritxar, txantxangorria kanta-

ri somatuko dek. Bertsolari bat bezela. Ni olakoxea nauk beintzat.

Neguaeren arnas izoztuak epeltzen asten diranean, eta mendiak txapel txuria erantzita berdea jazten, txantxangorria, txukun, lirain ta apaña, atariko garo-metaren gañean kantari somatuko dek, goizean, eguarteon, eguerdian, arratsaldean, illunabarrean, berdin beti, kabia egiteko garaia baitu eta inguruan an baidabilki maitea.

Udaraberri, urte-giro goxoa dek ori gaztearentzat. Neretzat ala uan beñipin: lagun on baten billa asi bear nuan garaia. Orduan ixilik egon? Ametsetan ere bertsotan aritzen niñun noski ni. Orduko nere lagunei galde akiek, oraindik bat edo beste bizi dituk-eta. Aiek esango ditek nolakoa nintzan ni: atsegiña, alaia, ezin egona. Nere bertsolari-garra gauzik txikienak piztu-erazten zin; biotza maitasunaren mende baineukan, eta zeukanetik ixuri bear.

Orduko bertsorik ez nian bat bakarrik jaso; danak or galdu dituk nunbait.

Udarako bero zapalak asten diranean, eta eguzkia bazterrak kiskaltzen, txantxangorria ere moteldu egiten dek; baña, erne baago, goiz ta arratsetan beti kantari somatuko dek.

Nik ere kantatzen nin, ez len bezin maiz, ez bainintzan txantxangorria bezin aske geratu. Maitea etxeratu nin, ta kabia ere betetzen an neukaken naiko lana; maitasuna ere, kanpora ixuri bearrean, etxe-txuloan bertan asetzen baizan. Garai ortako bertsoak badituk nunbait.

Udazkenean, gauzak urritzen asten diranean,

udarako aukerak ekarri zitun txori betizu guziak aldegiten ditek; ez txantxangorriak. Au orduan ere kantari somatuko dek. Eziñean bearbada, baña ez dik bere lurrik utziko; emengo eskeren edo lubakiren batean sortuko uan, eta bizia emen utziko dik.

Amaika larri-aldi ibili dizkit. Dana zegon lekuan utzita aldegitoko amaika zirikalde ere bai. Baña nora joan? Erea dekan lurrean ezin baaiz bizi, besterenaren billa abiatu? Urrungo intxaurrak ez niotek lausotu. Luze ta gaiztoa izan dek nere udazkena. Biotza legortzerañoko erasoak zapaldu niotek; baña alare nere bertso-jariorik ez dek agortu. Aberats etxeetan jaten diran zangurro, aingula, izoki ta aragi-xerren irrikan ez nauk bizi. An bean dakusgun etxe txiki-txukun ura dek nere sortetxea, eta larogei ta lau urte oetan antxe bizi nauk. Jainkoak nai dezala bizia ere bertan uztea. Bizi diran nere bertsorik geienak, garai ontakoak dituk.

Neguan, berriz, zenbat erruki ez dit ematen txantxangorriak! Bular gorri ura puztuta, zer janik ezin billaturik, legorpe ta ukulluetan barrena, zenbatek ez du katu ta txori-arteetan beren bizia uzten! Txitxare-buztan bat billatzen badu, uraxe aski dik, epel pixar bat nabaitu orduko kantari asteko. Datorrenari arpegi emanik, bere lurrean ilko dek.

Nere negua ere urbil dek oraintxe. Lenengo egunak joanak dituk noski. Laster banoala ta ixilik egon? Ez, motel, ez! Nabillen lekuan kantari somatuko nauk azkena jo arte, nai duanean datorrela. Baña ez dit idazteko asmorik.

Txantxangorriak bere kabia asko maite baidu, ai motel!, euskera ta Euskalerria nik baño geiago maite duenen bat arkitu ote leike gero?

Bai, orixe nauk ni: meta gañean kantari ari dan orixe, txantxangorri kantaria. Urretxindor izateraño ez bainaiz iritxi, bañan Jainkoak ematen didanarekin laket. Zetozkidan bezela gauzak artuz, daneiri biotz ona zabalduz, negarrez edo parrez, urte-giro guzietan kantari.

Irabazi geiegiaren atzetik ere ez nauk ibili. Sardin zar baten paltik ez dek izan gure sukaldean, ta uraxe aski uan neretzat. Munduko milloi guziak baño naiago dit nik biotz otxan, apal, atsegin ta goxo bat aldamenen. Onek beti poz-tuko au; aiek, kezka besterik ez ditek emango.

Grazi gutxiko kantaria bada ere, lan aspergarriren batean bakarrik ari naizela, *plust!*, bere papar gorri ura erakutsiz, aurreko urritz baten zipotz gañean ezeren kezkek gabe kantari nabaitzeak, beti lasaitu izan niok. Orrek berezkoa dik ori; orrek, daukana ematen ziguk. Oien kontua daukan Jainkoak, gurerik ez ote du edukiko?

Gure Jainkoak bere nai utsez eman didan bertsotarako erreztasun au ere, geienetan beintzat, lagun urkoaren onerako erabilli dit. Amaika taberna-txulo, erriko jai, amaika illetan ere lagun urkoen biotz saminduak alaitzen alegiñak egin dizkit. Bertso batzuak kantatuz, zenbat barruko naigabe ixil ez ditut arindu! Lertuko ez banaiz, iñork entzun edo ez entzun, nik kantatu bearra zeukat. Ori, nere arnasa bezela, berez datorrena dek.

Baña jaio ta orain arteko bidean ainbeste lokatz-zulotan zikindu banaiz ere, beti artizarraren argira nebillek; bataioan Jainkoak itsatsi zidan sinismenaren argira. Zamapean ez lertzezkeroz, zerbaiten bearra banin.

Txantxangorria, ondo ixil ta pakean bizi dek gaxoa, eta, iñori saririk eskatu gabe, danak poztearren kantatzen dik. Ark ere, ordea, etsai gaiztoak izaki, eta aien atzaparretan erortzen dek askotan.

Ondo ixil ta illunpean bizi izan nauk ni ere. Etzidatek pake aundirik eman alare. Idaztak bai, Ataño, liburu au! Ez neregatik; nereak egin dik oraintxe. Bizi izan naizen bezela, ixil ta illunpean aldegin nai dit emendik. Ondoren datozen gazte oiek esnatzearren idaztak, bai, Ataño! Zoriontsu bizi bear nuna, gudate madarikatu oiek illundu dizkitek nere bizitz ontako egunak. Eraso batetik burua jaso orduko, bestea gañean. Olaxe joan dituk nere larogei ta lau urteak. Erbeste ontan lau egun igaro bear eta besteren erruz negarrez, beti anaiak alkar iltzen. «Gudazale madarikatuak!» maiz aski esaten zin nere aita zanak, eta «Gudazale madarikatuak!» izan dedilla nere mundu ontako azken irrintzia ere.

Gazteak: maite zaitezte eta ez alkar iltzen ibili, maitagarria baita bizia.

I bezin liburu-egille ona banintz, *Txantxangorri kantaria* izenarekin bataiatuko nitek liburuxo au.

BORDAXAR

Txantxangorri kantariak badik bere kabia. Asko maite duana gañera. Obeak, erosoagoak, atsegiñagoak ere, bearbada geienak izango dituk. Baña ori dek nerea, eta etzeukat saltzeko. Bere ama, eder ta aberats ez dalako, zapuzten duan semea, ezin gentzakek semetzat eduki. Bere aberri, sorterri ta jaio ta bizi izan zan seaska goxoa maite ez dituna, neretzat ez dek gizona. Bean, ketan daukagun ori dek txantxangorri kantariaren kabia. Aoa ezik, biotza ere bete-bete egiten didan Bordaxar.

Maitaleak ezin dik maiterik aztu. Txantxangorri kantariak ez dik Bordaxarrik aztuko.

Nereak kontatzen asi baño len, kabiaz itz batzuk esatea, zer derizkiok, Ataño?

— Nere iritziz, bearrezkoa dala. Bota dakizuna!

— Garai batean, Jainkoak zekik noiz, ikazkiñen txabola txar bat omen uan ori, baso itxu baten erdian jaso. Ortik Antxo aldera, mandobide zakar bat ebaki ziteken lenengo. Or egiten

zizkiteken beren txondorrak; ikatza ere bai, ja-kiña, eta mandoz Antxo aldera atera gero. Polliki-polliki, arian-arian, tokirik erosoena jan zituztenean, garbitu ziteken txokon ori dana. Errexena ebaki eta akitu zituztenean, beste nonbaitera joan itun ortik. Aurreko egal oiek danak, nere gaztearoan ikaztu zizkiteken. Ametz ederrik bauan ortxe. Itzalik etzeukan txokon ortan, esan bearrik etzegok belarra mardul ta ugari etorriko zala. Artzairen batek laxter joko zin begiz txokon babes ordeka xamarra ta ezea zala, artalde batentzako aukerakoa. Lengo txabola xarra aunditu, berritu, ta or moldatu zin bere ta artaldearen lekua, lengo txabol xarrari Borda izena jarritz.

Ondoren etorri itun diru-zaleak eta dirua zutenak; negozioko gizonak alegia. Dirua zuten ezkerok, lengo borda koskorra aunditu. Dana bertako gauza. Etzin karraio ibilli bearrik. Arri ta zugaitz-paltik ez uan bertan. Iñorenak etziran barrutiak, beretzat artu. *Bordaxar* izen berria jarri ta bi bizitzetan berexi; bi bizitza kaskar, ondo kaskarrak alare. Orra bi sendiren lekua moldatu.

Orduan ere, orain bezela, ezkonduko itun noski, ta gaixoak an sartuko itun maizter. Negozioko gizonak, aien etxe-premia ikusirik, etxegintza kosta zitzaion baño errenta aundiagoa jarriko zieken, urtero ordaintzekotan; eta lasai an joango uan erri aundiren batera, maizterren bizkar bizitzeko asmoan. Urtero-urtero berak jarri zuan alako bi kobratuz, bapo gure aberatsa. Berea kobratuz gañera, jarri zun diru pixarra gora

ta gora; baserrian baserritarrak egiten zuan aurrerapen guzia nagusiarentzat baizan. Orra nekazariaren izerdia: mando batek aña lan eginta bizi zala, jan, jantzi ta aterpea bazula, gaur bezin beartsu biar.

Len zeukana, kolperik jo gabe azi ta azi; etzeukana, berriz, ito ez besteak egin ta beñere gorakorik ez. Bideren bat egiten bazuan, nagusiarena uan; luberriren bat ateratzen bazuan, nagusiarena uan; zugaitzen batzuk aldatzen bazitun, berdin.

Auek danak egiñagatik, etxetik bialtzeko beldurrak, beti erregaliren batzukin, loxintxaz, agurka, buru-makurka, nagusiaren eder nola egin ezin asmatuz. Gaur arte, olaxe zapalduak bizi izan gaituk nekazariok. Izaia beti gure odolak edaten.

Gure baserri xar au beñepin, ez dek oraintxekoa izango. Diotenez, San Inazio Paris'tik etxera etorri zanean, emen artu omen zin atsedan. Errenderi'ko Galtzara-borda'tik Bordaxar'era, emendik Konkorrene'ra, ez uan bide laxter eroso. Berak jakingo zin zergatik egin zun ori.

Gure abizeneko lengo zarrak noiz sartu ziran emen, ziur esateko etzekit nik. Udaletxean jakingo ditek noski.

Goiko arrobi aundi ori indarrez kendu zigutenean, orko garbitasunak egitera joan zan batean, ala esan omen zioteken semeari:

— Etzerate oraintxe-oraintxe sartuak etxe ortara zuek! Zuen berreun urtez gorako arrastuak bazeudek emen!

Berreun urte oetan, zentimorik bota gabe

eta buruauste aundirik gabe, jaso ta jaso ari izan dituk nekazariaren izerditik aberatsak. Etxe-konpontze guzia, maizterraren bizkar. Etxea salgai jarri gero; len ere ederki kobratua zeukak bere balioa.

Gudatean, lanerako iñor gutxi giñun; baña negu-partean ez genizkin nolanaiko lanak egin.

Aitzondo'ko Joxe Martin, goian bego, oraindik sasoiko gizona —ezbear batek eraman zin mundu ontatik—, oso langille artetsua uan. Arek lagunduz, dotore jarri genin etxe-barrua. Bi sukalde zituna, zarra bota; bi ukullo zituna, bateratu. Bi bizitzak berexten zitun erdiko orma lodi ortan, amar zulo egin ta antolatu genizkin beien ganbelak; eta bi bizitzetan bizi giñanak, danak batera pasa ta ukulloa bestera. Jainkoak bestek etzekik, guk an zer lanak egin genitun. Nai ta nai ez egin bearra baizegon. Aren barruan, bestela, ez baizioken bizitzerik ere.

Gudate ondorean, ordea, dirua lur jota geratu uan. Nagusiak, berriz, Prantzian bizi baidan, etzeukaken baserri oekin negozioarik, eta danak subastan ateratzea pentsatu zin. Ortarako, zenbatean jarri bear zuten, ikusleak etorri itun. Ain etxe ederra ikusi zutenean, txoraturik geratu itun. Erosi nai bagendun, gu giñala lenengoak, eta lareun millatik goragoko eskeñia egin ziguteken. Guk ez genieken erdirik ere eskeñi.

Etxeko aurrerapen guzia gurea zala, guk egiña; ez bazan eroriko, nai ta nai ez berritu bearrean arkitu giñala esan genionean:

— Etxea nerea da, eta nere etxean eginda-

ko aurrerapenak, nereak dira! —erantzun ziguken.

Ori ere legea izango dek: guk jarri gendun dirua eta egin gendun lana, arena zala ta ari ordaindu bear geniola, etxerik erostezkeroz.

Donosti'ko *Falange*'ra jo ziteken orduan semeak; aiek baizeukaten indarra. Aiek ere oso-osorik nagusiari eman zioteken arrazoi. Aundiak danean zeuzkak eldu-leku onak. Ez gaituk, ordea, gu ere atzera geratzeko egiñak; aien ateari jarri genioken maratilla.

Etxea arena uan, jakiña; barruti batzuak ere bai, baña ez denak. Erosoenak eta onenak nereak itun. Etortzen ziran erostun guziak, emen etzegola ezertan asterik, ez, ta joaten itun.

Gerok lenbizi eskeñitakoa baño ere gutxiago ordainduta egin giñun etxearen jabe. Ordurako ederki ordaindua zioken etxe orren balioa.

Ederki kostata egin uan, bai, txantxangorri kantaria, bere kabiaren jabe. Jaunari eskerrak, gaur dana nereak dek.

JAIIO TA LENENGO URTEAK

— Orain itzalak artzen ari dun beko etxe xar ontan sortu niñun ni, eta milla zortzireun eta irurogei ta amairuan argira azaldu. Etzekit etxean edo kanpoan; etzidateken gurasoak esan. Nolanai dala ere, etzebiltzaken gaxoak ondo; gu-datea bete-betea baizebillen.

Gure aberri maite ontara, alkarri txanda ezin arturik zetozek ezbearrak. Orduan ere ez geunden pakean, ez, gu. Nere guraso maiteak poz ainbat naigabe bazebiltzateken. Etxe guzia soldaruz bete edukitzen baizuten. Egundo bukatuko ez dan seta ori, azkeneko *txurien* ta *beltzen* auzia bete-betea zebilela etorri bainintzan ni mundura. Izan ere, xelebreak gaituk euskaldunok. Zer ikusirik ez daukagun arazo danetan sartzen baigera. Zer ajola ziguken guri, au edo ura Madrillen errege jarri edo ez jarri? Bat bestea baño ohea izango zala guretzat? Bazeiken, baño biak zapaltzalle.

Azkenean, euskaldun gizajuok etsaiari salduz, Judasena egin ziteken. Bi alderdiak, alkar besarkatuz, bat egin ziteken. Gure askatasun

pixarrak kentzeko pozez zebiltzanak, etziteken aitzeki txarra izan, armiarmak eulia bezela betiko lotuta uzteko. Larru gorrian bizi gaituk geroztik.

Etxea gudariz betea zegola etorri niñun ni mundura. Orrengatik, etzekit etxean edo kanpoan jaio nintzan. Gudari biotz-gogortu aien artean ez baizan atsegin izango.

Nere aitajaun zanak zenbat aldiz etzidan kontatu nere bataiorakoan gertatu zitzaiena. Beltzak, Donosti, Altza-gain ta Errenderi'ko inguru origuzia beren esku zeukateken. San Markos ta Txoritokieta, aurreko bi mendi legor oiek, berriz, txurien mende zeudeken. Gure baserri inguru oetan iskanbilla larrian ibiltzen itun goikoak eta bekoak alkarrekin. Itxasoa arkaitzari zaplaka aritzen dan bezelaxe, bi suren erdian baizegon gure etxea. Orduan ere erasotzera zetozen beltzakin topo egin omen ziteken bidean. Aieiri lekua uzteko baztertu ziranean, aien buru egiten zuan mikelete bibote-aundi batek, pia-kaitz xamar, zorrotz galdetu omen zioteken:

— Zer daramazute or?

Aiek, berriz, Ama Birjiñak Erodesen soldaruei bezela:

— Aurra, jauna —erantzun omen zioteken. Mikeleteak etziken sinistuko noski:

— Ikustagun! Ikustagun!

Eta, ni ikustera joan zanean, etzekit zer arpegi jarriko nuan. Amandreari begiratzuz eta erdi parrez, ala esan omen zioken:

— Dagoneko, karlista amorratua dezute au. Bere begiitsuakin, usaira ezagutu nau, ez nai-

zela bere aldekoa; mingaña aterata, iseka egin dit.

Nerekin zijoazenak, par egiñaz, erantzun omen zioteken:

— Kristau zintzo ta euskaldun jatorra izan dedilla, bai, ta or konpon txuri ta beltzak!

— Karlistak aurrean bializ, San Markos gain ortan amaiketakoa egin baietz gaur!

— Bai, zuen betiko leloa! —esanta, aurrera jarraitu omen ziteken nerekin. Beltzak ere bai beren bidean gora, ojuka ta irrintzika.

Arkaitz txiki gain ortan zeukateken txurietakoak beren guardi aurrelaria. Etsaiak arkaitz artetik gora nabaitu zitunean, sutu zieken gainbera, beltzak urbil zirala goikoei adieraziz; eta, al zuan bezela, mendiaren arunzko aiekara iges egin zin. Etzeukaken, ez, igesbide errexa, bi suren erdian artzen baizuten.

— Guardiko txakurrak zaunkaka igesi ziazik! Gaurko amaiketakoa San Markos'en egin baietz!

Irrintzika asi omen ziteken beltzak sua. Gure etxeakoak, jakiña, dana zegon bezela utzi ta etxetxulora, bateonbat gallentzen zan arte.

Bataiotik etxerakoan, dana ixil; ez omen uan kinkiorik ere. Bide-baztarretik San Markos aldera begiraturuz, ala esan omen zioken nere aita-jaun zanak amandre zanari:

— Gaur ere gure beltz gizarajoei kukuak oker jo die. Goiko mendian lengo ikurrin zarra dabil dantzan. Amaiketakoa oztuko zitzaien.

Igesari eman ziotenean, goikoak urbil xamar izango zizkiteken nunbait; eta, il da elbarrituak

biltzeko betik artu gabe, irrintzika igo ziranak, aldapan bera itxumustuan eta larri sartu omen itun Donosti xarrera, San Markos gañean zeukaten amaiketakoaz aztuta. Orduko balak ere sartu egiten baiziran.

Etxe-azpi aldetik, arkaitz txiki gain ontan, txabal-une bat badek, kanaleko goiko txabala deritzana. Bala galduren batek jota, or geratu uan mikelete bat, txulo txiki batera erorita, ezin joanik, il zori.

Ark ere, bere erioan, adierazi nairik noski bere egoera triste ura, iñoizka sututzen omen zizkin tiroren batzuk. Batek beñipin, sukaldeko leioko markoa zulatuta, bataiotik ekarri ta oraindik amandrearen besoetan nengola, oni bularrean arramaxka bat egiñik, nere burua joko ez joko igaro ta aurreko orman ziplatuta geratu omen uan bala. Zenbaitek añakoa izan banu, garbitzen nau bertan. Tiroan ia bi txori. Gaur oraindik bala-zulo ura an zegok leioan.

Izutuak geratu omen itun danak. Aita zanak esan ere bai orduan:

— Ai, seme, seme! Odolezko bataioa ere ez uan urruti! Neri ezik, iri ere gudateak ez ditek on aundirik ekarriko!

Etzin gezurra esan. Gudate oien zipriztiñak ederki asko igurtzi niotek geroztik. Nere saminaldian maiz aski esan ere bai nere buruari:

— Obe uan orduan bala txar arek il baiñu! Jainkoaren aingeru, onenbeste neke gabe biziko intzan betiko zorionean; eta orain nola bukatuko dekan ez jakinki gañera.

Nere bataioko bazkari-legea egitera ziaziken.

Ura andik tiroka ari zala arraisku txarra baizeukaten, dana zegon bezela utzita, gazteak, nere aitajaun zana ere bai, mendira atera omen itun. Odol-ustutzen, ia azkenetan, arrapatu ziteken. Bataiorakoan neri begira-begira egon zan mikellete bibote-aundi ura omen uan. Bereala alkar ezagutu omen ziteken, eta aitajaunari pake-pakean eskua luzatu ere bai; eta, bien eskuak bat egiñik, danak batera *Nere Jesukristo Jauna* erre-zatu omen ziteken. Eskerrak eman nai zitun itxuran, irriparrez, gazte aien besoetan eman omen zin bizia. Gorroto aundi gabe zebilleken ura ere gudan. Bertan zuloa egin, lurra eman, zurezko gurutzetxo bat aienez lotua gañean jarri, Aita gure bana esan ta lasai-lasai bazkaldu omen ziteken. Gaur oraindik billatuko nizekitek bere ezurrak. Izen aundiko gizona omen uan; mikellete Arandia edo ortatsuko izenekoa.

Ainbeste urtean, itxura gabeko gudate odoltsu arek, leporaño ase ta nazkatua zeukaken jendea. Udara aldean beñipin, gudari bat ikusi gabe asteak igaro ondoren, gutxiena uste zan orduan azaltzen itun txuriak edo beltzak, arrapatzen zutena berekin eramanaz, baita mutil sasoikorik ere topatzen bazuten. Odol otzean bere anai bat iltzeko prest dagon bati, urte guziko irabaziak kendu ta sendi gixajo bat, iñorekin sartu gabe pake-pakean bizi zana, miseririk gorrienean utziagatik, zer ajola bear ziok? Banko batetik indarrean lapurreta egiten duan bati bi tiro ematen zizkiotek, eta beste ori ez al da indarrean lapurreta egitea? Jaungoikoak goikoentzat eta bekoentzat eman zizkin bere aginduak; eta gizon

petral onek, bein agintzen jarri ezkeru, zergatik bere onerako, Jainkoarenak zapalduta, jarri bear dizkik bereak?

Amasei urtetarako bere azi-burua artutako anai bat banin; alako sarrera batean berekin eraman ziteken. Aita zanak, amaika atzera-aurrera eta ainbeste ate jo ondoren, noizbait etxera bildu-erazi zin. Borondatez joaten etziralako, joka ebaintzen baizituzten. Espartzin-zolakin joka, sekulako bildurtzen zizkiteken; eta, beste alako-ren bat artzeko izuz, gurasoak utzi ta igasi joaten itun. Oñaze ikaragarria dala zioteken gure lengo zarrak.

Gudaren bukaera laxter zala-ta igerri ziotenean, Altza aldeko jende orrek pegaizu gaiztoren bat egin nai ziguteken. Gure baserri maite au, negu-partean beñipin, txuriz betea egoten baizan. Ori ziteken beren aterpe. Beren billerak ere askotan or egiten zizkiteken. Seireun gudaritik gora bizitako neguak bai omen itun. Gure etxean etzioken biarko ezer uzterik, egunean egunekoa ta kito bizi zirala. Betik salarako zurubi edo eskallera, bide aldapatsu baten antzera, mallarik ere ez ezagutzeraño, betiko gora-beran lokatzez bat egiña egoten omen uan. Seme-alaba gaztez betetako sendi bat bizi bear etxe berean, aien tartean. Ainbeste jenderekin ezin buruturik eta etxean lotarako lekurik etzegolako, mendi-zulora joaten giñun arratsean lotara, dana arrotzen mende utzita.

Gipuzkoa guziko bei-sariketa batean lenengoa atera zin gure etxeko bei gorritzata batek. Orduko oroigarri emandako asko maite zuan medalla

eder bat bazin aita zanak. Oraindik ere zokoren batean or izan bear dik nunbait. Olako arrats batean kutxatik ostu zioteken. Ura galdutako aitaren pena! Biurtzen zionari bost duroko eder bat agindu ziokeen. Garai aietan bost duro diru aundia uan. Ostu zuenak, damututa noski, mairan oregiñan ari zan illunabar batean, oretara bota ziokeen amari, jende artetik, ixilka, bost durokorik eskatu gabe. Oietan ere, alkar iltzen zekenduak egon arren, kristau biotza zutenak izaki oraindik. Olaxe bizi giñun, eta geienon pake-naia ez uan nolanaikoa.

Ainbeste ekin-alditan gure txoko maite ta aurreko mendi legor oiek ezin artua, min ziteken beltzak; eta azken orduan, guda bukatu aurretik, beren azio txarra egin nai ziguteken. Nondik edo andik kañoi koskor bat sortu ziteken. Altza-gaiñ ortan jarrita, amaika saio egiña omen uan; baña ale bat bakarrik ez omen zin San Markos gañeraño iritxi. Alperrik ari zirala etsitakoan, beste demoniñozko asmo bat artu ziteken: inguruko baserriak erraustea.

Iru urteko ume mukizua nintzalarik, gudaren bukaera aurki zala-ta gure txoko ontan jendea alai ta pozik zebillen batean, zanpetako gaitzak bazirala nunbait eta zer ote zan ikusi-mukusin, bazkaltzen ari giñan lekutik atera giñun, eta bidez be-aldetik aurre ortantxe bertan zegon baserri kaskar bat errausten ari itun. Ataño, ire izena zeukaken baserri kaskar arek ere. Oso tira-bide erosoan baizeukaten, bereala goi-beak jo erazi ta kiskali ziteken. Orain berriro arte bere orma zar batzuk txutik iraun ditek. Amai-

ka txepetxek kabia egindako orma zarrak.

Txurietako amorratuenetako bat uan orko maiorazkua; aundi, ausarditsu ta indartsua gañera. Lau beltzetako batera, ta berak bakarrik, katibu egin omen zizkin bein. Etxea erraustu zioten amorruez, Altza'ko iru edo lau baserririk onenak kiskaliz, iges joan uan emendik. Zartu ta gero, noizbait azaldu uan ainbeste azio txar egin zuan errira. Xarra ta luzaroan miñez ederki aitu ta gero, Jainkoari kontu eman ziokeen gaxoak.

Ataño erraustu orduko, gure baserriari eraso zioteken. Zerbaitetarako gauza ziran puskak, oraindik gelditzen ziran pixarrak, atera zizkitek kanpora; eta nai zutena egin, an geratu giñun ixil-ixil begira.

Azpitik zetozenak, gañera baño len, mendia jota lertzen itun; goitik zetozenak, berriz, fi-fi-fi gañari eraginda, aurreko arkaitzean. Iñundik iñora ezin ziteken gure etxerik asmatu. Aurreko mendixka orren kolkoan babestua baidago. Etsi zutenean, ixpi bat biali ziteken: gure baserri ori nun zegon ark erakutsiko ziela. Alper-alperrik itun aien jardunak; kañoi txar arekin ezin ziteken ezer egin. Emengo gazteak, ixpia arrapatuta, bizia kendu zioteken. Iru urte nizkin artean, eta gogoratzen nauk. Orduantxe utzi zioteken pakean. Lenbiziko gudatean kiskali zuten baserria, txutik geratu uan azkenekoan. Gaurko aurrerapenak izan balituzte, laxter bukatuko zizkitek etxe xar onekikoak. Aurreko tolare artan, gero luzaroan eduki omen ziteken kañoi xar ura, eta goizero uraxe ikusi gabeko onik ez omen nin izaten.

Ainbeste urteren buruan, bukatu uan guda odoltsu ura ere. Nik ezer gutxi supritu nin, ume bainintzan oraindik; baña nere guraso maiteak gorriak ikusiak itun. Ainbeste urtean etxea jende arrotzez betea, nai zutena jan ta egiteko eskubidea zutenak, besteren gauzen jabeak. Ia sortzen zuten guzia besterentzako.

Etxea bete ume, aziendak erdiak bederen kenduak. Etxe zikiña, purrakatua, berri-berritik asi bearra. Lau urte aietan, len egiña jan, berririk egin ez, doi-doi bizi zirala; besterik ez. Errex zioke burua jasotzen! Seme-alabei dote ona emateko alibio ederra! Bazter guziak ondatu; zelaiak urteetan ongarritu gabeak; alkarren gorrotoa azi; gauzak zuzendu bearrean, okertu... Gudaren ondorenak! Lenengo, etxea kiskali. Berritu ta burua jasotzen asi ziran orduko, beste eraso. Buru egiten zutenak, berriz, jolas baten bukaeran bezela, alkar artu ziteken. Aiek, geienak beñipin bizirik atera ziranak, beren graduakin ta beren lekuetan geratu itun. Bitartean, mendeko jende arloteen negarrak, nork txukatuko zizkin? Gudako umezurtz ta alargun gaxoei, nork lagunduko zieken? Ixillean negar egin bear, errukarri maiteak; eta, biziko bazaran, gizonen itxaropen aundirik gabe, lanari lotu bear berriro, urrengo erasora arte.

Gudazaleak, berriz, lengo lekuetan, erria odolustu ondoren, sekula bezin aundi eta aberats, beste guda baten moldaketan. Oientzat etzegok zigorrik. Txikiaren bizkar, aundiak jolas. Euskalerrria, berriz, guda bakoitzeko kate-malla bat estuago.

AITONA

Nere aiton zana, arixe Jainkoak zerua diola, ezin nezakek ixilik utzi. Salbador zin izena. Zazpi urte nituneko il uan nere aitona, eta artaz nola oroitzen naizen ni oraindik! Nere begien aurrean ikusiko banu bezelaxe! Ainbeste maite al nin, izan ere. Nere gurasoak lan egin bearra zeukateken, ta, jakiña, seme-alaben eder egiterik ez askotan. Amari lanean ez galeraztearren, beraizik eramaten bainiñun aitonak, nere ordurik geientan beñepin aitonarekin nizkin jolasak.

Ura uan gizon-puska! Ortze-ortxe ni alako bi bai. Aundia ezik, ona ere bauan. Bere belauen gañean exerita, makiñatxo bat ipui gozo entzuna niok. Lanerako ez uan gauza, zartua baizan ordurako. Ainbeste urtean berak laiatu ta landu zitun lurak ikustea, oso gogozkoa zin berri.

— Lur maite onek emandako irabaziz, seme-alabak aurrera atera dizkit; eta orko neke ta izerdiaren sariz, Jainkoak bere ondora artuko niok aurki.

Askotan entzun nizkioken itz auek. Sinismen aundikoa baizan.

Anka ankari eziñik, eta alare egunero ateratzen uan, eta ni bear beti bere ondoan.

Xarraka-xarraka bere blusa motz ura jantzi ta, bi eskuak ipur gañean jarririk, barrutiko bazter guziak aztertzen zizkin. Nere gurasoak lanean ari ziran lekura joango uan. Aiekin itz aspertu bat egin ondoren, aurrera berriz ere. Beko txoko artan aritz luze ta mardul bat bauan; bere ura artzaren beso luze aiekin neurtu gabeko onik etzin izaten.

— Egi ontan etzeok olako zugaitzik. Onek daukan ostaje ta itxurarekin, orain arteko markak autsiko dizkik! —esan ta konten gizona.

Patar artan gora, erbia bezin arin ateratzen niñun ni; ura, berriz, eziñean gizajoa. Geiegi zamatutako tren-makiña zirudiken, aldapak gora ezin igorik, arnaska. Askotan esan zidaken:

— Ai, billobatxo! Ez nauk ezertarako gauza! Pipiak jota niok! Au izango dek noski nere azken ateera. Ai, umetxo! Ire urteak baneuzka! I argira, ni illunbera! Zer egingo diegu, bada? Ire urteak izan nizkin nik ere eta... Exkaxagoak badituk; amaika gazteagok aurrea artu zidatek!

Baña urrengo arratsaldean ere betiko ateera.

Muño baten gañean exeriko uan, eta arnasa lasaitu arte, igeltsuzko pipa txapelapetik atera; toxa ere, geienez, berak erein ta landutako tabakoz betea edukitzen baizun. Beatz aundiarekin zanpaka-zanpaka beteko zin pipa. Toxa gorde eta dunda, bigarren edo irugarren kolperako, piztuko zin. Aize piska bat eman ondoren, pipa

sutu ta lasai, ke jario, an egongo uan nere jolasei begira.

Ni, berriz, txakur txiki baten antzera, erdi larru bixirik laxterka ta iraulka, zaldaleak irabazten an ibiltzen niñun bere inguruan, batean jetxi, bestean igo; etzaidaken neri arnasik berotzen.

Pipakada bukatzen zunean, esku zabalaren gañean kolpe batzuk emanaz, garbitu ta sartuko zin berriz ere txapelapean pipa, eta bere ondora deituko nioken.

— Onuzkero jolasean aspertu aiz, Joxe, eta ator onera!

Ni bere belaunen gañean artuta, bolara batean pentsakizunez ixil-ixilik mendi aldera begira jardungo zin; gero ala esango zidaken:

— Ikusten al dituk mendi-egal auek, zeñen eder ta ezeak dauden? Orko zugatz-aukera? Oiek danak nereak dituk oraindik, eta, Jainkoak nai badu, iretzat geratuko dituk gero. Nereak diralako ere maite itzik, nik maite ditudan bezela. Orko barrutirik kaskarrena ere ez dek saldu bear gero! Dirua bereala joango zaik, baña ori betikoa dek.

Gero, xoxo, birigarro, kuku, txori ta kilkerren kantu-zalaparta entzunik:

— Zerua leku ona izango dek, baña ai, mundua ere ez dek bada txar-txarra! Beti sasoi-koa izatezkeroz, iñork ez likek emendik joan naiko. Zartu ta auldu egiten ordea. Orduan zertarako aute munduan?

Luzaro pentsakizunez, norbaitekin izketan ari balitz bezela, ixil-ixilik egon ondoren, bat-batera zutituko uan, ta:

— Goazen etxera! Biar ere zabalduko al dik eguna!

Arri-gain batean legortzen zeuzkan tabako-orriak sorta batean artuz, etxera joaten giñun. Kupelategira zuzenean; an, kupelaren gañean zegon basotik, bi edo iru basokada edango zizkin, eta bapo gure aitona. Nai ta nai ez laxter utzi bearko zitula jakinki eta ezin etsi ala ere. Norbera jaio ta bizi ta ibilli dun lurrari maitasuna artzen baizaio.

Ura zan gizon-puska, luze ta zabala, gilborrik gabeko serall ta tentea. Oraindik ere, bere ille txuriaren gañetik, txapela, aurrera ixurian; igeltsuzko pipa txuri bat ezpañetan; txapiñen gañetik, ardi-larruzko abarka aundi batzuk; eta blusa motz bat soñean, bere besoak dilindan eragiñan zitula, zartuta ere gizon gozoa uan ura. Nere burua añako atzaparrak bazizkin arek. Aita zana ere gizon polita uan; aitonaren alderatze-korik ere ez ordea. Aren bularreraño ez niñun, berriz, ni. Semeak aundiagoak ditutenari eskerak; beti ttikitzen-ttikitzen, azkeneraño aituko ote giñan bildurrak artu nioken, motel!

Arrats batean, gizarajoa su ondoan, billobatxo ondoan artoa aletuz, kontu-kontari ari zala, min txuria egin ta oieratu ziteken. Sendagillearen aginduz, biotzekoa zula-ta arrats artan bertan artu zizkin elizakoak.

Apaiza Jaunarekin etorri zanean, argi xamar oraindik aitona; ez uan asko izutu eta biotz-barendik itz oek atera zitzaizkioken:

— Len ni joaten nintzan zure etxera; gaur

Zedorri zatoz nerera! Jainko maitea, ongi etorri!
Ordu larri onen zai negon aspaldian!

Elizakoak artu zizkin, eta goiz aldera, ondo-
eza eginta, gorputz geratu uan.

Bere il-kaxan kandelen erdian il-otza zegola
ere, errespetoz begiratzen zioteken auzoak ari.
Sinimentsua uan oso; eraman aundiko gizona
gañera. Jaio ta il arte bere bizi-modua atera zuan
etxetik, eraman ziteken betiko. Ez nin bereala-
koan etsi. Su-ondoko aulki artan noiz exeriko
beti zai, baña ez uan etorri. Betikorik ez baigera
iñor.

Bere sasoiean, aiton au bilduko zuan kristau-
rik ez omen uan inguru ontan guzian. Ona bai,
baña azio txarrik ez egin ari.

Lenbiziko txuri ta beltzen gudatean, gorriak
ikusitako gizona uan au ere, gizajoa. Urteetan
etxea besteren mende. Gudate artan etxea erre
eta aziendak ere, ziran aleak, bertan kiskali zaiz-
kaken. Etxea jaso ondoren, zorrak ordaindu bear,
eta aziendak ere bear, bazeukateken galtzak bete
lan. Etxeko lanaz gañera, kontrabandora jo bear.
Apizio gaitza baizun orduan kontrabandorako
jendeak.

Karabineroak, berriz, etsairik gaiztoenak.
Oien errañurik ere etziteken ikusi nai izaten etxe
inguruan. Gure txikitan ez genin emen erderik
aditzen; alare, karabineroak inguruan zirala ja-
kitean, amaika bider kantatu genizkin, norbaitek
erakutsita, onoko bertso txar oek:

Carabinero,
poco dinero,

poca fuerza,
mutur beltza.

Bere anai-arrebarik geienak ezkondata etxetik aldegin ondoren, aitonak asko maite zuan anairik gazteena. Bere ondoan bizi omen uan oraindik. Argiaren orduak baserri-lanean igarota, gau askotan, txanpon zikin batzuk irabazteko pozez, Gaizkibel atzeraño joaten omen itun kontrabandora. Kaja zarrak bizkarrean zituztela, andik Astigarraga alderaño gero. Lekutan zegok Gaizkibel atzetik Astigarraga; aldapa ederrik ere bai bitartean. Geieneko jota ere, bost edo sei sos zorritsu irabazteko. Bi anaiak, batera ibiltzen omen itun geienetan. Bein, ordea, aitona etxean geratu ta anai gaztea bakarrik atera omen uan. Ura ere laxter ezkontzeko asmotan omen zebilleken, ta pezta batzuk egin nai. Arrats gaiztoa uan oso, eta gutxiena uste zuan lekuan arrapatu ziteken gizajoa. Kontrabandoak orduan zigor izugarria zin, larrutzen baizuten bat.

Ongi gogoan zeukat oraindik. Aitarekin so-roan ari nintzan batean, au ere zigarro-erretzalle amorratua baizan, etxe azpian barrena bi karabinero pasa ituan. Arkaitz-utsune batean amabi tabako-landare aldatuak zeuden ondo-ondotik. Bakoitzak bere barrutian, beretzako aña egiteko ere, etzeukaken eskubiderik. Arto-sallaren erdian utsune bat utziz, an aldatzen zizkiteken askotan; artoa azitzen zanean ez baizan tabakorik ikusten. Gaur egunean ere lege zuzenik bazeukagu, baña legeak ituan aiek ere.

Aitaren bildurra ez uan nolanaikoa. Karabi-

neroak ezkutatzeko betik utzi gabe, agindu zidaken:

— Oa lenbailen, Joxe, eta tabako kaxkar aiek ipurditik atera ta leizean bera bota itzik!

Beretzat aldatutako amabi tabako zikiñengatik alako estuasunak bazitun aita zanak, kontrabandoarekin arrapatutako beste gizajo ari zer etzioteken egingo?

Ura ere indartsua izaki nunbait, eta, sekulako burruka-saioa egin ondoren, iges egin zieken; baña atzetik sutu zioteken, eta, al zuan bezela, bizirik iritxi uan etxeraño. Bi egun konturik gabe iraunta, il uan ogei ta lau urteko mutil gaztea.

Ordurarte iñork negarrez ikusi etzun gizonak, bere anai illotzaren aurrean ume batek bezela negar egiten omen zin. Ordu artan bere ondoan ez arkituaren damurik, bizitza-bizitz ez omen zaioken joan. Anaiarekin batean an izatera, bi karabineroak bertan txikituko omen zizkin. Ez uan ortan geratu: bi karabinero aiek arrapatzeko egokierarik izaten bazun, garbituko zitula ziña egin omen zin.

Nere aita zana, amar bat urteko mutilla; iñun karabinerorik ikusten bazuan abisatzeko beste agindurik ez omen zioken eman aitonak.

Karabinero oek Altza'ko alkatearen lagunak itun. Gaiztoz ezagunak biak. Jakiña, *no entiendo*'koak. Gure etxe-inguru oetan barrena, Errenderi'ko mendi-bideak gora, lasai-lasai Goizueta alderaño iñoizka joaten ziranak. Aitonak bazekiken gutxi gora-bera aien atzera-aurreren berri. Nun itxogin ta nun eraso, ondo ikasia eukiko zin.

Andik illabete batzuetara, eguarte batean, patxara ederrean Berrazpin'go aldapak gora zi-joazela, berak ikusi omen zizkin.

— Kaletik datorrenean ire amari esaiok, nere zai egon gabe bazkaltzeko lasai!

Metro erdiko makil lodikote bat eskuan zuala, karabineroai aurrea artzeko asmoan noski, Txoritokieta'ko arkaitz zakar ortan gora igo omen uan. Gozoa joango uan! Ez uan atsegin izango aren aurrean!

Karabineroen bidera aterea zala ikasi zunean, izutu omen uan ama gaxoa. Len koñaruak bezela, orain bere gizonak bere burua galduko zuan bildur.

Gaberdi aldera, nundik etzekigu, ez baizuan nun arrapatu zitun egundo esan, baña etorri uan, ez bere andreak nabaitu gabe. Krisallua eskuan andrea beera ta gizona gora, eskal-buruan topo egin omen ziteken biak. Lasaitu omen uan berriz bizirik ikusi zunean, eta naigabez ala esan omen zioken:

— Garaietan zatoz etxera!

— Aundia da, orain ere nabaitu nauzunean! Zuek ez al dezute lorik egiten edo...?

Baña laxter antz eman zioken aitonak, bere erruz, egun ta gau gaiztoak pasa zitula andre gaxoak; eta, errukituz, ala esan omen zioken:

— Barkatu, barkatu! Bi *no entiendo*'ko ñaño oiek orren errex galduko niñutela uste al zendun?

— Atoz, atoz sukaldera! Zerbait jarriko dizut!

— Ez, maitea, ez! Lo egin nai det, presa-ka gañera! Gaberdian paseak gera onuzkero-ta.

Pakean oieratu omen uan gizona; emaztea ez, ordea. Bi makilla luze eskuan zitula ikusi baizuan bere gizona etxeko sarreran, bai aguro asko nun ezkutatu zituan billatu ta zer ziran ikusi ere: karabineroen bi zizpunak, orduko pusillak. Andre gaxoa izutu omen uan; etxeko pakearen ajola aundi gabe, bere senar trakets arek lan txarren bat egin zualako, bi karabineroak il zitulakoan baizegon. Baña ez ikusia egin ta bi zizpunak bere lekuan utzi zizkin; zer edo zer laxter azalduko zala, bai, ta orduan itz egingo zuala.

Urrengo arratsaldean auzoko sagar-jotzea ziteken gure tola-rean. Ortxe erdi joan zutela, Al-tza'ko alkateak etorrita deitu omen zin. Iñor ez uan arritu; aitona ere ez izutu. Oso alkarren lagun baiziran, eta gutxi gora-bera baizekin zertara zetorren. Biak sukaldera sartu ziranean, irri-par gozo atsegiñez galdetu omen ziokeen aitonak:

— Arrainean, alkatea! Ez dauzkak sudur makalak! Nondik nora antz eman diok nere lana dala ori?

— Bejondeikela, motel! Aztia al augu? Zertara natorren esan baño len asmatu?

— Ez nekiken *no entiendo*'ko oiek orrenbeste maite ituanik!

— Lege-zapaltzalleen etsaiak dirala, baze-kiat ori, eta i ere geienean zapaltzalle aizela etzeok ukatzerik!

Alkatearen itz auek min eman zioteken ai-

tonari, eta alkateak ere laxter antz eman ziokeen eta pixarren bat izutu uan noski.

— Jainkoaren legeak iñork ez bezela beteko dizkit nik. Gizonari bizitzeko aña eskubide ematen ez dioten beste lege txatxu oiek, nork bete bear dizkik? Iñori ostu gabe nere bizi-modua andik edo emendik ateratzen detan jakiteak, zer aurrerapen lekarkek? Zeñen alde nenbillen ere ia ez nekila, nere adiñik onenean, ainbeste urte ortxe galdu nizkin mendirik-mendi alperkerian, sendi gizajoa miseririk gorrienean utzita. Andik etxerakoan, bai al dakik zer arkitu nun? Etxe maite au kiskaltzen! Bertan auts biurtu itun, bizi-modua ematen ziguten aziendak; bertan auts biurtu itun izerdiaren izerdiz bilduta geneuzkan uzta pixarrak; eta beste gañerako traste ta lan-tresna guziak ere bai. Soñean geneukana bakar-bakarrik salbatu genin, eta lau orma zar oek, beztuak eta sollak, ke jario, zerurontz begira, doi-doi oraindik ere txutik. Ondo ta lasai bizitzeko alderdi ederra!

Etorri nintzanean, ukullua ustutzeko beta banin, baña ama maitea uan neretzat lenengo. Ez uan xarra oraindik; gaitz gaizto batek jota, aspaldian gaixo zegona, ezertarako gauza ez ta oiean. Etxea sutan; beiak ukulluan marruka; ama maitea, berriz, suz inguratua, leio ondoan, iñora eziñik ojuka. Danetarako neroni bakarrik. Eskallera txar batekin, leioz kanpotik, al nuan bezela ezin jexirik ari nintzala, goiko arkaitz-arte ortatik sutu zidateketen etxe-sutzalleak noski. Besoko zauri au orduan artutako balazoa dek. Eta, guda bukatu zala, egunak itun; go-

rrotoa ez ordea. Aurrez-aurre ezin zutenak, atzetik egin bear lana. Ama ezin salbaturik dabillen seme bati, iretarrak eskeñi zioten laguntza dek ori. Olakoak zerate gudazaleak: berezko billauak! Basa-pizti gaiztoenak ez dik olako biotzik!

Ama jetxi nuneko, ukullora urbil niñun; baña beranduegi: goi-beak jota, labe gori bat besterik ez uan ura. Enborrak pillatuta garretan eta aragi-erre-usaia. Ortatik bizi bear duan batenztat, zer dan badakik ori? Ez ire ontzako urreak eduki banitu. Ni ikusi niñutenean, azaldu itun su-emantzalleen igasi joan ziran nere anai-arreba gazteagoak. Ez nioteken gutxi poztu, il ta sutara boteak ote ziran bildurrak artu nioken-ta. Igesi joan ziranari eskerrak, motel; bestela etzekit ori ere nola etzuten egingo. Sei egunen buruko, ama gaxoa gorputz uan. Tolare xar ortan utzi zin mundua. Orixe uan guda madarikatu aren saria! Armak utzi ta gero, onda adi!

Basoko pusik onenak botata, mando zar batek aña lan egiñaz, noizbait jaso genin etxea. Aterpea bagenin. Bear-bearreneko puskek palta ordea oraindik. Ez zer jantzirik, ez oirik. Ukullua, berriz, uts. Zer egin? Nora jo? Errukizko itz bat ere ez nioken iñori entzun. Ardit bat bakarrik iñork etzidaken eskeñi. Auzoak ere, ni bezela txurietakoak, beren buruekin zeukateken lanik asko, irabazle ziñazten oiek emandako zerga ta multak ezin ordaindurik. Arreba ta andre gaztea etxean utzita, kontrabandorako bidea artu genin bi anaiok. Poliki moldatzen asi giñanean, ire lagun maite oiek il zidateken anaia. Nun enbiller orduan? Ez intzan gure etxe alde ontara

asko azaldu! Oiek arraisku txarrean ikusitakoan samurtu zaik biotz ori? Guri, berriz, itzetik ortzera legez fuera gabiltzala? Zuek bakarrik bizi bear al dezute? Iñuzenteak iltzera bai; ortarakoxe ekarri dituzute oiek? Joan zaneko guda madarikatuaren ondorenak! Kanpotik datozenak, kukuak dituk oiek; ezin mantendurik ari geran txantxangorriak, berriz, euskaldunok.

— Ori dek etorria, motel! Uste nin ez intzala ixilduko!

— Aspaldi ontan trinko ta korapillatua eduki detan biotz onek, min baizeukak, min! Nik bear autenean, ez aiz egundo azaltzen; beste oiek, berriz, semeak ama bezela samurtu aute. Olako lagunak zeuzkat nik!

— Barkatu, barkatu! Gorriak ikusia aizela bazekiat. Baña oraingo au lan txarra egin dek, adiskide! Zein dan balekite, gaur bertan ilko iñuteke. Lege-zaitzalleak dituk oiek, lege-zaitzalleak!

Sukaldea dardaratzerañoko par-algara gozoa egin ondoren, erantzun omen ziokeen aitonak:

— Il? Zerekin? Non dizkitek? Ik eta aiek ez beñipin; izatezkeroz ere, atzetik. Al izan balute, len ere etziteken aukera txarra. Urbil asko eduki niotek. Ni aurrean ikusi orduko, olloak azeriaren ondoan bezela, nora jo ta zer egin ez dakitela geratu ez dituk bada? Ai, zer lege-zaitzalleak, esku-utsik dijoan baten aurrean armak botatzen dituztenak! Oiek al dituk orren lege-zaitzalle maiteak? Berak zeudek aiek, berak larri asko! Ez nitek aien larruan egon nai. Baña, nola antz eman diok ni naizela?

Aitonaren azkeneko galdera onek lasaitu zin alkatea. Aurreregi sartu ta aitona pixarren bat mindu ote zuan bildur baizan, eta baizekin txarrean egia ateraziko zionik etzala sortu.

— Ori asmatzeko, ez nin aztietara jo bearrrik. Gertatuaren berri eman zidateneko, bururatu zitzaidaken: Au olakoren lana dek! Zin egiña intzala ere entzun bainun. Umil asko jo ziteken bart nere etxeko atea: ai eneka, ebainduak, txautuak, zizpunak galduta. Ori okerrena.

— Ezer al badezu, lagun zaiguzu, alkate jauna! Gureak egin du bestela! Ez dakigu artza zan edo zer zan ura! Gurekiko lanak laxter egin ditu beintzat!

— Armik gabe, galduak zerate! Gertatua ixilik edukiko dezutela zin egiten badidazute, ezeren aztarrenik ia ateratzen detan alegiñak joko ditut nik, zizpun zar oiek nunbaitik ekarzen ote dizkizutedan.

An geratu dituk, eriotz-penarekin kapillan daudenak bezela. Ikusi baiñut bezela, xuxenean onera natorrek. Ziur bazekit i aizela. Bertan il ez itunean, galtzeko asmorik ez dabilkikela ikusia zegok; eta ire lagun maite oni ezer ukatuko ez diokela bazekit ongi. Orain dek, motel, biotz on ori, erakusteko garaia!

— Maltzurra aiz, bai, i, benetan! Oientzat nondik guri kenduko, egokiera billa abil beti. Orrengatik etortzen aiz; orrengatik gauzkek ire laguntzat. Alare ez dizkit galdu nai.

Aiek kurrixkak! Urdeak ere, iltzerakoan, aundiagoak ez dizkik egiten. Lasai kontu-kontari zijoaztela, itxumustuan sartuta, buruak alkar

jo-eraziz, zerraldo! Korde gabe utzi nizkin. Gero, besorik beso alkarri lotuta, auspez jarri eta zizpun aietako bati baketa kenduz, lastaira bezela, aukeran ebaindu nizkin. Baketa biguin arek txistu egiten zun bakoitzeko, izuz «¡Perdón! ¡Perdón!» oju egiten zidateken. Errol ederrak badizkitek bizkarrean. Txikitzeko asmoan asita, to, errukitu egin niñun! Ez nauk uste bezin gaiztoa. Nere il zuten anaiaren andregaiaz oroi-tu niñun: illotzaren ondotik aldegin nai ezik, negarrez orduak nola igaro zitun. Oiek ere lagunak izango zituztela... Aiek errukitu zaizkidaken, eta barkatu egin nieken. Nerea egin nunean, bi zizpunak artuta, jauzi batean txaran ezkutatu niñun. Ez nizkin il nai, oiek ere kristauak izango dituk noski-eta; neroni arraisku txarrean jartzerik ere ez. Orain, agidanean, oien bizitzak nere esku zeudek. Ja, ja, jai!

Algara luze bat egin ondoren, bi atzapar aundi aiek sartu omen zizkin lengo su zarreko tximini-barrunbera, eta, ezker ta eskubi bi zizpunak artuz, alkateari eskeñi omen zizkioken.

— Torizkik! Oengatik ezeren okerrik bale-torkit, kontu eman gero gure lagun izateak lax-ter bukatuko dirala. Txitoarena egingo nitek!

Orduantxe sukaldera sartu omen uan andrea, eta pozez esan omen zioken alkateari:

— Eraman, eramán traste zar oiek ortik, tximini-pe ortan enbarazu besterik ez dute egi-ten-eta. Lan gaiztoren bat egin digu orain ere onek!

— Ez, etxeko andre! Ederki astindu ditu;

jipoi ederra eman ere bai; baña oraindik bizi dira, eta, biziko badira, oek bear.

— Eta, zuk bai al zenekizun oek nun zeuden? —arrituta galdetu zioken gizonak andreari.

—Jakingo ez nuan, bada? Sartu ta ordu erdi baño len billatu nitun.

— Karabinero guziak baño etsai gogorra goa dit au! Onekin ezin dit! Torizkik, torizkik! Eraman itzik, Jaungoikoaren izenean! Itzean al ago?

— Itzean al nagon? Lagun maite batek itzea ez badet nai, ala bearko!

Aitona oso konten geratu uan egin zuan lanez; berak nai bezelaxe atera baizaizkion gauzak. Amona, zer esanik ez. Alkatea, berriz, karabinero gizajo aien bizia bere eskuetan zera-makilako, atsegin ta arro. Egundo baño alkar-tuago geratu itun bi lagunak; karabineroak, berriz, alkatearen morroiago. Olakoxea uan nere aitona.

— Garai aietan ori bezeiken; baña, gaurko egunean, ori egingo duan amaren semerik ez da.

— Ez; gaurko armen aurrea dijoana, bere burua il nai duanen bat dek, edo burutik egiña zegok. Orduko armak, ordea, motelak itun.

GUDA ONDOA

Len esan degun bezela, noizbait guda bukatu ziteken. Aundiak beren lekuan geratu itun; mendekoak, berriz, etsaien eskuetara saldu zizkiteken. Batek ala besteak irabazi, ajola aundirik etzitzaienak itun, danak ere, aiek. Agintarien tartean euskaldunik bai al uan? Orduan asi uan askoren istillua. Gudatea baño, ondorena txarragoa dala ziotek; gaur ez noski, baño orduan bai. Orduan guda, batzuk egiten ziteken. Atzean bizi ziranak, jakiña, gose ta miseri gorriak igaroko zizkiteken; baño, lasai ezpada ere, gaur aña eriotz-arraisku gabe. Aurrean zebiltzantzat itun arraiskurik gaiztoenak; aiek baizebiltzan beti aurrez-aurre sutan, eta bala artean bizi zanari, noizbait egokitu egiten uste gabeko sastakoren bat.

Gaur, ordea, aideko egazkin oiekin, urrutieneko txokoraño zeramatek guda eta eriotza. Gaur, seguru dagon txokorik ezin leikek arkitu. Ezin pentsa-alako kalteak egin lezazkek gaur gudateak. Europa'ko azken gudari begiratu bes-

terik etzeok: urez ta aidez, zer txikizioak egin diran. Guda bukatu orduko, berriz, aurrerapen oiek danak erriaren onerako dituk. Eriotza bezela zeramatek bizia ta bizitzeko erreztasuna.

Gudaz aspertu ziranean, bada, negargarrizko jolasari azkena eman zioteken, euskaldunok egundo baño lotuago bilduz.

Tristeak itun benetan urrengo iru edo lau urteak gure etxerako. Jakiña ni txoria baño alaiago biziko nintzala, artean iru urte baintun nik. Neretzat ez uan ezeren paltik izango; ama ere oso ume-maitalea bainun. Baña nere guraso ta anai-arreba zarragoak etzizkitekzen ordu goxoak igaro. Etxea garbitzen ere bazeukateken lanik asko, ainbeste urtean ez baizan bear bezela garbitu. Udararoko lana uan garbiketa, orduan mendi aldera ateratzen baiziran soldaruak; baña guda bukatu zanean bezela, egundo ez. Jainkoak bestek etzekik, zenbat ximaur ta zikinkeri atera zituzten gure etxe barrendik. Mandoa bera ere botako zin gure etxe-zuloko usaiak. Pentsatu besterik etzegok, seireun soldadutik gora biltzen ziran egunak bazirala. Negu-partean beñepin, beti betea egoten omen uan. Lenbiziko lana, etxe-garbiketa ziteken. Etxe aurre ortan, or egon itun, egunak eta egunak, belar-meta añako txondor zarrak sutan, arrasta-laño itxi batek bezela, sakon au guzia ketan estaltzen zutela. Amak, berriz, etxeko maindire, lastaira, koltxoi, estalki, danak egosi zizkin, zorriz betea baizegon etxea. Ez itun berak nai ordurako galdu. Amaika kupel ur ekarri ziteken gure iturritxotik, etxea garbitzeko. Tellatu solairuak konpondu ta etxea ba-

rru ta kanpoz karez txuritu bitarte, ez uan ama konformatu; bai karea oparo bota-erazi ere.

Orduan giza-indar aundia baizegon gurean. Batzuak etxea garbitzen zuten bitarte, tolare-gain ortan egundoko zakar-pillak egin zizkiteken besteak; karobirik etzutela erre urteak baiziran. Aita, berriz, bere karobi-erretze orrekin ez baizan ixiltzen ere. Ote, elorri, sasi; egur onik etziteken erre nai izaten. Ura, pagota bezela, okindegira saltzen ziteken. Etxerako ere bai, jakiña, lengo su zarrak asko bear baizun; eta etxeko ogi-laberako ere bai, etxean bear zana bertan erretzen baizan. Etxe-garbiketa bukatu zanean, bada, karobi-erreketan asi itun. Bat bestearen ondoren, ez uan illabete batzutan ke-paltik izan emen. Karobi-erretzea, orduan beintzat, lan nekosua uan, surtarako enbor aundirik ez baizuten sartzen, eta, zakarkeri arekin erretzezkeroz, eman da eman ari bear zin. Nere anai gaxoak amaika izerdi ateratzen ziteken. Urtutzen itun, karobi-erreketak asten ziranean. Ni ere gero ortan amaika ordu gaizto igaroa nauk. Ez uan sargardo ta pitar eskasirik izaten, ta orri eskerrak. Ala izerditzen danak, zerbait ere bear dik. Gero, bazter guziak karetu ta irauli zizkiteken; leku erosoan goldez, beste sagarpe ta arri-tarteak laiaz.

Jana bearrenezkoena dala jakiña zegok, baña jantzia ere nai-ta-naiezkoa dek. Garia ta artoa ereiten bazuten, liñoa ere erein bearra, eta liñoak lur ona bear dik. Guda-urteetan ez baizuten ezertarako aukerik izan. Mendi-kasko orren beste aldean badek erreka xior bat; an egiten

zizkiteken liño-garbiketak, mendi-zokon ontan ez baidago urik. Ara bizkarrez eramaten ziteken liñoa; ekarri ere bizkarrez, ez baizegon astoz ibiltzeko biderik ere. Gaur kejatzen gaituk gu. Gaurko emakumeak ez ditek baserririk nai. Nere ama gaixoaren lekuan jarriko nizkikek. Bi ordu baño lenago aldegingo litekek etxetik. Ara eramaten zizkiteken bada danak. An dagon putzu-zulo aundi batek, gaur oraindik, *Liña-putzuet*a zeukak izena. Dana garbitu, etxera ekarri, landu ta legortzen zanean, asten uan ama langillearen kalbariorik gaiztoena: ardatzean, arigiñan, gero iruteko. Loxuxta aundirik etzin egiten; arratsean ere an ariko uan bere lan aspergarri artan.

Ainbeste urteko itxura gabeko gudate arek bazter guziak agortu baizitun. Gero, anai-arreba batzuak ere, azi xamarrak ituan, beren bizi-modua artzeko adiñekoak; ez baizan orduan gazte baten arrioa prestatzen errex. Dirua daukanak, gaur dana egiña zeukak. Atzera-aurrera ibilli gabe, nai duan guzia etxera ekarriko ziotek. Orduan, ia urteetako lana uan baten arrioa prestatzea. Egia esan nai badet, lau-bost urtez gora igaro itun, gudateak egin zitun bearrenbearreneko zuloak estaltzen.

Gudaren bukaeran asi uan askorentzat kalbarioa. Gudan aurre xamar ibilli ziranak arrapatu nairik asi baiziran. Amaikak gure etxe tolare ta arkaitz-zulo oetan igaro zizkiteken egunak, Prantzira ixillean joateko moldaketak egiten ziran arte. Asko, Gipuzkoa barruko jendea uan; baña Bizkai-alde, baita Erdal-erritik ere

etortzen itun, mendirik-mendi, baserririk-baserri, itxoinka-itxoinka, bai baizekiten Gipuzkoa aldeko baserririk geienetan beren aldekoak zituztela eta, salketa txarrik egin baño, bizia bera ere lenago emango zutela. Gure etxe ontan beñipin, biotz onez, maitasun garbiz artzen zizkiten. Alako saltzalle billauren bat izan balitz tartean, ilko zin nere aita zanak.

Gudak ezer ere ez dik onik, eta bere txarrenetako bat, gorrotoa ereiten dula; eta gorrotoak bere etsairik ezin dik, berriz, aztu. Ego-kiera datorkionean, egurra. Arrapatu ta galdu ziranak baitun, baña gure txoko ontan ez uan iñor ere galdu.

MUTIL KOXKORRETAN

Bein gudaren zipriztiñak garbitu ta etxea abian jarri zutenean, asi uan neretzako kalbariorik gaiztoena. Irurogei ta amabost urte igaroak dituk, eta oraindik amorru ematen zidatek urte aiek, eta tristura biotzean. Umea umearentzat gaiztoa dek orratik! Neri beñipin etzidateken nolanaiko kaltea egin. Letzen ta idazten ederki ikasi bear nuna, lagunak etzidateken utzi. Eskolako urte ale aiek tristeak itun, motel, neretzat. Orain ere izugarria ez nauk; orduan, berriz, naiz urteetan sartua izan, ez bainintzan lurrean ageri. Azi nintzan pixarra, amasei urtez gora azi bainintzan. Sallean baitun armiarma anka-luze oien antzekoak; anka, beso ta burua besterik etzutenak; me ta luxeak. Aiek, gizona, arrunt mendean artu nioteken; jo ta iseka besterik etzidateken egiten:

— Geiago ez azitzezkeroz, zertarako jaiio?

Eta *zapla*, burutik bera! Andik urte batzutarra izan balitz, bein joko nioteken, bai; bigarrena eman baño len igerriko zioteken zeñekin

zebiltzan. Ni, oraindik ezeren berri ez nekina, zearo izutu nioteken, eta ez nin ezer ikasi. Eskolara joan baño, lanik gogorrenari eldu naiago izaten nin orduan. Berrogei ta amar urtetarako, erdi mozkor, erdi tisiko, erreumaz josiak, beren etxeko lanetan amaika bider lagundu nieken; mozkortu ta ezin etorri ziranak, beren etxeetara, al nuan bezela, bildu ere bai; baña pasa-erazi zizkidaten urte aiek, etzaizkidak egundo aztu. Oroitze utsak gaur oraindik min ematen zidak; izugarritzko kaltea egin baizidaten. Eskolara ur-biltzeko bildurrak aidean egoten niñun. Sartu arte, berriz, txokoren batean, beti kankallu aien igasi. Bein kristau ikasbidea buruz ikasi nunean eta Jaun-artze nagusia egin, ez nin ankik ere sartu geiago eskoletan.

Geroztik, iñungo itun edo dokumentoren bat izenpetu bear detanean, jakiña zeok: beatz aundi au zikindu bear lenengo; arekin gero paper garbi ta txukun bat. Borroi zikin orri etziotek gure maisu izanak ainbeste begiratzan gaur; ori zala-ta, amaika kaskarreko artuak baigaituk. Egia esateko, letzen bai; letzen ikasi nin. Gaur oraindik ere, poliki-poliki bertsoak irakurtzeko aña bazekit; baña idazten ez. Amaika bertso, nere ta besterenak, edukiko nizkin onuzkero.

Nere aita zanak ere, norbaitek esanta-edo, gertatzen zanaren berri bazekila uste dit; eta, bein Jaun-artze nagusia egin nunean, jarraitu nai al nuan galdetu zidaken.

Ez nula geiago eskolan ankik sartu nai ere, erantzun nioken. Etxean protxu ohea aterako nula, bai, ta etxean geratu niñun. Beste urte-

-pare batean jarraitu ziteken nere arrebak oraindik; baña ni bezin barau geratu itun. Ordurako beren erdera zikin orrekin zebiltzaken. Ez uste, ez, maisuak beti euskeraz itz egingo zigunik; beste batzuek eta ni, masalleko epelak artuak gaituk. Baña, guk erderaz ikasi orduan? Etxe ta kanpo euskera besterik ez genin entzuten, eta etzin lan txarra artu; baña, ordurako ere, erderaz geiena zekitenak zizkin maiteenak. Lenbiziko alkietan aiek exeriko itun. Egundo saririk bazan, aientzat izango uan. Nere arrebak min ziteken, ni bezelako euskaldun sollak geratu bairiran, *sí* ta *no* besterik etzekitenak; baña bein baño geiagotan esan zidateken:

— Zeñek jakin lezaken, oiek bezin ederki, erderaz!

— Oa Castilla'ra eta an ikastan! Neretzat euskera aski den!

Lurrean ez banintzan ageri ere, ordurako bertotan asia bainintzan, eta, gure etxeko sagardotegian bertsolariak entzunaz, txoratzen nintzana. Erderarengatik bost ajola zidaken neri orduan. Egia aitortzezkeroz, aiek arrazoi ziteken; jakitea beti ona dek. Baña orduan ez uan gaur bezelako aurrerapenik, eta gaur bezelako jendearen joan-etorririk ere ez. Dana oñez egin bear izaten baizan, gure mundua oso txikia uan. Noizik bein bestetan ez genin guk erderik entzuten; ez genin aren bearrik ere orduan; azkeneko alkar-iltze odoltsu ontara arte, ez nauk erdera jakitez beartu ere. Idazten ta letzen ikasi banu, obe nin. Ortaz bai; beartu izan nauk. Amaikaxotan lotsa ederrak pasa ere bai.

Opizina oietan, amaika bider «Kaixo, Anakleto!» esan zidatek isekaz, *analfabeto* nintzala alegia adierazi nairik. Gaur ere naiago nizek, erdera guzia baño, idazten ongi baneki. Ez erderarik bear ez dedalako, auzoko amonak ere erderaz asi zaizkiguk oraintxe-ta. Au dek euskaldun jendearen itxumena! Gazteak ez badira esnatzen, urte gutxiko gaudek!

Egundo urterik alperrik galdu badet, nere eskola-urteak galdu nizkin, eta bizitza-bizitz, barruan min bizia bezela, koskaka ari zaidan naigabe ixil bat utzita gañera.

(Ondoren, onoko bertso au kantatu zidan. Izketan baño errexago egiten zun bertsoan noski):

Nere biotza naigabez zegok
ezin burutuz iñola,
egiyagatik iltzea ere
etzidak neri ajola.
Bai al dakik gaur zertako duan
jende berriyak eskola?
Sartu orduko izutzen ditek
euskaldun aurra, ta nola!
Bi urterako kastillanotu
lengo euskaldun arbola.

Aita zanak nai baño len utzi nizkin eskolako lanak. Agindu bazidan, ni joango niñun. Bazekiken, ordea, ez nula ezeren aurrerapenik egiten eta kalbariorik gaiztoena zala neretzat.

Geratu banintz, geratu niñun. Etzidateken jolaserako beta aundirik eman. Erbiñudea aña-

koa ez niñun izango, baña enkargu geienak nik egin bear izaten nizkin. Belar edo gari-ebakitzea zala, metaren bat egin bear bazuten, beroak jotzen bazun:

— Nun da Joxe? To pitxar au, ta korrika batean iturritxotik ekatzak ur preskoa! Ez gero bidean txoriei arrika geratu!

Txoritarako itxua bainintzan.

Irute, arto-zuriketa edo garo-sartzea zala, beti banin deia. Amaika atzera-aurrera egiña nauk gure iturritxotik. Gure iturritxotik ziot, ura baidan bi baserri oen bizitz erdia.

Itaurrekoa bear zanean ere, jakiña uan: daretarako Joxe. Amaika sokil koskor tiria uan nere aita zana, ez beti oso poliki gañera. Sokillazoa ematean, orduan asiko uan izketan ta ojuka:

— Beieiri obeto begiratu akiek, motel, eskuan daukadan akullo au asintzea ez badek nai!

Aurreko anaiak aziagoak baintun; ondoren-goak, berriz, oraindik eskolan zebiltzaken.

Alare arkaitz-inguru oetako txokoak aztertzeko, nunbaitik ateratzen nin beta; ez uan nik ezagutuko ez nun ar-zulorik ere. Ni emen arrapatuko niñunak, erne ibilli bearko zin; sasipe, bidetxigor ta azeri-zulo guziak ezagutzen baintun. Bai inguruko gerezi, udare, ardo-muxika ta marrubi-sallen berri ere, banekiken ongi.

Alperrik ondatzeraño eduki etxean; alare besterenari eldu bear. Auzoko gauzak obeak izaten omen dituk, etxeakoak baño. Amaika lapurreta txiki egiña nauk, baña erori niñun bein.

Marrubi-sail bikaña, gorri-gorri, arrautza aña-

ko aleak ikusi nizkin auzoan. Aietxen atzetik joan zaizkidaken bi begiak, eta biotza ere bai. Ondoren, berriz, asmo txarra: antxe marrubi-jate asekada bat egiteko poza. Lapurreta koskor oietarako bazkalondoa baita garairik seguruena, loxuxta goxoan daudela alegia, urrengo bazkalondoa an niñun marrubi-sallaren inguruan. Sasipetik zuloa eginta, sartu niñun, bai; baña ongi nere zoritxarrerako. Zakur beltz aundi bat zio-ken marrubi-sail ondoan etzanta. Aztu zaizkidaken marrubiak ederki! Arek nabaitzeko bildur-reez, sartu nintzan txulotik atzeraka asi niñun kanpora, lo zegola baizirudin. Beirok! Bere kika zar aundi aiek erakutsiz, zaunka ta jauzika itsu-mustuan eraso zidaken atzetik. Baratz-gainkaldean karetxez betetako aritz zar aundi bat bauan, aienaz josia. Txakurrak arrapatu baño len, zintzilik zegon aien lodi aietako batetik, muxarra bezin zauli igo niñun aritzaren buru-adarrera. Txakurra jolasean zebillela zirudiken, eta etzidala txarrik egin nai. Ni aienean gora ezin igo-rik nenbillela, maleziz aienari ortzakin tiraka ta astintzen jardun zin, baño batere asarrerik gabe. Ez nizkin nai ordurako eskuak aritzburura iritxi. Orduan itun nere komeriak. Katuari bezela, zaunkaka aspertu-aldi bat egin zin, baña joan? Ezta pentsatu ere. Itzal gozoan etzan uan, bai, ta kito. Jesteko asmoan ixil-ixilik asten niñun; ez alperrik. Bere belarri motz aiek tente-tente jarriko zizkin, bere kika zar aundi aiek erakutsiz; burrundan beste zaunka-aldi aspertu bat eginta, patxara ederrean etzango uan lengo lekuan berriz ere. Marrubi-salla gorri-gorri ikusten

nin aurrean. Ara joateko gogoak kendu zizkidaken ederki. Igesi egin nai ta txakurrik ez joaten.

Illunabar-aldera, ala esan zioken andreak gizonari:

— Aizu, Santiyo! Gure txakur lausu orrek badu katuren bat aritz orren buru-adarrean!

— Katua? Ez ote da gero gure marrubitara zetorren auzoko mutil katapusintx ori?

— Gaixoa! Bial zazu ortik txakur zar ori, eta utzi akiozu ume gaixoari etxera joaten!

Andik bereala, an azaldu uan Santiyo, mendia añako gizon zarra:

— Aspertu al aiz, Joxe? Marrubiak onak al zeudeken?

Zartarakoren batzuk emango zizkidalakooan, bildurrak aidean, ez nioken erantzun ere.

Txakurrari ostiko bat emanda, «Pasa etxera emendik!» biali zin txakurra. Gero, bere atzapar aundi aiekin artuta, lurrera jetxi nioken; eta eskutik artu, baratzara eraman da eskuak bete marrubi etzidaken bada eman? Eskerrak emanaz, ala eskatu nioken:

— Ez gero nere aitari ezer esan!

— Ez, motel, ez! Baña geiago ez lapurtu, lapurreta gauza txarra dek-eta!

Arratsalde gaiztoa igaro nin, baña ez niñun asarre joan etxera. Andik aurrera ere, amaika lekutan alako lapurreta koskorrak egin nizkin; etxe artatik ezta sagar bat ere ez nin ostu. Orra on egitea zer dan. Aspaldi joan uan mundu ontatik; baña, artaz oroitzen naizen bakoitzean, esker ona zeukak nere biotzak.

Ez niñun bakarrik. Auzoan ere kidetsuko la-

gun-mordoska bat banin, mutil ta neska, len esan detan Santiyoren seme-alabak. Oso ongi etortzen giñun alkarrekin. Noiznai aiek gure etxean itun; zer esanik ez, gu ere bai aienean. Aiek urte zoragarriak! Zoriontsu izateko, ez dik batek ezer askoren bearrik. Ni zeruan bizi niñun, ez lanik ez gendulako. Gurean, lan-palta baño, ontzako urreen eskasia geiago izan dek. Zertarako genin urrea? Geneukanakin lasai asko bizi giñun. Txoko au bezelako zerurik ez uan orduan neretzat. Emendik atera ezkerro galdua nioken. Joan zanaren eta etorko zanaren kezkek gabe, gure bizitzako urterik atsegiñenak; neretzat ala itun beñipin.

Biotza urrungo kezketan eta maite-miñetan asten danean, kito; gureak egin dik. Orduan etzeok. Guraso, etxe ta bertako lagunak ez ditek gure biotzik betetzen.

JUAN KRUZ

Len ere esan dit eta ez neukaken lagun-paltik; baña nere lagunik maiteen-maiteena nere anai Juan Kruz izan uan, ni baño urte batzuk zarragoa. Zeñen ederki konpontzen giñan biok! Gure zaletasun, apizio ta joeraz, batera gentozenak giñun biak. Eiza ta bertsoak itun gure jolasik maiteenak. Eizerako apizio ori, danak izan genin guk, eta gurekin zebiltzan lagunak berdin; eta nere semeak, gu baño ere zoratuagoak dituk oraindik. Beren adintsuko lagun batzuek badizkitek, eta, alkarrengana biltzean, eiza beste konturik ez diek entzungo. Aldapa zar oetan amaika kataska gaizto egiten dizkitek.

Gaur bezelako eskupeta-aukerik ez uan orduan. Gure tiragoma ta traste, or ibiltzen giñun. Negua noiz etorriko zai beti. Goizean aitak «Elurra egin dik!» esaten zigunean, laxter aidatzen genizkin maindire ta estalkiak. Goizeko kapesnea artzeko betik gabe ia, mendira ateratzen giñun, erbi-arrastorik iñun billatzen

ote genun. Andik ler eginda etxera etortzean, beiak larrera ateratzerik ez baizeukaten, laxter esango ziguken aitak:

— Ote-puska bat nunbaitik ekarri bearko dezute bada, mutillak! Beiak jan gabe ezin edukiko dizkiegu!

Artu zaku zar bana burutik bera, igitaia bere kirtenean, zato bat barrukoz kanpora ongi lotua, otez eskuak ez zulatzearren, matxarde ta soka; an aritzen giñun elurretan otegiñan, ekarri-trabesa deitzen genion aizkora antzeko erre-minta batekin. Sagar jotzerakoan bezela, ol batzuen gañean txikitu ta laxter joango giñun, lurmenak egin ta tranpak jarritz, txori arrapatze-ra. Urrengo goizerako beatz-muturrak gorri-gorri egin ta aunditu, azkureka asiko niñun ta kito: negu guzirako ospelez beteko zaizkidaken eskuak. Askotan, azkureka ta miñez ezin burutuz, negarrari ematen nioken, lertu ta aragi bizitan edukitzen baintun. Baña ajola zidaken neri! Sagar-azpi ta sasi-bazter guziak txolartez betetzen genizkin. Egunero irutan aiek ikusi gabe onik ez genin izaten, berriz: goizean, bazkalon-doan eta illunabarrean. Jainkoak zekik gure txolarteetan zenbat xoxo ta birigarrok utzi duten bizia, gaur baño ugarixeago al uan-ta. Tarteka ollagor ederrik ere bai, eta zergatik egia ez esan? Iñoizka auzoko kapoiren batzuk ere bai; baña au askatu ta etxera bialtzen genin.

Alare, txantxangorri gizajoak pagatzen ziteken larrutik. Gu txolartea jartzen ari giñan arte, ara-onera txorrotxioka an ibilliko uan. Guk alde-giten gendun orduko, jetxiko uan zer egin gen-

dun ikusteko. Okertuta lokarriari tiran eusten zion zumalikarraren gañera saltako zin lenbizi; gero andik lurrera, eta, ikusi-mukusin an zebil-
lela, tranpizko txipotxaren gañera igotzen za-
nean, orra gure txantxangorria bi anketatik txin-
txilik. Amaiak utzi ziteken bizia. Gizona dabi-
llen lekuan, an baidabil txantxangorria ere.

Erbi ederrik ere erortzen uan iñoiz, bai, gure txolarteetan; baña bakanago. Erbia gautarra dek, arrasto gutxi uzten duana gañera; baña, esi, ata-
ka, sasi edo langaren batetik bere igaroeran, txi-
potx edo arantzen batek ille banakak kentzen
baizizkiok, tarte artan ongi lotuta alanbre biguin,
biurkor, me bat txibistean jartzen genioken, ta
saltaeran lotua an geratzen uan gure erbi gaxoa
txintxilik eta, zenbat eta geiago ibilli, orduan ta
geiago estutzen zala. Indarka ari zala, ito baño
len alanbrea eten ta iges egiten ere bazekiteken;
baña ez beti ordea: txintxilik ere itoa arkitzen
genin iñoiz.

Amaika katu ta arratoi-txakurrek ere uzten
ziteken bizia. Orduan, ixilka gordean artuta, be-
ko leizera.

— Norbaitek il du gure katura! Aspaldi on-
tan ez da azaldu! —esango zin amak.

Aitak ere aldamenetik, zorrotz asko, bere
betiko erantzuna:

— U m e mukizu oen txolartean eroriko
zan-ta.

Biurrikeri guziak guk egiñak izaten itun aita-
rentzat. Txikitan, ziotenez, olakoak egiña baizan
bera. Baña geienetan asmatzen zin.

— Gaxoa! Ain piña zana...

— Utziezu! Ontzako urreak baño errezago billatuko dituzu, bai, katuak!

Aita, geienez alde izaten genin, eta orri eskerrak. Oso erbi-zalea baizan, eta nunaitik eskeak izaten baizitun. Goizen batean, gere ura txintxilik genekarrela ikusten bagiñun, eguzkiaren azpian ez uan gu bezelako mutillik. Munduko katu ta arratoi-txakurrengatik ajola zioken orduan ari. Gaur baño erbi-aukera ohea izaten al uan, izan ere-ta.

Erbi baten arrastoak artu orduko gaur, iru edo lau erritako eiztariak, sei edo zazpina txakurrekin, zaunka ta iskanbilla, mendiak bete gizon, inguruak aidatuz eta bazter guziak ondatuz, or zetozek, bide-gurutze bakoitzeko eiztariren bat puntuan jarriz. Erbirik aizkatzen badute, ango zaunka, txistu, tiro-ots ta oiua! Akelarre bat, Ataño! Ederki kostatzen zaiek azkenerako erbia. Ez dizkik oso puska merkeak izango. Ezta urrezkoa balitzake ere. Agintariak ez badute neurririk artzen, txantxangorririk etzaiguk geldituko aurki. Goizean xoxo birigarroen kantu atsegiñera esnatzea, gauza zoragarria dek bada, motel. Goizean leioa zabaldu orduko, etxe-inguru danean kantari. Gaurko gazteak bai al zekitek orren berri? Lengo oitura zarrrik ez ditek maite, eta berri onik etzekarkigutek.

Gure aita zanarekin, erbi atzetik amaika arrats igaroak gaituk. Beti bazin erbiren baten eskea; eta, jakiña, gaberdi-inguru ortan, goiz aldera geienez, ateratzen giñun.

Ortarako geneukan erbi-txakur alper bat artuta. Onek erbi-arrastoren bat artzen bazun edo

zaunkaka asten bazan, aizeari ere zaunka egiten baizion arek, aita zanak laxter aginduko ziguken; gu baño geiago ikusia baizan, eta baizekin an aizkatzen gendun erbiak geienetan norako joera artzen zuan.

— Olako bide-gurutzetan sarea jar zazute lenbailen.

Eta:

— Juan Kruz, sare ondoan jarri adi!

Arek sarea jarri zula-ta txistu egiten zunean, utziko zioken lepotik artuta zeukan txakurrari. Beste gañerakook alegiñak egingo genizkin, istillutan erbi ura bide artara ezin sartu-eraziz. Izutua nola etortzen baizan, gaxoak etzin sarerik ikusten, eta, anka ta buruz korapillatua, sarean geratzen uan. Zeruaren azpian ez uan orduan gu bezelakorik.

Zoritzarreko arrats batean, Juan Krutzi iges egin etzioken bada? Arek entzun zitunak! Urren-goan aita bera jarriko zala; etziola ari iges egingo, ez.

Arrokeriak beñere gauz onik ez eta lenbiziko erbiak iges egin zioken. Bada-ezpada ere, ixilik geratu giñun; aita zana ere bai. Baña, andik aurrera, Juan Krutz jartzen uan sare ondoan beti.

Geienean erbia billatzen genin; arrapatu ordea gutxitan. Erbia puska ttikia ta zaulia baita, nai dan lekura eramateko. Illunpean gañera. Aiek ibiliak!

Len esan detan erbi-kontu orri jarri zizkioken Juan Krutzek bere lenengo bertsoak, oraindik amabost urte etzitarik. Nai nitek aietxek bane-kizki! Eta bein, kantari ari zala, aitak berak na-

baitu. Bazkaltzera bildu giñanean ala esan zioken aita zanak:

— Aizak, Juan Kruz! Or kantatzen ari intzan bertso oiek norenak dituk?

Juan Kruz gorri-gorri jarri uan lotsaz ta bildurrez, eta etzioken erantzun.

— Orduan ik jarri al dizkiok aitari orren bertso miñak? Kanta itzik! Kanta itzik!

Amak piska bat axiatu zunean, aitaren zakaraldiak arek baizekin baretzen, kantatu zizkin. Aita zanak, zutitu ta serio esku emanaz, esan zioken:

— Bejondaikela, seme! Aita bera ere bertsolanean zerbait badek —ez baizun bera baño oberrik izan zeikenik uste—; baño etzekit semea ez ote zaion gallendu bear. Epelak sartu dizkiok aitari; baño bapo zeok, motel!

Andik aurrera, zebillen lekuan, aitak berak egiten zin semearen aldarria, pregoia. Buruz ikasi ta kantatu ere bai.

— Oraindik bizarrik nabarmendu etzaion ume mukizu batek aitari jartzeko bertsoak al dituk oiek? —esan omen zioken bein, bertso oiek entzun zitunean, erriko bikarioak—. Errespeto geiago bear dio semeak aitari! Lañeza ematea ez dago ongi!

— Bikario jauna: ezagun dezu semerik ez dezula. Semeak benetan maite ditun aitak, bera baño geiagoak nai lituzke semeak; eta au ez dakit ez ote datorren geiagoa. Neretzat arro-bidea besterik ez dakar onek. Nolako enborra alako ezpala, esan oi da. Olako ezpalak ateratzen ditun enborra, nolakoa ote da? Bejondeiola! Ondorengoak baditut!

— Ba, ba! Jainkoak ematen ditun doaiak dituk oiek, Bixente!

— Ala izan bear dute; ez diot ukatuko. Baña doaiak berberak dituzte semeak, eta aita baten-tzat ez al da arrotzekoa ori?

Inguru oetan ez baigendun erdaldunik ikusten ere, gure arnasa orixe uan: bertsoa. Gu bi anaiok bakarrik geunden lekuan, batez ere beikontu genbiltzanean, bertsoak itun gure jolasa. Zer entzun ta ikusi, umeak ura ikasi. Guk ez genin beste gauzik ikusi ta entzuten. Iñungo erri-jaietara joaten bagiñan, bertsolariak bazter guzietan. Taberna-txulo guzietan bertsolariak. Elizatik ateeran, bi edo iru an ariko itun, zeñek baño zeñek obeto abestu, bertso-paperak saldu nairik. Gure etxe-barru ontan, sagardotegira zetozenetan, bertsoak itun betiko leloa. Bertsolari sonatu xamarrek asten ziranean, elizan baño ixil ta erneago egoten uan jendea entzuten. Aita zana ere bertsolaria baizan, bere kideko lagunakin biltzen zanean, bertsoa beste konturik etzebilkiten aiek. Alakok olako, olakok alako, ain buruz argiak itun, bereala botako zizkitekera lerroan noizbait entzundako bertsoak. Illunabarretan gain ontara ateratzea aski uan, inguru oetako baserritarrak, beren lanari utzi gabe, doñu ederrean bertsoak kantatzen entzuteko.

Orain, berriz, arriak ere negar egin lezakek. Baserri oietako neska-mutillak «*¡Yo te quiero! ¡No te quiero, maja!*» orruka entzungo dituk. Beren oiartzun nazkagarria, mendi oeiri eraginta, urrun or galtzen dek nunbait.

Nere lagun xar batek ala esan zidaken bein:

— Gure auzo Alano'ko soro aundi ortan, atzo andaluz bat bei-kontu, alajainkia! Arratsalde santu guzia tomate gordiñari kozka ta kantari igaro zin, eta entzun nizkion bertso guziak buruz ikasi nizkioken.

Gezurretan ari zalakoan, alakoa al dek izan ere bera eta, ala erantzun nioken:

— Erderazko bertsoak ik buruz ikasi? Ez didak neri olako ziririk sartuko! Ortarako berriz jaio bear dek, berriz, Gaztelu!

Ni bezelako *anakleto* bat baizan ura ere, baña nere lagunik maiteenetako bat. Joan uan ura ere.

— Danak, bat bakarrik utsegin gabe, kantatzea nai al dek?

Eta neri erantzuteko betik eman gabe, gora begira, ao zabalka, zatotik ardoa edaten ari baltz bezela, *a-a-a-a* luze bat kantatu zin, abotsa metu ta lodituz, alako biurri ta dardarak egiñaz; kio ederrik ere bai tartean. Ardatza legor daukan gurdi baten mirriña zirudiken. Noizbait *a* bukatu zunean, *e'*rekin asi uan. Ondoren, *i,o,u*; eta gero, neri begira ta keñuka, ala esan zidaken:

— Arratsalde guzian bost letra oek besterik etzin kantatu gure andaluzak. Ango toma-teak eskas itun arentzat. Sasi-bazterren batean azi-pilla ederra bota bearko zin. Olako bertsolaria izaten etzeok zalla.

Egia esateko, nazka ematen zidatek. Okillak kantatzen dik oien gisa. Itotzen ari dirala zirudik. Ori ere danentzat txarra ez dek izango. Ba-

koitzari berea ta bere lekuan eman dezaiotela, ta or konpon!

Lentxeago nionez, jendea ao txabalka ikusten genin, bertsolarien ondoan jarrita, txoraturik, orduak eta orduak, jateak ere aztuta, andik aldegin eziñik. Jainko txiki bat uan guretzako bertsolaria. Urteak itun gure Xenpelar zanak aldegin zigula, baña oraindik ongi bizi zioken gure artean bere oroitza. Itzal aundiko izena uan guretzat Xenpelar. Aren azken juizioko bertsoak aita zanari lenbizikoz entzun genizkionean, gure biotzetan egin zigun zarrara, etzaiguen berealakoan kendu.

Bei-kontu genbiltzanean bada, orduan egunik geiena larrean pasatzen baizuten aziendak, bertso-saio ederrik egiñak giñun biok. Arek sutuko zin sasia, eta nere erruz ez uan itzaliko. Egunak etorri ta egunak joan, gure apizioak oiek itun. Aitak, berriz, zer esanik ez, etzin besterik nai; bera ere bertsolaria uan-ta, eta bertso on batek txorutzen zuan gizona.

Barkatu akidak, Ataño! «Anai batek bere anaia goraiatzea ez dago ondo» esango ditek askok. Baña nere biotzak zor txiki bat bazeukak Juan Krutzekin, eta, zor ori ordaindu gabe, ez niñuke lasai ilko.

— Esan nai dezun guzia, Joxe, esan lasai! Nik ez nuan ezagutu; baña bere entzuteak baiditut, eta beti ongi.

— Nere anai Juan Kruz zana, amabost urtetarako, mutil gozo ederra ezik, bertsolari bikaña ere bauan. Nere iritzia au dek, eta ezagutu zuten askorena ere bai. Xenpelar kendu ezkerro,

Errenderia'k eman ditun bertsolarietan, ezagutzen ditugunetan beintzat, onena Juan Krutz izan dek. Jartzen, berriz, etzekit Xenpelar bera ere ez ote zaion azpitik geratzen. Txirrita, izena Errenderi'ko baserri batetik artu bazuan ere, ez uan errenderiarra. Erri ontan ezagutu ditugun bertsolarietan, bigarren lekua merezi dik Juan Krutzek. Amaika bertso-papera, neronek garbi dakizkidanak, bazebiltzak or besteren izenean, eta Juan Krutzek jarriak. Iñori etzioken bertso-rik ukatu; baña etzin bere izenik jartzea nai izaten, ain apala uan izan ere ura.

Azkeneko irurogei ta amar urte oetan, Errenderia'n azaldu diran bertsolari guziakin neurtua nauk ni. Batzuak geixegoak jotzen banitun ere, geienak eskasagoak itun. Juan Krutz besterik uan oien ondoan. Anaia naizen aldetik, ez dula nere iritziak balio; baña nere iritzia egitazkoa dek. Danakin neurtu bainaiz ni. Gañetik begira dagon batek baño, obeto igartzen zio, bertsoan ari danak, nor daukan aurrean.

Plaza aundietatik iges egiten zin Juan Krutzek. Oso etxeko gizona uan; biotz garbikoa, berriz; eta zenbait bertsolariren izkuntz lizuna ezin zin burutu. Orduko plazetarako, gañera, oso abots il ta apalekoa uan; eta garai aietan, batez ere, eztarri on batek asko jazten zin bertsolaria. Juan Kruz gaur bizi balitz sasoiean, kantatzeko diran aurrerapen oekin, bertsolari aparta izango uke. Ai baña, taberna-txulo ta erromerietan arekin jardun ziranak, bazekiteken aren aurrean etzala beti giro. Orain berriro Errenderia'n il dan Argarate batek esan bear balu,

arentzat ez uan iñun bertsolari oberik azaldu.

Txirritaren kuñadu zan Gazteluk esanda zekit Oiartzun'en gertatua. Txirrita, gazte-sail baten erdian, bera ere mutil gaztea, jakiña, sagardotegi batean bertsotan ari omen uan. Beste sail bateko bertsolari, iritxi uan Juan Kruz sagardotegi artara. Gaztelu, Juan Krutzen ondoan zioken; au daldaraka somatu omen zin bertsotan asi baño len, Txirrita baño urte batzuk gazte-agoa baizan. Bein asi ziranean, an omen itun komeriak. Etzekit aldarte ona zun edo ez; baño Juan Kruz geiena gustatu zaioken jendeari, eta, Txirritarekin zegon salla, Juan Krutzen ondoren joan omen uan. Oso alkarren lagunak itun; baño alare zaputz pixarren batekin ala esan omen zin Txirritak:

— Ni baño mutil ederragoa dek ori, ta neskatxak txoro-txoro atzetik joan zaizkiok; eta neskatxen atzetik, jakiña, mutillak ere bai!

Txirritak beti bazizkin olako ateraldiak. Juan Krutzek aparteko bizitasun ta grazia ematen zioken bertsoari. Kate-malla bati tirata bestea datorren bezela, bere jarioan zetorkioken ari bertsoa. Ez batzuek bezela, Txirrita ere sail ontakoa uan, Paris, Londres ta Madritik pasa ta Donostia'n bukatu.

Juan Kruz, apala zalako edo etzekit zergatik, illunpean zegok, eta aren itzala ere bai. Izan etziranen izenak gañez-gain zebiltzak; baño bat dek izena ta bestea izana.

Oroitz txiki au zor nioken nere anai mai-teari. Nai ba dek idatzi edo ez, or konpon; etzidak bost ajola.

SENDI-BIZITZA

Erleen eultza bezelaxe uan orduan sendiko bizitza. Nik beti itxura ori artu izan ziot base-
rriari: eultza. Goizean bat ara, bestea onera sa-
kabanatuko giñun. Baña, illuntzerako, danok
goizean utzitako eultz xarrera bilduko giñun. Gu
ere, jakiña, ez giñun baserri-lanean aritzen da-
nak. Inguruko arrobi zar oetan aritzen ziranak
baitun; etxetik atera ordea ta etxera bildu. Ba-
koitzak egiten zuna, danontzat izaten uan, alik-
-eta banaka-banaka kanpora ezkontzen asten zi-
ran arte.

Ez genin ganbara gañezka edukitzen; bea-
rrik ere ez. Gutxirekin pasatzen baigiñan. Or-
duko gure gizartea ere oso txikia uan: Erren-
deri, Altza, Astigarraga, Lezo, Donosti, Oiar-
tzun, bi Pasaiak —irugarrena geroztik sortua
dek—; iñoizka Irun ta Ondarrabi; Ernani alde-
raño ere aitarekin batera azokara iritxi izan gi-
ñun. Erri koskor oen barruan bizi giñun, iñora-
ko ametsik gabe. Ez gaur bezela; gaur, jaio or-
duko, zenbaitek munduari bira ematen baiziok.

Jendeak gaur, nekerik gabe, lanik egin gabe, asko irabazi nai dik. Ez nauk orren kontra. Nagusiak, langillearen bizkar, zergatik milloiak eta milloiak egin bear dizkik? Eta, bitartean, milloi oiek sortu ditun langille gaixoa, bear gorrian utzi. Jainkoak mundua danentzat egin zin, eta orko aberastasunetan danak zeukatek eskubide berdiña. Bein sendagille aberats batek ala esan zidaken:

— Ez dakit, Joxe, zer ikusteko gauden. Nagusia ta langillea nor diran ezagutzen, zalla da gaur. Soñekorik piñenak jantzi, korbata lepoan, puroa erreaz kapetik kapera. Eta oraindik sari geiagoren eskea. Gure neurritarño igo nai dute, alajañetan!

— Nagusia ta langillea ezagutzeko, eskue-tara begiratzea aski det nik. Aberatsa aberasten ari dan langilleak, ez al du ongi jantzi ta lasai bizitzea merezi? Aurrerapenak ere danentzat bear dute. Langillea ongi bizitzea, danontzat poztekoa da. Zapalduak eta zapaltzalleak diran arte ez baidago pakerik.

Oni jarritako bertsoak banizkin, baña aztarrenik gabe galduak dituk nunbait.

Orduan ez uan ala. Orduan, baserrietan beintzat, sendiko bizitza besterik ez uan. Bi baserri oek itun nere bizi-leku, eta mendi zakar oek nere jolastoki. Oso banaketan aterako niñun ni emendik. Lana ta lana, gaur bezelako erreztasunik ez genin orduan. Jantziko bagiñan ere, gure eskuz egin bear. Emengo arri-tarteka oek, danetan laiatu ta garia ereiten genin, eta gariak zer lan duan badakik. Ogia ere etxean erretzen

bai gendun. Lanpetik ezin atera, iñorako betik ez baizaigun geratzen. Eta kontrabandotik ateratzen gendun pixarra, uraxe genin patrikarako. Danak pilla batera diru biltzen aritzen giñanik ez dit esango; jan da jantzi ta etxe-errenta ordainduz urtea bukatzen bagenin, urte bikaña uan guretzat.

Guraso-seme-alaben arteko bizitza nola baidan, aien jenio berberak ikasi genizkin seme-alabok ere. Aien lan-pozak etzin neurririk. Beti lanpean eta geiago egin nai. Iñora joaten baziran ere, ez alper-biajean. Seme-alabok ortaraxe makurtu giñun. Amaika lan egin dutenak izango dituk mundu ontan, baña ez nauk ni azkenekoa izango. Erbiñudea aña lurretik agertzen ez nintzanean, or ibiltzen niñun itaurrean, zoi batetik bestera ezin pasarik. Geroztik amaika izerdi ixuri ta neke supritua dek nere gorputz ximur au. nerako okerragoak badituk.

Ez dik gizona lanak bakarrak ondatzen; osasu-

Sendi-bizitzak ere badizkik bere atsegiñak. Neguko gau luze aiek etzaizkidak egundo aztuko. Gure aparti-legea garaiz egiten genin. Ondoren danok, aiton-amonak, gurasoak eta seme-alabok, su ondoan exeriko giñun, eta beti lanean, ori bai: arto edo babarrun-aleketan asiko giñun danok.

Aitak bertsoaren bat kantatuko zin. Aitona ez uan atzetik geratuko. Amona ta amak ere erruzko bertso-pillak baizekizkiten, an ariko itun laurak zeñek baño zeñek bertso zarrago ta obeak kantatu: Kataluña'ko gizon-iltzallearenak; aurra bizirik erre ta jan zutenenak; azken juiziokoak...

Nik bai al zekit zenbat alako? Gaur jendeak pozik jasoko lituzteken amaika bertso eraman zizkiteken berekin. Kontu kontari asiko ituan gero: Itzai ona gaiztoa, Kandido Aundia, Eltzagorra... Sorgin-kontuetan, berriz, mundua sortu zanetik onuzkoak bazekizkiteken noski. Amaika liburu osatzeko aña bertso ta kontu zar entzunak gaituk. Nere semeak ez dizkitek ikasi. Gazterik, danakin bakar geratu niñun; ortarako betik ez dit eduki; umorerik ain gutxi. Orain, berriz, irrati ta telebista sartu zaizkiguk sukaldera, eta gure bertso ta kontu zarrak joan itun betiko. Gazteak ere ez ditek len bezela sukaltxokorik maite.

Aien sinismenak, berriz, etzin neurririk. Aien elizako joerak eta apaizekiko maitasunak txundituta uzten nioteken ni. Igande ta jairik utsegin gabe, eguraldi txar ta on, udara ta negu, gaitzak edo beste olako bear-ezen batek lotzen ez bazitun beñepin, txintxo asko jetxiko itun elizara. Errenderi'ko eliza lekutan zegok emendik. Gaur ere bide kaskarrak zeudek; ez itun orduan obeak egongo. Aiena uan sinismena; ez gurea! Aien aldamenen askotan joaten giñun gu ere. Begibelarri ibilli bearra zeoken gañera. Elizara sartzean, kuzkur asko egoten giñun, zearrera, gora edo atzera begiratu ta iñorekin jolasik egin gabe. Bertan ez ikusia egingo ziteken, baña etxean artuko itun ordañak.

Apaizaren itzaldiak arretaz entzun ta ikasi ere; or baizeukaten beren jakinduria. Nere antzeko eskola gabeak itun aiek ere, gaxoak, eta liburu ta egunerokoetan ezin ikasi. Letzen jakin

balute ere, ez baizeukaten ortarako astirik. Aien geiago jakin-naia, ezerek etzin ase. Beren bertsoen gaiak ere ortik ateratzen zizkitek askotan. Nik ere, oraindik ume izan arren, arretaz entzuten nin; entzun bearko gañera, etxera-koan galdera asko egingo baizizkidan aitak. Etxean, berriz, bazkalondoan, apaizak pulpito-tik bezin serio, dana jalkiko zigukun, apaizaren itz, keñu ta guzi.

Apaiz-maitaleak itun benetan. Gaur bezela, txapelik erantzi gabe pasa! Aien aurrean ola koren bat egin bear! Belarrondokoren batzuk epelak artuko itun. Bedorrika itzegin ta itzegin-erazi ere. Gaur jendeak txorakeritzat jotzen dizkik gauz oek danak; orduan ez uan ala. Aien ondoan ikasiari jarraitzen ziot nik, baita jarraituko ere.

Aita il ezkeru ere, amaika joan-etorri egiña nauk Errenderi xarrera. Guda ezkeru, berriz, oso bakan, nik bezela, nere semeak ere. Joan dan gudateko ordu larri aietan oso txatxu portatu baiziran gurekin, ainbeste maite genitun erriko apaizen batzuk. Judasena egin ziguteken. Aspaldian mundu ontatik joanak dituk. Gizonen aurrean eskuak garbitzeak an etziek balioko. Nere sinismenik alare ez uan urritu. Len ainbestexe maite dizkit apaizak. Batzuak alakoak atereak, besteak etzeukatek errurik. Altza alderako joera zeukagu geroztik. Askoz urrerago baidauka-gu gañera.

Orduantxe piztu zidateken, geroztik bide-erakusle daramakidan argia: nere sinismena. Orduan ikasi nin apaizaren itzaldiak arretaz en-

tzuten. Nik dakidan pixarra, ortik edana dit. Beirok! Aien aurrean birao itsusi edo lizun usai-ko konturen bat esan! Ez uan otzik izango. Elizara aitarekin egindako joan-etorriak eta izketa garbia entzunak, etzidateken on gutxi egin. Umeak, ikusi ta entzuna ikasten baitu. Gaur, zenbaitekin itz egiteak nazka ematen dik, motel. Eten gabeko biraoketa zebilkitek, eta biotz garbiko bat lotsaraziko duan izketa lizun ta nazkagarria itzetik ortzera. Gizonak al dituk oiek?

Bañan oien danen gañetik dagon beste birtute bikain bat ezagutu nin gure sukaldean; biziko bagera, bear-bearrenetakoa gañera: alkar-maitasuna. Gure sukaldean, geienetan bezela, izango itun eztabaidak eta zaputz-aldiak; baña, beartzen giñanean, bagenekiken alkar artzen. Ez uan etxe-ondatzallerik. Bagenekiken guretik bes-terentzat zerbait uzten. Gure beartasunean errenkura aundi gabe, konporme bizi giñun. Alkar-maitasunak lotzen zin gure batasuna.

Askok kanpoan ixurtzen ditek biotza; an dituk otxan, alai ta paketsuak; etxean, berriz, beazuna. Kanpotik dakarzkiten umore txar guztiak etxerako dizkitek, kabi goxo bero bat bear lukena inpernu biurtuz.

Asko ezagutu ta ezagutzen dizkit, bere gizon edo seme-alabak sukaldean sartzeko bildurrak bizi diran amak. Kanpoan uso, etxean otso, esan oi dan bezela.

Nere ama zanak biotz bakarra zunik, ez dit sinisten oraindik. Bestela, nundik atera zezaken ainbeste pazientzi? Aita zana, sasoiean, gizon atsegin, alai ta otxana uan. Zartu zanean, burua

erdi galdu zaioken eta egoskortu egin uan. Baña amak laxter samurtu-azten zin.

— Sukal ondoan zakarkeri ta purrustik ez egin meserez, Bizente! Bestela, seme-alabak al-degin ta bakarrik geratuko gera!

Exerita zegon lekutik arpegira begiratuko zioken, eta, bien begiak alkar topatzen zutenean, umil-umil burua makurtuko zin; eta errezatzen ari balitz bezela:

— Amen, ala bedi! Zuri ezetzik esaten ez det oraindik ikasi! —esan ta ixilik geratuko uan.

Baña alkar-maitasun ori erakusten zizkiguten beste oitura bikain batzuk baitun, eta oraindik ere bazeudek gure sukaldean.

Apal aurretik, eguneroko errosaioa bukatzen zanean, ama eten gabeko aita-gureka asiko uan; eta aita-gure oiek danak besterentzat izango itun:

Purgatorioko animak, il-zori zeudenak, pekatariak, sinisgabeak, etsaiak, itxasoan zebiltzanak, biajanteak, espetxeratuak, pakea. Nik bai al zekit zenbat olako. Munduko gizonen bear bakoitzeko, Aita-gure bat, arratsero, an igoko uan gure sukaldetik zeru aldera. Nun billatu leikek ori baño alkar-maitasun oberik? Mundu ontarako zer aurrerapen ekarri bear ziguken oien alde otoitz egiteak? Zeñek eskertuko zin gure otoitz ori? Zeñek jakin bear zin otoitz egiten gendunik ere? Jainkoak bestek ez. Alare, eunka urte oetan, gure su-ondoko ixillean, Jainkoa bakarrik lekuko dala, egiten diran eskariak dituk oiek. Ia amar bat minutuan, sendi guzia bilduta, buru makur, biotz bera, neke guzien

ondoren, otoi ta otoi ariko giñun besteen alde, eta iñork etzin esango:

— Aski da, ama!

Beartsurik bazan, beartsuak giñun gu. Zorrik gabe bukatzen gendun urtea, urte ontzat jotzen genin. Eskaleak, alare, lekua bazeukateken beti gure etxean.

Etxe askotan, bertako morroirik ez ditek sukaldean berekin bazkaltzera artu nai izaten. Gure etxean, eskaleak ere sukaldean, gure maiean eta gurekin, jango ziteken.

Etxetik ogei ta amar metrora zegok tolare xar bat. Amaika ijito famelik lo egin dik or. Baita urtero illabeteak igaro ere, udazken aldean batez ere. Sagatsen urteko pujakin saskiak egiten zizkiteken. Zelai ta belazen itxitura bezela, bide-bazter oetan, danean sagats berriak zeudeken. Oien puja berria zume bat bezin bigunauan. Saski-taller bat bezela edukitzen ziteken tolare xar ori. Ortik jetxiko itun erri aldera, saski-pillak artuta, saltzera.

Aiek bezin beartsu giñun gu, besteren etxean aritzen baigiñan gu ere lanean. Gure ezerezetik, alare, geneukana eskeintzen genieken: aterpea.

Ni alargundu nintzanean or zeudeken, eta bazekit, gurekin zer ikusirik ez bazeukaten ere, egun gaiztoak pasa zituztela. Bi kandela erre zizkiteken, gañera, beren erara, oiek ere aren alde otoitz egiñaz. Egun triste aien ondoren lenengo ikusi niñutenean, bi ijito, senar-emazteak, pameliko buru egiten zutenak, negarrez urbil zaizkidaken:

— Samintasunean laguntzen dizugu, nagusi!

Guri ere etxeko andre on bat galdu zaigu; eta barkatu len ez etorria. Jende asko zebillen eta ez giñan ausartu.

Negar egin genin irurok, baña nere biotza poztu ziteken. Neretzat eta il zanarentzat, beartsu aien esker ona bezelakorik etzegoken. Jainkoaren aurrerako txartel oberik ezin zitzaiokeen eman. Ordain-itxaropenik gabe on egitea, ori dek kristautasuna. Dirurik ez genin emateko, aiek bezin beartsu baigiñan; baña genduna eskeintzen genioken: maitasuna. Zenbait aberatsekin baño obeto konpontzen niñun ni aiekin. Ori palta dek mundu ontan. Nik sendi-bizitzan eza-gutu nin ongi, alkar-maitasunak saltako ez duan kroskik ez dala munduan. Azken iltze negargarri ortan, ortatik piska bat eduki bagenu, ez itun gertatu ziranak gertatuko.

Gaur jendea urduri zebillek: alkar-maitasuna ta pakea nai lizkitekerek mundu zear zabaldu. Baña, beren etxeetan ez badute pake ta maitasunik arkitzen, alperrik jardungo dituk kanpora zabaltzen, ez dagonetik ezin baileike eman.

Mendiko basa-pizti bat bezin zauli, azeri artean, erruzkoa baizan orduan emen, oien gisa egin nizkin nere lenengo urteak. Altza aldeko jendeak, *arkaitz-zulokoak* esaten ziguteken len; orain *los cavernícolas* esango zigutek noski, il baidute gure zarren izkuntza.

Txoko onek etzeukak gaur orduko itxurik. Igali-fruta gauza, gaur ere, orduan ainbestexe edo bearbada geiago zegok. Arkaitz-tarteka oetan nunai arkituko dituk gerezi-zugaitzak, klase guzietakoak: txuri, gorri, beltz, aundi, txiki. Uda

re ta arana ere bai. Pikua, orduko laurdenik etzegok. Muxikak, berriz, ez dik ematen; bereala, gaitzak jota, zugaitza bera ere igartu egiten baita. Sagarra, oraindik poliki bazegok. Orduko alderatzekorik ere ez, ordea. Gaur belazea dauden leku aldapatsu oek danak, len sagasti izanak dituk. Sagardoa baizan orduan emengo edaria. Ardoa bear bazan, Napar aldetik eta kontrabandoan ekartzen genin, ederki kostata eta arraisku txarrean gañera. Amaika erori itun karabinero ta mikeleteen atzaparretan. Beste gañerakoan, sagardoa uan emengo edaria. Nekearen diña ez bazigun emango ere, ia urte guzian salgai edukitzen genin. Sos batzuk artuko zitunaren pozez, amaika arrastaka egiña uan nere ama gaxoa. Erriko *impuesto* edo zergak jaten baizitun bere irabazi pixarrak. Alargundu nintzan arte, kupe-len batzuk saltzen genizkin guk ere. Geroztik, etxeko pasaizoa egin ezkeru, beste gañerakoak, erostunik bada, tolarerako saldu; bestela, sagastipean usteltzen dituk. Orain plazarako jan-sagar-aukera ohea zeukagu, bai; askoz irabazi ohea ematen baitu.

Baña orduan inguruko larre txabal ta aldapatsu oek danak estaltzen zituzten bi zugaitz-mota, ia zearo galdu dituk: ametza ta gaztaña. Berebiziko ameztiak itun aurreko txabal-une ta aldapa oietan. Amaika onttu, gibelurdin ta ziz ori emanak. Onoko gibelurdin gain pintarra oieta-koa batez ere. Gizen, pottottak, lur-estale zenbait garaitan. Ametza bezin perretxiku-emallerik ez dek izango noski. Gaur oraindik ere, *Perretxiku-lekueta* zeukak izena, zugatz bat baka-

rrik ageri ez dan txabal-une batek. Onenbeste urtean izenak iraun dunean, ez uan nolanaikoa izango. Etxetik ateratzea aski genin, garaia zanean, saskiak bete perretxiku biltzeko. Amaika jaten genin, batez ere gibelurdin sendo, gizen, txokon oietakoak, baratxuri koskor bat txetu ta gatz ta olio-pitin bat ixuri txokon artara, eta burruntzi-puntan erreaz. Gaur ere baletxiok!

Ikazkiñak etorri itun, bada, ta erabat garbitu zizkitekengal egal oek danak. Berririk aldatzea iñori etzitzaioken gogoratu, berriz. Besterentzat lan egin bear ori, atzerapena omen uan garai aietan; gaur ere alakotzat zeukatek. Ametzarekin batera, orko perretxikudiak ere bukatu itun betiko. Ametza zearo galdu dek; zartakaren batzuk tarteka ageri dituk oraindik. Ametzak etzizguk naigaberik ematen; gaztañak bai ordea. Gaztaña ere ia arruntean galdu zaiguk. Begiratuan artzen ditugun mendi-gain ta egal oiek, gaztañegi itun garai aietan. Emengo soro-bazter ta bide-ertzetan baitun galant askoak. Beren eskeletuen antzera, enbor ederrik bazegok oraindik. Gaur egunean ere bakarren batzuk bizi dituk, erdoitu ta erdi igartuak geienak. Berririk aldatzek ez dik balio. Bereala erdoi edo gaitz gaiztoren batek jotzen dizkik; ostoz bakantzen asten dituk, igartzen diran arte. Aurki gure gazteak, ametzaren izena aztu duten bezela, gaztañik ez ditek ezagutuko eta izena ere aztu egingo zaiek. Semea somatzen nin, bai, Japon'go gaztain makatsa emengoakin txertatzen. Iru edo lau itsatsiak bazeuzkak. Ale ona emango duan edo ez, gero ikusi bearko. Ari ere min ematen zio,

biotz oneko gure iñude izan diran gaztain zar oek galtzen ikusi bearrak.

Bai, gure iñudea esan dit; ongi egia alare. Ia lau illabeteko, gure mantenuaren erdia, orain arte, gaztaña izan dek. Amaika danbolinkada erreak gaituk. Amaika txarrokada sagardo edanak, gaztain erreak janaz. Iñungo ipui gozo ta izukor entzunak gaituk gaztain erreen taupako artean. Amaika bertso zar ta berri kantatuak gaituk gaztain erreen aurrean. Ura uan benetako sendibizitza! Leio-ertzetan aize ta kaskabarra zalapartaka ari ziran bitarte, gu, su-ondoko bero ta maitasunean, guraso ta seme-alabok batuak, jan, edan ta kontu-kontari, ezeren kezka txarrik gabe. Diru gutxi, askotan zorrak, baña pakea ta maitasuna etxean; eta guraso ta seme-alabak bat egiñak. Emengo garo-ekartze ta arta-zuriketan, kazuelkada on baten ondoren, naiko gaztain erre ta sagardo-aukera bazan, etzeukaken jendeak geiagoren kutizirik.

Gaur, alkarrekin otordurik egiten al ditek? Gaur danak banaka. Biltzen badira ere, bat irrartira, bestea telebistara, batera ta banaka bizi dituk; bakoitza bere aldetik, gerekoi biurtu gaituk oso, itzik egin gabe, alkarren arrotz bagiña bezela. Ama gaixoa, berriz, supritzen ta kezketan.

Gaur arte, on zan arteko gaztaña bagenin; azkeneko urte oetan banaka-banaka igartu dituk, etxea añako gaztañak, oraindik gazte ta sasoi-koak ziranak gañera.

Orain, orren lekurako, gurea ez dan piñu beltz ori zekartek. Ez uzta, ez perretxiku, ez itzal. Pusketako ere ezer askorik ez dik balio.

Ori ditek emengo kutuna, artzaiak ere begitan daukaten piñua. Lurra zearo aultzen dik; eta garorik ere ez dek sortzen bere azpian.

Gaztain zar gizarajoak, gure gaztetako iñude oparoak, betiko galdu zerate, eta gure gaztearoko mantenuaren erdia zueri zor dizuegu. Agur, gaztain zar biotzekoak! Euskaldun zarrok ere banaka-banaka bagiazik zuekin batean!

Ondoren bultzaka datozen gazte oiek nor dituk? Ago ixilik, mingaña; etzaik esatea komeni. Jainkoak eman dizkigun doairik aberatse-nak maitatzen ere etzigutek uzten-eta. Ago ixilik, bai! Len ire semeak bizia eman zuten bezela, ostatu aundirako bideak laxter egingo dituk, egia badiok. Oroitze utsak ere illuntzen zidak biotza, eta negarrezko erbeste ontatik lenbailen aldegiteko poza nabari dit biotzean. Izkuntzarekin batera, lur onen apaingarria ere bazeramatek, gorputz ta anima beste erri bat egin nairik. Bazirudik eguzkia itxas gañean urruntzen dijoakigula eta Euskalerra maite ontara betiko arratsa datorrela.

— Zu dijoanarekin itxutua zaude, Joxe; ez da oinbesterik izango. Gaurko gazteok ere Euskalerra, bere berdin gabeko izkuntz ta guzi, maite degu. Gu ere euskaldunak ez ote gera bada?

— Etzekit benetan edo txantxetan ari aizen. Nik, nere begi ta biotz zar oekin lengoa ikusten detala eta, ura galtzera dijoalako, nere biotz dijoanari lotu onek min dula, ez dit ukatuko. Ai, motel! Aurrera begiratuta ere, illuna zeok etorkizuna! Iltzen ari baita, iltzen, euskera!

— Asko galdu dala, egi biribilla da. Leku askotan euskerari eusten asi dirala ere, ez dago ukatzerik, ordea.

— Guraso euskaldunak semeak euskaldun ezin badituzte egin, guraso erdaldunak nolaz sortuko dizkitek? Itxaropena dek azken galtzen dana; eutsi orri! Benetan maite badezute, zuena dek auzia. Maitatzean, or zegok guzia. Ai, Ataño! Nai nitek ik arrazoi bauke eta nik utsegingo banu!

Pixka batean ixil-ixilik egon zan pentsakizunez; asperen luze bat egin ondoren, jarraitu zion berriz ere lengo ariari:

— Oraindik ezagutu detan gaztain-gerririk lodiena, arunzko bide-gurutze artan uan, erdi-erdian, iru bideak berezten zituna. Ordurako, barru-uts zioken, eta agure zar baten ille banaken antzera, abar ale batzuk bazizkin oraindik. Ura uan gaztain-enborra, ura! Bost gizonek besorik beso ezin artu zuten gerria. Gaztea zanean, etzin nolanaiko itzala egingo; bai gaztain-alemordoska ederra eman ere. Aita zanak, guk bezelatsu ezagutu omen zin. Buru-abar ustel artatik, gaztain, aritz, urritz, lizar ta belar-landare berriak jaio ta, bere barrungo ezetasunari eskerak, gaztañaren buru-adarrean bizi itun.

Oraindik ume niñun, baña oroitzen nauk oraindik nola eman zioten bere azkena. Umetan gu ere, besteen gisa, jostallu xamarrek izaki, eta, gudaren bukaeran, gure etxe-inguru ontan billatutako kartutxo-pillak bazizkin nere anai Juan Krutzek.

Bazkalondo batean, gure guraso maiteak lo-

xuxtan zeudela, ote-molloz bete genin gaztañ zarraren barrua, genitun kartutxo-pillak ere barrura sartuaz; su eman ta leku babes batetik begira jarri giñun, zer tarrapatakoak ateratzen zitun entzun nairik. Sutan zegola, an azaldu zai guken, Altza gañetik kañonazoz erraustu zuten Ataño baserri zaneko gizon xarra. Atxurra bizkarrean, patxaran patxaran, arunzko egalean zeukaten belar-soro batera ziaken. Etxez aldatu baziran ere, lengo barrutiak beren esku baizeuzkaten oraindik.

Juan Kruz ni baño zortzi bat urtez zarragoa baizan, ordurako ondo juizioan sartua, bera genin gure sallekoko buru; bera antolatzalle ta suemalle. Gu, aren esanetara lan egin gendun morroi batzuk besterik ez giñun. Gertatzen zana gertatu, guri etziguken bost ajola. Baña Juan Krutzek, bidean onuntz zetorrela ikusi zuneko, izutu xamarra, ala esan zigukun:

— Ia balaren batek arrapatuta, gizon ori bertan geratzen zaigun!

Sutan zegon gaztañera urbildu baño len, aurreratuz, ala esan zioken anaiak:

— Aizu, Ataño! Obe zenuke piska batean emen gurekin itxogingo bazenu!

— Ume mukizua aleena! Utzi nazak pakean! Jolaserako nagola uste al dek?

Anaiari zear-begiratu zorrotz bat egiñik, purrustaka bere bidean jarraitu zin.

Ordurako, gure guraso maiteak-eta, gaztañetik gora zijoan keari begiratuz eta Ataño xarraren purrustak ikusiz, arriturik zeudeken atarian.

Gure Ataño xarra gaztain ondora urbildu

zanean, asten dira tiroak! Gizajoa! Ura Ataño xarraren larria! Aidean bota zin bizkarrean zerraman atxurra; txapela ere aizeak kendu zioken, eta, bere buruko ille txuri banakak aidean zebilzkila, igesari eman zioken gure etxe aldera.

— Gerra bukatu zala! Gerra bukatu zala! Nundik zetozek bada tiro oiek?

Atañoen larria ez uan arritzekoa: gortu xamarra ta lausotua baizegon ordurako, beti bere buruarekin izketan eta erreminta geienen izenak ezin gogoratuz ibiltzen zana, tiroak nondik zetozen etzioken antzik ematen.

— Gaztain zarretik, Ataño! —erantzun ziokeen anaiak lasai asko, alako gibela al zin izan ere—. Piska batean itxogitea komeni zaizula esan dizut bada! Gaztain zarrean sartu ditugun kartutxoak ari dira tiroka!

Ari ojuka ez uan alperrik ari anaia; ordurako gure atarian uan-ta.

Guk esteak bota genizkin parrez; baña gurasoak, Ataño xarraren imintzio ta larriak ikusirik, etzekit nola etziran lertu.

Alare, aitak, lagun maitea baizuan, bere abots ederrean onoko bertso onekin agurtu zin gure Ataño xarra:

Onuzkero gutxinez

eun urte baditu,

bere eginkizuna

daneiri serbitu.

Orren pazientziyak

zenbaitek balitu...

Sua emanagatik

ez dute mugitu.

Nere aitaren bertso au besterik etzekit. Ja-kiña, bertso au sutan zegon gaztañari kantatu zioken, baña Ataño xarra zirikatuz, pazientzi geiago artzeko alegia.

— Ator, ator, Ataño! Ori ere egin al ditek bada!

Sukaldera eramán da Naparroa'tik ekarrítako baso bat ardo zar eman zioken, oso ardo-zalea baizan, eta lasaitu uan gure Ataño.

Arek bidean galdu zitun atxur, txapel, toxa, dunda eta igeltsuzko pipa, au bi erdi egiña, an anaiak eskura eman zizkioken.

— Utikan, ume txatxuak aleenak! Ez didazute susto txarra eman! Zuek adarra jotzeko nagoa uste al dezute?

Pipa bi puska egiña ikusi zunean, errukitu egin uan Atañotzaz aita. Beti iru edo lau berriak edukitzen zizkin, eta aietako bat luzatu zioken. Ez uan galduan atera.

— Eskerrik asko, Bixente! Zure seme oiek biurriak datoz!

— Danok bezelakoak, Ataño! Gaztetan amaika olako egiñak ez al gera gu? Badakik ik ere ongi ori.

Pake-pakean joan uan lanera. Atarramentu onik ez genula egingo, ez, ta urrengo eguartean bertan bota genin ikusgarrizko gaztain ura.

ALDAKETAK

Goiz batean zaldizkoak igo itun bide zakar oetan gora. Beste amabost bat egunean, goizik uts egin gabe ikusten genizkin, betiko bidetik igo eta jexten. Bidean topatzen bagiñuzten ere, etziguteken egundo agurrik egiten. *Mil reales, dos mil reales* beti diru kontari. Bereala bataiatu genizkin. Ordurarte *No entiendo*'koak ziranak, andik aurrera *Diru-kontarien* izenarekin ezagutuko dizkigu.

Nere aita gazte zala, azaldu omen uan emen gizon txiki bat, erdaldun utsa. Illabeteak joan ta aldegiten etzula ikusi zutenean, norbait illa edo igasi etorria izango zala-ta, arrapatu egin ziteken. Egiten zioten galdera bakoitzeko, «*No entiendo*» erantzuten omen zin. Ordutik, euskeraz etzekin guzia, *No entiendo*'koa uan gureztat.

Karobia galgal beroena zegon garaiean ekarrita, batek besoetatik, besteak anketatik artuta, «Bat, bi iru, lau!» esanta, aidean karobira botatzeko keñu egiten zuten bakoitzean, «*¡Perdón!*

¡Perdón!» esaten omen zin. Izutu-erazi ta andik aldegitia nai baizuten. Utzi ziotenean, ark eraman omen zizkin larriak. Ez omen uan geiago azaldu, ez.

Oraingo diru-kontariak arto zetozen. Azkeneko guda ondoren gure nagusi bakarrak berak baiziran, beren etxean zebiltzaken.

Guda bukatu zala urteak itun. Ukulloa osatu genin; etxea antolatu ta barruti danak ongarriz, azkeneko gizon-iltzearen kutsuak garbitu ta bizi-pozean buruak jasotzen ari giñun. San Markos ta Txoritokieta aurreko bi mendixka oien oñetan babestua, ederki zioken gure baserri xarau. Etziguteken emen ere ordea pakean utzi. Orduan asi itun emengo aldaketak. Madrid'go agintariak, bein lur maite onen jabe bakarrak egin ziranen eta berriz alakorik gertatu etzedin, gu esku ta oñak lotuta uzteko, asmakizun berriak sortu zizkitek: Euskalerriko mendirik erosenetan guda-gaztelu batzuk jaso, aiek leporaño soldaruz ta armaz bete ta kito: beti garrondoan ezpata. Euskaldunok ez alkartzeak zekarzkin aurrerapenak! Gaur oraindik ere akerraren adarrak bezela gabiltzak. Esnatu gabe galduko gaituk.

Gurasoak baziteken bildurra. Diru-kontarien eguneroko gora-bera orrek etziguila on aundirik ekarriko zioteken geienak. Bereala zabaldu itun susmurrak, San Markos eta Txoritokieta'ko gallurrak esolez beteak zeudela; diru-kontariak beren neurketak egiten ari zirala. Igande batean guk gure begiz ikusi genin. Zer asmotan zebiltzan asmatzen, etzioken zalla. Bereala asi itun

Antxo'tik gora bidegiñan. Susmurrak egiak atera itun: bi guda-gaztelu jaso bear zituztela-ta langille-eskeak asi itun.

Aurrean dauzkagun bi oietan, orduan asi zizkiteken bada lanak. Len mendi zoragarriak ziranak, moztu zizkiteken, sator-zulo oiek egiteko. Gizonaren arrokeriak itxusitu besterik etzizkin egin. Len pake-leku zana, gizon iltzeko txismez leporaño bete eta guda-zulo egin. Geroztik, len bezelako pakerik etzeok txoko ontan. Gure barzetan arakatzallerik etzaiguk palta. Arrano-kabi oiek aurrerapen aundirik etziotek ekarri gure etxeari. Danok anaiak omen gaituk, eta ba-koitzari berea ezin eman. Jainkoak aske egin zuan anai bat, bere menpeko jarri bear besteak. Zapaltzalleak zabaltzen diguten ate-txulotik nai ta nai ez igaro bearra. Orra zertaratu duten gure Euskalerrri xarra.

San Markos gañean, mendiari izena ematen zion ermita txiki bat bauan. Bota ziteken, baña berririk jaso ez.

San Markos ta Txoritokieta'n guda-gazteluak jaso bear zituztela-ta langille-eske bandua jo zutenean, ikustekoa uan emen. Udar an eltxoa bezela, ura jendearen emana! Jakiña: lenbiziko, bidea zeukateken egin bearra. Etzekit nundik azaldu zan ainbeste jende, baña laxter lardaskatu ziteken beren bide-legea, San Markos ta Txoritokieta'raño. Inguru oetako itzai ta mandazaiak lan-aukera bazeukateken; or billatu ziteken beren Amerika. Inguru oetako baserritar gazte jendea ere, berak ziotenez etxeko seme sobranteak, onera urbildu itun.

Inguruko erri koskorrak urruti xamar zeudeken, eta, bakoitzak al zuan bezela, bertako baserri ale oetan billatu zizkitekenez beren apupillolekuak. Jainkoak zekin lekukoak ere baitun. Bidasoz arunzkoak ere bai tartean. Eltzekondo ta Txirrita ere or ituan beste askoren artean.

Gazte jende kaskarin xamarra; irabaziak aurreratzeke gogo aundirik gabea. Urte guzian sagardoa salgai edukitzen baigenun guk, igande ta jaietan ez uan atsegin izaten. Orko zurruta, jokia, bertsoa, burruka ta sesioak; tarteka-tarteka nik egundo entzun ez nitun birao itxusi ta gaiztoenak ere bai. Lana ta ixtillua galanki ta irabazi gutxikoa dek, motel, sagardo saltzea. Amaika arrastaka egin zin nere ama gaxoak. Aste-egunak aski ez baziran bezela, jaiak-eta okerrenak. Alare, beti bezin beartsu.

Emengo burruka, joko ta jolasak ez nioteken ni pozten; bertsolariak bai. Aiek txoratzen zidateken biotza. Garai artan iñun ziran onenak, emen egiten baizituzten billerak. Txirrita, Artzai Txikiya, Gaztelueneko Xaturnino, Juan Kruz eta oien zorrik gabeko beste asko, danak gazteak; aiek bertsoan asten ziranean eta bein alkarrengana bildu ezkerro jakiña uan ori, txoko batean begi-belarri antxen egoten niñun entzuten. Aiek ordu zoragarriak! Aiek ainbeste ez ote nintzan izango? Aukeran aukerako bertsolariak baiziran. Alakoan, batere berezkoa duanak, nai ta nai ez bertsolaria atera bear. Bertsoa asi orduko, nola bukatu bear zuan antz ematen asia niñun. Baña bertsolari-etorria ere ongi Jaungoikoaren doaia dek. Emendik atera gabe zeudenak,

beti bertsolari tartean bizita, alare tankerik ematen etziotenak baitun.

Edan xamarrek zeudenean, eta zoritxarrez askotan gertatzen zana uan ori, bertso-joku txiki bat egiten ziteken. Emandako denboren neurritan bertsorik bukatzen etzuanak, danen erronda ordaintzekoa. Danak sartzen itun; baita lanean ari ziran emakumeak ere. Oek, geienak, buruz bertso asko zekizkitek, ainbeste entzuten al ziteken izan ere; alako bat kantatu ezker, pakean uzten zieteken. Baña ikusi baitun batzuen istilluak... Ez baiziran diruzko aukeran bizi orduan; erronda aundiak itun, berriz, eta min ematen. Eta zer nola kantatu ezin asmatu. Amaika algara gozo egiñak gaituk. Zarrenak asiera emango; ondoren, banan-banan, azkenekoa arte. Neurutako denboretan kantatzen etzuanak, bazekiken zer zigor zeukan: danen erronda ordaindu bear. Bertso bikañak baitun tartean; itxura aundi gabeak ere bai.

Gure auzoko mutil gazte batek, edan xamarra zioken noski, sagardo betetako txarroa eskuan zuala, onoko bertso au kantatu zin:

Diferentiak izaten dituk
duru eta pezeta,
ukulluetan alperrik zeudek
esne gabeko beiak;
ik e, Listorretako gañian
izerditan uanian,
txarro ezpañ motz ontatik pozik
egingo uke txurru-pat.

Bertso bikain orri zer doñu emango zion, pentsatu besterik ez dek: itxurik gabea eta ez par egin-araztearren oberik ezin asmatu zulako. Larri-aldia pasa zanean, asperen luze bat egin ondoren, txarrokadaren erdia arnas batean ustu ta exeri uan esanaz:

— Aiaiaia! Amar arruako arria jasotzea baño geiago kosta zaidak, ala jainkia, bertso ori! Erronda onek onenbeste neke merezi dik!

Beste bat ere bauan, onen anaia gañera, gero Ameriketara joan ta an il zana. Egundoko bertsolaritzat zeukaken bere burua. Onek ere, ez anka ta ez buru, kantatu zin bat. Aren poza! Bertsorik bikañenak baño par geiago egin-arazten ziguken olako itxura gabeko batek.

Nere aita zanak, adar-jotzalle txorrotx oieta-koa baizan, ala esan zioken:

— Bejondeikela, motel! Ederki kosta zaik, baño azkenean bertso polita moldatu diguk!

— Nai ta ere, bertso txarrik ezin kantatu nezakek nik —erantzun zioken.

— Arrazoi dek, motel! Idiak ere ez dik egundo ume txarrik egiten!

— Amairu ta amalau puntoko bertsoak botatzen oitua nago gero ni!

— Asi bai amalau; bukatu alerik ez! —erantzun zioken aitak.

Ongi egia dek, bai, berezkoa ez danik, saiatzeak ezin lezakela bertsolari egin.

Orduan bai euskera zala emengo nagusi. Azken alde oetan egin dan aldaketa, jaunak! Aurrapenaren etsaiak ez gaituk. Ar-zuloetako garaiak bukatu itun betiko. Betor lana; betor di-

rua; betor aurrerapena; betor kirola ere. Erririk aurreratuenaren mallaraño jaso dezagun. Bizimodu guri batengatik etzagun nortasunik galdu. Etzagun euskerik saldu. Aurrerapen oiek danak euskaldunen ta Euskalerrriaren onerako enplea ditzagun. Erri`daten gorputza indartu ta dotoretzeko, bearrezkoa al dek izkuntzaz, animaz aldatzea? Orrek besteengandik berexten gaitzik. Orrek egiten gaitzik euskaldun. Ori galtzen bazaigu, ez dek lengo bera izango Euskalerrria, ez; beste edozer. Erriarekin batera, dotoretu, edertu, indartu dezagun euskera, bere anima, orrenbeste maitasun merezi dik-eta. Ortara, gu galduko gaitun indarrrik etzeok lurbira osoan.

Lenbiziko diru-kontariak ere orduan asi itun, beren zaldi gañetan zapaldu zuten lurrean barrenena, patxara ederrean gora eta bera. Asi baziran, asi itun; ia ito gaitzik oraintxe. Orduan diru-kontariak bezin bakan zetozek gaurko egunean euskaldunak gora. Euneko bat edo bi entzuten baditugu, konten. Auzoko aiton-amonak ere, euskerari muzin eginta, erderari eratsi zaizkiok. Moda berri bat, eta danak orren billa. Ai, nere odola balebil beren zañetan! Gu bagiazik; or konpon zuek! Euskerari eutsi nai badiozute, nun joaren paltik ez daukazute, eta gaur arte baño lan geiagoren bearrean zerate gañera. Altzagain ori ere, baserrietaraño erderak irentsi baitu.

Ai, Euskalerrri maitea! Ire izkuntz zoragarri orrekin ain ederra intzana! Orrengatik ago, agon bezela! Soria'ra ez dituk ire lurrera ainbeste arrotz sartu, ez! Emengo txalet, jauregi ta pau-

rrika-txistuen artean bizitzeko aiña ez ote augu, euskera maitea? Jakinduriz jazteko ez ote dek balio? Jakintsuen mingaňak lotu egiten ote dituk bada ik? Baserriko gorotz ta artzaien gazta-usai arterako bakarrik ote augu ona? Guda mardarikatuak! Zuek dituzute erru guziak! Zuek ontaratu gaituzute!

Barka akidak, Ataño! Euskera ta Euskalerriko egoera triste ontaz oroitzen naizen bakoitzean, nere onetik ateratzen bainaiz. Izan ere, guk, biotzez maite degunok, ainbeste supritu al diagu!

Baña au ez dek gaurko pekatua. Danok euskeraz itz egiten genin; zoritxarrez, ez genin maite. Ordurako erreztun ta makil asiak itun ikastetxetan. Ez genin idazten eta letzen euskeraz; zerbait zekinak erderara jotzen zin. Erriko jaietara joaten giñanean, an ikusten genizkin: beren kapelu aundi, erreloju ta kate, bibote biurrituak ezpañetan, dotore jantziak, euskaldun garbiak, erriko semeak, aiek euskeraz itzegin! Beirok! Danak erderaz alkarrekin! Gu, mutil koskorrak, ao txabalka aieiri begira, ala esaten genioken alkarri:

— Oiek medikuak badituk gutxieneko, kastellanoz ari dituk-eta!

Orra piskana-piskana eriotzara garaman gaitzaren asiera. Orain euskerak maitale geiago zeuzkak. Beste eragozpen batzuk itotzen gaitzik ordea gaur.

TXIRRITA

Bertsotarako ezik, jokorako ere itxuak baitun. Oietako bat uan, gure etxean apupillo zegona. Izengoitiz, Jaio deitzen zioteken. Euskaldun garbia, Bidasoz arunzkoa, sasoi xamarreko gizona ta mutilzarra noski. Argiñik onenetakoa, asko irabazten zuna, jan-edanean neurrikoa, itxua uan jokorako.

Txirrita, aren argin-pioi aritzen zana, bertsolari zoragarria, beste edozertarako ere prest zegon mutil gaztea, ajola gabea gañera oso. Aundia, luzea ez bazan ere; indartsua ta lanerako aparta, nai zuanean; baña ez uan lana geiegi maite zuan oietakoa.

— Dirua ez dek egoteko egiña! Diruak korritu egin bear dik, korritu! Ortan zeukak bere irabazia! —esaten zin maiz aski Txirrita gazteak.

Orain esatera noan gertakizun au iñork bai ote daki? Gure etxean bestetan iñun ez dit entzun. Etzekit Txirrita gaztea Jaioren argin-pioi zalako-edo, arratsaldero, lanak utzi ondoren, San Markos egal ontan jokoan aritzen omen itun biak.

Beti bezela arratsalderoko saioa egin zute-
nean, betiko orduak baño lentxeago, estu ta la-
rri etorri uan Jaio gure etxera. Zor zitunak azke-
neko zentimoraño ordainduz, amari eskupeko on
bat emanda, zitun traste pixarrak arturik, emen-
go lanak bukatu zitula, bai, ta, agur egiñaz, pre-
saka aldegin zin.

Nere amak esan ere bai:

— Orixe gizonaren presa! Daldaraka zio-
ken! Bildur gaiztoa sartu zioz zerbaitek orri!

Jaiok aldegin da ordu bete baño len, ixti-
lluak itun gure etxean. Zaldizko bi guardia zibil
beren bibote aundiakin; eta, jakiña, erdaldun
utsak. Jaioren billa zetozezen, bizkarretik laba-
na sartu ta mutil gazte bat il zuala-ta.

Nolabait adierazi zieteken, zitun traste piza-
rrak artu ta azkeneko zentimoraño dana ordain-
duz, aldegin zuala. Aren aztarrenik ere etziteken
geiago atera.

Bitarte ortan, Jaiok labanazoa emanta il zala
esan ziguten gazte gizajoa, oraindik bizirik baña
naiko lanakin, il-zori, odol ustutzen, angarilletan
beko kantina txikira zekarteken, gero andik Do-
nosti'ra eramateko asmoan. Lekutan zegok andik
Donosti, eta orduko aurreapenakin bidean odo-
lak itoko ziela, esan bearrik etzegok.

Il-zori zekarten gazte gizarajo ura, guk bil-
dur genduna, Txirrita izaki. Zergatik labanazoa
eman zion, ez genin egundo ikasi; ala komeni
zitzaiolako-edo, ixilik gorde baizun.

Kantina txikira urbildu ziraneke, ojuka azal-
du omen uan bertako nagusia; bere seme bat aña
maite baizun Txirrita. Egun artan edan xamarra

baizegon gañera.

— Gazte gizajo oni, zer egin diozute?

— Guk baño obeto, berak jakingo dik ori!
—umore txarrean baizeuden.

— Nora daramazute orain?

— Donosti'ra eramán bearako! Alperrik nekatuko gaituk noski, bidean odolak itoko baidigu! Bizi dan arte beintzat, alegiñak egin ditzagun!

— Uztazute gaurkoz emen! Uztazute nere etxean! Gela txiki bat bazeukat utsik, eta ara eramán zazute! Aizak, gazte: ongi ordainduko dit eta sendagilleari abisa akiok lenbailen etortzeko! Ni egiten nauk gazte onen kargu!

Donosti'ra zeramatenak ez itun asarre. Alaxe, kantina txiki artan utzi ziteken Txirrita il-zori. Gaztea izaki, osasun oneko ta indartsua; oraindik ezeren aje txarrik gabea. Egun batzuk larri-larri pasa ondoren, onera eman zin. Edale amorratua ta ase eziña izaki orde Txirrita. Oraindik sukarrez gori kiskaltzen zegola, aldameneko oi-pean, ala bear-ta, tabernariak berak, izan ere ia beti geiegian zebillena uan ura ere-ta, bi pitxar ardoz beteak ezkutatu etzizkin bada? Bai bere lo zorrotik Txirritak ikusi ere. Al zuan bezela jeiki, bi pitxar botillak tantorik utzi gabe ustu, eta mozkor-mozkorra, oieratu eziñik, luze-luze, oztua eta korde gabe arkitu ziteken.

Tabernariak, izututa, kezkatu xamar ere bai, berea baizan errua, bein Txirrita kontura etorri zanean, asarre bizian eraso omen ziokeen:

— Ai, Txirrita, Txirrita! Epela sartu diguk!

Oraintxe bai ere burua galdu dekela! Azkeneko ardoak edan dituk! Astoa aleena! Ori egingo igun bada? Iri on egiteak ez dik askorik balio!

Ikusi zuten sendagille guziak etsipena eman zioteken. Il-zori zegonaren bizkar erruki aundi gabe, esan omen zioken arpegira:

— Biar goizerako sendatuko aiz, Txirrita!
Zergatik esaten zion igerririk, itzetik ortzera, erantzun omen zioken Txirritak:

— Ezta il ere, jauna!

— Bi orduko bizirik ez dauka ta ori da gizonaren korajea! —esanta, joan omen uan sendagillea.

Arratsa etzula arrapatuko, goizerako ilko zala, egun batzuk estuasun larrian pasa ondoren, berriz ere onera eman zin Txirritak. Andik bi illabeterako, gure kupelategian bertsoan aritze-ko moduan uan. Bi orduko bizirik etzeukala esan zunak, etzin asmatu. Azkeneko ardoak edan zitula esan zunak, ain gutxi. Ogeiren bat urte inguru zizkin artean Txirritak; irurogei ta amalaura bitarte, Txirritaren adiña il zanean, ezta rri zar artan pasa ziran ardo-sagardoak pilla batean baleude, merkatuko ituke. Gure kupelategiko txotx berri bat galdu etzuan gizona, ura uan gero!

Ainbeste ez edateko, maitasunez norbaitek esaten bazion, laxter zin erantzuna:

— Txirrita esker oneko gizona izan dek beti. Bi bider nere bizia ardoari zor ziot; maitasuna ere bai.

GAZTEARO

Mendi oetako lanak ere, bein bear-ta, bukatu itun. Ordua uan. Udazken-sarreran enarak bezela aldegin zin jendeak; txoko maite ontan azi txar asko erein ta gero ordea. Geroztik kalte besterik egin ez diguten gaztelu zar sator-zulo oiek or geratu itun betiko txutik. Zer gerta ere, lepoan beti ezpata.

Pakea etorri uan txoko ontara; neretzako ez ordea. Urte estuak itun aiek neretzat. Lanpetik ezin atera; lanaren morroi geratu niñun; eta biotza ere, len pakean lasai lo neukana, esnatu. Nolakoak egiten gaitun Jainkoak! Urte betez lenago lagun nitunak, neskatxak alegia, ajola gabe jolasean ibiltzen giñanak, urte betez geroago, beirok: ez aiek nerekin eta ez ni aiekin; alako errespeto bat artu genioken alkarri. Ori etzidaken neri iñork erakutsi: aiek eta ni ez giñala berdiñak. Baña, iñork esan gabe, laxter antz eman nioken; aiek ere berdin. Esnatu niñun. Pakeak aldegin zin nere biotzetik; nere urterik onenak joan itun. Orain ler bear lanean, eta

itxaso bat biotzean: gaur paketsu, biar asarre; gaur pozez, biar negarrez. Olakoxeak egin gaitzik Jainkoak, eta borondate ona bear, bere neurrietan edukitzeko.

Gure aita zana, zartu xamarra, alargundu ta berriz ezkondu baizan, etxeko pakeak aldegin zin. Semerik zarrena, ogei urtez gorakoa ordurako, etxeko maiorazkoa galdu zunean, aitarekin asarretu ta Ameriketara joan uan. Geroztik etzin sorterririk ikusi; ez baizuten iñun aren aztarrenik atera. Etzekigu ez nun bizi ta nun il zan. Ez nin ezagutu; ni jaiotzerako aldegiña baizan. Nunbait or, onen antzeko zenbat euskaldun galdu ote da?

Orrengatik, lenbiziko amaren seme-alabetatik gurera, alde aundia zioken. Aiek ezkondu ta aldegin zutenean, aita xarraren ondoan, gaztetxo oraindik, bakarrik geratu niñun, baserri zakar ontako lanak egiteko.

Ainbeste maite nuan nere anai Juan Kruz ere, ezkondu ta joan uan etxetik, Loiola'ko kuartelak dauden txokoan, Telleria izena zuan baserri zoragarri batera, ibaiaren ertz-ertzean. Kuartelak egiteko baserria kendu ziotenean, Errenderi'ko Arramendi'ra etorri uan; baña ordurako alargundua, eta or utzi zin betiko mundu au. Amazazpi bat urtetarako, bada, nere bizkar geratu itun etxeko lanik geienak. Aita ordurako zarra baizan, eta ez uan ezer askotarako gauza. Bi arreba banizkin; baserri-lanerako, aiek eta atarian aizea, berdintsuak itun. Anka azpian zika ari dan sube-gorriak baño geiago izutzen zizkin eguzkiak, gizona! Urte guzian eguzki-izpi

batek etzin aien arpegirik ikuitzen. Gaurko modarik ez uan oraindik sartu. Gaur, suangillen gisa, erdi larru bizirik, or zeudek, izerdi-koipe-tsu, eguzki berotan kiskaltzen, beren azal txuria egosi ta bezten. Aiek eguzkitara aterako zitun kristaurik ez uan, bada, gure etxean. Ezta markesaren alabak izan balira ere.

Lan nekosorik geienetarako, bakar-bakarrik geratu niñun. Lan egitea zer dan, iñork etzidak erakutsiko. Metroarekin asten bazerate, neurri aundirik ez didazute artuko. Geronekoan orixe bera esan zidaken jostunak ere. Alare, ni bezelako bi irentsiko zituztelakoan zeuden kankallu galantak, bein baño geiagotan eziñean geratu itun nere ondoan. Amaika izerdi-ixuri ta kataska egiña zeok gorputz xar au geroztik. Jan-edanean eta erretiroan neurritz badabil, lanak nekez galduko dik gizona. Izugarria ez nauk; majiñatxo bat ler ta lan egiña bai ordea. Bezteko kupirik gabe aritzen niñun. Basakarana bezelakoxea niñun; alperrikako gantz ta koipe-kutsurik gabea; osasuna, berriz, saltzeko ere bai. Zumea bezin ximel ta biguñ, emengo mendi-muturrei eragiteko ez nin itxogin bear aundirik izaten.

Ordurako, kontrabandoan asia niñun. Patrikarako diru pixar bat nai izaten nin, eta etxeko lanetik, berriz, dirurik ezin jaso. Eguneroko baserri-lanari berea eman orduko, ukulluko lanak eginta, gañerakoak lasai lotara zijoazten bitarte, zaku txiki bat bizkarrean artu ta ixil ixilik kontrabandora; ango irabazia neretzako bainun. Kaja zarren bat bizkarrean nuela, ler egin; gabaren erdia mendirik-mendi galdu, eta goizean, eguna

orduko, jeiki bear berriz. Karabinerorik ez nin egundo bide oietan topatu. Bein Ernani'ko zubian zer gertatu zitzaidan, ondo gogoan zeukat. Ezkondua niñun ordurako.

Koñarua ta ni, barrilla koxkor bana espiritu bizkarrean, Ernani'ko zubiraño iritxi giñun. Nere laguna, kontrabandoa arena, karabinero, mikelete edo beste guardirik inguru artan bai ote zebillen ikustera joan zan bitarte, bi barrillak bizkarrean nitula, bakarrik geratu niñun, ura etorri zai, zubian. Etzekit espiritu arek txorabiotu ote niñun; arrats illunean eta Ernani'ko zubian bi barrillak lurrera erori etzaizkidaken bada? Aiek atera zuten otsa! Zer gertatzen ote zan izutua, laxter azaldu uan laguna, eta aruntz-onuntz zubian pirrilka zebiltzan nere bi barrillak ezin arrapaturik nebillela ikusi nioken. Aiek algarak, arenak! Andik etxerakoan ere, milla bider igaro nun bide-txigor bateko langan galdu-ta, orduak bota nizkin etxerako bidea ezin billaturik. Gero lagunak esan zidanez, arek ere gau gaiztoa pasa omen zin.

Nere kontrabandorako bideak orduan bukatu itun. Etxera ekartzen zidateken andik aurrera. Gure mendiko arkaitz-zuloren batean gorde eta sagardotegirako aitzakitan zetozenak artuta, dendarik-denda zabaltzen zizkiteken nunbait.

Kuba'ko gudate ura ere garaitsu ortan uan. Nere bi kontrabando-lagun an galdu nizkin betiko. Aien izenik iñork etzin jaso; beren etxe-koak ere negar egiteko eskubidea besterik etziteken eduki; gudazale ziran aundiak, bai. Itxura gabe ainbeste gazte illerazi, lur-mutur guziak

galdu, eta alare aiek omen itun gizonak. Jainko maitea, itxumen ori noiz arte?

Kitolo deitzen genion morroi erdi txoro batekin, zenbat lan egin ote nun urte aietan? Ez nioteken alare igande ta jaietan etxean arrapatuko; inguru oetako erri koskorrak aidatzen genizkin guk. Baserri oetako neskatxik geienak ezagutzen nizkin; danak itun politak eta gustagarriak; urte oietan ala ziruditek beintzat. Inguru xamar ontan, begiz joak ere banizkin; aiekin itzegin, ibilli edo dantzatzerik... ori ez oraindik.

Nere aita zanak amaika bider esan zidaken.

— Aurreratutako ollasko koskor ttonttor gorri oietako bat dirudik, ollo xarraren baranoan bueltak emanaz eta egoak zabalduaz kukurruka. Beirok, motel: suakiko jolasak txarrak dituk gero!

Begien ondoren, biotzak ere iges egiten, berri, neri. Jainkoak bata besteentzat egin gaitzik, eta ez dek arritzekoa. Ain umetzat ere ez neukaken nere burua. Astero bizarra ebakitzen bainun.

Aurrean daukagun baserri xar ori nere gain geratu uan, bada. Bazioken nun joa. Ainbeste azienda ukulluan; zelaiak ezik, mendi-tarte oek danak laiatu bear, garia ereiten baigendun oietan. Artoa, babarruna ta garia; orixe uan orduko uzta. Emendik begiratuta ikusten ditugun baratz oiek, geroztikako aurrerapenak dituk. Erri aundi oen inguruan, baratza dek seguruena.

KINTO-URTEAK

Eguarte batean, alako abisu txiki bat ekarri ziteken Errenderi'tik neretzako: urrengo igandean, amabiak inguru ortarako, udaletxera azaldu bear nuan deia. Nere kinto-urteak itun. Ez itun nai ordurako etorri. Ogeira baño, ogeitik berrogeira aixago salta nin. Ainbeste bider lagun artean aitatu gendun eguna ere, etorri orratik noizbait. Ez niñun asarre. Lanpetik atera ta urte batzuk lasai pasatzeko zoratzen bainegon. Mundu biribil au ikusteko aukera bikaña. Gure aurretik izan ziranak, beste konturik etzebilkiten. Beren Madrid, Barcelona, Amerika, Afrika, gu gazteok ao-txabalka entzuten gendula oarturik, gozoak jartzen itun. Zanputza bezela aizatzen itun, motel. Gazte askoren buruak txoraturuz, egi-itxuran gezur galantak ere sartzen zizkiguteken.

Galtza zarrakin joan ta zarragoakin Amerikatik etorritako indiano bat bauan, gure kupe-lategirako joera aundia zeukana. Amerikako kontuak esaten asten zanean, aren itz-jarioak etzin etenik, armiarmaren sarea bezelaxe.

Egun osoak zaldiz ibilli ta mendirik ikusi

gabeko zabal-tokiak; itxasoa bera añako ibaiak; eun metrotik gorako zugaitzak; ogei metroko subeak; egun argirik ezagutzen etzuten basope itzaltsuak; gallurrik ere ageri etzuten mendiak. An ez uan ezer ere txikirik, eta danetik aukeran. Ezin sinistu leizken kontu oek esaten ari zala:

— Motel, motel! Ire zorioneko Amerika ori nun zegok, gu ere ikustera joan gaitezen? —bera baño len Ameriketara izan zan batek galdetu zioken.

Beatz bat txistuz bustita, kupeleko autsetan zirri-morro batzuk egin zizkin, eta ondoren esan ziguken:

— Au dek mundua.

Andik amar bat zentimetroa beatza jarriz, danok arrituko giñalakoan, esan ziguken:

— Amerika, berriz, emen zeok.

— Ala jainkia! Munduz kanpo ibilia augu orduan i. Nola ziotek bada ao batez danak, bein mundu ontatik ateratzen danik ez dala geiago etortzen? Bejondeikela iri!

Berak iñozotzat jo zitun inguruan zeuzkan baserritarrak, indianoaren bizkar etziteken parra gaizki egin.

Gazte ta osasuntsu, amets ariñez gañezka eta txulo ontatik atera gabea oraindik, Amerika, Afrika, Madrid, Barcelona, aoa beteko izen oiek zer ote zeukaten ikasi nairik, irrikitzen bainenbillen. Gaurko egunean olako konturik etzegok; jaio orduko, edozein mukizuk, lurbira osoari buelta ematen baiziok.

Mendi-egal oetan, segan edo egur botzen ari-tzen nintzanean, askotan ikusten nin arnaska ta

txistuka, ke-pilla beltzak aidatuaz, *txaupaxaupax* indarka, aldapak ezin igorik, trena, bere betiko burni-bideari lotua. Aurrean daukagun itxas zabal urdin ortan ere bai, geldi-geldi, urrun, batzua zapiak arrotuaz, besteak berriz ille-mototsak ziruditen ke-zirrindak aizeari emanaz, itxas-ontzi beltzak, gau illun ta ekaitz gaiztoetan oju tristeak mendi alde oetara zabalduaz, garai bateko erensugearen antzera. Sasi-jakintsueri entzundakoaz gañera, aiek urruntzen eta aitutzen ikusirik, nondik nora ez nebilkin irudimena? Zenbat amets gozo ez nuan egiten nik! Gurasoak zeñek mantendurik eduki banu, zegon bezela dana utzita, Ameriketara aldegingo nin. Lagun asko bainitun an aurretik joanak. Laxter etortzekotan agurtu nioteken, baña betiko nunbait an geratu itun. An gelditzeko gogorik ez neukaken; asko maite bainun txoko au. Iñori saltzeko ez neukaken. Gauza berriak ikusi nai; beti aurrera begira; gaztea izaki. Gaur, berriz, oroitx zarretatik bizi nauk. Zartu naizen itxura. Ekaitz gaiztoetan oju triste aiek entzunaz, samurtzen uan nere amaren biotza, eta askotan esan oi zidaken:

— Oiek, gaxoak, larri zebiltzak, eta iñork maite gabeak ez dituk! Sukal ondoren batzutan, oek noiz joango zai edukiko dizkitek beren emazte, guraso eta aurak, besarkatzeko zorutzen eta ogi-koskor bana aora eramateko pozez.

Aien aldeko aita-gureren batekin bukatuko zin beti bere itzaldia. Oitura bera zeukat nik ere oraindik.

Ontzi oietakoren batean Ameriketara edo Afrikara joateko zorutzen bizi niñun. Aberastu

nairik ez, ez bainaiz diru-zale oietakoa. Beti aurrea, geiago ikusi, berri-zale, esna ere ametsetan; emengo lan neke oni ere, urte batzuetako bederen, agur egin. Diru-kontarien izkuntza ere, lardaskatzen bederenik, ikasiko nuala. Gaztea ez dek geldirik egoteko egiña.

Ai! Orduan ere nere amets goxoak aizeak eramán zizkin. Nere aita zana legeen berri ongi zekin gizona baizan, eta bitarteko onak billatzen zekina, aurrez eramandako kapoi-pare eder batek atea zabaltzen baizizkion.

Irurogei urtetatik ondotoz pasia uan ordurako; baserri-lanetarako ni beste gizonetzorik etzeukaken berriz. Nere kinto-lagunak aruntz ta onuntz sakabanatu ziranean, txantxangorriarena egin bear nik: betiko txuloan geratu, beti bezela lanpean, mundurik ikusi gabe, besteren kontuak sinistu nai ezik. Atzekoz aurrera jaioa izaki ni nunbait.

Dana ez uan alare neretzako zaputz. Kintan sartu nintzaneko, gizontxo egin niñun. Soldaru aurretik, jai eder bat antolatu ziteken nere kinto-lagunak, eta jai artarako sarrera nik ere banin. Ordurarte erdi ezkutuka bertotan aritzen nintzana bainintzan, lagunarte maitagarri arek, eta oitura baño geixego edan nualako ere bai zeiken, lotsak erabat botata txoratu nizkin lagunak. Ostatutik bizkarrean atera nioteken. Orzabaldú zidateken bazterrik-bazter eundoko bertsolari-sona. Ez niñun asarre. Gizarterako atea zabalik neuzkaken. Ez niñun ume. Min ziteken lagunak, ni gabe joan bearra. Neretzat gurasoak itun lenengo bada-ta.

KANPOAN USO, ETXEAN OTSO

Kinta ondoren datozen urte oiek, gaiztoenetakoak izan itun neretzat. Anaiak aldegin; bi arrebak ere, gorputzez etxean bizi baziran, biotzak kanpoan zebilzkiteken; koartzak bezela, egatu nairik, lepa-luzeka asiak itun. Gurasoak, berriz, zartu; eta, esan oi danez, ume biurtu. Lanak eta nekeak ez nioken izutzen; ori, pekatua-ren zigor bat besterik ez dek. Su ondoan maitasunik eza, ori uan purgatoriorik gaiztoena neretzako.

Aita maitea, urtez, nekez ta naigabez zartu egin uan, eta burua auldu. Ardi zarra baño goxo ta atsegiñagoa zana, ezin burutzeraño gizatxartu uan gaxoa.

Berak zionez, etxean ez genin iñork maite; danok bere aurka ari giñun; ez genin aren agindurik egin nai. Arek egindako ondasunak jaten ari giñun; bera ez uan fameliko buru. Goizetik arratseraño lanik zail ta nekosuenetan jardun-ta, su ondoko atsegiñera maite nitunen artera bildu

ta begiratu txarra; arrazoirik txarrenak entzun bear:

— I kanpoan omen aiz uso! Etxean otso, ongi alare otso!

Amaika bider entzundako arrazoia uan orixe. Zenbat illunabarretan, zelaitik etorrita, etxera sartzeko bildurrak ez nintzan egon, sukaldera sartu nai ezik, biotza trinko korapillatua, munduan geiena maite nunaren bildurrak! Bere zartzaroan ezereen premirik eduki etzezan, gau ta egun lanean ariki, eta aurrean ikusi baño, ez ikusi naiago. Aita oieratzean, ama, nere urte aietako aingerua, maitasun utsa, aitaren zakar-aldiak baretzen zekina, irripartsu, an azalduko uan ateondora:

— Ator, ator sukaldera, Joxe, aita lotara joana dek-eta!

Arek etxean zitun gauzik onenak, neretzako itun orduan. Neraman purgatorio artan burutuko banun, alako ama baten bearra banin. Bestela, dana zegon bezela utzita, aldegingo nin nunbaitera. Gauza guzitik aukera eduki arren, uskeri bat aski dik aurrak negar ta iskanbil aste-ko; zarrok ere alatsukoak gaituk.

Borondaterik onena neukaken alare. Iñondik iñora ezin nezazken aitaren kutixi danak bete, zerekin ez baineukan. Izanta ere, ez bainuan artarako betik. Jainkoak bialtzen dizkigun gaitzak dituk-eta.

Orduan azaldu uan beste bitarteko bat: urte batzuk lenagotik ezkondata, kalean bizi zan nere arreba, etxean lan pulamenturik egin gabea. Zelaiean neketan lan da lan ari nintzan

bitarte, txuri-txuri, iztun eta alai, irripar goxo jario, saskitxo bat eskuan zuala, ia arratsaldero azalduko uan Bordaxarren, txoria bezin arin, aitaren eder egitera. Maite-itxuran kutixiren batzuk beteko zizkioken, aita maitea lilluratuz; eta etxeko arrautz, babarrun ta beste nai zuan edozer, nere izerdiaren saria, saskitxoan eramanez, aitari laztan txuri bat eman eta agur, mutillak! Kargarekin oker-oker egiña beerakoan, gorakoan tente-tente, arin-arin, etorri zana. Au ez dek nik asmatua; jendearen esamesak dituk. I or konpon adi; ik lan egin da jan zak arria! Eguna joan ta eguna etorri, urteetan, aita il zan arte, martxa ori bera. Aitak, berriz, benetan arek maite zuala uste, eta guk ez gendula ikusi nai. Ongi jakinki, berriz, aitaren maitasun-aitzakitan gauzen karraio zebilela, amak ere, nik ezik, bereak eta bost supritu zizkin urte aietan.

Sendirik geienetako leloa dek ori. Danon buruak aultzen baidizkik zartzeak. Batzuak alare besteak baño gixatxarragoak biurtzen dirala, etzeok ukatzerik. Seme-alabak aurrera ezin atararik, baserriko neke latzetan beren osasun ta bizia aitu duten aiton-amon geiegi iltzen dek miserikordian, leku arrotzean. Gauza negargarria orixe, baño ez maite ta manten nai ez dituztelako. Ain barren gaiztoko seme-alaba gutxi zeudek Euskalerrian; etxean arekin ezin burutu dutelako. Zartzean batzuak ainbeste pipertzen baidira.

Nere ondoan neuzkan arrebak, beren lagunak billatu zizkitek, eta, nere eskupeta bizkarean, eizerako aitzakitan, asi niñun begiz joak

neuzkaneiri bisitak egiñaz. Neroni txiki xamarrara banaiz ere, neskatx aundiak nizkin gogozkoenak. Zenbat ibilli gaizto ez nuan egin nik! Aste guziko egunen orduak baserri-lanik nekosuene-tan igaro eta jaiak etorri zai zoratzen; ez atsedeteko pozez ordea. Goizeko meza entzun; ortarako ere, amar kilometroren joan etorria banekaken. Eguartean etxeko lanak egin, ta bazkalondoan, aupa, mutillak! Nor ote giñan gu? Aiek ibillerak! Gogozko lekuan, aldaparik ez. Neretzat ez uan beintzat. Arratsaldea erromeriz-erromeri pasa, ta arratsean, neska txar baten ondoan, mendi-kaskoren batean zegon urrutieneko baserriraño. Atarira lagundu eta, aurrera pasatzeko lotsaz, «Agur, urrena arte!» esanta, Jainkoak zekin garaietan etxera. Ongi pentsatu ezkerro, ori baño ibilli txoroagorik bai al dek? Baña, neskatx bati etxeraño lagunduta, badakik nik gradoak jasotzen nitula. Urrengo goizean, ollarrak kukurruku jo orduko jeiki bear. Danetan okerrena, berriz, aitaren betiko eraso. Nere amets goxoak laxter uxatzen itun. Gosari txikia artzeko ere, pozik ez nin izaten. Ukulluko lanak egin, trasteak artu ta zelaira. Ama gaxoa atzetik ojuka:

— Baraurik joan bear al dek, motel?

— Utzi akiozu pakean! Ona da ori! Atzoko asekadak on egin dio! Ez du bere bururik galduko, ez, orrek! Bart egindako gau-pasak mantenduko du. Arratzeko poza, goizeko negarra. Orixe gertatu zaio orri. Kanpoan jalki zaio biotza, eta etxerako beazuna. Kanpoan uso, etxean otso!

Arrazoirik txarrenak banan-banan, letaniak errezatzen ari balitz bezela, aitaren eten gabeko jarduna sukal txokotik.

— Gizona, zaude ixilik! Bazaitugu zu ere batxo! Etxeko lan guziak ia bakarrik egiten ditu, eta beti purrustadaka! —amaren erantzuna.

— Amen, ala bedi! —aitak, eta ixilunea.

Andik bereala, aitaren gordean, *xarra-xarra-ka*, nere gosaria artuta, an azalduko uan ama gaxoa. Etxean aretxek goxatzen zin biotz mindu au. Urteetan bizi-modu orixe eraman nin. Kontatzeko obeak dituk, pasatzeko baño.

Urrengo jaiean ere, betiko martxa, neskaten bati laguntzeagatik, aldapak gora. Ez neukaken erreuma-aize aundirik. Alare bat billatu nin moduzkoa; ederrik bazan, ederra; inguru xamarrekoa gañera. Ukulluko lanak egin, apari-lege bat artu ta aldapak gora. Neska mutil-zaleak anak ariñak ditula, esaera dek; mutil neska-zaleak ere ez dizkik bada motelak, motel! Illunabarrero an niñun; alare edozer aitzaki aski izaten nin, noiz-nai bertara azaltzeko.

Beti garaitsu batean joaten bainintzan, eta illuntzearekin batera, urbiltzen nintzaneko zai edukitzen nin geienetan, ukullu atzeko ate txiki baten ondoan eta amaren ixillean. Aren ondoan arekin izketan, minutu bat ziruditeken orduak. Txantxangorriak maitearen urbil bezela, zenbat bertso ez nion kantatu! Gazteak izaki ta sua biotzetan.

— Inaxi!!! —sukaldetik ojuka ama—. Nun sartu ote zait ume ori? Dagon lekuan dagola, ez den bakarrik egongo, ez! Edukiko din beste

oietakoren bat aldamenean! Iñoren aurrera azalzeko gauza ez dan kaskarren bat noski! —berekiko sukaldean amak.

— Iñaxi!!! —luze bat berriz ere.

— Ama ojuka ari zait eta agur, biar arte, Jainkoak nai badu! —esan ta laxterka joaten uan sukaldera.

— Atso ximur ori! —amarengatik gaizki esaka ta amets gozotan etxera berriz ni. Urren-go illunabarra noiz etorriko zoratzen. Azkenera-ko, bidetxigor garbi-garbia egin nin, bidetik ukulluraño, muntoan. Ortan pentsa zenbat atzera-aurrera ez nitun egingo. Baña neretzat ederregi uan, eta beste batek eraman zidaken. Nik pasa nitun egunak! Ez nin jaten ere noski. Begia zorrotza ditek ortan amak; nereak beintzat laxter antz eman zidaken:

— Berrazpin-gañ artara ez dituk orain len ainbeste joan-etorri egiten. Txoria zapuztu? Ai, txoroa! Jo zak beste baten atea, eta laxter egingo zaik ori bezin maitagarri!

Aspalditik antz eman nioken bai, nik bera ainbeste, ez niñula ni berak maite. Neskari ukullu atzean kantatu nizkion bertsoak, beste mutil bati entzun nizkioken; eta, kezka gaizto oetan nabillela, beste kaletar gazte baten besotik topatu nin. Nere joan-etorriak bukatu itun betiko. Baserri ontarako piñegia uan.

Urte artan bertan joan uan nere aita zana ere mundu ontatik. Aspaldian aultzen-aultzen, aitutzeroño etorri uan gizajoa, berak bere burua estutzen zulako geiena noski. Kandela aitu ta batere purrustik gabe itzaltzen dan bezela itzali

uan aita zana ere. Aitona bezela eraman ziteken aldapa oietan bera, gure pekatuak ekarri zigun zigorra orixe dek-eta. Ez dek iñor azitarako geratzen.

Nere aita zana jenio biziko gizona uan. Luzaroan zer esan pentsatzen ari gabe, burura zertorkion bezela, edozer, edozeñi, itxumustuan jalkiko zioken arpegira. Zakar ta purrustatsu itxuraz, baña goxo biotz-bera berez. Baratxuria bezin piña. Billaukeririk ezagutzen etzuna. Bein emandako itza jan baño len, bizirik erreko ziteken. Ura illa ikusi zuten auzoko gizon askok, ala zioteken:

— Auxe uan diruagatik egundo saldu etzan gizona!

Danon antzera, bere irristarak bazizkin arek ere; baña sinismen beroko gizona uan. Ura zebillen lekuan, ez uan biraorik esaten, eta lizun-kerizko berriketa gutxi.

«Egunon» esaten ziotenei, erantzun zorrotz ta motza ematen zieken beti:

— Zeñek? Mutur zikiñak?

«Jainkoak egun on!» esatea nai izaten zin.

Beti erantzun zorrotz ori ematen ziola-ta, bere bizkar par pixka bat egin nairik:

— ¡*Buenas noches!* -esan zioken auzoko lagun batek.

Etzin ulertu aita zanak, eta alako zear-begiratu bat egin zioken eta:

— *Amen!* —erantzun zioken zorrotz asko.

Bai, nere aita zana sinismen berokoa uan eta izketan garbia. Jainkoak bataioan piztu zion argiaren atzetik jarraitu zin, alik-eta erori zan

arte. Gudaren etsairik amorratuenetako bat gañera:

— Arri-konkor bat lepotik lotuta, itxaspera botako nizkikek guda-zale guztiak! —guda-kontuak aitatuz zetorkionari esaten zioken itzetik ortzera. Ederki asko ikasi baizun gizajoak gudaren berri. Benetako euskalduna gañera.

Diruzko aberastasunik etzidateken neri ere eman; sinismen bero bat bai ordea. Gero igaroko nitun une larrietan, nere buruz ez etsitzezkeroz, zerbaiten bearra banin. Nik ere etziet diruzko aberastasunik utziko; sinismena bai; ta birao gaizto ta izkuntza zikiñik gure sukaldean utziko ez duan seme-sail eder bat ere bai; eta, gure baserria sortu zan ezkerro, bere sutondoan itz egin dan euskera, gure izkuntza goxo ta maitagarri au ere bai. Nere semeak, danak dituk euskaltzale sutsuak. Danak eskeñi ziteken beren odola; batzuek ixuri ere bai.

Zertarako dek diru geiegia? Kezka txarretan bizitzeko, beren buruak galtzeko, bazter guziak nasteko. Diru-zaletasunak beazun biurtzen dik biotza. Gure Euskalerra maite ontan ere orixe gertatu zaiguk. Diruak itxutu dik euskalduna. Lengo gure biotz xamur ura diruak il ziguk. Aberri, izkuntz, oitura on, lagun, guraso, seme-alaba, emazte, azkenean baita Jainkoa bera ere, diru-truk saltzen dik diru-zaleak; bestela Judasi galdetu. Irabazirik ez dagon lekuan, ez dituk ikusiko. Diruz neurtzen ditek oiek dana. Diru-kontari berriak. Jainko txikiaren berri bazekitek; aundiarenik ordea... Ez izatea naiago.

Aita maitea il zanean, bada, ni geratu niñun

baserriko buru. Goi-beak jotako baserri arlote bat besterik ez. Senide asko baigiñan, eta aitak, bereak zitun gauzak, senide artean zabaldu zizkin. Baserri txar bat, lan-toki nekoso ori, soil-soillik geratu uan neretzat. Etxeak zitun barrutirik onenak, besteren esku geratu itun; eta, piskana-piskana ordainduz, egin niñun beren jabe. Baserri ortan etzioken bestela bizitzerik ere. Baserrian bizi-modua ateratzezkeroz, oso-osorik beara bear dik dana; bestela, askoz obe dik bere artan utzi ta kalera jetxi. Jaunari eskerrak, gaur dana nereak dek.

Osasuna banin, eta, biziko bagiñan, lan egin bear; ez nolana gañera. Ama xarra ta bi arreba, oek kalera egatu nairik; sekula bazan-ta, baneukaken lagun baten bearra. Lenbizikoak utzi niñun ezkerok, beste bat banin begiz joa. Itz egiteko asmoan nenbillela, beste ederragoko baten aldamenen ikusi nin ura ere. Nere moduzko lagunarte bat billatu nin, bai, ta izugarriak egin genizkin. Ainbestetatik bijoa bat.

Lagunarte guzietan bezela, bagenin bat tartean, mutil aundi-uste, erdi-txoro, egoskor, arro oietakoa; bere antzeko, aizea besterik etzan neskatx arro ezin-etsi baten atzetik zebillena. Izketan asten zanean, ez uan bera bezelakorik. Lengo ipui zar guziak, berari gertatuak bezela kontaktzen zizkin. Ark ere, guk ezik, arratseroko erretiro txintxo ori egiteko oitura aspalditik galdua zeukaken. Jan-edanez bapo jarri giñan arrats batean, ori lepotik gora ardoz ta sagardoz betea ziozen. Gure arteko adar-jotzalle bati gogoratu zitzaiozen:

— Adizute: olakoren etxera joango al gaituk?

Mendi-egal zakar batean zegon baserri legor bat uan neskatx argi-ollar orren etxea. Mutillak entzun zuneko, urruti ta neke-bildur aundi gabe, danon aurretik berak artu zin arako bidea. Bere ondoren joan giñun gu ere. Ura bakarrik aurretik zijoan bitarte, pegaizu bat egin bear geniola-ta, alkar artu genin gañerakoak.

Etxe artako berri ongi zekina bagenin tar-tean; urte batzutan bertako morroi izana gañera. Leiotik asi ta metroren bat inguru, solairu gabeko utsuna bazin, udara aldean beti zabalik zeukaten leio txiki baten ondoan. Andik sartzen zana, txuxenean bei artera ziaken. Noizbait iritxi giñun. Morroiak esan zioken:

— Etxe atzean zabalik dagon leio txiki ori ikusten al dek? Or zeok nunbait ik bear dekan biga gazte ori. Otz-beroak ez ditek izutzen. Beti zabalik edukitzen baitu. Sartu nai badek beñepin, nere bizkar gañetik igo iteke leiora.

— Igo nai al detan? Bai, motel, orixe! Pozik alare! Ai zer sustua eman bear diotan!

Esan bezela egin ziteken. Bein eskuakin leio-ertza arrapatu zunean, katua bezin arin igo uan leiora, gazte indartsu ta zaulia baizan, eta aldapako nekeak mozkorra arindu baizion. Leiotik barrura begiratzuz, esan ziguken:

— Au dek simaur-usaia, au, datorrena ortik!

— Biga gazte batek arros-usaia edukitzea uste al uan, bada?

Erdi mozkorra baizegon eta sartzeko zora-

men artan, bean ukullua zeukanik etzioken igarri. Barrura salta orduko:

— Ooo!!! Ai, ai, ai!!! Bei arraio ori, ostikoka ari baaiz! Nun sartu naiz ni? Simaur-usaia zegola? Ez dek arritzekoa, ukulluan natxiok-eta! Ooo!!! Bei urde ori! Lipu beltzak ilko al au, ba!

Ango bei-marru ta zarata! Ango ooo eta ai! Makurtuta parrez, etzekit nola ez giñan lertu. Ango karraxi ta ixkanbillen otsera, etzeko nagusia esnatu ta krisallua eskuan ukullura jetxi zanean, nor zan ezagutu zunean, errukiz ala esan zioken:

— A, gizajoa! I al itzan? Biga gazteren baten billa etorrita, bei zarren artera erori? I aurretik biali aunak, arek merezi likek, arek! Ator, ator sukaldera, kristauaren itxurik ere ez daukak-eta!

Ukulluko iskanbillen otsera esnatuta, neskatx arro ura ere sukaldean omen zioken, bere ametsen mutilla zalakoan noski; baña, eroska ura simaurrez zikindua sartzan ikusi zuneko, desairez ala esan omen zioken aitari:

— Mutil astaputz ori al zan olako zalapartakin? Ukulluan bertan beien ondoan lotuta edukitzeko ez da aldrebesa!

Aita umoreko nunbait, eta ala esan zioken zirikatzaile alabari:

— Gustokoa bazain eta zerekin mantendurik baden, bertan utziko diñagu! Mutillak maite aunala ikusia zagon! Idixko polita den gañera!

— Mutil txoro egoskor kankallu orrentzat nagola uste al dezu ni, aita?

— Ai, zer markesaren alaba! Beiron errege etorri! —asarre ekin zioken ordurarte ixilik zegon mutillak.

Aitak etzin aspaldian alako ordu erdirik igarero. Alaba arroskoa zala baizekin, eta ia bere onera etortzen zan:

— Nolakoari alakoa etorri, ala jainkia! Aukeran aukerakoa! Ur piska batekin ipur gañeko lirdinga ori garbitu akion, besterik ezean!

— Ukulluko astoa garbitu naiago nuke! —esanta, zaputzean oiera joan omen uan.

— Atso zikin argi-ollarra aleena! Astaputza ik esan bear beste iñori! Emendik aurrera, mutil gazteak engañatzeko baño, asto garbitzeko ohea aunagu i ere, bai!

— Utzi akiok pakean, emakume asko olakoak dituk-eta! Maite dutenen igasi eta ez dutenen atzetik. Ezkondu nai dunarentzat martxa kaskarra. San Balentiñek konpreni ditzala.

Atea zabaldua, onez-onean biali zin mutilla.

Atera zanean, aren muturjea ikusita, zekarren simaur usaira, ala esan geniokeen:

— Auxe dek simaur-usaia dakarkena, motel! Ukulluan zaldaleak irabazten ibilli al aiz?

— Bai, tximist oiek ez didazute txarra peatu! Leiotik, zuzenean, bei-pera, motel! Neska billaua aleena! Astaputza esan etzidak, bada? Ukulluan lotuta edukitzeko ez naizela aldrebesa! Ai, zer markesaren alaba!

Aski genin; geiegi mindu gabe ixildu egin giñun. Egindako pegaizuak eta simaur-usaiak

baño, min geiago eman zioteken neskatx arroaren atze emateak.

Aren etxea erdi bidean nola baigeneukan, an utzi genin. Ama gaxoak lanikan asko bezeukaketen aren soñekoak garbitzen. Amaika olako egiñak gaituk.

ARRAPAZKA

Errenderi, paurrikaz betetako erri estu zikin bat besterik ez dala uste ditek askok. Baña Errenderi'k baserri-sail polita zeukak, eta bere-bereak ditun beste mendi-mordoska eder bat ere bai. Arano zeukak mugan. Urdaburu inguru oietako mendiak bereak dituk. Baso bikañak bazeudek oraindik. Baña guda aurretik pagadiz estalitako mendi-sail zoragarri ura, negargarrizko alkar-iltze aren ondoren, arruntean ebakiz soildu ziteken, eta geroztik kaska soil zegok geiena.

Garo-sail bikañak badituk mendi-zokon ta egal oietan. Udaletxearenak nola baidiran eta alperrik onda etzitezen, urtero, iratze-garaiean, eguna aukeratuta, erriko baserritar guziak, nai bagendun beintzat, ango garoa ebakita etxeratze-ko aukera izaten genin. Arrapazka izenarekin ezagutzen genin egun au.

Egunsentia baño len an egoten giñun zai, garo-saillaren ondoan. Udaletxeak ordezeko bat bialiko zin. Arek txupifñazo aundi bat sutzen

zunean, goizeko seiretan beti, aupa mutillak! Lasterka ta muturka, besteren batek aurrea artzeko bildur, bakoitzak ebaki nai zuan saila neurtzen asiko giñun. Neurtzen zitunarenak itun neurritz barrukoak; an etzeukaken beste iñork sartzerik. Igitariz ebakitzen genin; segaz etzigiteken uzten. Ebaki ta bein legortzen zanean, eskuzka norkada txikitan artu ta gurdi-bide zakar batera jexten genin. Andik, berriz, mendi-gurdi txikietan, beiakin artuta alegia, bide zabalagoko batera eraman. An gurdi aundietan ongi zamata, etxeraño. Aldapa askotan bi parerekin istillutan, ezin aterarik, amabiren bat kilometro bidean.

Saldu edo erosi bear izan ezkerro, ez uan azpi-gai merkea aterako. Zorioneko arrapazkak! Aspertu-aldi ederrak artua niok! Zortzi orduko langille oieiri agindu akiek! Etzin gure lanak asko balio; alare gauzak merke saldu bear omen dizkiegu.

Ez itun orratik arrapazka guziak aspergarriak izaten. Bizi naizen arte aztuko etzaidan eguna, arrapazka-eguna uan. Ezagutu detan egualdirik biurri ta gaiztoenetako bat gañera.

Gaberdi aldera, aize, euri ta kaskabarrari eraso zioken; egun guzian gero etzin atertu ere. Bi metroko garoetan an aritu giñun egun guzian, euria goitik sartu ta beetik atera, ezurretaño bustiak. Bazkaltzeko ere aterperik gabe. Baña geroztik aztu etzaidan egunik alaienetakoa izan uan neretzat. Gero nere emazte izango zan neskatz maitagari bat an ezagutu bainun.

Nerearen aldamenean zeukateken aiek ere

arrapazka-lekua. Indar aundiko sendi bat baizan, aldez aurretik moldatzen zizkiteken gauzak. Iru bat metroko arkaitz aundi baten ondoan pago zar lodi bat bauan, zain-toki ondotik usteldu ta zulo aundi bat zuna. Pago-ipurdi barru-uts artan jarri ziteken sukaldea. Pago-gerritik kanpo aldera, lau esoli lotu ta ixurian, jarri ziteken, berriz, kalerakoan asto-saskiak estaltzeko izaten genitun zira lodi zabal aietako bat. Aize aldetik arkaitza nola baizeukan, ez uan aize ta euri-tan-tarik sartzen ara.

Aita sasoikoa oraindik, mendia añako bere iru semerekin, eraso zioteken lanari. Baña eten gabeko kaskabar ta euri-jasa artan, etzioteken neskatxari lanean utzi. Ura sukal-zai jarri ziteken. Aterrunetan, berriz, salda beroa ardo-txurrupe batekin edo beste zerbaít bixigarri eramaten zieken lanean ari ziran bere aita ta anaiei.

Euri ta kaskabar, alako alibiorik gabe ari niñun ni, iñork lagunduko zidan itxaropenik gabe gañera. Nik ez nizkin aiek ikusi; an zira-nik ere ez nin uste. Baña ni ikusi nioken arek, eta bere biotz goxoa samur zitzaiokeen. Bere aita ta anaiei bixigarria eman zienean, etorri zan lekutik joan bearrean, beren saillari buelta osoa emanaz, aitzaki-maitzaki ni ari nintzan lekura etorri uan:

— Egun on, Joxe!

— Baita zuri ere!

— Zu bakar-bakarrik ari zera —esan zidaken.

— Bai, naiko bakarrik. Ez daukat izketan

denbora galtzeko arraiskurik. Inpernuko egualdi onekin, berriz, egoterik ez dago.

— Nere aita ta anaiei oraintxe eraman diet, ardo-txurrua batekin, bixigarria. Zuretzako aña ere badago, nai badezu beñepin.

— Ez da arrazoi txarra orixe, Maria! Ongi bearrean nago! Ez dizut ezetzik esango. Zure eskutik gañera, gusto ohea izango du.

Algaraz par egin zin, neskatx alai baizan, eta, bixigarria eskeñirik, ala esan zidaken:

— Ez da ainbesterik izango!

Ardo-txurrua ondoren emanta, an joan uan arin-arin beren estalpera. Andik ordu betera gutxi gora-bera, etorri uan berriz eta ala esan zidaken:

— Joxe: aitaren partetik, joateko ara bazkaltzera!

— Eskerrik asko! Istimatua dago, baña nik badet nere bazkaria.

— Bai, baña otza. An su ederra dago ta berotuko dezu.

— Egia; zure ondoan zein ez da berotuko? Algaraz par egin zin berriz ere:

— Etorri gero! Bestela aitak min artuko luke.

— Nik ez nuan uste aingeru guardakoa neskatxa danik, baña ikusten dedanez ala da.

— Laster arte! —esan ta aldegin. Alkarrekin danok bazkaldu genin. Arratsaldean ere ez uan aztu nere aingeru guardakoa. Beti zerbait eskeñiz, bi ikustaldi egin zizkidaken.

Orduan ezagutu nula len esan dit, baña ez dek egia. Aspalditik ezagunak giñun, eta iru bat

illabete baitun igande-arratsetan laguntzen nio-
la; baña kontuz ta bildurrak. Etxe oneko alaba
baizan, eta badakik zer istilluak ekartzen ditun
askotan orrek. Neskak berak salta zizkin kroska
guziak. Orduantxe igerri nioken benetan zebi-
llela eta maite niñula. Ordutik asi niñun bene-
tan, alik-eta ezkondu giñan arte. Baserri onekoa
uan oso. Gazte-sail bikaña zioken etxe artan. Sei
anai-arreba baitun: iru mutil ta iru neska. Sa-
gardotegia nola baizuten, igande ta jaietan an
izaten giñun. Sendi langille, garbi, elizkoi; be-
netako maitasuna antxen arkitu nin. Nere etxera
bezelaxe sartzen niñun ni ara, neretzat beti za-
balik zegola bainekin.

Neskatx aietako bati, Ameriketara joatea
bururatu zitzaiokeen. Sendi maitagarri ura etzin
gutxi naigabetu. Berriro xamar entzun dizkit
nunbait, aren azken aparitan kantatu nitun ber-
tsoak. Bere gurasoak negarrez utzita joan uan
gaxoa. An ezkondu ta seme-alaben batzuk izan
zizkin; baña sortu zan lur maitera ez uan geiago
azaldu. Amaika olako euskaldunek utzi dizkitek
beren ezurrak an.

Ez giñun lenbizian biok bakarrik ibiltzen.
Arek bere lagunak bazizkin; nik ere bai nereak.

Bat mozkor xamarra genin; baña bere seme
bat bezela zaintzen zin bere andregaiak.

Beste illun bat ere bagenin tartian, eun ki-
lotik gorako gizona, baña oso lotsatia. Egunez
agiñen baten gañean lo sumatu duten ontz aun-
di lauso oietako bat zirudiken. Lagunak jolasean
ta dantzan ikusten bazitun ere, ura bazterren
batetik illun-illun begira egongo uan. Etziteken

neskak gutxi zirikatzen. Illuntzen zunean, berriz, zer zan ura! Ongi ernetzen uan. Egunez bezela, ura zirikatzero ez itun neskatxak arengana urbiltzen. Artzak aña indar baizun, aidean ibiltzen zizkin danak. Karraxi ederrak izaten itun aren inguruan. Zakar xamarra nola baizan, neskarekin asarretu ta aldegin zin gure sailletik.

Nere kuñaru izango zan mutil gazte aundi eder bat asi uan gero onen lekuko. Arta-puska bat baño atsegiñagoko gizona; il uan ura ere, gijajoa. Banan-bana olaxe joan dituk nere gaztetako lagunik geienak. Bestean arkituko banitu berriz, emengo ibillerak oroituz, ai zer jolasak eta bertso-saioak ez genituken egingo!

Mundu ontan arkitu leiken maitasunik piñena ta garbiena billatu nin etxe artan. Gurasoetatik asi ta azkeneko anairik gazteeneraño, danak itun maitagarriak.

Etxean neuzkan bi arrebetatik, zarrenak ezkondu ta aldegin zin Loiola'ko Paskualdegi'ra. Ama ta arrebik gazteena —au ere bero-bero zebilleken laxter ezkontzeko asmotan— eta ni, morroi erdi-txoro batekin, etxean gelditzen giñanak. Ama gaxoa, berriz, zar xamarra; aituxea ordurako. Arekin bakarrekin ez geratzezkeroz, nai ta nai ez laguna bear nin. Ama zarrak, eta bere arrazoiak bazizkin, egokiera zuan guzietan gauz bera jalkiko zidaken:

— Azkar abil, Joxe! Alaba baziak aurki; ni ezer askotarako ez nauk gauza, berriz; egundo bada-ta, oraintxe lagun baten bearra bazegok emen. Ara ta onera, orrela ibilli bear al dek beti?

Jira-biraka ibiltzeko gogorik etzeukaken nere

lagunak; nik ere ain gutxi. Gure gauzak antolatu genizkin, bai, ta biok errenderiarrak nola baigiñan, alperrikako zarata aundi gabe, Errenderi'ko elizan alkartu giñun. Gure lagun-arte bat bildu, bazkari-lege bat egin, Iruña alde ortan atzera-aurrera batzuk egin ta il arte gure atsegin-atsekabeen kabi izango zan txokora bildu giñun. Ez baigiñan geiagotarako iristen, etxeko txokoak txukundu, trasteak beren lekuetan jarri ta ekin genioken eguneroko lan aspergarri ta nekosuari.

Neke, lan ta oñazea izan dek nere geroztikako bizitza. Maitasunak gozaten zunari eskerak. Txantxangorri kantariak, bere laguna ekarri zuneko, galdu zin bere askatasuna. Jainkoaren dei bat dek ezkondu bearra ere. Obeto bizitzeko asmoan ez adilla ezkondu, Ataño. Nere jolasik geienak bukatu itun betiko. Bertsoak eta kankak ez ordea. Maitea kabian daukan txantxangorria, nekearen aurrean nola mututu? Naiz beiak jezten, arta-jorran, indarreko lan zakarren batean ez bestetan, bakarrik ari banintzan beñepin, bertsotan kantari edo txistuka somatuko nioteken. Nere billa zijoazenak, unetxo bat ixil ta erne egotea aski ziteken, ni kantura billatzeko.

Oloki xarra bertsolaria il zanean, beste lagun askoren artean, Txirrita ere joan omen uan ikustera. Il-kaxan, luze, lau kandelen erdian ikusi zanean, bertso bat kantatu omen zioken Txirritak.

Oloki xarrak erantzun etzionean, ala esan omen zin:

— Oraintxe benetan sinisten dit il aizela; bestela erantzungo ioken nere bertsoari!

Olakoxeak gaituk bertsolariak. Neke-lanak arintzeko, maitasuna bitarteko; eta bidean gal ez nadin, sinismenaren argia. Gureak laxter egingo zin bestela. Besteren etxe zar ontan ez baizegon ezer. Urte guzian lan da lan; erdi goseak bizi, eta gure urteko irabazi pixarrak, errenta ordaintzeko; askotan garaia baño len txekorren bat saldu bearra. Ez baigenun izaten.

Len bi bizitzako etxea uan ori. Aldamenean bizi ziranak, bat bestearen ondoren ezkondu itun. Bat, auzoko baserri ortara. Azkenekoa, gizon txiki bat bakarrik geratu uan. Etsi zin, gizarajoak, ark ere. Dana utzi ta aldegin zin emendik. Urteen buruan, andre erdaldun batekin etorri uan; bera ere ia erdaldundua. Biotz kaskarreko gizona uan, eta azkenean berea eginta joan uan. Berrogeiren bat sagar-landare gazte, aldatu berri xamarrak, baño ordurako indarrean zeudenak, beretzat etziran ezkerro besterentzat etzitez izan, danak ipurdiz gora jarri ta aldegin zin.

Gure aita zanak bere gain artu zizkin orduan bi bizitzak. Ia tellatua jotzerañoko orma lodi bat zeukan erdian, bi bizitzen berexgarri. Oraintxe arte txutik egona dek beste bizitzako sukalde xarra ere. Etxea berritu genunean, bota genin dana. Gu ezkondu giñanean, etzeoken gaur bezin txukun ta apain etxe zar ori. Ez argirik, ez urik, ukullua bi pusketan. Ainbesteko barrunbeak zizkin eta etzaiguen ezertarako lekurik geratzen: kupela zarrak batean, salarako eskallera zar bi bestean, pats-zulo aundi bat sukalo ondoan, pozabera edo ur-zulo zikin bat bazin barruan, tellatuko urez betetzen zana. Amaika

ollo, arratoi ta katuk beren bizia utzi zuten putzu-zuloa.

Otsail batean, etzekit guri loa galerazteko inpernutik atereak edo zer ziran demoniñozko bi katar aiek, zeñek marraskarik gaiztoenak egin txandaka ta apustuan aritzen zirala zirudiken. Itxas-ontziak añako marraska luze batzuk egin ondoren, karraxika ta iskanbilletan zilipurdika ta aztarrika batzuk egin ondoren, pozabera gañeko leiotik saltoan sarturik, beiak ere izutze-raño sekulako iraulka ta zalapartak ateratzen zizkiteken barruan. Kanpoko katua izaki nunbait nagusi. Arrats batean zabalik utzi nieken putzua, gaberoko joera bazuten bateonbatek an geratu bearko zula-ta.

Eundoko ixkanbil, marraxka ta zaratak atera zizkiteken. Esnatu niñun; ez baizan arritzekoa. Alako batean, *plast! plast!*, bi katuen putzu-sarrerako otsa. Ezeren kinkiorik ere ez. Erori dituk! Ura nere poza! Badaezpada ere ez niñun jaiki, urrikaldu ta atera ez nitzan. Urrengo goizean, urez azi ta zato betea bezela anpatuak, beren burruka ta aserreak aztuta, an zeudeken biak itoak. Beko leizera bota nizkin, bai, ta ai zer pakea utzi ziguten!

Tellatua or nunbait zeukaken; itote gutxi izaten zin. Maizterrak giñun; alare, gure kontura ekarritako amaika gurdi tella berri badek nunbait gain ortan. Errenta eta etxean gendun kapoi-parerik ederrena artu ezkeru, maizterren goraberagatik nagusiari ajola gutxi.

Solairu zarra, zuloak ixteko puska berriz betea. Sei gela zeukaken; itxuak iru, kanpoko

aldera leiorik gabeak eta esiz egindako tabiak, berritzeko modurik ez baigendun, gurea ez uan gañera-ta.

Kristaurik ezin ibilli zeizken bideak bere inguruan.

Etxe xar ortara ekarri nin alako uxoa. Tankera moduzko baserria zeukanak, beren bizi-pozaz bazeukan an, eta ezkonberriak billa ibiltzen itun. Gaur, berriz, utzi ta danak kalera ziazik igesi, eta, kalean ere biziko badira, norbaitek egin bear. Paurriketako burnia janta ez gaituk biziko. Zer janik iñork ez badu sortzen, diruak alperrik dituk.

Ezer ez genin aurreraturik; Jaunari eskerrak, zorrik ere ez. Baserri-zelaiak onak, baratzetarako batez ere, karaitz-lurrak baidira. Oetako barazkia xamurragoa dala ziotek. Emengo aza ta letxu-buruak arrapazka saltzen omen dituk. Baña ori dana, lan-toki bat besterik ez dek; ez berez ematen dun iturria. Ongi kopeteko izerdiz kentzen zaiok berea. Joka kentzen baizaio enborrari ezpala. Biziko bada, berea bear dik baserritarak etxea. Larru gorrian asita, kabi kaskar ortan atera genin gure bizi-modua. Egon bear aundirik ez genin izaten; urtearen buruan sobratu askorik ere ez. Bizi giñala.

DONOSTI'RA

Emakumeengatik gaizki esaka leku askotan entzun izan dizkit. Oietan ere, jakiña, onak eta gaiztoak, danetik izango dituk. Baña, gaizki esaka, zikin oiek etzidatek beiñere onik egin. Ezkondu ezkerro, gizona baño askoz lotuago gertzen baita emakumea. Aur egin aurretik eta gero, emakumeak, gizonak ez dauzkan lotura asko zeuzkak, eta larriak. Umeen aziketa, jan eman ta aien garbitasuna ez dek txikienetakoa. Gizonak, ondoan bizi bada ere, urrutitik ikusten dizkik gauz oek; bera aske nola baidagon, ezin ulertu besterenik. Etxe-txuloan lotuta bizi diran ama gaixoen aurka amaika ipui nazkagarri entzuna niok. Etzeok eskubiderik ortarako. Berak taberna-zuloan erdi mozkorrek ajolik gabe gaizki esaka ari diran bitarte, etxe barruan bere umeen erdian lana galanki egiten dik arek. Lurrean dan lanik aspergarriena, ixil-ixilleko lana. Gaizki esaka ari dan gizona zikiñak ez badu jango, amaika atsedean galdu bearrak zeuzkak ixillean ari dan arek. Maitasun ta errespeto geiago merezi ditek emakumeak.

Ezkontzera lotzen dan neska gazteak, biotza bear dik, ez nolanaikoa, pauso ori emateko. Ba-koitza zertarako egin dun, artarako doai bere-ziak ematen omen zizkiok Jainkoak, eta ala izan-go dek. Nik ez nin nere emaztearen bizitzik bu-rutuko. Sei aur, zazpi urtez berakoak. Batek min artu zula, karraxika amarengana; bestea zi-kindu egin zala; bestea goseak zegola; oekin ari zan bitarte, seaskatik negarrez txikiena. Danak maitasunez artzen zizkin. Daneiri bear zutena eman ondoren, musu banarekin bialtzen zizkin; gero, lasterka, seaskan negarrez ari zanarengana. Ori, egunaren ordu guzietan; arratsean berdin. Askotan, begirik itxi gabe jeiki eta eguneroko lanari lotu bear; eta purrustadik txikienik ere ez, gaua ondatu zion aurrari. Semeak ez dik egundo ikasiko, amari zer zor dion. Ordaindu ezin lezaken zorra zeukak semeak amarekin. Al-deratzekorik ere ez nekiken nik, ama baten kal-bariora zenbaterañokoa zan; emazteak erakutsi zidak. Munduko urre guziengatik ezin leikek, amak seme-alabengatik egiten dunik egin. Mai-tasunean arkitu leizkek olako indarrak.

Mando batek bezela lan egiten nin, askotan gabaz ere bai; jan da jantziko bagiñan, nai ta nai ezkoa. Baña nere atsedeen-orduak lasaiak itun. Igande-arratsaldeetan, nai banun kantina txikira joan edo lagun artean sagardotegian pasa, iñork etzidaken galeraziko. Andreak berak naiago iza-ten zin nik alako lasai-aldi batzuk artzea. Bera, berriz, nora joango uan? Bat seaskan utziko zin, karraxika asten zan arte; bestea besoan; beste iru edo lau, ollo lokaren ondoan txita txikiak

bezela, amaren gonapetik ezin aterarik. Nor lotuagorik? Aurrak zaintzea bakarrik izan balu, or nonbait; eta beste gañerako lanak? Nik ez nizkin egingo. Nik ez dit tajurik eduki etxe-lanetarako. Arropa garbitu ta konpondu, etxe barruko garbitasuna, eguneroko jana; ez ori bakarrik: etxeko akuri, ollo ta txerriak mantentzea berak egiten zin. Gero, sagardotegia. Eguneroko Donosti'rako joan-etorria. Gaurko egunean lan oek erreztu dituk; baña garai aietan dana eskuz ta oñez egin bearra ziokeen. Donosti'ko joan-etorriak etzizkin gutxiena naigabetzen gure andre gaxoak.

Etxeko esne pixarrak eta tratu aleak saltzeko, aiek ibiltzen zituzten ixtilluak! Errenderi, Antxo, Altza etxe banaka batzuk besterik ez itun, eta kaleko sendi bakoitzak ortxe-ortxe berea sortzen zin garai artan. Orain, berriz, Donosti añekoak egin zaizkiguk kanpoko ta etxeko inguru ontako erriak, eta baserri ale oetako esne ta tratu pixarrak arrapazka non saldurik ez dek palta.

Errenderi goi ontako baserriko etxeko andreak, Donosti'ra joaten itun garai artan. Eguraldi on ta txar, udara ta negu, beren astoak, emen belarrari ozka, an ote-puja bati punta kendu, aurretik zituztela; berak berriz atzetik berriketan; batzuk buruan, besteak eskuan saskitxoak artu; arrautz aleren batzuk edo ollasko-pareren batzuk beren aietan; sasoi ta osasuntsuak baziran, oiñ-uts gorrian, beren oñetakoak saskian artuz; gañeko gona gerrira bilduz, arri zorrotz ta bide zakar oietan bera Donosti'raño,

zortzi-amar kilometro bidean ia. Putzuren batean oñak garbitu, oñetakoak jantzi, oraindik jendea lotan zegola sartzen itun kalera. Bazter batean astoa lotu; txantxilla ta marmita eskuan, bizi-tzaz-bizitza, artzallerik-artzalle, esne saltzen. Emendik araño joanta, askotan ate ondoan, aiek jeiki-zai. Espartziñak txiñalka, erdi jantzian, orraztu ere gabeak, muturje asarrean, bateonbat azalduko uan noizbait, goizegi zebillela-ta errenkuraka. Oiek guziak eginta, urteko esneak ezin kobraturik askotan. Errenkura gutxi egingo zidateken neri; bestela, bateonbati marmita esnea burutik bera joango zaioken. Gero, Aldakoneko dendan, bear zituzten trasteak artu; amaiketako-legeren bat egin, erditan baraurik joaten baiziran. Zer artuko ziteken an? Ezer askorik ez. Batean jetxi ziranak, banaka-banaka aldapa gora etxera etorriko itun gero. Egunero ogei kilometroren joan-etorria egiten zutenak baitun. Gure etxetik zijoanak ere, gutxienez amabiren joan-etorria bazeukaken. Dana oñez, erditan lokatzez zikinduak, busti-bustiak noiznai, udara ta negu, urteetan, ia egunik utsegin gabe.

Andre gaxoak! Urrutieneko baserriko andreak artuko zin urrengoa, eta banaka-banaka, gure etxera orduko, mordoska polita osatzen ziteken. Goizean, bostak baño len, parol-argira Berrazpin'en bera jexten ikusten genizkin. Gure etxe parera irixtean, goiko bidetik irrintzi me luze bat egingo zin aietakoren batek. Emengoa sallean artu ta aurrera. Arrera alai askoa egingo zioteken.

Nere anai Juan Kruz, jaio berria, umezurtz

geratu uan. Emakume-sail au irixten zanean, zazpi bat urteko arreba txikiak aterako zin goiko bidera. Aur egin berri xamarrak izango itun sallean; aietako batek, lasai enbor gañean exeri eta bularra ematen zioken egunero. Bere semea-ri bezela, musu bero bat eman ta bialiko zin etxera. Olakoxeak itun orduko andreak.

Orko joan-etorriaren ondoren, arratsaldean jai izan balute, or nunbait. Beirok! Amabiak alde ortan etorriko itun. Etxera inguratu orduko, zai zeuzkan aurrak; nabaitzen ziteken eta laxterka an aterako zaizkioken danak, al zuanak al zuan bezela. Danentzat ekartzen ziteken zerbait, ba-koitzari bere gustokoena. Daneiri musu bana emanaz, bati mukiak zintzatu, besteari arpegia garbitu edo espartziñak lotu. Txikiena besoan artuko zin, eta, kolka bere txito-sallarekin bezela, sartuko itun etxera. Atsedeen-puska bat artzeko alibio ederra. Nik olaxe ezagutu nin nere ama, eta nere semeak olaxe ezagutu ditek berena.

Arratsalde guzian ementxe ariko itun arrastaka, eta ari bearko, etxea bete aur baizeukaten askok eta lanak egiteko gaur bezelako aurrerapenik ez. Ainbeste neke zertarako? Doi-doi bizitzeko besterik ez. Aurreratzen zuten pixarra, nagusiarentzat; berak, atzo bezin beartsu gaur ta biar. Ezeren errenkurik gabe, zetorrenari eldu eta aurrera. Mendiko itzaldi artan ongi gogoan zeuzkaken, bai, oek Jesukristok: Zorionekoak beartsuak... Beartsuagorik bai al uan? Aiek etzioteken ezeren atsegiñik beren buruari opa. Eman, ori bai; eskuak betean zutenetik. Gaur-

koak baño oparagoak itun. Aiek itun emakumeak! Gaurko gazteak, beren takoi txorrotxen gañean jetxiko al itukek? Txurnioak estrokatuta or geratuko ituke bidean. Aien beatz-muturrik ez uke sartuko gaurko zenbaiten oñetakoan.

Oraingo nekeak izutzen gaitzik. Aren ondoan, jolas bat besterik ez dek gaurkoa. Erostenak berak zetozek askotan etxera. Aldapa oetan gora igo diran sardin zar ta bakalluak pilla batean baleude... Iñorentzat zerurik izatezkeroz, andre gaxo aiek merezi ditek.

Gure etxean ere emakume berria bazala bazekiteken Donosti aldera zijozenak, eta lendik geienen ezaguna gañera. Andre-mordoska iztun ura goiko bidera zaneko, «Mariaaaa...!» dultziñaren antzeko irrintzi me luze bat entzun genin, eta bere astotxoarekin atera uan etxetik aien sallerera. Aien ongi-etorria! Nastutako ollo-salla zirudiken, danak batera itz egiten baizuten. Joan itun. Lenbizitik asarre xamar bazebillen ere, be-reala jarri uan; eta, bakarrik ez ibiltzezkeroz, jarri bearko.

Beren gona gorriak erakutsiaz, onak itun aiek! Eguneroko ibilli artan, bazekit, bai, inguru artako gizon-emakumeak larrutzen zituztela. Beren arteko gora-berak lotsa aundi gabe kontatu ere bai alkarri. Danak ur ortan pasiak baiziran; tartean ezkongabekorik bazeramaten, errukarri gaxoa! Garai aiek, joateko obeak itun eta bukatu itun betiko. Gaur aixago bizi dek nekazaria, batez ere emakumea.

ATSOLORRA

Lenbiziko anka-gorria etorri uan mundura, mutilla bera, ondoren etorko ziran beste zortziak bezela. Nere aitajaun ta amandrea zizkin berak ere, eta Juan Jose jarri zioteken izena. Andik berrogei egunera, *elizako sarrera* esaten zaion oitura izaten baita, arratsaldean, berriz, auzoko andreak amaren sukaldean billera egiten ziteken. Gure aieka oetan etzioteken oso izen goxoa jarri: Atsolorra. Akelarre emango niokek nik.

Eguartean ala esan zidaken amak:

— Aizak, Joxe: badakik noski zer egun degun gaur? Arratsalde ontan, inguru oetako andreak sukalde ontan egingo ditek beren billera; ire emazteak ere bai. Aurraren aitak serbitzeko oitura dek, berriz. Ez dek lan izugarria: txokolatea ta patar goxoa; ori dek usarioa.

Sukaldea txukundu genin, al gendun moduan, zer ikusi ere asko etortzen baiziran, besteren etxeko zatar zarrak aidatzeko asmoan. Apletan paper berri zintzilikarioz apainduak eta

etxean genitun aulkirik dotoreenak; mai gañeko zapi berriak eta bai al zekit nik beste zenbat traste? Geron pixarretik al gendun guzia beñepin, ikusi-mukusin zetozen mingain txorrotxak zer ebakirik eduki etzezaten. Arrioan ekarri zituzten katillotxorik politenak eta beste gañerako bear ziran puskak jarri genitunean, txokolate ta patar goxoa erosten ez ibiltzeko, ortatik zetozenak naikoa ekarriko zutela-ta.

Iritxi uan zoritxarreko arratsalde ura. Banaka-banaka asi itun etortzen. Batek txokolatea, besteak patarra, aurraren pixoialak, bakoitzak al zuena, ez uan iñor ere esku utsik etorri. Zarrak, bitartekoak, gazte xamarrak ere bai. Leporaño bete uan gure sukaldea. Aietan ere, batzuak mazalak itun; ona ta ongi zegoken aientzat dana. Azeri xamarrak ere baitun tartean, alkarri keñu biurriak egiñaz somatu nizkin izketan:

— Auxe den sukalde txukun ta apaña! Ederki antolatua zego!

Besteak, malezizko irriparez, laxter erantzun ziokeen:

— Bai, arrioko gauza pixarrak! Bizi bagaitun, emendik urte batzutara itzegingo diñagu!

Txokolatea egin nieken, eta, artu zutenean, laxter asi itun adarra jotzen. Ezkonduetako andreak baño adar-jotzalle oberik ez dek arkituko lurraren gañean. Batek kiñu, besteak atximur:

— Aizan, Maria: edorri polita aizenik, ez diñagu ukatuko! Baña bai al dakin senarra polita aukeratu dekanala?

— Bere begi beltz oiekin idixko pixkorra zirudin! —besteak.

— Txokolatea egiten erakutsi bear dion!
Meegi egin din, aukeran!

— Ja, jai, jai! Lodixeago eginta patarrarekin bultza nai al dion? Txokolate onek etzeukan ezereen aitzakirik! Egunero olakoxea balitxion!

— Aizan, Mañontzi: mingain orri galga pixka bat eman akion! Ezpaizain patarrrik gustatzen iri! Guk edango degun bildurrak al agon? Gaurko danontzat naikoa badiñagu!

Patar-botil bat ustuziteken; bigarrena ere beraka zieken. Atera nieken bigarren txokolatea ere maiera. Batek *iji-iji!* atrixe-doministikua egin zin; beste batek ere bai ondoren. Katu-erdian zeudeken geienak, bero-bero jarriak, alkarri txanda utzi nai ezik. Patar-botillak bera-alean, iskanbilla gora. Ango zalaparta!

— Auxe ere bada, Joxe! Sukalde au luxa ta luxa ari da noski. Indar geiegikoa dezu patar au!

— Bejondeñela! Amar kopaxkatik gora pasia aunagu onuzkero-ta!

— Aizan, Maria: Mutua artu al unan senarra? Algara goxoa lasai egiten din; baña etzionat oraindik itzik entzun!

Esan bazun, esan zin! Danak batera eraso zidateken. Amaika bertso kantatu bear izan nin, baña aiek etzeudeken bertsoak entzuteko gaiean, ezta alderatzekorik ere.

Inguruko ezkondu ta ezkongai, mutil ta nekazar, danak larrutu zizkiteken arratsalde artan. Danak itzegin ta iñork entzun ez ari zirala, oraindik ongi zeudenak baitun tartean; aien esanera,

danak itzezin ta entzun zezaten, txandaka kontu-kontari asi itun.

Ni arrunt betiko nazkatu nioteken. Barka zaidak, Ataño: aiek orduan esan zituztenak berritzerik, barruak etzidak agintzen. Zarrak eta okerrenak.

Gizonen aldekorik etziteken bat bakarrik ere kontatu noski. Ederrak aditu nizkin. Alako arratsalderik... Ez uan bereala bukatzekoa. Odolak irakiten, gorri-gorri egiñak, beren zer esanak aitu zituztenean, neri eraso zidateken:

— Zuk ez al daukazu ezer kontatzekorik, Joxe?

— Zuek danak gizon larrutzen jardun zeraten ezker, nik alde atera bearko! —esanta, au kontatu nieken:

— Gizona oso goiz lanera ateratzen zan, eta egun guziko mantenua, sardin zar pare bat besterik etzion jartzen andreak. Olio ta ardorik, ezta usai egiteko ere. Ezkondu ziranean gizon bikaña zan; orduan exur ta larru besterik etzan. Galtz-ipurdiak belaun-txokoraño erori zitzaizkion gizarajoari. Sardin zarrak zapaltzeko, lantegi ondoan zegoan iturritxo batetik edaten zuan. Artatik bai, aukera zeukan.

Illunabarrean, txutikan doi-doi etxera zane-ko, eundoko ongi-etorria eta maitasun-itxurak egiten zizkion andreak; apari kaskarra ordea: beste sardin zar bat legor-legorra eta ur preskoa edari. Barau oek danak egiñagatik, kalera jetxi orduko, denda ta tabernetako atso guziak an zitun atzetik ojuka:

— Aizu! Aizu! Zorrak noiz ordaindu bear dituzu?

— Zorrak? Zereko zorrak? Ala jainkia! Au ere badek orratik! Iru sardin zar egun guzirako mantenua, ta bazter guzietan zorrak? Ezta urrezkoak balira ere!

Bere andrea, ori bai, bikaña zegon; baña arek etzun jaten ere ordea, iñoren aurrean beñepin. Zerbait jateko agintzen zionean:

— Zereko jan? Buruko miñak nago ordea!

Erdi negarrez, ori zan bere betiko erantzuna.

— Nere emaztea etzebillek pin! Beti buruko miñak; ezer jan ez, eta alako andre bikaña?

Eun kilotik gora izango zan noski. Gizonak galdu alean, andreak irabazten zuan.

— Gure etxean orixe dek lanik egin ez eta dana zurrupatzen duan beatz lodia! Billaukeriren bat bazegok emen!

Eta goiz batean, lanera zijoan aitzakitan, ukullu-txulotik zeleta egin zion. Andik amar minutu baño len, Jaungoiko maitea! Zer zan ura? Sukalde-mai-gain artan zer ikusten zuten bere begiak? Egia ote zan edo ametsetan ote zebillen? Txerri goseak ezkurra amets, alegia.

Pitxar bat ardo atera zun mai gañera, eta arra bete luzeko lukainka-muturrak tartean zitun arrautza-tortilla; kilo ta geiagoko arto beroa, berriz, su gañean. Lanerako estuasun aundirik gabe, patxara ederrean, sartu zitun gilbor aundi artara danak, katuarentzat papurrik ere utzi gabe mai gañean. Bapo gosaldu zunean, ontziak garbitzea gerorako utzi ta lotara.

— Arrainuan atsoa, etzegon gaizki! Gosari

orri laguntzeko, zer bazkari-modu ez ote den egi-
ten? Bikaña edukiko aunagu orrela! Nere illa-
beteko sardin zarrak ez ditzen gosari orrenik ba-
lio! Agon, agon! Arratsean ikusiko diñagu!
—esanta, joan zan lanera.

Arratsean, auldata sukaldera zaneke, betiko
arrera maitetsua egin zion; sardin zar bat beste-
rik ez ordea apari. Bere ura jan ta ur presko
txurrupe bat egin zuanean:

— Aizu, Joxepa: apari eder onen ondorean
umoreko nago, eta kantatu egin bear degu!

— Bai, zereko kantatu! Orixe bear nuke
orain! Ez daukazu nere buruko miñik!

— Nik kantatzen detana, kantatu zuk ere!
Bereala bukatuko degu! Ikusiko dezu buruko
miñak ere nola joango zaizkizun!

— *Bueno, bueno!* Kanta zagun, ba!

— Surtan arto beroa! —gizonak.

— Surtan arto beroa! —andreak.

— Botilla ardoa galanta! —gizonak.

— Botilla ardoa galanta! —andreak.

— Arrautza-tortilla aundia! —gizonak.

— Arrautza-tortilla aundia! —andreak.

— Ni ukullu-zulotik begira! —gizonak.

Au kantatzeko barrenik etzun izan andreak.
Lotsaz ta bildurrez, gorri-gorri egiña, ixilik ge-
ratu zan. Ondoren gertatu zana ez dago zertan
kontaturik. Buruko miñak ere oso gutxitan iza-
ten omen zitun andik aurrera.

Bukatu nuneko, gazteak algara bizian asi
itun; zarrak, berriz, oso kopet illuna jarri zida-
teken.

— Bai, sardin zar batekin pasatzeko ona

zegan nere gizona! Idia bere adar ta guzi iren-
tsiko liken-ta!

— Nere gizonak eguneko bi pitxar ardo
eskas dizkin; gordean edaten duanez gañera
ori!

Nere emazteak nere bizkar egin zitun parrak
arratsalde artan. Beste txokolate bana ere artu
ziteken; kopaxka batzuk patar, ari bultzatzeko,
eta noizbait bukatu uan gure atsolorra. Musu
gorri, begiak ñir-ñir, alako irri malezizko ta mal-
tzur bana egiñaz:

— Agur, Joxe! Gizon polita zaude! Ederki
portatu zera! Ia berriz beste olako bat laxter iza-
ten degun!

— Bai, no! Asko arrapatuko naun! —nio-
ken nerekiko.

Asper-aldi ederra artu nin! Nik pasa nitun
tripa-jateak! Emakumeak berez goxoak dirala?
Enauk batere arritzen! Ai zer goxatua artu zu-
ten gurean! Goxo-zale amorratuak dituk! Urren-
go atsolorrerako beste bat jarri nin, bai, ta kito!

— Lengo kontuak izango dira oiek, Joxe!
Ez det uste gaur iñun olako atsolorrik egiten
danik!

— Ez! Zorionez, oitura bildurgarri oiek, da-
non onerako galtzen ari dituk!

NEKEPEAN

Nere azkeneko arreba ere ezkondu uan. Alare, ama xarrari eskerrak, or nunbait antolatzen giñun. Amak ederki egiten baizitun etxeko lanak; aurrak zaindu ere bai. Izan ere ain goxota ume-zalea al uan ura! Emazteak, Donosti'ra-ko joan-etorria egiten zunean, arratsaldean edo-zer lanetarako beta izaten zin; eta nik ere morroi erdi txoro bat banin. Nerekin batera, berebiziko lanak egingo zizkin; bakarrik utzi ezkerro, berriz, xoxo bat kantari nabaitzea aski zin, ordutan bere arixe begira egoteko. Aziendak zaitzeko, berriz, besterik ikusi ez detan bezelakoa uan, asko maite baizitun.

Lanpean, ukatzerik etzegok, baña iñun zorrik utzi gabe, poliki antolatzen giñun. Gure kabia betetzen ari uan, berriz. Urrengo iru urteetan, beste iru anka-gorri jaio itun gure etxean. Ori zer dan badakik? Lau urteren buruko, lau seme. Okerrena, berriz, laugarrena jaio ondoren, beren amona il zitzaiela. Orduan geratu giñun gorri, orduan! Amak Donosti'ra joan bear,

aurrak bakarrik ezin utzi, eta etxeko ta kanpoko lanak, biziko bagin, egin bearrak zeudeken. Ia urte guzian sagardoa salgai, berriz. Amonak, emaztearen amak, oraindik sasoiko, aldi luzeak botatzen zizkin gure etxean. Orduan bai ederki. Ura palta zanean, ordea, eguarte geiena aur-kontu galdu bear nik. Etxe ondotik urrutiratzerik ez.

Amabi kilometroko atzera-aurrera eginta ler egiña etxera biltzean, sukaldea bete ume, danak bere zai, erdi larru bixirik, batzuek zikinduak, eta bazkaria jarri bearra. Eltzekai puska bat nola edo ala egosten nin nik; besterik ez. Aurrak garbitu, jantzi, bularra eman, bazkaria jarri; atsedena merezi zuan amak, naiko lana bazeukaken. Arratsaldean etxea txukundu, aurren goraberak egin, eta zelaira gero, neri laguntzera. Bereak eta bost pasia uan, bai, andre gaxoa.

Gizonezkoei ez galdetu; oiek lan ori zer dan etzekitek. Alargundu nintzan arte, nik ere ez nin ikasi. Maitasunak egiten ditun lanak. Ezkontzea ez dek txorakeria. Mundu ontan batek artu lezaken gurutzerik astunena bai. Olako aur-salla aurrera ateratzea lan nekosua dek, motellak. Ori, aparteko osasuna gendularik. Bestela, gureak egin zin. Ama, xarra ta baldarra zioken; baña aren paltak utsun ederra utzi zin gure etxean.

Guk lan egin bear izaten genin, eta bein etzekit izugarria nola etzitzaigun gertatu. Etxe aurrean, beieri edan-azteko putzu-zulo bat bagenin; aundiegia, ainbeste ume txiki zeuden lekurako. Aurrak zer diran badakik. Asarretuta edo jolasean, an erori itun bi urera. Andik alde xa-

mar, zelaiean, lanean ari giñun gu. Orduan ere amaren begiak etzizkitekera aurrak bistatik galtzen; urera eroritzen ark ikusi zizkin. Sasoi bikaña neukaken oraïndik; arin asko igaro nizkin metro aietxek. Gaur karreretan dabiltzanak, etzekit arrapatuko niñuten. Alare emaztea bertan nin. Lapa arriari bezela, biak alkarri korapillatuak urpean arkitu nizkin. Ura gure larria! Egundo bada-ta, laxter itun gañean. Itotzeko denborik etzitekera eta, Jaunari eskerrak, biak bizirik atera genizkin. Ura gure lasaitasuna!

Baratzako lanak zeuden bezela utzi; beiak lotu, ta arriz ta lurrez zuloa bete genin arratsalde artan bertan; eta bizirik atera genitun pozez, gure ezerezetik, bazkari ohea jarri zigukera urren-go egunean emazteak.

Zarrenak zortzi urte zituneko, beste bost mallako katea bazekarreken atzetik. Zortzi urtean sei aur, ta seiak gizonezkoak.

Nekepean geren buruak ez galtzezkerok, nai ta nai ez, neskame gazte bat ekarri bearrean arkitu giñun. Ta ark ere, etxetik jan da jantzi ta bere sari pixarra, kozka polita egiten zigukera. Zer egingo genin? Bizia dek lenengo. Igualeko lasaitasuna geratu zaigukera.

Zazpigarren semea jaio aurretik, asi uan ainbeste odol ixuriko zun Europa'ko guda zeritzaziona. Ordurarte erdi sinisten gendun esaera, ipui edo aztikeri bat bauan: danak gizonezkoak baziran beintzat, zazpigarren semea *salutariyua* izaten zala. Edozer gaitz, batez ere txakur amorratuen kozkak sedatzen zituna alegia. Olio irakiñak ere aorik erretzen etziona. Olio irakiña

aoan artu ta ura txakurren ortza-zuloetara ixuriz, garaiz etortzen baziran beintzat, danak sendatzen omen zizkin. Nere zazpigarrena ere semea uan, baña besteak bezelakoxea ura ere; etzin ezeren apartekorik.

Oraindik ongi gogoan zeukat, Altza'ko sendagillea etorri zan batean —ura, etorri ezkerok, ez uan gure etxetik sagardorik edan gabe joango— nola esan zigun, gure aurrean jolasean zebillen sallari begiratzuz:

— Ai, Joxe! Gu oraindik lasai bizi gera. Europa erdi alde ortan ez dute ori esango. Aspaldi ontan zipoka ta desapioka zebiltzanak, lotu dira. Asi dute anaiak alkar-iltze negargarri ori. Amaikatzok ankar aurrera joan bear du. Auxe gizonak pakean ezin konpondua!

Ura ere gudaren etsai amorratua baitzan.

— Oneraño ez al dira etorriko noski! —erantzun nioken.

— Ori ez da asmatzen errexa, Joxe. Zure semeen kinta-urteetarako bukatuko al da! Aurrierapen aundiak dituzte gaur. Dabiltzan lekutik urrutira ere, kalte aundiak egitea baleike —esanta, joan uan emendik.

Gezur aundirik etzin esan. Bazter guziak ondatuz, gudaren irabaztunak ere goi-beak jota geratu itun. Nik gudate orri jarritako bertsoak nunbaiten badituk. Amabi bertso dirala uste dit. Beti aurrera, Prantzia aixa bilduko zula uste bainun eta alemanaren alde egin nizkin. Ez nin asmatu; danontzako obe gañera. Lur guziari buelta eman arte ez baizan geratuko. Orduan alde niñun; gaur ezin nezakek beste ainbesterik esan.

Epela sartu ziguk. Ez nin askorik pentsatzen garai artan, guda gaizto aren ondorenean, biotz auldu ontara betiko negarrik sartuko zanik. Supritzea zer dan ederki ikasita joango nauk mundu ontatik.

Bitartean, gure aldamenean, aurrak koskortzen ari itun. Basakatua bezin zauli, erdi larrubixirik, aurrean arrapatzen zutena janaz, osasuna gañezka, otz-beroen kezka aundirik gabe. Inguru oetako perretxikorik geienak oientzat izaten itun. Beren tiragoma, aballa, tikilitakulo; sasi-bazter guzietan txolarteak jarri; arkaitz oetan ez uan pagauso, uxapal, zapelaitz, ollagorrik ere, aiek ikusi gabe geratuko. Emengo zugaitz aundi, arri-tontor, tarteka, bidetxigor, artzulo danak, beren izenez zekizkitekera gañera. Lanean ari giñan tokira bi edo iru etorriko itun ta:

— Aita, patatetako txuloan pagausoa geratu da!

Ez dudik txikienik eduki pagausoa izango zala. Beren egajeian txuxen asko ezagutzen zizkitekera. Eskopetarekin ikusten baniñuten, tokirik erosoetan jarriko itun. Eizak mendiari eragiten bazion, galdutzat jotzen genin. Beste gañerakoan, aiek ikusi gabe, ez uan iñon erori edo geratuko. Baita nongo arkaitzen ondoan edo zugaitzetan geratu zan txuxen asko igerrri ere, bere izen ta guzi gañera. Txakurrik onena bezela, pausorik utsegin gabe joango itun erori zan lekura.

Erdi jantzirik otz edo bero, pozez gañezka, osasunez beteak nere inguruan ikusirik, atsegi-

ñez betetzen uan nere biotza; gure neke, lan ta eziñak aztutzen zaizkidaken orduan.

Aintzak, aunditasunak, diruak eta lurreko atsegin ustelak, zertarako dituk ere buruarentzat bakarrik izatezkeroz, oiekin ire inguruan bizi diranak ez badituk zoriontzen? Ere barrungo geiegi ori nora zabalduzik ez badaukak? Semeak pozez, gurasoak alai ikusita; gurasoak ere pozez semeak alai ikusita. Gure mixeri gorri ta neke guzien artean, amaika aberats ta zaldun baño zoriontsuagoak bizi giñun. Biotza gorrotoz, ezin-ikusiz eta beldurrez betea daukanari, diru ta aginteak etzietek poz aundirik emango.

Semeak, ikastera joateko urteetara iritxi ziranean, Tolareberri'ko ondoan Errenderi'ko udalletxeak badik baserritarrentzat jasotako ikastetxe bat, eta araxe asi-erazi genizkin. Neska euskaldun bat ziteken erakasle, maistra; eta buru argi xamarreko mutillak nola baiziran, bereala ikasi zizkitek irakurtzen, idazten eta kontuetan ere bai poliki, beren izkuntzan itz egiten baizien. Gu baño aurreratuxeagoak nai nizkin semeak. Lotsagarri bizitzeko, aski gaituk gu; ez bainun nere izena jartzen ere ikasi. Amaika paper garbi borroi zikiñez beztuta utzi dizkit. Beatz aundi onek izketan baleki... Iñondik eskutitzen bat bazetorren edo egin bear bagendun, auzoko ateak jo bear edo erriko bikarioarengana joan bear. Sendi baterako lotsagarriagorik bai al dek?

Itaurrean edo beste edozer lanetan asteko moduan koskortu ziranean, ez giñun asarre. Zarrenak Jaun-artze nagusia egin zunean eta nola baizan gazterik azia, bereala jarri uan nik ain-

bestexe lan egiten zula. Amairu urtetarako laian ta segan ikustekoa uan ura.

Ez genin ezer askorik alperrik ondatzen. Sei semek soñeko berarekin egin ziteken Jaun-artze nagusia. Ortantxe bezela, beste gauzetan ere, garbi esatea ez nauk lotsatuko. Eguneroko zorrak ordaintzeko dirurik ez genin izaten; askotan gauzak zorretan etortzen itun. Bei edo txekorren bat saltzean, ordurartekoak ordaindu eta berriro zorrak egiten asten giñun. Aldakone'ko Benita dendari zanak amaika pazientzi bear zin.

Lau urte luze aietan alkar iltzen jardun ziranak, noizbait aspertu itun. Irabazlea ere, urtetarako lur jota geratu uan. Alkar-iltze negargarri ura bukatu ondoren, jaio uan bederatzigarren ta azkeneko semea; onen aurrekoak iru urte bazizkin ordurako.

Ume-sail ura jolas ta iskanbilletan entzunik, amaika aldiz esan nioken:

— Orra or gure aberastasuna, gure kapitala! Oraindik ematen ez bada asi ere, laxter asikoda! Egun erosoagoak badatozkigu, Maria! Neke-rik gaiztoenak joan zaizkigula uste det! Gazte-sall onek, aurki, baserri ontako lanak asteko ere ez ditu!

Semerik zarrena asia uan Donosti'ko joan etorriak egiten. Amak, nai zuenean etxean geratu ta atsedean, etzeukaken aukera txarra.

Sendi beartsu baterako, ainbeste ume aurre-ateratzeak, bere istilluak badizkik. Baña aiek osasuntsu gora-beraka ikusteak zekarkigun atsegiñak, etzeukaken neurririk. Ume gabeko etxea tristea dek benetan! Erruki dizkit!

IZURRITEA

Etorkizunaren berri etzekigu eta ez jakitea obe. Amaikak beren burua galduko litekek bestela. Bizi-pozik ez likek izango gañera lur ontan gizonak. Etorkizun zoriontsu baten ametsetan ari giñan garaiean, etorri uan zoritxarrerako gure esnaera. Oraindik bizitza ontan geratzen zaizkidan urte guzietarako biotz illuna. Urte bete lenago gertatuko zanaren berri jakin izan banu, ordu bat ere onik ez nin igaroko. Ongi zekik gure Jainkoak zer egiten duan. Alkarren urbil zebiltzak poza ta negarra. Berekin zera-mak maitasunak ere arantza.

Milla bederatzi eun da emeretzigarrenean sartu giñun. Ilbeltzaren zortzian etorri uan munda gure bederatzigarren ta azkeneko semea. Etxe beartsu baterako ez dek nolanaiko zama. Alare, okerrenak egiña. Zarrenak amalau urte beteak; emengo sega ta laia-lanetan, edozein gizonak aña lan egiteko kupirik etzeukana. Urte banaren aldearekin beste iru onen ondoren. Urteik urtera gora zijoan salla. Aiek ongi zaintzen jakin bear. Gure baserriko larritasunak bu-

katu itun. Gazteena, jaio berria; aren aurrekoak, ordea, iru urte beteak zizkin; amaren magaletik aterea, txutik ikasia. Amarentzat batez ere lan gaitza zeukatela, etzeok ukatzerik. Okerrenetik pasia alare. Amak nai zuanean beñepin, ederki egiten zizkioken semerik zarrenak Donosti'ko lanak. Gurasuok, berriz, osasuntsu ta sasoikoak. Etorkizun on baten itxaropenetan bizitzeko arrazoirik ez ote genuen ba? Etziguken, ordea, Jainkoak bizitza ontako atsedenek eman nai.

Guda bera baño ere, ondorena txarragoa dala ziotek. Enikek ezetzik esango. Bere zipriztin gaitzoak arrapatu gaitziken gu ere. Berdun'go alkar-iltze ikaragarri artan, eun millakak egon zirala lurpetu edo erre gabe, gorputz illak usteltzen; eta eguzkia estaltzerañoko euli ta eltxo zikiñak, pillakak, gorputz ustel aietatik sortu ta egatu zirala; gaitz kutsakor ura aiek sortu zutela, askotan entzun izan dit. Dana dala, negar ugari zabaldu zin lurbira zabalean. Balak baño urrutirago ta txorrotxagoak sartu itun; iñor oartu gabe egiten ziteken lana.

Gosez ta miseriz zapaldua zioken Europa. Oraindik bere malkoak txukatu gabeak. Baña ez uan ori okerrena: egundoko izurritea, *gripe* deritzaion gaitz ori zebileken bazterrik-bazter, Europa guziko nagusi. Kolerako urte aietan baño geiago iltzen zala-ta, larri zebileken jendea. Zarrak, aulak eta lendik beste gaitzen batek ukuituak, arruntean zeramazkin otsarekin sartu uan Euskalerrira. Lau urteko gudate zakar arek baño askoz geiago garbitu omen zin gaitz orretzek bakkarik; tiro ta kañonazorik gabe gañera.

Bete-betea arrapatu zin Donostia. Gaurko laurdena etzalarik, amalautaraño ildako egunak bai omen itun. Inguru oetako erri koskorak ere laxter menderatu zizkin. Gure baserri kaxkar au ere urruti zegok, mendi zakar oen erdian babestua. Gaitz ari ataka jarriko zionik ez izaki ordea. Mendi zakar oei eraginda, sartu uan gure etxean ere.

Itz gutxitan kontatu nai nitek; oroitze utsak gaur oraindik illuntzen baizidak biotza eta negarmalko ixillak banaka-banaka asten baizaizkidak. Larogei ta lau urte ontan jarioan daukadan iturri au, oraindik ez dek agortu. Eriotzak agortuko al dik!

Otsailla aurrera samartua uan. Semeetako bat, etzekit zein, buruko miñak zegola ta goitika ta negarrez somatu nin. Amak eraman zin oiera. Emazteari ala esan nioken:

— Etorri zaigu bildur gendun eraso. Gaitz au bein sartu dan ezkeru, danok igurtzi arte ez da aterako.

Nik, garbi esan, ez neukaken gaitz aren bildurrik. Asteren bat gaiztoa pasa bearke gendula, ori bai; baña nik zer pentsatu bear nin, egin zuana eginta aldegingo zunik?

Urrengo goizean, ez giñun erdiak ere jeikitzeke gauza. Ama ta ni ere joak geundeken. Ondoren, banaka-banaka, seme bat ez besteak, danak oieratu itun; au gerora ere etzin arrapatu. Gurasuok zortzi semerekin gaixo geundeken.

Egoera negargarria uan uraxe! Zortzi seme gazte, aurrak batzuek oraindik, sukarrez gori, binaka ta irunaka, al zuten moduan, gela kaskar

aietan antolatuak; batzuak negarrez, danak goibel ta triste. Laguntza bear, eta ezin eraman, borondate-paltik ez geneukaken baña. Okerrena ama zegola jakiteko, ez nin sendagilleak esan bearrik; oraindik aul xamarra baizegon, eta illabeteko aurra, berekin ura ere, gripek arrapatuta. Gero erreta il zan seme Saturninok, amai-ka lan egin zin; baña etzioken artara irauterik.

Orduan azaldu itun ainbeste mesere egin ziguten andrearen anaiak eta beren ama. Andik laxter etorri uan sendagillea ere. Lenbizian neri etzidateken ezer esan; gaizki xamar bainengon ni ere. Alare, laxter antz eman nioken, danak etzutela onera eman. Ixilkako alkar-izketa geiegi somatzen nin an. Emaztearen bildurra neukaken; ura bakarrik zioken aul xamar gure etxean. Uste gabereren batean norbait oztutzen ez bazan beñipin, banekiken besteak gaitza burutuko zutela.

Goizean etorri uan sendagillea, arratsaldean ere bai, beti amarengana. Amona ta koñaduak triste somatzen nizkin. Egun ta gau guzian etzidateken emaztea bakarrik utzi. Ni ezin niñun zalantza gaizto artan bizi. Urrengo goizean, etorri uan berriz ere sendagillea. Banaka-banaka danak ikusiz, neregana etorri zanean, ala esan zidaken:

— Seme guziak eta zuk onera eman dezute. Kontu piska bat edukitzen badezute, egun batzuren gorabera da.

— Eta Maria nola dago? —urduri asko galdetu nioken.

— Atzo oraindik ez nun ongi ezagutu; baña gaur bai. Maria gaizki dago. Pulmoniak arrapa-

tu ta gogotik ari du estutzen, eta gaxoa aula; ez det oraindik itxaropenik galdu —esanta, malkoak zerizkiola aldegin zin; ikusten baizun zetorren eraso, eta nik ere bai.

Oraindik etzula itxaropenik galdu esan zu-neko, ederki asko bazekiken arek, Jainkoak ez bazuan mirariren bat egiten, an etzegola zer iku-sirik. Nik ala sinistu nin beñipin. Ai! Albiste negargarria uan uraxe! Garai aietan gaitz bildur-garria baizan ori. Bederatziurrena igaro arte, atzera-aurrera noiz egingo jendearen larria! Gaur, garaiz arrapatu ezker, laxter mozten ditek. Or-duan etzioken ezertxo ere, oni bidea galeraziko zionik. Nere buruari igertzen nioken gaitza be-raka asi zala; arindu zala nere ondoeza. Seme-engatik ere orixe entzuten nin: danak arintzen ari zirala. Baña zorrotz agindu ziguken sendagi-lleak, arek esan arte ez jeikitzeke. Danak ez ituan berri txarrak; baña bestea?

Berriz ere etorri uan sendagillea. Etzeukaken ark ere lanaren paltik. Bat ez besteak onera eman gendula esanaz:

— Etzaitut iruzurtu nai, Joxe! Ongi eza-gutzen zaitudala uste det! Beti biotz zabaleko kristaua izan zeran ezker, okerreña pentsatuz obe dezu Jainkoaren borondatera makurtu!

— Orren gaizki al dago? —esan nioken.

— Gure jakinduriak eta gaurko aurrerape-nak ez daukate zer egiñik. Bizirik ateratzea, Jainkoaren mirari aundi bat izango litzake.

Eta ixilik aldegin zin.

Sendagilleak, asko ikusi ta biotz-gogortzen dirala ziotek; baña Don Leandro Aizpurua'ren

barrenak samurtu itun, Bordaxar'era zetorren eraso beltzaren aurrean. Zetorrena, garbi ta gordin kontatu zidaken, Don Leandro olakoa uan-ta: kristau jatorra; eta kristau batek besteari zor dion egia, garbi azaldu zidaken, eta benetan ontzat artu nin. Gezurretan egia estaliz eduki ta uste gabeko erasora baño, lasaiago joango niñun, jakiñaren gañean, aren azken ordura.

Orduan asi itun egundo bukatzen etziran orduak, egunak eta gauak. Bere anaiak txandaka zaitzen ziteken; etziteken beñere bakarrik utzi. Katillutxo bat olioiz bete ta an jarri ziteken pox-polo-itxurako *mariposa* deitzen genion argi bat. Gabaz, aren dizdiz motelera, ederki ikusten nin emazte maitea estu, oñazetan, arnasa ezin arturik. Gero ta okerrago, oñazearen oñazez aultzen ari uan, ordurako etsipena emana. Bere anaiak, berriz, illun, malkotsu, bere ondoan, eskatzen zuana emateko beti zai. Ainbeste maite ta ezer egiterik ez; utzi egin bear, piskana-piskana gaitzak ito zezan. Uraxe iñondik iltzerik nai ez, eta, ortxe-ortxe, lenbailen iltzea naiago.

Aiek orduak! Aiek egunak! Danak bere inguruan, zer egin ez genekila. Ura, ordutik ordura estutzen, larritzen. Itz egiteko bildur. Egun batzuk lenago kabi alai zorionsu bat zana, orain triste; arnas larri ta negar-zotiña besterik ez genin entzuten. Amona, aren ama, beti negarrez somatzen nin. Orduantxe ezagutu nin, zenbaterañokoa dan Jainkoaren aurrean gure ezereza. Arrokeriak utzi ta biotzak umiltzeko orduak dituk oiek.

Aurki alargun, bakarrik, lagunarekin oituta.

Biren arte ezin genduna, danen kargua nik artu bear. Ai, geroa! Zeñen beltza zegon neretzat geroa! Ai, etorkizun on baten amets gozoak! Itzak alperrik dituk emen; ur ortan pasia ez danak, urrutitik begiraten baiziok eta etzekik zer dan ere ori. Prueba egin dutenak, itzik gabe ere ikasia zeukatek. Ongi aski bazekitek zer dan ori.

Urrengo goizean, etorri uan sendagillea. Gauzak estu itun an. Aiek esan gabe ere banekiken. Arrats gaiztoa pasa zuala igarri nioken emazteari; ordu gutxiko bizia zeukala ere bai. Sendagillea joan bezin azkar, urbildu zaidaken koñadurik gazteena negarrez eta ala esan zidaken:

— Maria, oso gaizki dago, Joxe, eta lenbailen elizakoak emateko agindu digu sendagilleak; eta, apaiza etorri baño len, zuri itz bi egin nai lizkizuke.

Al nuan bezela jeiki; amets gaizto batean bezela, zer egiten nun ez nekila, urbil niñun bere ondora. Gaxoa! Ordurako arnas estua zeukaken. Uraxe uan miseria! Bizia ere emango beragatik, eta bere oñaze aiek pixka bat arintzeko ere gauza ez.

Itzak banaka-banaka moztuz, ala esan zidaken:

— Eriotza badatorkit, Joxe! Nai ta nai ez, utzi bearko zaituztet! Ainbeste gauza esan nai nizkizuke, baño estuak ez dit uzten. Jainkoaren aurrera laxter naizen ezkerro, ezertan uts egin badizut, barkatu, Joxe!

Danetan bat datorrenik ez dek lurrean, eta gu ere ez giñun ala; baño gauza utsa dek ori.

Alkar maite giñaden itxura besterik ez. Zer barkaturik ez neukan ezkeru, nere erantzuna zer izango uan? Negarra!

— Betiko utzi baño len, seme maite oiek ere besarkatu nai nituzke! —esan ziguken gero.

An azaldu itun zortzi seme batera. Amalau urtetik berakoak danak. Bederatzigarrena, bularrekoa, koñata maite batek artua zeukaken ordurako. Zarrenak negarrez; aiek bazekiteken zertara zetozen. Txikienak, berriz, urduri, gaixorik oraindik, iltzen ari zan ama gaztearen aurrera. Banaka-banaka, azken musua emanaz eta bakoi-tzari bere konsejuxoa onak izateko esanaz eta bere alde otoi egiteko eskatuz, beste mundura arte agurtu zizkin. Eta an joan itun, geiago ikusiko etzuten amaren aurretik. Inguruan geunden guziak negar-zotinka ari giñun. Nik ez neukala an zer egiñik eta oztu ez nendin, elizakoak etorri bitarte oiera bialti nioteken kuñaruak.

Elizakoakin Don Santiago etorri uan. Amabost urtez lenago gure ezkontza bedeinkatu zuna bera. Mendiko gure etxe zar artan ikusgarri ederra arkitu zin.

Oso biotz bera ta kupigarri artu zizkin elizakoak. Gero ere itz egin naiean asten uan, baña gaxoak ezin zin abotsik garbitu; erruz nekatzen uan gañera. Estuak ez baizion uzten. Sortu nintzan ezkerozko ordurik tristeenak noizbait bukatu itun. Bere ondoan errosaioa esaten ari giñala, utzi zin betiko negargarrizko bizitza au. Ain ezagun ta maitea nun abots ura, ez nin geiago entzungo. Lurrean atsegin ta atsedeen aundirik etzioken eman; bestean bederenik Jainkoak

sarituko al zizkin bere nekeak! Negar-zotinka bi musu eman nizkioken; baita:

— Agur, Maria, egun aundirarte! Mundu ontan ez daukagu geiago alkarrekin itz egiten lanik!

Zer egingo diegu bada? Eman zidanak berak kendu zidaken-ta. Minbera dek maitasuna!

Besotik artu ta ia indarrean atera nioteken egoera artatik nere kuñaruak eta oiera eraman, gaixo bainengon eta nik an ez baineukan zer egiñik. Makur asko an joan niñun, arrokeri aundi gabe, nere egoera triste ura oroitzuz, bakar-dadean negar egitera. Bizi zan arte emaztea zaindu zuten bezela, gero ni zaitzera etorri uan bat, jeiki ez nendin edo beste zerbait okerrago egin ez nezan, nere onetik ia aterea bainengon.

Bein illa jantzi ta gelatik atera zutenean, atea itxi erazi, bai, ta antxe geratu niñun, amabost urtez lenago ain alai ta eder etorri zan bide beretik eraman zuten arte. Epaillaren lenengoa uan, aingeru guardako eguna. Etxekorik iñor etzin eraman laguntzalle, etorrerik izango etzun agurrean. Ez maite ez gendulako; ez baigiñan gauza.

Ogei ta amazazpi urte dituk au gertatu zala, eta gaur oraindik ere ordu aietaz oroitze utsak biotza korapillatu ta negar-malko garratzak zekarzik nere begietara. Sinista nazak, Ataño, naigabez ari naizela kontu oek berritzen. Bukatu itun betiko, bai, ta etziot beste iñori olako erasorik opa. Orixe uan nere geroztikako egunak illundu zitun ekaitza.

ALARGUN

Ezertarako gauza ez diran ta lan besterik ematen ez dutenak bizirik gorde ta bederatzi seme gazteren ama, bear-bearrenean danak umezurtz utzita, eraman. Ez dek ulert errexa! Jainkoak bazekik nondik nora garamazkin. Ni ez nauk iñor Jainkoa epaitzeko. Sinismena detan ezkerro, gerokoaren itxaropenetan nabillek. Arrokeri aundi gabe, apal-apal, bizkarra makurtu ta eutsi nioken nere gurutzeari; bainekin, andik edo emendik, Kalbariora igo arte, laguntzaren paltik ez nuala izango. Ez niñun nere onetatik atera.

Berriz ezkontzeko zirika aritu ziranak baitun. Bederatzi semeren kargu egiñaz nerekin uztartu nai zutenak ere bai. Daneiri uko egin nieken. Il zanaren oroitzik ez nin biotzetik kendu nai. Pamela nastu besterik ez dek egiten olakoetan. Artu nuan erabakiz ez nauk beñere damutu. Ogei ta emezortzi urte zeramazkit alargun. Oraindik emazte maitearen oroitzik etzai-

dak aztu, ezta oztu ere. Nere semeak aurrera ateratzeko, oen laguntzarekin bakarrik baliatu nai nin.

Emazte maitearen neke-lanak bukatu itun betiko. Etxea ospital bat egiña utzita, joan uan emendik. Neri, lengo zama ezin eramanik nenbillen oni, beste aundiagoa bota zidateken gañera. Ordurik larrienean bakarrik geratu niñun, bederatzi seme txikirekin, alargun. Orra urrun-go gudaren zipriztiñak nola ondatu niñuten betiko.

Bereak zitun trasteak bildu, batzuak erre, besteak garbitu ta jaso. Orra ainbeste maite nunaren aztarrenak, lenbailen aztutzearren, etxetik ken nairik. Baña kendu? Ez nere biotzetik! Oraindik ondotxo gorde ta jaso zeukat or bere oroitza. Amaika *agur Mari* errezatu zizkiot geroztik. Nere biziarekin batera galduko dek ori ere.

Lantegi berri bat bezela artu nin alargun-bizimodua. Jaunari eskerrak, ez nin nere bururik galdu. Sinismena giari, banekiken nondik nora jo ta zer egin bear nun; len bik ezin gendunari, orain bakarrik eraso bear.

Gaitzak utzi niñunean, lenengo gure sukalderako sarreraz oroitzen nauk oraindik. An ari uan bakarrik amona —bere alaba galdutako penez, begiak gorri oraindik— miñez zeuzkan billobentzat kapesne berotzen. Betiko oitura nuanez, ankutsik jetxi niñun sukaldera. Amonak erritan eraso zidaken:

— Auxe gizonaren planta! Oraindik gaixo zaudela ez ote dakizu? Espartzin oiek jantzi itza-

zu lenbailen, Joxe, eta geixeago zaizu zere burua!
Ume oen aitatza ta amatza, gaurtik aurrera, zuk
egin bearko baitez! Ez geiegi larritu alare, Jain-
koak danen kontua badauka-ta!

Bizimodu larria, etorkizun illuna, sinisgabeko
batentzat. Jainkoak, kendu zidan ezkerro, aren
palta nolabait ordainduko zidan itxaropenik, ez
nin galdu ordea nik. Nere ondo gabeko utsun
artatik, arrats beltzean laño artetik azaltzen dan
illargi-dizdira bezela, garbi ikusten nin nondik
zijoan nere bidea. Orain arte, ari jarraitu beste-
rik ez dit egin.

Len bezelaxe zioken etxean dana; baña gau-
zak bete ta maitagarri egiten zituna ez bainun
iñun ere billatzen, eta ura gabe malkoak begie-
tan eta biotzean utsuna. Ez aren abotsik iñun
ere entzuten. Etzekit berari ojuka ere nola ez
nintzan asi; ez bainun bizi-pozik ezertan ere ar-
kitzen.

Andik laxter asi itun semeak ere jeikitzen.
Il zala bazekiteken danak; alare, alde guzietara
begiratu ta ikusten etzutenean, ama nun zan neri
galdetu nairik bezela, triste begiratzuz, negarrari
ematen zioteken. Neri ere orduan korapillatu egi-
ten biotza; semeen aurrean negar ez egitearren,
alde egiten nin andik.

Ura nere biotzeko utsuna; ezin burutik bota!
Etxeko gauz guziak bere kutsua zeukateken;
semeak ikusten nitun bakoitzeko, amatzaz oroi-
tzen niñun. Esna, ametsetan; lotan, ametsetan.

Bein, onoko amets au egin nin, eta oraindik
ere ez niok egia etzanik:

Errenderi'ko geltokian, estazioan, nioken, ba-

kar-bakarrik, trenaren zai. Irun aldetik trena etorri zanean, «Joxee!!!» treneko leiotik deitzen niñun emakume baten abotsa entzun nin. Gaur oraindik munduko abots guzien artean ezagutuko nuken abotsa. Nere emaztea uan deitzen niñuna. Laxterka urbil nintzanean, zoragarri, txuriz jantzia, bi aingeru eskutik zitula, jetxi uan trenetik.

— Oraintxe nua, Joxe, zerura! —esan zidaken irriparez.

— Ia neretzako ere egiten dezun an lekua! —eskatu nioken.

— Bai; zuretzako ere lekuaren paltik ez dago an! —erantzun zidaken.

Arekintxe itz aspertu bat egiteko zorutzen nengola, itz oiek esanta, trenera sartu uan berriro; eta txistuka ta ketan zijoan treneko leiotik, bere eskuakin agur egiñaz, urrunean galdu uan betiko. Zoraturik ara begira nengola, esnatu niñun, izerditan, bakar-bakarrik, triste ta samíñez.

Amets orri jarritako bertsoak ere banizkin; aspaldiko gauzak nola baidiran, aztu egin zaizkidak. Ona bat:

Trenetik entzun nuan
Joxeren izena,
emazte maitea zan
deitzen niñuena;
itz bi egin orduko
juan zan berriz trena,
alkarren alde ziran
poza eta pena.

Apaiz bati kontatu nioken amets au. Ametsean ez sinisteko esan zidaken. Illa zan ezkerro, otoi egiteko, bai, baña ez geiegi pentsatzeko, osasuna galduko nuala bestela-ta. Arrazoi eman nioken. Etorrerik ez duan gauza, aztutzea obe.

Nunaitik laguntz-eskeñia banin; besteren bizkar bizitzea errex dek; ez ordea ni jenio ortakoa izaki. Nere eginkizuna uan ta neronek egin nai nin nere semeen aita ta amatza. Geronetik ezin gendunean, orduantxe artuko nin laguntza.

Txutik ibiltzeko gauza nintzaneko, eraso nioken nere lan zallari; len bik ongi ezin genduna, bakarrik egin bear bainuan orain.

Gure sagardo-saltzeak orduantxe bukatu itun betiko. Ez nin batere penik artu. Orixe dek nekearen diña ematen ez duan lana.

SEMEAK

Orduan dana triste ta illuna zioken gure etxean; baña, emaztearen eriotz ondoren, miñik geien semeen sakabanatzeak eman zidaken. Nai ta naiezko gauza; neretzat minberea ordea. Berderatzi seme, arenak eta nereak; ixpillu batean bezela, aietan ikusten nin beren ama; aren odolkoak baiziran, eta aren naia ere bai, ura maite banuan, ez uzteko seme aiek besteren esku. Orixe uan nere biotzeraño sartua zegon arantza. Beste zortzi semez gañera, bi illabeteko aurra nik ezin nezakeala azi, etzeok esan bearrik. Nere koñata maite batek, emaztearen aizpak, eraman zin. Beste amaika urteko seme bat ere joan uan etxe artara. Beste bat, berriz, bere besoetakoa nola baizun, nere anai Juan Krutzek eraman zin. Biotz-biotzez eskerrak daneiri. Nai ta naiezkoa bazan ere, nereak itun eta etxekoak ainbestexe maite nizkin. Aiek gure sukaldera bildu bitarteko onik ez nin eduki.

Etxean geratu ziranakin moldatu niñun, eta jarri nin lanerako martxa.

Len ere amonak, nere amagiarrebak, onik bazan ona, bear zanetan aldi luzeak gure etxean egiten zizkin; orduan ere gurean geratu uan. Sasoikoa nola baizan, tarteka semeren baten laguntzarekin, etxeko lanak ezin egiñik etzeukaken. Ez uan asiera txarra.

Zarrenak, goizean Donosti'rako atzera-aurre-
ra eginta, arratsaldean zelai-lanetan ia ni ainbes-
texean aritzen uan. Amar urtez berakoak, ikas-
tera. Eziñean bagenbiltzan ere ez nioken ori
egundo nere buruari barkatu. Udara aldean,
berriz, nerekin edo auzoko baserrietan, itaurrean
berena egiten ziteken. Nere umorerik ez nin gal-
du; etsitzea zer dan ez baidakit. Orduan jarri
nizkin alargunaren bertsoak. Amaikak ikasi ta
kantatu dizkitek geroztik.

Amona palta zanean, etxeko lan, jana jartze,
garbitasun, arropa garbitze, dana, seme baten
kargu geratu uan. Maindireak ez; oek Loiola'ko
izeba batek garbitzen zizkiguken; eta josi ta kon-
pondu, berriz, beste batek, baña ederki ordain-
duta.

Semeak gazteak izaki, eta, bein begien au-
rretik galdu zutenean, etsi ziteken eta aztu itun
amatzaz; aiek zerekin poztua ta nun jolastua ba-
zeukateken. Nerea besterik uan. Semeak gora ta
gora alai ta osasuntsu ikusteak asetzen zin nere
biotza; baña nere bakardadean ezin nin aren
oroitzik burutik uxatu.

Osasun aparta neukaken nik ere, eta lanean
aspertzen zalla; gaizki ibilliko giñun bestela. Ga-
bean illargitan amaika meta-belar ebakia niok.
Ordu biak inguru ortan asita, eguna argitzerako

ziplo meta-belarra; gero semeak jeiki-erazi; ukulluko lanak egin; esne ta tratu-saltzallea biali; eta, gañerako gauzak martxan jartzen genitunean, zelaira berriz ere. Ordu laurden bateko lo-xuxta aski izaten nin bazkalondokoan.

Aste-egunak lanerako egiñak dituk. Ongi asko betetzen genin Jaungoikoaren agindu ori. Gure txoko ontan beñipin, itxogiteko beta aundirik ez genin izaten. Aukeratzen zitzaaien lanean, semeak ere zintzo asko jotzen ziteken. Ongi gure kopeteko izerdiz irabazitako ogia jaten genin.

Askotan nere paltaz geiegi beartzen niñun; ez bainaiz langille tajutsu oietakoa. Gure etxean ni gabe ezer egiterik etzegolakoan, semeez aztuta, bakarrik erasotzen nioken edozer lan gaiztori. Semeak lanean burutsu zaindu izan banitu, neke ta atzaparkaren erdirik gabe egingo genizkin etxe ontako lanak; ni añean baiziran aiek, eta egunetik egunera goraka. Ez dunak ezin eman. Buruaren paltan anak pagatu bear.

SEMEEN JOLAS TA BIURRIKERIAK

Aste-egunak lanari ematen bazizkateken ere, jaiak ongi jolaserako zizkiteken. Goizeko meza entzun; askotan Errenderia'n bostetako meza; ukulluko lan ta beien mazkak egin ezkeru, ikustekoak itun nere semeen atzaparkak. Zarrena buru zutela, an joango itun besteak ere; ederki asko bazekiteken inguru oetako zokoen berri. Iñungo txolarte, tiragoma, arrika saio ederrik ere bai, etzeukateken besoetako nagitasun aundirik. Auzokoren batzuk ere urbiltzen zaizkieken, eta batzuk oñutsik, erdi larrugorrik besteak, batean parrez, bestean negarrez, jolasean edo burruka, etziteken egon bear aundirik izaten.

Pelota eta toka zarra itun aien eguraldi txarretako jolasak.

Etxe aurrean badek trasteak edukitzeko aterpe txiki bat. Ongi garbituko ziteken ura lenengo, eta aien ixtillu ta atzaparkak, amar metro etzan aterpe txar artan! Bateko kroska jo zula, txapa jo zula, arraitik kanpora atera zala, etzua-

la boterik egin; besteko ona zala, txarra zala, galtzen zuana ez uan konforme:

— Bai, beti emen abil ta emengo maneju guziak artuak baidauzkak! Ez didak Txoritokieta'n irabaziko, ez! Pausorik emateko lekurik etzeok emen-ta!

Saill osoa an joango uan Txoritokieta'ko aterpe txar batean jokatzera. Baña geienetan asarretzen itun. Orduan izaten itun komeriak. Batek:

— Arri biyur ona zala! (1)

— Arri biyur txarra zala! —besteak.

Indarra gallentzen uan azkenerako. Aulena, gizajoa, orma-bazterren batera joango uan, ta negarrari emango zioken eta zotinka-zotinka:

—Bai, animali utsa aiz i, besterik ez! Bestela ezin dekanean, joka asi bear!

Arratsalde artako pelota-jokuak olaxe bukatuko itun. Jolasa ez ordea. Toka zarrean egingo ziteken urrengo saioa. Burni me moztaka bat sartuko ziteken, inguruan arrai batzuk egin, bina amar zentimoko lengo kobrezko aiek bakoitzak artu ta illun-bistara arte.

— Nere laukoa zioz lenbizi!

— Arraira bai, ez burnira!

Belar-mutur bat artuko zin batek, eta zeñena zegon aldean neurtzen asiko uan.

(1) Esaera au galduxa dago gaur. Baña gure gazte-denboran erruz esaten zan. Juramentua bezela zan. Adibidez, eizera joan, ollagorra-edo ikusi, tiroa tira eta:

— Arri biyur bota detala!

Edo tokan ari ta:

— Arri biyur burnia jo detala!

— Ikusten al dek? Neurtu gabe ere, begira ezagun zin orrek!

— Arrazoi dek, motel!

Egia ikusitakoan, danak konformatzen ituan.

Eletrikaren indarrrik ez baigendun artean, eta, bein illuntzen zanean, sukaldera sartu ta txandan-txandan kontu-kontari asiko itun orduan. Udazken aldera, berriz, naiko gaztaña izaten baigenun, illunabartzen zunean, batzua ukulluko lanak egin bitarte, besteak apari-lege bat jarriko ziteken. Danbolinkadaren bat edo bi gaztañ erre ere bai. Errosaioa esan ondoren, exeriko itun maiaren inguruan danak, etxeoak, eta auzokoak ere bai, nai baldin bazuten beintzat. Etziteken zer esanaren paltik izaten. Beren txarrokada sagardoa aurrean zutela, patxara ederrean asiko itun apaltzen. Txarrokatik azken txurrupe egiten zunak, kantatuko zin lenengo bertsoa; banaka-banaka azkenekorañokoa arte jarraituz, poto egin edo bukatu gabe uzten zunak, bazekiken zer lan zeukan: kupeletik sagardoa ekarri. Danak txuxen bukatzen bazuten, berriz, azkeneko txurrupe egin zunaren gain geratzen uan. Ezeren errenkurik gabe gañera. Ori lan jakina baizuten. Gaztañ erre ta sagardoz bapo geratuko itun. Kontu-kontari jardun-aldi bat egin ondoren, katillukada bana esne artu ta:

— Jainkoak gabon dizutela! —esanta, pake ederrean banaka-banaka oieratuko itun.

Ni etxean izan edo ez izan, berdin-berdin egingo ziteken lan ori. Ni etxean nintzanean, berriz, azkena joaten niñun, eta sukaldeko bakardadean, aiek somatzen etzuten utsuna bazio-

ken neretzako. Amaikatzotan malko garratzak ixuri nizkin, beren amatzaz oroitzen bainintzan. Poz ura ikusi gabe aldegin zin mundutik...

Alare, eizerako giñun itxuenak. Jakiña, pis-ka bat azi arte, ez nieken eizean utzi. Iñun pagausoren bat-edo geratzen bazan, laxter abisatu-ko zidateken.

Neguan, goizetan beñipin, ateratzen niñun geienetan eizera. Askotan bakarrik. Tiro gutxi bazan edo eiz gutxi ikusten banun, etxean niñun bereala; bestetan, berriz, auzoko gizona izaten nin lagun. Arta-puska bat baño gozoagoko gizona. Aspaldi joan uan mundu ontatik ura ere. Inguru oetako aldapa nekosuetan, makiña bat ixtillu pasa ta eztanda gaizto egiñak gaituk.

Begira zeuzkan semeei oju egingo zieken. Nun geratu zan esaten bazioten, eskupeta ezkerrean artuta, ezkerra baizan, an joango uan erakutsitako lekura.

— Gañari eragin dio! —esaten bazioten, berriz, mendiz beste aldera pasa zala alegia, eskupeta bizkarrean ubeletik zintzilik arturik:

— Bateonbatek bazeukak mokau errex askoa!

Eta pazientzi osoan lanera etorriko uan.

Iñuxente-egun-goiz batean, nik il nuan ontz aundi bat jarri zioteken nere semeak, dotore asko, etxetik bistan zeukaten aritz batean.

— Aita! Zapelaitz aundi bat dago aritz igerrean! —semeak oju egin ziotenean, eskua betazal gañean eguzkitik begien babesgarri jarriz, begiratu zin:

— Aiaiaka! Eta alaxen dek! Galanta gañe-

ra! Azpi txuri ttaketa-klase oietakoa! Ekaitzik eskupeta ta kartutxoak! Ez dek gaizki etorriko, errira joan bearra ere bazeukat-eta!

Zapelaitzeko lau pezeta ematen baizituzten errian. An joan uan. Ixtillutan ibilli uan, ezin sarturik. Beetik asi, ezin; goitik asi, ezin; azkeanean, zearreko sasi-mordoxka baten paretik, arrastaka-arrastaka sartu uan tira-bidera. Noiz edo noiz tiroa entzungo zutelakoan, erne asko zeudeken nere semeak. Ez alperrik! Andik laxter an azaldu uan, eskupeta galtzarpean, lasai-lasai etxe aldera.

— Oraindik lengo lekuan dago ura, aita!
—oju egin zioteken semeak.

— Iñork ez badu kentzen, biar ere an egongo dek, bai, ura! Auzoko *anka-jo* oien lana dek!

Nere semeak *anka-txabalak* deitzen zieken auzokoei; aiek, berriz, *anka-joak* gureei.

Umeen kontua zala zekin ezkerro, ez uan asarretu. Bere andreak, bai, lasai asko par egin zin gizonaren bizkar:

— Inuxente! Ori ere egin al dizute azkeanean, Joxe Mari?

Au, berriz, tira etzunean konten.

Eizean ibilli gabe ezin ziteken etsi, eta etzekit nola moldatu ziran, baña azkenean berak egin ziteken eskupetaren legeko bat. Tubo me bat atera ziteken nunbaitik. Al zuten bezela, ez gozo-gozo egiña, kuletraren itxurako egur batean sartu ziteken tubo ori. Gañetik txulo txiki bat egin zioteken, eta orra antzin aietako zizpuna. Inguru oetako guardasola zarren burnizko kirten

guziak bildu zizkiteken, aiekin ere beren zizpuna egiteko.

Azkeneko karlista gudan tiratako berunezko bala aundi batzuk nunai billatzen genizkin gure mendi-larre oetan; aiek joka-joka luzatuz, metu; guraize batzuekin puskaka ebaki; gero, arri txabal baten gañean beste arri batekin ibilian-ibilian, biribilduko zizkiteken, eta orra, ederki kostata, baña nola egiten zuten perdigoia. Beste *ttarra-ttarra* izeneko traste bat ere bagenin. Arratsalde batean urte guziko naiko perdigoia egiten genin arekin. Zakar xamarra, baña xoxotarako aproposa; beruna bear.

Nondik edo andik, gauzen batzuen truke-edo, egiten itun polboraren jabe. Mutillak itun orduan aiek! Muturretik beteko ziteken; zarrenak zizpuna artuko zin; su emateko illakia beste batek, berriz; polbora, perdigoï, baketa ta papera, danentzat baziteken lana.

Birigarro edo xoxoren bat tirabidean artzen bazuten, batek apuntatu ta besteak su eman arte, danak ixil-ixilik, bat bezela, erne asko egongo itun beren ari begira. Eundoko ke-pilla artetik eroritzen ikusten bazuten, lurrera baño len an zizkin danak gañean. Joaten bazaien, berriz, aotxabalka, begietatik galtzen zitzaien arte begiratuko zioteken; eta gero, jo zuan edo ez jakitearren, lumik kendu zion billatzera.

Altza aldetik etortzen ziran lengusu ta lagun batzuek bazizkiteken; amaikatxo jolas ta algara gozo egin ziteken aien bizkar. Kale aldean oitu ta ezitako gazteak baiziran, baserriko mutil ez-jakin aiek alako amar baziralakoan etortzen

itun. Asto-kargan erakustera leku ederrera zetozen.

Kañonazoa añako tiroa kargatu; perdigoï ordez babarrun aleren batzuk sartu, eta bere zanpetakoaren ostikoak lur jotzeraño botako zizkin, eta ke-pillan itxutuak.

— Erori al da? —galdetuko ziteken.

— Beïrok, motell, etxea ere ez uke joko ik-eta! —betiko erantzun minkorra.

— Txuxen asko apuntatu ziot bada nik orrixe! —malezi aundi gabe ta naigabez esaten ziguteken gero.

Perdigoïrik gabeko tiroa zala seme danak jakinki; baña, lasai par eginta, maltzur asko ixilduko itun danak.

Bakarka lotsatiak baziran ere, alkar artzen zutenean, ez uan atsegin izaten aien artean. In-guru oetara zetozen ijito gizajoak pagatzen ziteken larrutik; etziaken pake aundirik ematen beñipin, beren tiragoma traste aiekin. Amaika baitun sutara botiak. Alare, nik erre-alean baño geiago sortzen zizkiteken nunbaitik. Edozer aitzaki edo iñungo tarterik txikiena, aski ziteken andik erasotzeko, masallak odoltzeraño, motell.

Gogoan zeukat oraindik. Bein etxe atzean bi zarrenakin laian ari nintzan batean uan. Eskuan zume biguin bat zekarrela, ijito gizon gazte bat etorri zaiguken asarre:

— Non duzu bertze motiko biurri ura?

— Zein beste? Zazpi ere badira nonbait or!

— Nagusi jauna —gure barrutian baizeuden-eta—, ez asartu: arpatzen badut, iztar-zañak bero-bero egiñen dizkiot! Masalletik bala sartu-

ta, nere ama gaxoa odoletan utzi ez du bada?

Nerekin ari ziran semeak bereala bataiatu ziteken, eta andik aurrera *Ixtar-zain* izenarekin ezagutzen genin danok.

Deabru guziak berekin zitun, eta sukalde-zai irugarren semea uan arek arrapatu nai zuna. Bide ondoko txokon batean zegon aspaldiko lizar aundi itzaltsu baten azpian, kokatzen itun ijitoak. Udarako bero zakarretan oso leku babes ta atsegiña baizan. Mendi aldetik sasi ta txara besterik etzin, eta ango ezkututik tirabide erre-xean artzen baizitun ijitoak. Berun koskor asko tira zizkioken nunbait, eta azkenean ijito amona gaxoak ikusi ta ojuka asi omen uan:

— Enemesio! Enemesio! Emen da motilla!

Gizona, Enemesio, gure *Ixtar-zain*, atzetik ikusi zunean, basakatua bezela atera uan sasi-tik, *Ixtar-zain* gizajoa nora jo etzekila utzita. Au neri kargu artzera etorri zaneko, etxe atzeko leiotik lasai asko guri begira zioken, arek arrapatu nai zuan semea.

Altza alde ortako baserri askok gañ ontan dizkitek beren iratze-lekuak; gure atari alde ortan ixtillu gaiztoak ibiltzen zizkitek bazkari-ekartzalleak. Atzetik eta aurretik erdian artzen zizkitek; aurrera edo atzera abiatzen ziranean, inguru xamarrean eroriko itun arri banakaren batzuk, baña jotzera ez egundo. Etsitzen zutenean, saskitxoaren ondoan exerita, negarrari emango zioteken gaxoak. Bukatu ziteken beren puntzioa: zegon bezela utzita, joan egingo itun. Amaika belarrondoko artuak itun, baño aiekin alperrik.

Eskolara zebiltzanak ere, etziteken atarramentu onik. Marrubiak ostu zituztela, olako jozutela, eskolako kristalak autsi zituztela, poste-etako kika bat bakarrik ez uan geratuko osorik, aiek zebiltzan bidean.

Etixerik-etxe ibiltzen zan saskigille xar bat bauan. Ia urtero bueltaxka bat egiten zin gure etxera. Lenbiziko egunetan zer etzizkioten egin gizarajoari!

Egun batean, gaztañ-morkotxak jarri zizkio- teken oiean, maindirepean. Etzan baño len kon- turatu zanari eskerrak; goxoa geratuko uan bes- tela. Beste batean, berriz, txingurri gorritz bete zioteken oia. Goizean, asarre xamar, esan zi- daken:

— Ez dakik zer ziran, Joxe; baña zimiko gaiztoa egiten zuten xomororen batzuk banitun nik bart oiean!

Bereala bururatu zitzaidaken nere seme biu- rri oien lana izango zala. Ikustera joan giñun biak, eta oiek umeak! Txingurriz betea oia. Ba- tzuak oraindik bizirik; besteak biurritu ta txi- kituak.

— Ebainduko ditut bada gaur!

— Utzi zaiezu pakean, Joxe! Ikusi ditudan ume guziak olakoak dira! Ez lirake bestela umeak izango!

— Bakarka egokitzean ume xaloak dira, agintzen diedan edozer egiten baididate! Ama palta baidute, ama!

Asko maite zizkin ta azken aldera zoratzen egoten itun su ondoan aren ipuiak entzuten. Izan ere, saskigille xar arek etzekienik ez al uan

Euskalerrian. Andik aurrera betiko pakeak egin zizkitek.

Egunero-egunero bere astotxoarekin Donosti'ra joaten zan amona xar bat bauan gure auzoan. Berekiko marmarrean joaten uan goiko bide ortan barrena.

Nere semeak beti arrika ari bear zuten oietakoak itun, eta, amona bere itzalarekin erritan zijoan batean, arri koskorren batzuk erori omen itun bere inguru xamarrean. Etxerakoan, ala esan zidaken:

— Gaur zure semeak arrika eman didate!

Ez nioken sinistu. Arrika ariko zizala, ori bai. Noiz ez itun aritzen? Alare, goizean auzoko amona ia jo zutela ta goiko bidera arrika ez aritzeko agindu nioken.

— Atso zimurra aleena! —esanta joan itun.

Nola alkar artzen zuten aiek? Ongi ikasita zeuzkateken amona xarraren jenioak. Goiko bide ondoan karobi xar bat bauan; orain betea zegok. Aren ondotik zijoan gurdi-bidea lokatzez betea egoten uan; eta, oñak an ez zikintzearren, astoa andik bialita, bera kroskatik gañez-gañ pasa ta aurreaxeago bidera jetxiko uan berriz ere.

Illunabar batean, nabaitu nizkin laia, atxur ta pala, zerbait ari zizala karobi ondoan. Pake-pakean ari itun eta an jardun ziteken.

Urrengo goizean, «Joxeee! Joxeee!» karraxika neri ojuka nabaitu nin amona gaxoa. Ataritik begiratu nin, ta, goiko kroska gañean, gerrigerritik moztua zegola zirudiken; ez baizun txilborrez gorakoa besterik ageri kroska gañean.

Bertara joan niñun ta nere barruak lertu nai zin parrez; amonaren errukiz ez niñun asi. Txilborreraño zuloan sartua zioken, meriñakeak zera-mazkin itxuran, gonak zabal-zabal munto gañean. Ezin atera zala etsita, pazientzi ederrean nere zai zioken.

— Au ere badegu, Joxe! Au ere badegu!

— Baña, Agustina! Moztu egin al zaituzte?

— Bai zera! Zuloan bera sartu!

— Zulorik etzan ordea len emen!

— Orain badago ba! Au ere zure semeen lana da noski!

— Baleike!

Gonakin tapatzen baizuan guzia eta ez bainun ezer ikusten. Atera nunean, orduan igerri nioken nere semeen lana zala. Tranpizko zuloa egin baizioten; ia metroko zulo biribil bat. Kontuz-kontuz gañeko zotalak kendu ta lurra karobira. Zuloa bukatzean, makil edo zipotz me batzuk zulo gañean ara-onera. Zipotz oien gañean, kendutako zotalak. Erne ibilli bear zin batek, azpian zuloa zegola igertzeko. Eskerrak alare etzutela zikinkeriz bete.

— Oiek umeak! Larri nintzan! Au ere bururatu oieiri!

Eta berak ere par egiten zin.

Salbajeak al ziran bada nere semeak pentsatuko dek agian. Alatsu! Gazte geienak bezela. Erdietan, ni palta niñun etxetik. Nork begiraturik etzeukan gazte-sall arek zer egin bear zin? Jolas! Ama bizi izan balute, ez ituan artara ibilliko, ez. Alare, sinimentsu ta mingain ta biotz garbikoak atera zaizkidak.

Urte zallak itun aiek neretzat. Irabazi gutxi ta jale asko. Erruzkoa bear zutenak gañera; goraka baizijoazen danak. Bederatzi kiloren ogi-kontua ibiltzen genin eguneko, batez beste. Alare, eskerrak etzeudela guri oituak. Gosea kendu ezkeru, etzeukateken jaki goxoen kutizirik. Amaika sardin zar sartu uan gure sukaldean. Jantzian berdin, jaietarako ezik, bein larru gorria estali ezkeru; aste-egunetan ez baizan iñor azaltzen ar-zulo ontara. Aurrekoak uzten zuna, urrengoak soñean ibiltzeko, gauza ziran arte beintzat. Artzekorik ez, ematekorik ere ez, ordea.

Betiko bizi-modua neramakiken nik. Betiko lanpean; baña ez nin orrengatik gizarterik galtzen. Igandeetan libre geratzen bainintzan. Etxea bete seme or geratzen uan, eta nolabait ni gabe konpontzen itun. Ez nin egundo umorerik galdu; amaika bertso kantatua nauk. Garaitsu ortan jarri nizkioken Altza'ko gertakizun bati bertsoak. Norbaitek izango dizkik; nere burutik joan ituan aspaldi.

Basarri batean, gaitzak bei bat garbitu zin, eta, albaiteroaren aginduz, larrutu ere gabe lurpean sartu ziteken. Bei baten goraberari begira zeuden baserritarrak ez baiziran. Inguru artan bauan ordea beste baserri gose xamar bat ere. Bei arek etzula ezer ere; kalte egiteko bildurrak-gatik jan zeikela ura lasai. Gau artan bertan atera, larrutu eta bere pusik onenak jateko eraman zizkiteken. Albaiteroak jakin zunean, mikele-teak biali ta munta koskor bat eman zieken. Lan au egin zunak berak eskatuta, bertsolari legekoa

baizan bera ere, kantatu nizkioken. Txorrotxak zirala esan zidaken, bañan barkatzen zidala. Ez baizan edozergatik zapuzten zan oietakoa.

Inguru xamarreko baserri batean lagun xar bat banin, bertsolari zoratua, baña etorri motzekoa. Beste Altza gañeko gazte batekin lotu uan bein; onean ta txarrean, gazteak txautu zin. Xarra, pipertu xamarra —gutxi aski izaten zin, erretxiña baizan—, neregana etorri uan laguntza-eske. Umore ona zegolakoan joan niñun ni. Aiek asarretuak izaki. Ikusi niñuneko, esan zidaken gazteak:

— Ez nuan olakorik uste! Zu gaur onekin onuntz etorriak, min ematen dit, tokaio!

— Zergatik ori?

— Ezer ez al dakizu?

— Iñungo umorerik onena dalakoan nakarte ni onera! Asko arrapatuko niñuten bestela!

Umore ederrean arratsaldea bota genin, bai, ta beti bezin lagun ta adiskide geratu giñun. Nere lagun xarra-ta, berriz, erdi zapuztuak bere-xi itun. Joxe Arrux esaten genioken oni. Etorri aundiko bertsolari ez uan, baña bertso politak badizkik jarriak. Lantegian zerbait izan zutela-ta, odol gaiztoko gizon batek bi labanazo emanta, artatik il uan. Olaxe galdu nin, oraindik sasoikoa zan lagun maite ura ere.

Geldi-geldi, olaxe joan itun urteak; semeak azi itun. Gure lenengo larri-aldietan amaikatxoren laguntza artuak giñun; orain aien aldean ongi bizi giñun gu, eta zorretan bizitze orrek begi gorriak dizkik neretzat, Ataño. Txerri-muniak ordañetan, esan oi dan bezela; len berak boron-

date utsez egin zigutena ordaintzea erabaki gennin guk ere. Gure etxeko atea jo zuenen bati laguntza ukatu ote genion gero? Ez nauk oroitzen. Amaika sagastipe ta aldapa gaizto ta nekoso laiatuak gaituk. Bost zoiean, autsi edo eten, asten giñanean gu, bazterrak laxter gorritzen genizkin. Segan ere berdin; inguru oetan, guk gure sarrera egin gabeko belardirik ez dek izango noski. Amairu urtetarako lan oetan ongi eziak baizeuden.

Semerik zarrenaren kinto-urteak ere etorri itun; sei urte alargundu nintzala. Gure etxeko eziñak ere azkena eman ziteken. Ordurako, urrengo iru semeak lanera asiak itun, baña danak etxera biltzen zirala. Etxetik jan da jantzi; irabazia berentzat. Udara aldeko illunabarretan lau orduko lana bederenik egiten baizuten etxean.

Nere lagun batzuen aolkuz, kuotako joan uan. Lenbizikoarena, igurtzi polita egin zidateken; urrengoak ordea ia utsean libratu itun. Geienaz jota ere, zazpi bat illabete igaro zizkitateken soldaruzkan, Loiola'ko kuarteletan, ia egunero bazkari, apari ta lotara etxera biltzen ziralarik.

Gure txoko ontako pakeak ere orduantxe egin itun. Mendi alde ontara zetorren jendeak, arrera ona izaten zin beti. Gazteak biurri xamarrak; norbaiti pegaizu txarren bat egin nairik asten baziran ere, galerazteko an zeudeken zarragoak. Ijitoak ere atsegin ederra artu ziteken; beti bateonbat izaten baigenun aurreko tolare xar ortan. Beartsuak beartsuari lagun egin bear zioek.

Nere larri-aldiak ere bukatu itun. Zarrenak ogei ta bat urtetik gora; gazteenak ia zortzi. Udara betean bizi giñun. Ikusgarria uan giza-sall ura.

Zarrenak soldaduzka bukatu zuneko, sartu uan bigarrena; lau lenengoak urte baten aldea besterik ez baizuten. Diru-kontarien izkuntz ori ere, lardaskatzen bederenik ikasi ziteken. Eiztariak itun eta tiralari onak. Soldaruzkarako etzaioteken gaizki etorri: teniente bat buru zutela, Españi'ko bazterrik geienak ikusi zizkiteken.

Alargundu nintzanean amonak esandako itzak, txuxen asko bete itun:

— Ez geiegi larritu, Joxe, Jainkoak aren palta nolabait ordainduko du-ta!

Emakumezkorik ez genin gure etxean; amar gizonezko, eta alare, alkarri lagunduz, danon arte etxeko ta kanpoko lanak egiñaz, urte illunak igaro ta argira atera giñun. Etxeak gorako gaitza egin zin. Osasun txarrekoak izan bagiña, gaizki ibilliko giñun. Seme galduren batzuk izan banitu, berriz, gureak egin zin. Etziteken alperrikako kasturik egin nai izaten. Zigarrorik erretzen etziteken ikasi. Tabernarako ere oso joera gutxi. Elizarako, berriz, etzanak. Birao gaizto ta lizun-kerizko arguriorik ez dek entzungo gure sutondoan. Argi ta garbi aitortuko dit nerea, Ataño: aiek ezi ta aieiri ezer erakusteko betik ez detala izan. Al nuan ejenplorik onena ematen, alegiñak egin nizkin. Nerea ikusiz, berez etorri dituk ola-koak.

Nere sinismenak garbi ikusten dik ori: aiek ezitzeko, neri laguna ken zidanak erein zula azi

ori oien biotzetan. Arrazoi zin amonak. Estutzen gaitzik Jainkoak; ukatzerik etzeok; baña itotze-raño ez. Ezin eraman dekan zamarik, ez dik bizkarrera botako.

Etxean giza-sall ura, alako gaztedi bikaña, osasuna ta pakea, zer jan ta jantzitik aukera, bost duroko baten paltik ez patrikan. Ez gizona ogi utsetik bizi bear duna izaki ordea. Emengo poz ta zaraten artean, nere semeak nabaitzen etzuten itzal, utsun bat, arkitzen nin nik. Aurrik gabeko etxearen izaera tristea bada, amarik gabeko sendi baten izaera ere tristea dek ba, motell. Pamela osatzeko ura ere, palta uan ama. Edertasun ura ikusi gabe, ongi bakarrik aldegin zin gure artetik gaxoak. Jainkoaren esku baizegok dana.

ERKALA EDO ERREPUBLIKA

Aize berriak jo ziteken orduan gure mendi, baso ta urietan. Danok nabaitu genin euskal irrintzia. Itsu aurreko batek itsua nai duan lekura daraman bezela, beti eramana zan euskaldun gizajoa; esnarazteko garaiak etorri itun. Zanta zun guzia ordurarte besteri eman ziona, beretzako ere leku pixar bat gorde nairik asi uan lanean.

Erregeren ateera eta Errepublikaren sarrera. Orduantxe eman ziguteken itz egiteko askatasuna eta orduantxe esnatu uan gure erri maite auzerik. Bere berdin gabeko izkuntz ta oitura xarrakin, ttikia izan arren, erri bat zala beñipin, munduko zarrenetako bat gañera; eta, onean ta zuzenbidez, beste askoren artean, beretzako ere lekutxo bat eskatzen zin.

Euskaltzaletasunak sutu zizkin uri ta mendiak. Berotu uan gure gaztedia, eta olakoetan, jakiña, aundizki ta zerbait zirala uste zutenak asi itun, bakoitza bere eskobarearekin, nora jo

etzekin gaztedi ausarditsu ura beren bordetara biltzen.

Gure baserri txoko ontan ere bauan bada zapalparta. Ezin egonik ikusten nizkin gazteak; orduan ere gaur bezelako zapal-aldi bat izan baigendun. Zer oponio zuten ere ez nieken galdetu. Zer bide artuko zuten ain gutxi. Egia esatezkeroz, bildurrak bizi niñun. Ordurarte ain bat zetozen semeak, politika zikin orrek banatuko zitun bildur. Itxutzen baiditu. Bederatzi seme ortan batera etortzen ain zalla dek, berriz. Zenbat guraso ez nitun ezagutu, eta nere lagunik maitteenetakoak batzuak, ama seme-alaba batzuekin batetik, aita besteekin bestetik, alkar lagundu bearrean alkarrekin burruka. Ori bai tristea dala fameli baterako.

Sutondo xar onen zorionerako, Jaunari eskerrak, gurean ez uan olakorik gertatu. Bide beretik jo genin danok, eta ez genin etxeko batasunik galdu. Aurki gañera zetorkigun eraso gaizto ura alkar-maitasunez eramateko, etzin gutxi esan nai batasun orrek. Bereala somatu nizkieken ikurriñak, iru koloreko gerrikoak, maki-lla dotore askoak ere bai. Bateko Bilbo'ra, besteko Gazteiz'era, Iruña, Izarra, amaika atzera-aurrera egiñak itun, oñez geienetan. Zer oponiokoak ziran galdetu nioken bein. Mendigoizaleak zirala erantzun zidateken. Iñungo euskal jaita iskanbilla guzietan sartzen itun, iñor astintzeko asmorik gabe, pakean pakean nai zuna-reakin. Danak iritzi berekoak itun. Ez niñun asarre. Eska nezakean baño obeto atera zaizkidaken gauzak. Etxeko batasuna salbatu genin.

Amaika izketa bero ta eztabaida izaten uan gure sukaldean; azkenerako, ordea, gauz oetan beñipin, batera biltzen itun.

Beren eizerako joera etzeukateken alare aztuta. Danetarako beta arrapatzen ziteken. Zoratuak ortan itun: eizean. Udaran mendigoizale baziran, neguan mendi-goi ta be zale. Bein eizerako adiñera iritxi ziranean, diru-aukera obean bizi baigiñan, beren eskupeta ta paseen jabe egin itun. Aiek zebiltzan bezela ibiltzeko, anka-jokua bakarrik ez uan aski.

Gure auzoko bi anaiak ere zoratuak itun. Gaur kalean bizi dan nere illoba maite bat, ordurako ezkondua, besteak baño zartxeagoa, tartekoa ziteken beti; beren anairik zarrentzat bezela zeukateken, eiztari ta zirikatzaile. Aiek alkarrengana biltzean, eiza beste konturik ez ien entzungo. Zenbat atzera-aurrera ta ler gaizto ez ote zuten egin aiek! Maite dan lekuan aldaparik ez esan zunak, etzin gezurrik esan.

Neguan, ollagor-zeletara atera gabeko goiz-illunabarrrik etziteken izango. Semeen kontuak esaten ari banaiz ere, eizean aiek bezin zoratua nauk neroni; aiek bezela ateratzen niñun. Amaika ollagorri bizia kendua niok, gaur oraindik nere larogei ta lau urterekin ateratzen nauk-eta. Gure lurretan ollagorra bezelako eizik etzeok: neke aundikoa, erruz ibilli bear dana, eiztari langilleen eiza. Zenbat gorabera ez ote ditut egin? Bereala etortzekotan, erdi baraurik goizean atera; Jainkoak zekin garaietan etorri gero, auleriak jota, txutik eziñik. Ollagorren batzuk banekarrezkian, utsa uan. Askotan egun erdia galdu,

ler egin ta eskutsik. Gain oetara maiz azaltzen zan eiztari batek bezela:

— Pausua franko inta, anak busti ta ezer ez arrapau!

Nekea neke dek, egia; ollagorra ere ollagor dala alegia. Txakurrak ortzetan artu ta bere moko luzearekin eskura dakarkidala ikustean, neke ta tripa-jate guziak aztutzen zaizkidak.

Lenbiziko ollagorrak, geienez gure txoko ontan sartzen itun.

— Aurten ollagorrak goiz asi zaizkiguk! Atzo Bordaxar'koak bi il omen zizkitek!

Ori uan, gaur oraindik ere ori dek ia urteroko donostiar eiztari sonatuen esaera. Ollagorrak asi zirala bandoa joa zioken. Andik aurrera, iganderik utsegin gabe, Donosti'ko eiztari langille asko emen itun, Txoritokieta'ko aldapa zakar oetan gora. Etxerakoan, gure baserri ontan beren betiko sarreratxoa egin gabe ez itun joango. Emen izketa aspertu bat egin; sagardo txurrut bat edo bi edan; utsik bazetozen eta gurean baldin baziran, erosiko zizkitek; beren aiek gero ipur gañean dilindan zituztela, gozoak joaten itun Donosti'ko kaleak barrena.

Eize bikaña dek pago-usoa ere eta ollagorrak baño adiskide geiago zeuzkak, batez ere lasai xamar bizi diran oietakoak. Eiztari alperren eiza dek pago-usoa. Jan-edanez aseta, puroa erreaz, ordutan txosna barruan egoteko ez dit balio nik; semeak ere nere odolekoak dituk. Nekerik gabe eskura datorren gauzari etziot grazirik artzen. Bere garaiean mordoxka batek uzten dik bizia, baño ollagorretan aña ez gaituk saiatzen. Pago-

-uso-pasaran nekazaria lanpean bizi baita gañera.

Alare, gure jolasetarako eiza, xoxoa ta birigarroa izan dituk. Igande-bazkalondoetan aien emengo ateerak ikusi izan baitun! Aien iskanbillak entzun baitun! Aien aurrean jartzen ziran xoxo-birigarroak, larrutik pagatzen ziteken. Beren txakur txarra inguruan zutela, aterako itun zortzi-amarren bat mutil. Erreka xigor, eskea, lubaki, karobi-zulo, sasi-mordoxka, arbi edo aza-sall ta txarak, erdian artuko zizkiteken lenbizi; bat edo bi aurrean jarriko itun, beste iru edo lau bi zearretan, danetarako baiziran. Ortarako ezita zeukaten atari-txakur bat baziteken; eiza-txakur ona ondatu egiten baita xoxotan. Bere ura jauzi, zaunka ta karraxika sasipetan barrena zijoala, sartuko uan atzetik beste anairen bat. Andik ateratzen zan txoriz gorako eizak zeuzkaken istilluak. Bizirik joaten bazan ere, bereak adituta joan bearko zin.

— Or dituk! Or dituk! —oju egingo zin atzekoak.

Atzeko, zearreko ta aurrekoak asiko itun sutan; une artantxe ez uan atsegin izaten an. Amalau tiroatik gora sututako lekuak bazizkiteken.

— Or dek atzetik! —oju egingo zin batek.

— Begira akiok nun eroritzen dan, elbarri-elbarri egiña ziake-eta! —beste batek baztarren batetik.

Alkarrengana biltzen ziranean, il zutenak arro xamar; eskubiko beatz aundiarekin xoxoa-ren petxu-ezurra zapalduz itoko ziteken, eta, gerriko sortan sartuz, berriketan ariko itun.

— Sutu diok bada ik ari? Egoak bilduta lurrera ziaken-ta —batek.

— Munizioa aixa daukak ik! Agon lekutik ara eun metro gutxieneko baietz jokatuko nik! —besteak.

— Atze-aldea ederki jorratuta, baldar-baldar egiña joan dek, bistatik galdu zaidak beñipin-ta!

Urrengo erreka ere erdian nola artu itzegin ta sartuko itun. Eizaren itxurik bazan, bereak entzun bearko zizkin. Udazken ta neguko igandeta jai-arratsalde on guzietan olaxe ibilliko itun. Inguru aietako aiton-amonak, gazteak ere bai askotan —amaika oroitzen dituk oraindik—, jai-arratsaldeak etorri-zai egoten itun, kaxkoetara atera ta gazte-sall aren atzaparka, tiro ta zili-purdikak ikusteko zorutzen. Amaika xoxo-birigarrok aien eskuetan utzi ziteken beren bizia. Alkar-iltze bildurgarri arek moztu zin dana.

Urteetan ala ibillita, perdigoï batekin ere alkar jo gabe geratu itun.

Arratsalde guzian ibillian ler eginda, beren eizak gerritik dilindan zituztela, inguruko base-ri-kantina aietakoren batera sartuko itun; an, norbaitek aidean botatako poto zarren bati tiraka, litroren bat ardo jokatuko ziteken, eta, ura danen artean edanaz, pake ederrean illuntzerako etxera. Kazuelkada on baten kontuak emateko, etziteken besteren bearrik. Aste guziko zer esanaren paltik etzeukateken. Askotan esan zidatek:

— Semeak ez dizute, Joxe, eizetik errenta aundirik ekarriko!

Egia, ori alaxen dek. Eizera ez gaituk, or-

dea, errenta-billa joaten. Eiza guretzat kirol bat, jolas bat besterik ez dek. Egun guzia taberna-zuloan zurrutean pasa, danakin asarretu eta ga-berdi aldera bideak neurtuz biraoka datorrenak **ainbeste errenta ekarriko dik**, bai, jai-arratsaldeak eizean botatzen ditun mutillak. Onek, saltzeko ere bazeukak osasuna. Igualeko eldu-aldia egingo ziotek eguneroko lanari.

Udara aldean, berriz, erri koxkor bat zirudiken txoko onek. Ogei ta amar urtetik ama-seira bitarteko amaika mutil baitun bi baserri oetan. Emengo zalapartak nabaitu izan baitun! Inguruko erri koskor oetan asi itun euskaldun oitura ta gure jolas zar guziak berritzen. Lasterkari, tokari, bolari... Erririk txikienetan ere jar-tzen zizkiteken *tiro-platillo*'ko sariketak.

Lanetik etortzen ziranean, or joango itun, bat neurtzalle zutela, bide zakar oietan barrena laxterka, beren probak egitera. Erriko jaietan batzokitarren alde joaten baiziran beti. Toka-lekua jarri ziteken. Artarako ere onexkoenak berexi ta beren eguneroko saioxka egiten ziteken. Bidez gain egin ziteken bola-tokia. An ere geienean izaten uan norbait; igande ta jaietan, berriz, txandarik ezin artu-ala.

Tiro-platillo'an ere ez ituan bada atzean gel-ditzeko asmoan. Azpillak aidean botzeko makiña berri bat ekarri ziteken. Aste-egunetan jai egiten bazuan ere, etzin lanaren paltik izaten jaietan. Etxekoak eta kanpokoak or ziteken beren bille-ra. Tiro-oiartzun dardara ona ibiltzen uan jaietan zoko ontan.

Iru edo lautan erriko txapeldun geratu itun.

Amabiren bat kopa badizkitek nunbait *tiro-plato*'an irabaziak. Bosnako txapelketa batean bost anaiek tira ziteken, eta ez itun lotsagarri geratu.

Ia illunabarrero asiko uan auzoko mutilla, bere dultzain-ots ariñean, euskal aideren bat jotzen. Gure leiotik laxter zin erantzuna. Iru ari-tzen itun, ia beti txandan-txandan, bertsotan bezela, alkarri erantzunaz, aspertzen ziran arte. Belarriak gortzerañoko dultzain-oiartzuna ibil-tzen uan mendi-egal oetan barrena. Amaikatxo arriturik entzuten ere egoten itun. Aiek urteak!

Etxeko pake ta pozak lasaitzen bagifñun ere, etxetik kanpo zebillen iskanbilla, bildurgarria uan. Lenbiziko autitz edo botoak emateko garaia iritxi uan. Erriko gizonak aukeratzeko itun. Traste batzuk erostera joan nintzan batean, errian oso maiteak nitun gizon batzuk esan zidateken:

— Aizu, Joxe: laxter botoak ditugula ja-kingo dezu noski?

— Bai, jaunak, bai! Noiz diran ez dakit, baña garaiz adieraziko diguzutelakoan nago. Esateko bildurrak etzabiltzate. Ez nekin baserritar gizajuok orrenbeste balio genunik. Orain arte aldamenetik pasatzerakoan nerekin kutsatu-bil-dur, beste aldera begiraka ta muxinka joaten ziran erriko *kaballero* oietako bat, jaunak, irri-parrez, apal-apal, boto-eske urbildu etzaigu ba-da? Gaur kalera naizen ezkerro, irugarren eskea badet zuena. Ez diot iñori agindu. Norbaiti ematezkeroz, zueri ezin ukatu.

Aiek agurtu nitun orduko, or zetorrek lau-garren eskalea, danetan bildurgarriena. *Txorrotxa* deitzen genion nere illoba apaiz jauna. As-

palditik azpi-janean ari zala banekiken. Kalean ikusi niñuneko, ark ere eskari bera egin zidaken:

— Erotuko zenuteke zuek bat! Au laugarren eskaria badet gaur! —erantzun nioken—. Ni, berriz, bat besterik izaki ez; ttiki xamarra gañera. Lau puska egiten banazute, asko gabe geratuko zerate bakoitza. Danak agintari jarri nai badezute, zeñek lana egiñik ez da geratuko. Berandu xamar zabiltz, illoba; eskeñia baidaukat. Erriko gizon jatorrenetako bati ezkeñi diot: Olakori.

— Bizkaitar gorri oien alde al dago bedorri ere? Oiek olako ta alako dira! Oiek olako ta alako asmotan dabiltz!

Ordu erdi batean gutxienez jardun zin bere itz-jarioan. Luziperren mallaraño jetxi zizkin bizkaitarrak. Ezertxo ere ez nioken sinistu. Alare, lenbizi agindu nienei gertatzen zana adieraziz, pakearengatik nere biotzari indar egiñaz, ezagutzen ez nitun erdi arrotz batzueri eman nioken botoa. Etxea kendu nai zigutenak, etxe-zaitzalle jarri nai. Ez alperrik! Eun bototik gorra etzizkitekera atera noski.

Ezkertiar sozialistak eta arek ainbesteraño astindu zitun bizkaitarrak, berdintsu ziaziken. Gezur ta abar ainbeste boto kendu zizkienak berak, azken orduan, ezkertiar gorriak irabazi etzetzen, gaiztotzat jo zitun bizkaitarrei eman zien bere botoa. Neri galerazi zidan illobak berak egin zin lan ori.

Jokaera itxusi orrek min eman zidaken. Andik aurrera, biotzak eskatzen zigunaren alde joan giñun beti.

Gure artu-emanak len bezela jarraitu bazuten ere, geroztik erdi-zapuztu giñun osaba-illobak. Izan ere, txapela-luze oiek orrenbeste nastu bearrik bai al zeukatek?

Garai aietan, euskerak eta euskaltzaleak artu zuten indarra. Mutil ta neskatx gazteak sailka euskera garbian nabaituko itun, eta lotsik gabe oju egingo ziteken:

— Euskaldunak gera!

Euskal jai guziak euskera garbian egiten zizkitezkeen orduan. Atsegiñez egoten niñun jai eder aieiri begira. Jende txepak benetan maite zin euskera. Goikoak ordea muzin. Bost urteko esnaera ari eskerrak; onuzkero, bestela, gureak egin zin. Orduan ikasi genin euskaldunok ere norbait bagiñala munduan. Esnatzeko betarik gabe ilko giñun bestela. Gorriak erakutsi zizkigutek; zapaldu ederra eman zigutek. Ai, txutitzen asiko bagiña berriz!

Gaur egiten diran oek, ez dituk euskal jaiak. Itxura besterik ez dek ori. Euskaldun jantzi ta erderaz mintzo. Iñauteritan bizi gaituk, gure buruak iruzurtu nairik. Ao betean erdera dabilkitenak, euskal jai onik ezin lezatekek egin. Joan dek, Ataño, joan dek gurea!

Dantza ta txistuen etsaia ez nauk. Txistulari on bati entzunaz, alako zarrara goxo bat nabaitzen dik nere biotzak. Oiek ere gureak dituk; betoz, baña euskerarekin nastuta. Gure izaera or zio.

Nik baño begi zorrotzagoak edukiko dituk. Aldapa artan, gerri-gerritik klikatu ta buruz-pera dagon gaztañ zar ura ikusten al dek? Gaur bi

illabete ikusi bauan... Aren ostaje bikaña! Sal-
tzeko ere osasuna bazeukala zirudiken. Udaberri
erdi aldera, uste gabeko enbata batek jo zin,
ta orra gure gaztañaren ondamena. Iroitua bai-
zegan. Biotz-muña ustela.

Gaztañ zar orren antza ditek gaurko euskal
jai geienak ere. Itxura ederra, ostaje bikaña;
baña iroitua, barrua utsa, biotza ustel, euskera
palta eta ezeren eusgarririk ez. Zugaitz zarrari
txertu berria sartu baizaio. Lenbiziko enbatak
aidatuko zizkiok, larros-atalak bezela, bere so-
ñeko, dantza, txistu ta folkloreak, eta bai al
dakik azpian zer azalduko dan? Txertu berria-
ren uzta: erdal erria.

Euskera iltzen bazaigu, agur Euskalerrinari!
Sua itzali ezkerok, beroak ez baitu luzaro irauten.

Lengo zapaldu orren ondoren, zergatik uste
dek oraindik ere txutik irauten degula? Euske-
rari eusten diogulako. Beste gañerako arrazoiak
alper-alperrik dituk, Ataño. Or daukazute jo
bearra.

Bai, Ataño, bai. Euskerarik ez badegu geia-
go maite, gureak egin dik. Ainbeste ekaitzi ar-
pegi eman dion Euskalerrri gaxoak, azkenak ga-
ñean dizkik. Birao gaiztoren bat egin digutela
zirudik: ez gora, ez bera, azkenetan, beti iltzen
eta ezin il eta ezin indartu. Nik ainbeste maite
duan batentzat, ai, tristea dek ori!

Alare, bazirudik lengo bost urtetako suaren
auspeko ezkutuan geratu ziran txinpart-aleak,
piskana-piskana indartzen asi ote zaizkigun. Etza-
iegun itzaltzen utzi.

Urte aietan ere, txantxangorri kantaria ez

uan ixilik egon. Nere urterik tristenetan jar-
tzen banitun, olako alaietan nola ez jarri? *Ber-
tsolariya* deitzen genion asteroko bat ateratzen
ziteken Errenderia'n. Gure sukaldean ere sartzen
uan asteroko ori. Nere bertsoren batzuk badi-
tuk an.

Amasei urte joan itun, gure etxean emaku-
mezkorik etzala ezagutzen. Amar gizonezko, aita
bederatzi semerekin. Bakantzen ere laxter asiko
zirala banekiken; danak etxerako ezin geratu.
Beren bizi-modua aukeratuta joango itun, zijo-
azenak, beren adiñean baizeuden. Batzuak bein-
tzat aldemenekoakin asiak itun ordurako. Aita
batentzat pozgarria ez bada ere ori?

Irurogei ta iru urte neuzkaken, osasun apar-
ta, gazte baten sasoiara oraindik. Udazken zorion-
tsu baten ametsetan bizi niñun. Semeak, banaka-
-banaka, kabitik egatuko itun, ondo lumatu ta
gero ordeara, beste kabiren bat sortzera. Izan ere,
biotza zerekin poztua baneukaken; ainbeste su-
kalde berritako aita eta aitona izango bainintzan
aurki. Iñori txartelik eskatu gabe, aita nintzan
aldetik, danetan sartzeko eskubidea baineukan.
Bañan ai, nere amets gozoak aizeak eramán
zizkin!

AZKENEKO GUDATEA

Azkeneko auteskundeak Otsaillaren amase-
iean itun. Larriak! Alde batekoak urrearen tru-
ke nai ziteken garaipena. Alare, beste aldekoak,
ezkerrak, irabazi ziteken. Baña galtzalleen bio-
tzetan alako naigabe ixil bat geratu uan. Zerua
sargori; laño beltzak pillatzen asi itun. Arri-eraso
gaiztoren bat laxter gañean gendun itxurak ar-
tzen asi uan erria. Izugarria bazetorrela laxter,
ao betean zioken jendeak. Len ere gaizki atera
zaieken; baña iru edo lau eraso-aldi egiñak itun.
Edozein lekutan ots aundiko gizonak ilta ager-
tzen itun. Au dana gudazaleen lana uan. Go-
rrotoa ereiten ari itun. Etzegola bizitzerik alegia
eta nai ta nai-ezko salta bearra zeukatela jen-
deari adierazteko.

Alako goiz batean, lanera joan ziran nere
semeak, etxera itzuli itun bereala. Joan daneko
alkar-iltze negargarri orren asierak itun.

Egundo ezin ulertu izan dedan gauza ori
dek: guda. Gudate batetik etzekit zer aurrera-

pen atera leiken. Bi aldeak lur jota geratzen dituk. Besteren odola ixurtzeak, gaur arteraño ez dik ezer zuzendu. Gizonen odola baño, erruki ta alkar-maitasuna naiago dizkik Jainkoak. Bere izenean iñoren odola ixurtzeak, atsegin aundirik etziok emango maitasuna danari. Arek be-rea ixuri zin, etsaiak salbatzeko. Emen, berriz, beartsuarena ixuri, nork bere aberastasunak zaitzeko. Bukaera on bat iritxi nai izateko, gaizta-kerizko bitarterik ez dek zillegi. Nere iritzia garbi esango dit, Ataño: guda on ta zuzenik ez dala munduan. Griña gaizto ta ezin ikusiari aize eman besterik ez dik egiten gudak. Oker dagona, okerrago jarri. Aundi ta agindu-naiak dakarzkín pekatuak. Jesukristo il zutenak, erria, Moisesen legea, Jainkoaren aintza ta abar artu zizkitekén aotan; eta, bitartean, Jainkoaren izenean, Jainkoa bera il zitekén. Otsoak ardiz jazten baidira.

Asi bazan, bereak eta besterenak egin gabe ez uan geratu. Gudaren asiera, berri gaiztoa, gaiztorik bazan, gure etxerako beintzat. Bederatzi mutil gazte zeudekén gurean: zarrenak ogei ta amar urte; amasei, berriz, gazteenak. Guda-teak zerbait luzatzen bazuan, danak arrapatuko zizkín.

Ixtillutan ibilli ondoren, Gipuzkoa gorrien mende geratu uan. Geitxo arrotu itun eta ia arratsero baitun eriotzak Donosti'ko kanposantu-inguru oietan. Gizonak ortara, odol otzean, etsaiak dirala-ta, iltzeko eskubiderik etzeok. Jakiña, besteak milla bider gure neurriak pasa zizkitekén; guk ez genekikén, ordea, aien berri. Naiz gure etxean danoiri biotzak alde ortara

bultza, iñork ez genin ontzat artu ori. Ezeren bearrik gabe, gorroto gaiztoak eragindako odol-ixurtzeak baiziran oiek. Lan oiek etziteken on aundirik egin gure etxean. Kezka txarretan geratu giñun danok, bi alderdiak gaiztoak zirala-ta, iñora makurtu nai ezik. Gure iritzikoak etziralako, amaika gixajok larrutik pagatu zin. Artapuska baño otxanagoko baserritarrak ere baitun, arrapazka ortan berexi ta illak. Datorren eskutik datorrela, gaizki egiña beti txartzat jo bear dik biotz zuzenak. Izututa, bereala asi uan jendea igasi. Mendi-baserrietan ezkutatuta zeuden amaika ezagutu nizkin. Bi seme aurrera joan baziran ere armetan zetorren etsaiari gogor egiteko, ez odol otzean iñor iltzeko asmoan. Jende orrekin topo ez egitearren, Errenderi utzi ta Alza'ra joaten giñun mezetara ere.

Gipuzkoa gorrien mende geratu zala esan dit; ez luzarorako. Etsaiak egiten zuan pixarra, beti aurrera egiten zin. Gure menditik ederki entzuten genizkin dunbotsak, gero ta alderago. Lanean ari giñala, askotan esaten genioken bata besteari:

— Ai, mutillak! Oiek beti aurrera zetozek! Etzekit zer ikusteko gauden!

Agorraren lenbiziko egunak izan bear ziteken. Bi-belarra, ebaki ta ondu xamarra, pilletan utzi genin, egoaize ariñ-ariña baizebillen. Oieratu gabe, gau erdira, belar-pilla aietan etzan giñun. Gau-giro atsegin aren ixillean, guk entzun genitunak! Bi etsaiak, aurrez-aurre, menditik mendira, zer etzizkaten esan alkarri! Oroitze utsak ere nazka ematen zidak.

— Ai, alkar-maitasuna! Gurutzean josi aute! Ire ordez gorrotoa zebillek nagusi! —nere biotza otoika ari uan—. Barka zaiguzu, Jauna! Barka zaiguzu!

Aiek sartzen baziran, zer etziteken egingo? Eta beti aurrera zetozenen.

Napar-aldeetik iges zetozenen aotik, izugarriak entzuten genizkin, berriz; ezin sinistu alakoak. Oker zegona zuzendu nairik zetozenak alakorik egin zezaketenik ere... Ez genieken sinistu. Gipuzkoa'ko jenderik geiena orretzek galdu zin. Zoritxarrez, esana izanaren itzala izaki. Gure artean ikusten genduna ere nazkatzerañokoa uan bada; aurrera beti etsaia eta etxean ezin konpondurik. Bi illabeteren barruko galdu genin Donosti. Goxoak sartu itun. Bertako jendea sakanatu uan bereala Prantzi ta Bizkai aldera. Millakak aldegin ziteken; alare geientsuena bertan geratu uan. Larrutik pagatu genin gero.

Euzkotarrakin, aurrera jarraitu ziteken bi seme; nere ondoan etxean geratu itun beste gañerakoak. Ez luzarorako. Obe ziteken aldegin izan balute.

Oek sartu-zai irrikitzen zegon Donosti'ko bikario agurgarri batek, ala esan omen zin, bein ezagutu zitunean:

— Joan diranak zakarrak zirala bagenion, sartu zaizkigunak ez dira gozoagoak.

Ori bera amaikatxori entzuna gero; baña beranduegi. Ordurako armiarmak bere sarean bai zeuzkaken.

Soldaruak oso pakean sartu itun. San Mar-kos gañ ortan geratu uan mordoska bat. Santa

Krutz bezpera uan. Legorte pixar bat nola bai-
zan, bereala asi itun urketan. Urrengo eguna
etzaidak berealakoan aztuko. Eguarte artan,
uretarako aitzakitan, iru edo lau sarrera egin
zizkin gure sukaldera guardiazibil batek. Etxera
sartu gabe ere, kanilla an zeukaken atarian, nai
zunean ura artu. Zerbaiten berri bazekiken arek,
eta gerorako bideak ikasten zebilleken.

Ordu biak inguru ortan, eguarte guzia lanean
pasa ta gero, zazpi semerekin lasai bazkaltzen
ari nintzala —beste bi aurrera joanak itun—,
purrustadan atea zabalduz, pistola eskuan zuala,
jauzi batean sartuta, iltzea baño geiago pentsa-
tzen ez gendun garaiean, «*¡Manos arriba!*» oju
egin ziguteken erdera latzean, bere beste bost
lagun gelditzen ziralarik atez kanpo, pusillak pre-
paratuta.

Bazkaria jaten asi berriak giñun. Mai gañean
utzi; besoak jasoz, pusillen aurrean, atarira ate-
ra-erazi giñuzteken. Laxter egin itun besteren
etxearen jabe. Gu lerroan atarian zai geunden
arte, etxeko traste guziak azpikoz gañera irauli
zizkiteken. Billatu zituzten trasteak, gure kalte-
rako ziranak, zaldian artu; ta, lapurretan arra-
patutako ijito-sall baten antzera, pusil aurrean,
San Marko'ra danok, geunden bezela jantziak.
Ori ez al dek indarrean egindako lapurreta?

Beiak, txakurrak eta olloak —azkeneko oek
laxter asi itun bakantzen—, ez uan besterik ge-
ratu etxean. Gure kalbariorako igoera negarga-
rri ura ikusirik, auzo askok, batez ere emaku-
meak, negar zegiteken; baizekiten danak erru

gabeak giñala eta on besterik ez baigendun egin auzoetan.

An galdera batzuk egin; il edo ez il batzar txiki bat egin ziteken, eta, ondorean, illun urratze ortan, zazpi semeak San Marko'n baituta utzirik, bakar-bakarrik biali nioteken etxera. Amasei urtez lenago bederatzi semerekin alargun geratu nintzan bezela, seme gabe utzi nioteken orain. Kantina-txiki'n eman zidaten baso-erdia edanta, jetxi niñun Bordaxar'era. Ura gure etxeko utsuna! Ura ixiltasuna! Egun batzuk lenago egiten nitun amets goxoak, aztu zaizkidak-ederki. Besterik ezean, txakurren ongi-etorriak biotza poztu egin zidaken. Gizon asko baño maitagarriagoak itun. Etzekiteken gizonak bezela gorrotatzen. Etxe atarian ollo-lapurretan arrapatu nizkin beste oiek. Danaren jabe ziran ezkerro, nai zutena egin, enieken itzik trukatu. Ez al uan bi tiro artzea baño ohea? Ez uan azkenekoa izango. Genitun ollorik ederrenak gure eskutik artuta, ordain-sari guzia pistolak erakustea izan uan. Gorriak etziteken egundo olakorik egin.

Ez neukaken lanerako gogo aundirik, baña zerbait egin bearra zioken. Bakarrik egin nizkin beien mazkak, bakarrik ukulluko lanak. Gau artako nere egoera negargarria etzeok zertan kontaturik. Bi egun aurretik, bederatzi seme, sasoirik onenekoak, nere aldamenean neuzkaken. Danak indarrean kenduta, bakar-bakarrik utzi nioteken. Txarrena, berriz, beti gogoan eta burutik ezin kendua; nere begien aurrean ez nitula geiago ikusiko etsitzeraño, motell. Izuga-

rriak egiñaz sartu ziran otsa baizebillen. Batean nolakoa, bestean olakoa baita. Odolak ere moz-kortu egiten baitu. Gudaren lanak dituk oiek. Orra seme asko azitako saria!

Ez berealakoan, baña noizbait eguna zabaldu zin. Oso goiz etorri uan auzoko neska; arek ere bi anai San Markos'en baizeuzkan. Gosari-lege bat jarri ta eraman zieken San Marko'raño. Etxeko lanak bakar-bakarrik egin nizkin. Nun joa bazioken. Ez nin alare nere bururik galdu. Urteetan alaxe bizi bear banun bezela, ekin nioken lanari, Jainkoak eman zidan sinis-menari jarraituz, geroko itxaropenetan. Jainkoak nai zun arte, lanpean bizi; len emaztea bezela, orain semeak kentzen baizizkidan. Etzala luzarorako izango noski-ta, irurogei ta iru urte be-teak baineuzkan. Aiek orduak! Ori ere neri egin bear! Gudaren lanak! Itxua baita.

Auzoko neskak, etorri zanean, oraindik bizi zirala beñipin esan zidaken, eta bizi dana, len-txeago edo geroxeago, non edo andik, azaltzen dek.

Bateonbatzuk azaldu itun ni poztu nairik. Ez alperrik! Pozarentzat lekurik etzeukaken nere biotzak.

Bazkalondoan, sega pikatzen ari nintzala, etorri itun iru seme gazteenak, oso triste gañera. San Markos'tik Errenderi'ra eraman eta eguartera an igaro ondoren, lau Donosti'ra ta beste irurak etxera biali zituztela. Garbi esateko, nora eraman zituzten etzekiteken; aieka artara bidea artu zutela.

Errenderi'ko komandante jaunak oso aukera

xalebrea egin zin. Lau zarrenak eskatu omen zizkin; baña izenez deitu eta laugarrenaren lekuan bostgarrena aurrera biali. Ori zeñen lana zan jakiteko, buru-auste aundirik ez nin ibilli. Oso oker ez banago, nere illoba apaiz maitearen lana uan ori. Bosgarrena oso begitan baizun. Aldaketa oiek egin bearrean, danak etxera bialtzeko moduak egin balitu, obe genin. Bere esku zioken, erriko nagusi bera uan beñipin-ta. Alkate ere, bere lagunik maiteena aukeratu ziteken.

Urte batzuk ziralala, amaika atzera-aurrera egiñak itun gure etxera; bazkari ederrik ere egin ziteken gure txokoan.

Ez sartu ziranak, ez; okerrenak etxekoak itun. Zetozenak zer zekiteken gure berri?

San Markos'tik Errenderi'ra, oiartzuar erreketek euskaldun batzuen mende joanak omen itun. Biotz oneko mutillak izaki aiek, eta, zerbaitetan lagundu nairik, ala esan omen zieteken:

— Zuek badezute ba errian zuen artekoa, oetan sonatu xamarra!

— Bai; olako! —erri ta bere inguruetan oso ezaguna baizan.

Zuzenean arengana joan ziralala etzeok esan bearrik. An ez omen uan gero erreketek ta apai-zik azaldu. Bitarte ortan, aien ixillean egindako lanak itun guziak. Etsairik maltzurrenak gure artekoak genizkin. Jainkoak barka dezaiela, guk barkatzen diegun bezela. Olakoxeak dituk gudazaleak.

Aien alde zerbait egin zai zutenak ala zioteken:

— Aiek, Joxe, oso esku txarretan erori dira! Alegiñak egin gabe ez ditzagun utzi bakarrik!

Nere kuñadu maiteak ere azaldu itun, gertakizunen berri ikasi zutenean.

— Illoba apaizarengana zoaz, Joxe! Gizona baldin bada, estuasun ontan lagunduko al dizu!

— Len ere, nai izan balu, lagunduko zien. Begitan zeukana aurrera biali besterik ez du egin!

Seta gaiztoak artua zegola bainekin. Semeen bizia jokoan zebillelako, joan egin niñun alare; ni ere, alegiñak ez banitun egiten, ez bainintzan lasai geratuko. Atea jo edo ez jo, luzaroan urduri egon niñun bere ateetan. Gurutzeak deabru guziak menderatu zitula, bai, ta, zirikaldi gaizto batean bezela, *Aitaren* eginta atea jo nin.

Nere arreba, apaiz jaunaren amak, zabal zidaken atea. Arrituta geratu uan, ikusi niñuneko. Otz artu nioken. Izan ere, berak uts-eziñak itun; gu pekatari. Aiek bide zuzenetik zebiltzanak; gu okerrekotik. Aien ustez, zigorrik gaiztoena ariña uan gure pekatuentzat. Arro ta garaille bezela artu nioken.

— Atoz, atoz aurrera, Joxe! —esanta, zabal zidaken atea.

Nere illoba maite ori an azaldu uan bereala, egoaizea baño arroago. Besteren kezka ta negarren ajola aundi gabe eta burua tente, ala esan zidaken:

— Kaixo, osaba! Aspaldiko partez, noizbait azaldu al da? Erregali onen bat bai al dakarkit?

Txikitatik oso errespetoz bedorrika itzegiten baizidan, nik baño urte batzuk gutxiago edukita

ere. Olako txuri maltzurak dituk oiek. Dana alperrik izango zala banekiken, eta, bere galderak merezi zuan gisako erantzun min bat eman gabe, lasaitu niñun; eta, bein sartu nintzan ez-kero, al nuan modurik goxoenean mintzatu nai nin:

— Bai, egin bearrak izaten ditugu guk ere, eta askotan ez oso erosoak. Makillarik jaso ez duten lau seme dauzkat arraiskurik gorrienean, Ondarreta'ko espetxean. Len ere zuk olakoetan lagun izan didazu, eta badakit ez gaituzula utziko.

Ixildu nintzan orduko, ura arri-erasoa burutik bera:

— Orain, orain, bere burua galduta ikusi dunean, al dator erremedio billa? Bedorren lagun maiteak olaxe ibilli naute ni! Orduan nun zebillen? Orduan ez al nintzan zure illoba maitea? Eman ta artu-ezean, laxter aspertzen da gizona! Txerrimuniak ordañetan, osaba!

Ixil ta buru makur entzun nioken dana. Bu-kaera on bat emango ziolakoan bainengon.

— Alper-alperrik dator aiezka nere aurrera! Ez diet ezertan utsegin eta zertan lagundurik ez daukat! Ai! An dagon batek ondo-ondotik lepoa moztea merezi luke, ibilli dan lekuan ibilli ta iritzi ortakoa izateko! —truke egin zuan semearengatik zioken au—. Baita bedorrek ere oraindik kartzelara joan bearko du! Bijoa maite zitun lagunetara, ia estuasun ontatik ateratzen duten orain!

Egi biribillak dituk oek: orixe esan ta egin zidaken nere illoba apaizak. Len erdi zaputzik

geundenok adiskidetzeko, arrazoi politik itun oiek. Bere iritzikoak ez giñalako, zigorra merezi genin. Jainkoak izaki.

Ez nioken begiratu ta itzik trukatu ere. Iñori agurrik egin gabe, purrustadan atear itxiz, oñetako autsak ere atetan astinduz, lau saltotan jetxi nizkin eskallerak. Nere illoba ta arrebakiko lanak bukatu itun betiko. Etxe artan ez dit geiago ankarik sartu, lendik ere ez nin oso gogozkoa etxe ura-ta. Urte batzuk badituk ama-semeak il zirala. Errukituko al zaieken Jaungoikoa!

Txuxen, andik bikario jaunaren etxera jo nin. Nere semeen alde zerbait egingo al zuan eskatu nionean:

— Zer? Soldaru al dauzkazu? —galdetu zidaken.

— Ez, jauna; arraiskurik txarrenean Ondarreta'ko espetxean daukat!

Burutik oñetaraño begiratur bere modura neurtu niñunean:

— Ez, ez! Ez det egingo! Preso badaude, ongi daude, gizontxo! Ez dezu biaje galdurik! Ez orixe! Baso-erdi batzuk edateko etzaizu gaizki etorri!

Iseka eginta biali nioken agure kaskallu arek. Arek etzin bareak baño sentimentu geiago. Bera ta bere dirua itun aren Jaungoikoa.

Nik apaizak maite ditudan ainbeste maite ta ori al da ordaña? Olako erantzun gaizto batek betiko galdu zin Judas. Aiek ere apaizak izaki. Apaizik geienak zuzenak dituk. Oietan ere, seta gaiztokoak ateratzen.

Beste apaiz baten atearak jo nizkin, ez bainun etsi oraindik. Zertan nenbillen esan nioneko, paper bat egin zidaken maitasunez, batere errenkurarik gabe. Andik txuxenean udaletxera jo nin. Asko eskeñi eta etziteken ezer egin. Andik aurrera eman nitun pausoak ere, bada, alperrik izan itun. Lau egun lenago izan balitz, milla bear-ta ere, bilduko nizkin. Zer egingo diegu bada? Igandean erregetzat aukeratu nai zutena, ostiral-arratsalderako gurutzean zintzilik illotza zeukateken-ta. Jainkoa baño geiagokoak ez gaituk.

Andik urte beteren batera izango uan, udaletxera joan nintzan batean, nere zoritxarrerako, an ikusi nin berriz illoba apaiza.

— Kaixo, osaba! Emen al dabil bedorri ere? —esan zidaken.

— Bai, jauna! Ez nabil oso gogo onetik, baña bizi bear onek lotzen gaitu gu ere! —erantzun nioken.

Ura an ikusiak etzidaken onik egin. Etzekit nola, erdi lo etorriko niñun noski, ezpainauk ezer oroitzen; baserri aldera nentorrela, *topo* esaten dioten tranbe-bidea batetik bestera igarotzerakoan, tranbeak atzetik jo ta lubaki-bazterrera bota nioken korderik gabe. Andik jetxi-tako komandante kaska-zuri batek, nere esku-muturra artuz, illa nengola, bai, ta kanposantura eramateko agindu omen zin.

Baño danak ez itun iritzi ortakoak. An bertan bizi zan *Prantxesa* edo *Segari-luze* esaten genion zurgin aundi bat, oso nere laguna, etorri omen uan laxterka.

— Au Bordaxar-ko Joxe dek, eta oraindik bizirik zegok!

Arek bazekiken nere kalbarioaren berri. Aita-semeen artean *Cuarto-socorro*'ra eraman niote-ken txuxenean. An ziztako bat eman ta etorri niñun onera. Egun batzutan bizkarreko min pis-ka bat eduki nin, baño besterik gabe pasa uan. Ura an ezpazan azaldu, ni antxe geratuko niñun.

Andik urte batzutara, tranbe zikin arek be-rak il zin, ni salbatu niñun *Segari-luze* gizarajoa.

Ni an il banintz, dudarik gabe, nere burua il nuala esango zin jendeak. Nere buruan ez dek sartu ere egundo olako tentaziorik.

Segari-luze deitzen diyogun
ua inguruan izan,
maiteki arek lagundu eta
kontura etorri nintzan.
«Bere burua tranbe azpira
botata Joxe emen il zan»
an pasatzian esango zuten
bertan gelditu banintzan;
alako asmo gaiztorik gabe
gure birian genbiltzan.

Gorrotoak menderatu zin maitasuna, eta be-ra zebileken Euskalerriko nagusi ta jabe.

Gizarte berrirako ez giñun onak. Gure biziak bost xentimo etzizkin balio. Nere eziña ikusi-rik, biotza trinko, korapillo bat egiña, dana Jain-koaren borondatera utzi, bai, ta nere baserri-txulora bildu niñun. Ainbesterañoxe txokoratu

nioteken neretarrak. Ongi zekena dek, motell, politika!

Donosti'ra zebillen anaiak ere, alegiñak egin zizkin. Borondate oneko asko arkitu zitula zio-ken arek; baña izu laborriak artuak zeuzkala.

Artzalleetako lanak bukatu ondoren, igande ta jaietan batez ere, Donosti'ko Santa Maria'n meza entzuteko oitura zin. Bein ala bear-ta, marmita lurrean utzi ta meza entzuten zegola, semeak San Markos'tik Errenderi'ra biali zitun tenientea, aurreraxeago omen zioken meza entzuten. Gizon zuzen xamarra zirudiken, eta egin zunez barrenak kezkatu xamar edukitzea ere ba-zeiken. Anaia ikusi zuneko beñipin, bere on-doko erreketete bati galdetu omen zioken:

— Atzean marmitarekin dagon mutil gazte ori ezagutzen al dek?

Zear-begiratu bat egin omen zioken anaiari, eta bereala ezagutu omen ziteken biak alkar. Alare, lotsa gutxirekin, tenienteari ala erantzun omen zioken:

— Ez, jauna! Ez det uste gaur arte nere begien aurrean jarri danik ere ori!

Beste leku batean egon balira, marmitarekin burutik bera joko omen zin; alakoxeko nazka eman omen zioken-ta. Aspaldiko urteetan Errenderi'ko *Adoración Nocturna*'n izaten ziranak, eta, berak zionez, an zuan lagunik maiteena.

Donosti'tik oso berri txarrak zetozezen. Ondarreta'n lan egiten zuan auzoko erreketete bat bauan. Arek esan zidaken bein:

— Egunero zure semeakin itz egiten det. Oso berri txarrak dituzte eta etsi xamarrak dau-

de; *consejo de guerra* egin baidie gañera, eta laurak eriotz-pena ote duten. Mundu ontan bizirik ikusi nai badituzu, joateko lenbailen; egun gutxiko gorabera dala ta zuri abisatzeko esan didate.

Gure mendi-txoko ontako tristura! Erruga-beak zirala jakinki, ta iltzera zeramazkitela beren sasoirik onenean, euskaldun jaiotzea beste pekaturik gabe, il aurreko kapillan, orduaren zai. Etsaiak indarrean eta gu goi-beak jota. Laguntzallerik, berriz, iñun ageri ez. Askotan errukitu izan niotek, umeak galdu ta zaugaitzetik zugaitzera dabiltzan txori amak. Aiek bezela nebilteken ni ere. Aien karraxiak basoan galtzen dituk; nereak ere etziteken iñoren biotzik bigundu. Ori dek guda: errukirik eza. Ortaraño itxutu itun gure gudazaleak.

Eguarte batean joan niñun. Sartu baño askoz tristeago atera niñun andik. Ura ez dek gizonarentzat egiten dan lekua. Basa-piztiak artara ikusita, kupitu egiten niotek. Inpernua, orixe dek ura. Burni-xare batek ixten ziek, begiakin ikusten duten askatasun ta zorionerako bidea. Ori baño inpernu gaiztoagorik asmatu al leike? Kanpoko ta barruko pillaka alanbre-sareari eratsiak, mendi batetik bestera ojuka ari balira bezela, alkarri ezin adierazirik. Bi sareen erdian beste zelatari ura.

Senar-emazteak alkarrekin, seme-alabak aitarekin, edo biotzez maite diran neska-mutillak, eta laztan goxo bana ematerik ez. Metro baten tarte, ta uraxe ezin igaro. Eskuakin keñu; bat inpernura ta bestea kanpora. Negarra izaten dek

azken agurraren ondorena. Gizonak gizonari ematen dion zigorra. Ai, gorrotoa! Ongi Luziperrren semea aiz, bai! Amaika negar egin ziteken beren andregai gaxoak.

Bost minutuko itzaldirik ez genin egin; baña ni sekulako nazkatu niñun. Ateeran zerbait esan bear-ta, neronek ere ez nin sinisten, ez, baña ala esan nieken:

— Agur, semeak! Ez al dek luzarorako izango! Laxter aterako al zaituzte!

— Bai, aita; nora ezik, laxter aterako al gaituzte! Orduaren zai gaude!

Itz oiek entzun nitunean, alako eziñaren gorroto samin bat sortu zaidaken biotzean. Ez nin gero berealakoan kendu. Zergatik esan zidan ulertzen bainun. Nere esku eduki banu, ez nio-ken orduan etsaiaren izena zeraman bakar bati ere barkatuko; antxen bertan bizirik kiskaliko nizkin danak. Beren iritzikoak ez diranak iltze-ko, zer eskubide zeukatek gudazale madarikatu oiek? Ordurako arrunt etsita zeudeken aiek; orrengatik esan zin:

— Nora ezik, laxter aterako gaituzte!

Ori esan zidan semea, ez dit geroztik, ez bizi ez illa, mundu ontan ikusi.

Au gertatu ta bi egunera, esnearekin Donosti'ra joaten zan anaia, ordu luzeak igaro ta ageri ez. Ai, mutillak! Etxean geundenon larria! Ura oraindik ageri ez danean, ez dek gauz onik. Zoritxarrez, erdiz-erdi asmatu genin.

Noizbait etorri uan, eta, gure arpegian zer galdetu nai gendun igarririk, malko garratzak zerizkiola, ala esan ziguken:

— Angoa bukatu da! Olako ta olako, goizean seiretan pusillatu dituzte. Beste biak bizi dira oraindik, baña betiko itzala eman die.

Ez genin beste itzik egin. Bakoitzak bere naigabea ixilik biotz barruan gordeaz, gure lanari jarraitu genioken. Etziguken biotz-zartako geiegirik eman, aspaldian etsiak baigeunden. Ildakoak, beren eginkizuna bukatu ziteken. Bizi giñanok, il arte saiatu egin bear. Zer egingo diegu bada? Gorrotoan giñuzten; tribunal artan, gure egiak baño, besteren gezurrak aixago sinistu baizituzten.

Kristau legeak orren errex gizonak il-erazten baditu, ez nauk arritzen jendeak sinismena uztea.

Otoitzak, aretxek bakarrik lasaitzen zin nere biotza.

Urrengo egunean, bazkal ondoan, etorri uan azken orduan lagundu zien jesuita, il aurretik aiek egin zituzten eskutitz banarekin eta aieta-ko baten andregaiia negar ta negar berekin zekarrela. Etzidaken gauza berririk esan; nere semeak ezagutzen bainitun. Gorputz ta animaz iltzalleen alde zioken; arrazoi osoa ematen zien oeiri. Berriketarako, berriz, oso gogo gutxi neukaken nik.

Entzun nunez, nere illoba apaiz jaunaren etxean izan omen uan, il ziranak esanta noski; aiek egindako eskutitzak irakurri ere bai. Min txuri eginta exeri omen uan. Zergatik? Berak jakingo zin; Pilatosen antzera eskuak garbitzea ez baita aski.

Nere semeen eskutitzak, oraindik emen ge-

ratzen giñanontzat, agur bat besterik ez itun.
Bietan zarrena, bertsolari polita uan, baña ber-
tsoak jartzen oitu gabea. Orain kantatuko diz-
kitedan oek, arenak dituk. Il baño ordu bete-
ren bat lenago egiñak:

Errurik gabe iltzera guaz,
aita ta anai maiteak,
gazte gerala utzi bearra
dana naigabez beteak;
gure odolak garbi ditzala
egin ditugun kalteak,
agur, ez digu kalte egingo
garbi gerala joateak.

Agur, Juan Joxe ta Saturdino,
Joakin eta Salvador,
Juan Kruz, Manuel ta Jose Mari,
geratzen zeratenak or;
ate ondoan dira etsaiak,
gure ordua badator;
gutzaz oroitzen zeratenian
otoi biotzez maitakor.

Agur betiko, osaba, izeba
eta lengusu kutunak,
agur biotzez adiskide ta
maite nitun ezagunak!
Uste gabean bukatu dira
nere munduko egunak,
emengo partez orain zeruan
egingo ditut lagunak.

Ez gorrotorik izan iñori,
izan alkarrekin lagun;
iraun zazute beti euzkotar
eta benetan euskaldun;
Eliza maite, kristau bezela
bide zuzenetik jardun,
orain berexen geranok berriz
alkar ikusi dezagun.

Antonio anaiaren izenik ez dik jartzen; ura aldamenean baizeukan, ogei ta zortzi urteko gazte bikain askoa, bizia emateko berexia.

Gorrotoa kentzen zalla dek, baña kendu ezker ohea. Nai ta nai-ekoa Jainkoaren aurretako, danok zorretan baigaude. Jesusek bere itzalleei bezela, nik ere barkatu nieken noizbait.

Egun garratzak itun neretzat eta gure etxerako. Elizkizunik egiten ere etziguteken utzi. Ixilka ta bildurrak, an ta emen atera genizkin meza batzuak, bai, ta kito.

Oraindik ez dit egundo orduan bezin korapillatua biotzik eduki. Umetatik lagun nitunak, etsai biur zaizkidaken-ta. Orra semeak bakantzen asi. Beren bizitzarako aukeratu zituzten lagunak negarrez utzita, aldegin ziteken betiko emendik. Aien alde, otoitza baizik ez uan onik.

Bizi ziranei lagundu egin bear, ordea; Ondarreta'n an geratu itun beste bi. Eguberriak zirala-ta, an ematen ziena baño bazkari ohea eramateko asmoan joan uan goizean anaia. Ez alperrik! Gabon-goizean San Kristobal'era eramana zirala esan zioteken. Joan baño tristeago etorri uan etxera. Egia badiot, ez genin sinistu

aiek San Kristobal'era eramán zituztenik. Ordu-rako, gizon jator askoak, nundik nora iñork etzekila, galduak baiziran; bat baño geiago bai gure aieka oetan ere. Aiekin ori egin ote zuten bildur giñun.

San Markos'en kapitan zegon batek bitarteko eginta, Donostia'n bizi zan illoba maite bat itxu aurreko nuala, Urte berri egunean joan giñun San Kristobal'era. Orma ari zula igo giñun bere gallurrera. Aizeak eramán bear zin bat gañ artan. Arkaitz legor, basamortu bat besterik ez dek gañ ura. Auntzik ere biziko ez litzaken lekua. Guda-gaztelu oietakoa dek, San Markos'en itxurakoa. Oraindik jende gutxi omen zio-ken; betetzen ari zutena. Babesera sartu giñanean, ez giñun asarre.

Ai, mutillak! Ongi mendean bizi izateko etorri giñun euskaldunok mundu ontara! Ar-zulo illun batera sartu ta illunpetik argitara azaldu ziran semeakin izketan asi giñanean, an sare erdian entzuten zegon guardi kankallu arek jarri zigun muturra!

— *¡Hablen en cristiano!* —esan zigukén.

Gu euskeraz asi baigiñan. Bestela joka, aurrean artuta, aterako giñula; bere gomazko porra zar aundi ura dantzatzuz, gozoa zebileken uraxe. Gurekin alako purrustadan asi zanak, zet etzin egingo mendean zeuzkanakin?

Illobak, erderaz baizekin, an jardun uan bakkarik nere bi semeakin izketan. Ni, berriz, ixilda makur, aiek noiz bukatzen zuten zai. Ori ere neri gertatu bear!

Kapitan ari egindako eskupekoaz gañera,

joan-etorri artan amaika duro eder utzi nin, eta semeakin itz egiten utzi ez aitari. Eta zergatik? Euskaldun giñalako. Orixe dek oinpean zapaltzea!

Euskeraz itz egiten gendunoi, danean begiratu txarra egiten zigutela ikusirik, billaukeri-bildurrik ez neukan etxe-txulora bildu niñun. Geroztik lana ta lana izan uan nere bizi-modua.

Nere aldamenean neuzkan iru semeetatik ere, bat eramán zidateken soldaru. Amarretatik, iru bakarrik geratu giñun etxean. Ainbeste maite ziran anaiak, indarrean alkar iltzen jarri-arazi zizkiteken. Gudaren lanak dituk oiek ere. Iru bat urtean, etxe nekosu ontan eziñean gu.

Bilbao artu zutenean, an zebillen semerik gazteena, soldaru atera ziteken; zarrenak, berriz, Zaragoza aldera eramanta, *batallón de trabajadores*'etan urteak bota zizkin.

Españi'ko lau aldetatik bagenin diru-eskea. Semeak ezik, illobak ere eske asi baiziran. Nere irurogei ta lau, bost, sei ta zazpi, lau urte orietan, amaika gau-pasa egin nizkin; ez jolasean ta zurrutean, ordea; illargi-argitan belar ebakitzen bai. Majiña bat belar-meta azpikoz gañera jarri genizkin. Etxekoak ezik, auzokoak ere gure kontu gelditzen baiziran. Gizonezkoak eramanta, emakume utsak utzi zizkiteken an ere.

Bertako andre xarrak, alargunak, ala esan zidaken bein:

— Ai, Joxe, Joxe! Nere onetatik ia atera naiz oraintxe! Nere biotzak ezin du geiago! Jai-egunak negarrez pasatzen ditut!

— Negarrez? Zergatik ordea?

— Emengo bakardade onek ez al dizu biotzik zapaltzen? Pentsatzeko betarik ez dezu, ez, zuk, beti lanpean itoa baizabiltza. Orain egun batzuk emengo jolas ta iskanbillen berri zekinak, gaurko ixiltasun ontan, nola ez negar egin? Emen ez da ezeren kinkiorik! Au kanposantua da, Joxe! Ez nuan askorik pentsatzen, orren bakar geldituko giñanik!

Eta negarrez asten uan gaxoa. Izan ere, arri-zekoa al uan? Mendi-zoko ontan dauden bi baserri arlote oetatik, bederatzi mutil gazte urrundu itun-ta: auzotik bi ta guretik zazpi. Ark ere, nik ezik, etzizkin urte goxoak pasa. Ainbeste kostata umeak azi ta gero, iltzera eramateko?

Ama zanak emengo ondamendia ikusi izan balu, beren amona maitea bezela, penaz ilko uan. Jainkoak bazekik zer egiten duan. Nik, berriz, lengoak eta oraingoak bakarrik eraman bear nere bizkarrean.

Ixilik, iñorekin itz egiteko bildur; atzoko lagun maite asko, etsai amorratuak baintun gaur. Gure etxe-txoko ontan jarraitu genin lanean, espetxeetan mixeriz bizi ziranei lagunduz. Aiek bezela, gu ere espetxean geundeken; aiek txikian ta gu aundixeagoan bizi giñala. Gure sukalde xarrean ez uan nolanaiko utsuna: iru besterik ez giñun biltzen, len amar gizonezkorekin betetzen gendun mai xarraren inguruan. An ageri itun zazpi aulki uts.

Baserritarrak lezoietako larrarekin egiten du-na bera, egiten dik gudak ere gurekin. Larrak zañetik ateratzerik ez dik nai, itxitura galdu ez dedin. Indar geiegi artzen uztea ere, etzaiok ko-

meni. Larrak beti aurrera egiten baitu. Piska bateko zapuztu dedin, muturrak mozten zizkiek. Gudak orixe egiten dik gurekin.

Txoritokieta'ko muturretik amil zak errota-
-arri bat Astigarraga aldera. Indarrak aitutzen
zaizkion arte, beti aurrera egingo dik. Arkaitz,
zugaitz, zulo, etxe, erreka, abere, gizon, bere
burrunda itxuan danak berdiñak dituk arentzat.
Al badu, danak zapalduaz, gogorragoa arrapatu
arte, aurrera joango dek ura. Ez arrazoi onakin
joan aren aurrera; bestela azpian laxter larde-
katuko au-ta. Guda ere olakoxea dek. Gudak,
alkar-maitasuna iltzen duan ezkerro, errukia gu-
rutzean josten dik eta gorrotoari leku eman.
Gudak, gudazaleen griñari komeni zaiona beste
legerik ez dik onartzen. Jainkoarenak, alperrik
dituk arentzat. Bera jartzen baita Jainkoaren
gañetik. Deabrua berbera dek guda-asmatzalle,
eta gizonen gorrotoa, berriz, aize-emalle. Gizon-
-iltzallerik gaiztoena baño, askoz okerragoa dek
gudazalea gizarterako. Izurriterik gaiztoena ta
kutsakorrena, guda dek. Gudazaleak bereala
erasten zioek lagunari, bere barruan ezin ito duan
gaitz gaizto ori.

Oraingo gazteak gudaren etsai amorratuak
omen dituk. Bejondeiela oieiri!

Bein, nere txikitako bi lagunekin, San Mar-
kos ondoko kantina txiki ortara igo niñun. Nere
antzeko baserritar ez-jakiñak ez itun aiek; beren
karrerak ikasitakoak eta ongi xamar bizi zira-
nak gañera. Alkarren lagun maiteak baziran ere,
politika-gauzetan asten ziranean, sututzen itun
biak. Talkako aariak bezela, aurrez-aurre jartzen

itun bereala. Gizon baten bi besoak bezela itun biak: bat ezkerre ta bestea eskubia. Ordu betean iskanbilletan jardun ondoren, asi bezela geratzen itun beti: bat ezker ta bestea eskubi. Neri galdetu zidateken orduan:

— Nork degula arrazoi iruditzen zaizu, Joxe?

— Nik ezer gutxi dakit; baña nere iritzian ez batak eta ez bestek. Zertan igotzen zerate eskubiko ta ezkerreko krosketara, txoroak aleanak? Salta zaitezte bide erdira, eta, gure beso eskubi ta ezkerreko lanerako bat egiten duten bezela, alkartu zaitezte zuek ere eta goazen danok pake ederrean bide erdian barrena.

Oiek dituk gudazaleak: indarrean beren us-teak erriari jarri nai dizkioten oiek.

Nik agindu bear banu, gudaren alde izketan ari dala bat somatu orduko, beste gabe espetxera bialiko nitek, lagunik kutsatu ez dezan. Oiek basa-piztiak baño okerragoak dituk-eta.

Gutxiena uste gendunean, beste larri-aldi bat ere eman ziguteken: San Kristobal'ko presoan igesa. San Kristobal nun dagon jakingo dek noski. Ni bein joan niñun ara, eta etzeukat berriz joateko gogorik. Jaungoikoak euskaldun egin zitulako, an neuzkan bi seme, bizirik inpernuan sartuta.

Milla bederatzi eun da ogei ta emezortziko Maiatzaren ogei ta bian, presoak andik iges egin zutelako, etxe-inguru au guzia eiztariz bete ziguteken, motell. Auzoetako agure zar, anka-oker, begi-bakar, tallik gabeko, soldaruzkarako gauza etziran danak, etxe-inguru oetan ziteken billera.

Emengo ataka, langa, bide-gurutze, bide txigor, nijoan lekura nijoala, beti eiztariren batekin topo egin bear. Beren zelai-lanetan ari zira, sagar-abarren batetik zintzilik an edukiko ziteken eskupeta. Ontz aundia bezela gure inguruko arri-konkor oen gañean exerita, eskupeta belaun gañean zutela, lau edo bost zigarro erre arte, ke-jario emen egongo itun, eztulka-estulka, gu nondik nora genbiltzan ikusi nairik. Ixtillu oiek danak zergatik ziran bai al dakik? San Kristobal'dik iges egin bazuten, semeak etxe aldera joko zutela ta aiek arrapatu nairik jarritako sarea uan guzi ori. Ongi zeudela ikasi gendunean, amaika par ta jolas egin nin gure agure ta jende elbarri aien bizkar.

— Maiatzean bizi gerala ez al dakizute eta eizean ez dala zillegi? Etxe inguru ontan orrela baldin bazabiltzate, ni parte ematera niak! —esaten nieken.

— Guri agindu egin zigutek, eta datorrenak emen geratu bear ko dik! —batzuek euskeraz, besteak erderaz erantzuten zidateken, eta gure auzo oetako aitona izaki.

Noizbait bear-ta, bukatu ziteken ainbeste erru gabeko odol-ixurtze ura; ainbeste gorroto gaizto biotzetan erein zuan alkar-iltze negar-garri ura.

Joan diran urte oetan, gure baserri koskor ortara ainbeste eraso gaizto egin badu Euskalerriko sendi bakoitzera, burua makurtu ta azpiratuak bizitzeak ez arritu. Gerok izan gaituk okerrenak gañera. Etzeukagu urrungo etsaieiri

aitzaki ematerik. Gerok gaituk errudun. Gerok gure erri xar onen etsaiak.

Beste batzuak burua jasotzeko, amaika eriotz umil izan dituk Euskalerrian; gure sukaldeetan amaika negar ixil ere bai. Oiek ez dizkik iñork aintzakotz artzen; oien izenik ez dik iñork paperetan jarri; oientzat ez dek eguneroko saririk; oientzat ez dik iñork erriko enparantzetan estatuarik jaso; oien guraso, umezurtz edo alarguneiri iñork etziek egunerokorik eskeñi; unibersidadean ikasteko, iñoren laguntzarik ez ditek izan. Oiek, beren bakardadean, negar egin ziteken, eta, biziko baziran, berri-berritik eraso lanari, gudazaleak beste olako naspillen bat sortzen diguten arte. Amaika olakoren odolarekin bustiak zeudek, onuzkero, Euskalerriko uri, mendi ta itxasoak.

Oiek ere iñork maite gabeak ez dituk. Bearitsuak izan arren, personak dituk, ezur ta mamizkoak, beste edozeñen gisa. Aundizki ta aberats oiek bezin minkor ta minbereak dituk oiek ere, eta Jaungoikoaren aurrerako maitagarriagoak agian.

Oien negarren eta odolen truke graduak jasotzen dituztenak, oiek dituk gudazaleak eta lurraren gañean daukagun gaitzik gaiztoena. Iltzen badira, kaleren bati jarriko ziotek beren izena, eta beretarrak ez ditek ezeren paltik edukiko.

Nere aita zanak ziona esango dit nik ere beti: leptik arri konkora bana lotuta, itxaspera bota bear lituztekela gudazale guziak!

Nor dituk oiek Jainkoaren legeen gañetik berenak jartzeko? Noizbait esnatuko al gaituk?

GUDA ONDOREAN

Soldaru zebiltzanak, noizbaiteren buruan biali zizkiteken.

Len, gudatean bi anai zeuzkalako, gazteena, amaika ler gaizto nerekin batera etxean egiña, kinto-urteak beteak baizizkin, alare ordea oraindik ez uan soldaru joana. Gudatik zetozenak etxean oñak sartu orduko eramán ziteken. Etzeukateken aztuta, ez. Egin zizkigutenak eginta, ez itun asko urrikaldu. Ura ere eramán bear-ta, ezin inguruan utzi: Afrika'raño eramán ziteken, gizona! Beti bezin utsa geratu uan gure etxea: seiren utsuna. Alare, semeak arraisku txarretatik aterea, ez uan nolanaiko atsegiña neretzat.

Zaragoza'n langilleen batallioian zegona etorri uan lenengo. Amaika arraisku ta istillu gudatean ikusi zituna. Gerora ere etzin ondoren onik izan, ez, gizajoak.

Ainbesteko zigorra bizkar gañean zeramaten San Kristobal'koak, urteetan etorriko ziran ametsik ere ez genin egiten. Etorri ziranakin geron martxa-modua jarri genin, palta ziranei

lagunduz, baña aiek gure artean ikusteko itxaropen aundirik gabe. Alare, len baño geiago giñun laguntzeko, ta gutxiago laguntza bear zutenak.

Bereala asi itun berri onak zabaltzen. Etzedela luzarorako, askotan entzuten genin; *erre-bisioa* egin bear zietela ta laxter etorriko zirala noski. Ori egia zala-ta, gauzak moldatzen asteko esan ziguteken.

Nere illoba txiki egiten zuan bat bauan militarra, borondate onekoa; aren esku utzi genin guzia. Nere beste bi seme lagun zitula, ura asi uan, agintea zuten oien etxerik etxe, San Kristobal'koen aldeko papel batzuk egifnarazten. Oso borondate onean egiten omen zioteken. Ez dek batere arritzekoa. Kristau biotza zutenak, pixarren bat damaturik ere bai; baña geienak, bein nai zutena egin zutenean, zer ajola zaieken, espetxeetan usteltzen zeuden erru gabeko aiek aterra edo ez? Berdin; emen espetxean bezelatsu bizi bearko ziteken.

Nere illoba apaizarengana ere joan uan. Illobak ala galdetu omen zioken:

— Bakarrik al zabiltz?

— Ez; aien bi anairekin etorri naiz. Aiek lagundu didate ateraño, baña ez dute sartu nai izan; atean geratu dira —erantzun omen zioken.

— Zer txarrik egin diet nik oieiri, nere etxera sartu nai ezik geratzeko? —erantzun omen zioken asarre.

— Ez dakite. Mutillik jatorrenetakoak dira, eta, zure etxera sartu nai ezik geratu diranean, tarte ortan zerbait izango da. Zu nor izan ba-

ziña, etzutela oietakorik ilko; ori ere entzun det. Oien aldeko agiria eman didan batek esan dit —erantzun omen zioken itzetik ortzera koman-danteak.

Gogo onetik edo txarretik, aurreregi sartua damutuz-edo, arek ere beñepin egin zioken se-meen aldeko papera.

Alare, bagenizkin gure zalantza gaiztoak. Gudan txikitutako bazterrak presoak jaso bear-ko zituztela, onez edo txarrez esanta etzekit, baño maizegi entzuten genizkin olako arrazoiak.

Len gu erretzera ateratako jendea orain gure alde lanean astea, ez uan oso itxura txarra. Itxa-ropen pixar bat piztu ziteken beñepin gure bio-tzetan.

San Martzial arratsaldean —igandea uan, Al-tza gañeko jaiak gañera—, eten gabe ttunttuna ari zin. Donosti'tik erreka erreka igota, bi gizon estrañu ikusi genizkin, etxe atzeko pikopean ba-rrena gure etxe aldera zetozela, mendi-bota il-tzedun aundi oiekin, galtza urdin ta kazadora beltz lodi banarekin jantziak. Arritzen giñun: udaren biotzean artara jantzita zebiltzan gizon aiek, nongoak ote ziran? Laxter ezagutu geniz-kin: San Kristobal'ko nere semeak itun. Lax-terka joan giñun, alkar besarkatuz. Gurekin uan Telleri'ko Joxe ere, etxe ontako bat bezela baita, gure naigabe guzietan lagundu digun gi-zona.

— Noizbait etorri al zerate? Ez uan errexa! Aske etorriko ziñazten noski? —esan nienean, beren eskumuturretara begiratuaz, gertatzen za-na ezin sinisturik:

— Ametsetan ez bagabiltz, egia izan bear du! Amaika bider lotu dizkiguten eskumuturrak, aske dauzkagu beñepin, ta guardizibillik ere ez daukagu aldamenean!

Baña iñork aitatzea nai etzuan naigabe bat bazioken gure biotzetan; lau joan ta bi etorri bai itun. Zer egingo diegu bada, Jainkoaren bideen berri etzekigu-ta!

Ez itun oraindik ere, ez, aztu gutzaz. Bilbao'n arrapatu ta gero, gudatean, bukatu zan arte, oekin batera ibillia, guda aurretik soldaru serbitu etzualako, koartelera deitu ziteken. Etzioteken ori ere barkatu; len iru urtez gora ibillia baizan.

Semearentzat ez uan nolanaiko aldrebeskeria; lantegi eroso batean baizebillen. Auentzat, ordea, beren buruak besterik ez dek munduan.

Noizbait orratik, traba guziak kenduta, bizi giñanok bildu giñun batera gure sukalde xarrean. Biren utsuna ordea. Olako guda odoltsu baterako arritzekoa al dek? Nere garai bateko ametsak lekutara joan itun! Bederatzi semetatik zortzi, arraiskurik txarretenan ibilliak itun. Bederatzigarrena, urguna zalako, etziteken eraman; bestela, etzioteken ari ere barkatuko, ez.

Nere seme auen bizinaiak etzin orduan neurririk; beren urterik onenak galdu baizituzten, izenik ere merezi eztun alkar-iltze lotsagarri artan.

Etxean bi geratu ta beste gañerakoak an eta emen billatu zizkiteken beren lantegiak. Arratserako, danak batera biltzen giñun gure sukaldean. Etziteken zer esanaren paltik izaten.

Naigabe txiki bat bazioken oraindik nere biotzean. Len, ezkontzeko asmotan zebillen mutilla, Ondarreta'n il ziteken. Orain, berriz, bere aldamenekoakin ez nin iñor ikusten. Ez itua zarrak oraindik, baña danak mutilzar geratuko ziran kezketan nenbilleken. Benetan otzak edo lotsatiak izan dituk nere semeak.

Alako batean ikasi nin, eta lasaitu niñuan, batek aldamenekoa billatu zuala. Emakume baten premi izugarria baizegon gure etxean. Ogei ta lau urte aietan ez baizan an gizezkoak besterik bizi. Saturnino izenekoa uan ori.

SATURNINO

Saturnino, nere laugarren semea uan. Ume bizia, bizirik bazan. Oraindik nere aurrean ikusten detala iruditzen zaidak. Oñakin lurrik ukuituko ez balu bezela, ia aidean pasatzen zizkin bide zakar oek. Baña aspaldi auetan ez dizkik malkor auek igo ta jetxi. Gure sukaldean utsun bat utzita, aldegin zin arek ere. Ez uan geldirik egoteko ona, baña aspaldi onetan geldirik zegok gizajoa. Ark ere bazin eguzki goxo bat ikusteko gogoa; azkenean, ikusi gabe agur egin ziguken. Berak al zuan guzia egin ondoren, egundo baño lotu ta zapalduago ainbeste maite zuan aberri xarra utzita, naigabe onekin betiko aldegin zin mundu ontatik. Arentzat ere etzegoken azken lasai ta atsegin bat aukeratuta. Bizitzak irripar goxoa egiten zion orduan, alde egin ziguken.

Seme maitea nuan ezkerro, utzi akidak, erdi negarrez bederenik, ari omen txiki bat egiten. Beteko ez dan utsun bat biotz xar ontan utzita, oñaze gorrien artean urrundu baizan. Bere lekua

eman dezaigun liburutxo ontan, ainbeste ator-
men merezi dik-eta.

Guda bukatu ta urte bete inguru azaldu uan
etxera, joan zan bezela, ixil-ixilik, bere sasoirik
ederreneko lau urte alper-alperrik galdu ta gero.
Saltzeko ere bazeukaken arek osasuna.

Len ia maiteena zuan laguna, ikustera etorri
zitzaion batean, asko pentsatu gabe noski, fa-
lanjearen koloreko gerrikoa zekarreken jantzia.
Ikusi ta egin, arekikoak bukatu zizkin nere se-
meak. Itzegin ta artu-emanak len bezela jardun
bazuten ere, garai bateko alkartasunik ez uan
aien artean.

Noiznai izaten zizkin bere bisitatxoak; as-
kotan erdi ixilka. Igeska zebiltzan gudan alka-
rrekin ibillitako lagunak itun geienak.

Etorri ta urrengo egunean asi uan lan billa.
Lengo lantegi xarreko atea jo zizkin lenengo.
Ez alperrik. Enkargatu zegonak, baita nagusiak
ere, pozik artuko zuten langillea uan ura; len-
dik ondo ezagutzen baizuten. Etzin, ordea, na-
gusiak ere, nai zuan langillea artzeko esku-
biderik.

Goragotik zeudeken beste agintariak. Gu-
dan irabazitako merituak bear zizkin. Auekin
gizon iltzen jardunak, aiek itun danetan lenen-
go. Ezertarako gauza etzan langillea bazetorren
ere, *excombatiente* bazan, beste edozeñen on-
doan ura uan lenengo.

Lantegi artan etzioken utsunik; izaten bazan
ere, bazeudeken aurretik izen emanak listan.
Kanpotarrak lenago itun, etxeakoak baño; oen
alde gudan merituak egin zituztenak alegia.

Nere semeak etzeukaken olakorik. Nagusiak pozik artuko zuna, beste ateren batzuk jotzera aldegin zin andik. Danetan galdera berdiña: ia *excombatiente* al zan. Amaika tripa-jate ta egun gaizto igaro zizkin iru bat illabetean.

Diru pixar baten truke falanjean sartu nai bazuan, gezurrezko *excombatiente*-papera egingo ziotela ere eskeñi zioteken batzua. Asko erori itun sare ortan. Biziko baziran, zerbait egin bear. Biotzez lengoak baziran ere, itxuraz bederenik saldu ziranak.

Euskalerriko diru guziengatik, arek etzin olako itxura-aizunik egingo. Olakorik egin baño lenago, bizirik erreko ziteken nere semea. Arek etzeukaken lotsik, beldurrik ere ez, danen aurrean zan bezelakoa azaltzeko.

Lanera zijoan batean, tabernariari baxo-erdi bat eskatu ziokeen euskeraz. An omen zeudeken bi erdaldun, gallegoak noski eta edan xamarra.

— *¡Habla en cristiano!* —esan omen zioteken.

Etzin eztabaidaka denbora askorik galdu. Itzik trukatu gabe, ondoan zeukana, eskuan zeraman zakotetxoarekin jo zin burutik bera, zakotetxoa zapaltzeraño. Onen laguna zutitzen asi zanean, egundoko ostikoa eman omen ziokeen saiets barrenetan. Baxo-erdia ustu, ordaindu ta, biak naiko lanakin utzirik, jarraitu zin bere bidean.

Berak bere kontuak aterako zizkin iñorekin nastu baño len; danak errespetatuko zizkin. Kontuz berarekin ere; erne ibilli. Bestela... bi gallego aiek testigu.

Ez joan eskeintza oiekin arengana. Ura ez uan diruarekin saltzen zan oietakoa. Eskeintza goxo guzieiri muzin egin zieken. Oraindik amai-ka atetan jo zin, baño alperrik; etzioteken iñon ere zabaldu, ezin baizezaketen. Bizi bearraren begiak gorriak omen dituk; lenbizi zetorkion eskeñiari lotu zaioken.

Igande ta jaietan emen bazkalduaz, egun-pasa etortzen zan Makazaga izeneko mutilzar aundi bat bauan, Urumea'n ondar ateratzeko lanetan sozio bezela zegona; arek artu zin bere lantegian. Lan gogor ta nekosua. Nonbait bearrata, an asi uan lanean semea.

An, jakiña, lanean asteko ordu jakiñik etziteken izaten. Itxasoaren gora-berari begiratu bear baizioteken.

Askotan, oraindik gaua zala asi bearra zeukateken; besteetan, arratsaldean. Urte batzuk bazeramazkiken, baña ez asko.

Eguberri-irugarrenean, goizeko bostetarako, Urumea'n, beren motor xarraren barrenean zio-ken nere semea. Andik ordu gutxira, berri gaizto bat ekarri ziguteken, ekaitz ondoren pake-pakean zegon gure baserri-txokora: Saturnino kiskali zala eta San Antonio'ko klinikara eraman zutela.

Bein etxe batera sartzen bada zoritxarra, ez omen dek ateratzen errexa. Bere egi-muturra izango dik; guretik ez uan beñepin berealakoan atera.

Berri txar ori entzundakoan, geron artean ala genioken:

— Urean erre? Zer gertatu ote dek or?

Alderatzekorik ere, ez genin uste ainbeste-raño errea izango zanik.

Ikustera joan ziranak, triste, buru-makur, etsiak etorri itun. Jainkoak ez bazuan mirariren bat egiten, arenak egin zula, sendagilleak esan zieten. Gordin ta soill esan zieten egia.

Semea, beti izan uan txiskeroaren etsaia:

— Naiago nitek txiskero-egilleeri aztuko baltzaieteke txiskero egiten!

Askotan entzun nioken nik ori, eta azke-nean txiskero txar batek galdu zin.

Lanean asi aurretik, bi lagunen artean bete ziteken motorra, ondoan bosten bat litroko gasolin-bidoi erdi ustu bat zeukatela. Semearekin zegon lagunak, zerbaitetarako piztu omen zin txiskero txar bat, uste gabean bidoiko gasolinari su arraraziz. Motorraren inguruko gela txiki ura dana txapazkoa omen uan, eta semeak ala esan omen zioken:

— Utzi akiok bertan gasolin pixar orri sutan, berdin txaparik ez dik erreko-ta!

Ori esanta, kanpora ateratzen asi omen uan. Lagunak etzin olakorik pentsatu. Bere erruz piztu zalako-edo, bidoi koxkor ura nolabait artu omen zin eta leiora tira, zoritxarrez, semea leio aurretik pasatzerakoan. Onen ertza jota, semearen iztarretara erori uan, gasolinaz busti ta sutuaz. Buru gabe egindako lana! Alare, etzioken iñork lagunaren aurkako itz erditxo bat ere entzun semeari; bein baño geiagotan bai:

— Txiskero urde ori!

Orduan itun istilluak: oraindik gaua, illun, ta semea karraxika; ara ta onera jauzi batera,

jauzi bestera; gerriz berakoa dana kiskaltzen. Berak esan zigunez gero, buruaren gañetik pasatzen omen zitzaizkioken su-garrak. Ikusitakoak ziotenez, ez omen uan su barruan zebillenik ikusten, eta iñor ari eltzera ausartu ezin.

Gero berak esan zigunez, len bere gerriko ubela ukuitzea aski izaten omen zin askatzeko. Orduan korapillatuta geratu omen zaioken, ezin askatu ta ezin autsi; galtzak eraztea aski baizuan itzaltzeko, aietan baizeukan gasolina.

Bere oñaze guzien artean etzin bururik galdu. Ala bearko zin.

Noizbaiten buruan, azaldu omen uan enkar-gatua. Orduan bai, bereala itzali ziteken; baña berea egin ta gero. Ordurako, suak ere indarrak aitua zeuzkaken.

Uste gabean egin zuan lagunak ere asko maite zin, eta egun batzutan etzin lasaitasun aundirik eduki.

Bere berri etzekigu. Guk etsi bagenun, bera ere, ez oso etsita —ori il-zori dagon batentzat zalla dek—, baña bai erdi etsita.

Sartzen zan guziari, txuxen arpegira begiratzten zioken, eta bestea aren begietatik igasi nairik; ez baita errex, il-zori dagon maite bati, tris-turarik gabe ta begira dagonak igarri gabe, begietara begiratzea. Gero, ango jendearen etorrera eta danak urduri xamar ikusiz, ez ote zion garbi igerri iltzera zijoala?

Il baño lentxeago, eskuetako beatzak txuritzten asi zaizkioken, eta gero ta aurrerago txuritasuna. Eskuak jasoz, noiznai aieiri begira jartzten uan. Beatz txuri aiek zer esaten ote zio-

teken? Nere semea ez uan ain ez jakiña. Ori eta geiago ere bazekiken arek.

Etzioken ari iñork nola zegon esan. Senda-gillerik ez uan ausartu; monjarik ain gutxi; urteberri-goizean aitortu ta Jauna eman zion prantziskotar gazteak ain gutxi. Berak ere etzioken iñori ezer galdetu. Egia jakiteko beldurrak agian? Litekena dek. Seme zarrenak bai, esan zioken, baña ezkutu xamar:

— Errea gauza txarra dek, motell! Ori edorrek ere ondo badakik, eta, bada-ezpada ere, obe dek gauzak ondo egin!

Danok poztu giñun erantzuna eman zioken:

— Al ditudan ondoena egiten dizkit nik beti gauz oek!

Zagia bezela azi zitzaizkioken bi ixtarrak, eta ezagun zuala ari uan gizajoa aitutzen. Oñazerik bazeukan galdetuta, baietz, baña pasa zurenaren ondoan ura etzala ezer, erantzun ziguken. Alare, egunean bi aldiz bederenik, morfina ematen zioteken. Otx bat ere ez genioken entzun.

Bere oñaze guzien artean etzitzaiokeen Euskalerririk aztu, ez.

Alemana-ta, oraindik bero-beroan ari itun, su ta garretan alkar iltzen, eta ez ituan oraindik amerikanoak Europa'n sartu. Ordurako, ordea, leku batzutan eziñean zebilleken alemana.

Ala galdetu zioken bere anai bati:

— Gerra au irabazteko algorik ez ditek noski alemanak.

— Ezta pentsatu ere! Alemanak atzeraka asiak dituk, gero ta aulago; eta besteak indartzen —erantzun zioken anaiak.

Egun tristeak itun aietxek guretzat. Aztu zitzai guken zer egunetan bizi giñanik ere. Urteberri-jaiak oroitu gabe igaro itun. Otorduak ixil ta pentsakizunez beteak egiten genizkin. Joaten giñan bazter danetan beti galdera berdiña:

— Zer moduz dago Saturdiño?

Nola erantzun jakin ez askotan. Lagunak bazizkin, ez asko, baña bai piñak. Bi arpegiko lagun maltzurrik etzin ikusi nai izaten ondoan. Aiek, geienak, il ta gerora arte etziteken ikasi ere Saturdinoren berri.

Guk supritzen genin; ez ordea aren alderatze korik ere.

Urteberri-biaramonean, arratsa aren ondoan igaro ziteken bere andregai zunak eta onen aitak. Aiek betiko agurtu itun arengandik, antz eman baizioteken eguerdira etzala iritxiko.

Gorakoan sartu itun gure etxera, oso triste ta malkotsu: arrats gaiztoa igaro zula Saturdinok, eta, jakiña, aren ondoan oek ere bai. Lanerako abian zan seme bati, ala esan zioteken:

— Etzoazela gaur lanera, onuzkero ez bada il ezta urruti ibilliko-ta!

Andik bereala, il zala etorri uan abixua.

Bere anai, aide ta lagun ale batzuk ondoren zitula, Donosti'ko kanposantura eramán ziteken.

Kanposantuko konserje zan Aldanondo jaunari eskerrak, Ondarreta'n il zituzten bere bi anaiak an zeudeken illobi jakiñean, beren izen ta guzi, urte batzuak len eortziak. Aien ondoan eortzi ziteken au ere.

Iru seme il zaizkidak, irurak sasoirik onean, irurak desgraziz eta irurak Donostia'n.

Etziteken mundu ontan suerte aundirik izan; bestean errukituko al zitzaien Jainkoa. Goian beude!

Euskaldunik jatorren ta sutsuenetako bat uan au. Askatasun pixar bat nabaitu zanerako, beti lenbizikoetan ibilli zana. Aberri-egun guzietara joaten uan, eta genienean oñez. Erriko autitz-garaietan ere, ez uan azkenea ibilliko. Mendigoizale bezela, noiznai ateratzen uan bere lagunakin. Euskalerriko mendiak etzeukateken arentzat ezkuturik; geienak bere oinpean ikusi baizizkin.

Guda asi zanean, salta uan, armakin edo armarik gabe, asiera artan ez uan danentzako iristen-eta. Lenengoakin atera uan emendik. Beti etsaiaren aurrez-aurre Bilbao'ra arte. Etzekigu Bizkai'ko aren berririk; ez uan bere merituaik aibatzen zitun oietakoa-ta. Nai izan ezkeru, ikasi gentzakek, bere lagun asko bizi baidituk oraindik. Ez diegu bearrik ere; aren jenioaren berri jakitea naikoa zaiguk, etzala alperkerian egongo jakiteko.

Bizkaia galdu zanean, bere zoramen guzia galdu zin arek ere. Etzeukaken bereak etziran lurak zaitzera joateko gogorik.

Arrapatu ta Zaragoza'ra eraman ziteken, langilleen batalloira. Ango berri ere etzekigu asko; baño, berarekin ibillitako ordiziar batzuak esanta, zerbait bazekigu.

Nere semeak sukal-txokoan zeudela, igandearratsalde batean etorri ituan ordiziar batzuk. Amaika lekutan galdera egiñaz, billatu ziteken

etxe au. Ataritik, ate gañean *Bordaxar* irakurri zuteneko:

— Eup! —oiu egin ziteken—. Non abil, *La Judas*?

Nere semearen biraorik gaiztoena *La Judas* uan. Ori askotan esango zin, eta *La Judas*'ekin bataiatu ziteken. Semeetakoren bat atera uan kanpora, eta zeñen billa zebiltzan galdetu zioteken.

— Gurekin Zaragoza'n langilleen batalloiean ibillitako Saturnino Zapirain'en billa! Emen bizi dala esan zigutek!

Tristetu uan semearen arpegia, eta ala erantzun zieken:

— Aren billa etorri bazerate, alper biaje ederra egin dezute!

— Bordaxarren bizi dala esan zigutek, eta au ez al da Bordaxar?

— Bai; au Bordaxar dala, etzeok ukatzerik. Emen bizi zala ere, egi biribilla dek; baña gaur ez dezute emen arkituko!

— Zerbait gertatu al zaiok, bada?

— Bai; oraintxe illabete batzuk il uan, gizajoa!

— Il? Desgraziren batean edo?

— Bai; bere lantegian gasolinaz erreta!

Atsekabetuta geratu itun; ez alper biajea egin zutelako, beren laguna il zalako.

— Amaika broma egiñak gaituk alkarrekin. *La Judas* esateko oitura zin. Ez genioken bere izenez ere deitzen; beti *La Judas*. Gizajoa! Arek zeuzkan indarrak eta arek zuan osasuna! Zeñek pentsatu bear zin au?

— Arek bukatu zizkin, bada, mundu ontako eginkizunak. Bala zorrotz ta etsai guziak ezin zutena, gasolin pixar batek egin zin.

Gure sukaldean sagardo edanaz, aren gertakari asko esan zizkiguteken; baña ura nolakoa zan erakusteko, bi puntu aski dizkigu.

Langilleen batalloiko guardietako bat, aragoitar kankallu bat omen uan. Berak zionez, indarrean berdiñik etzuala uste zuan oietakoa; baña berez atsegin ta otxana. Bein, arro-arro, ala desapio egin omen zieken:

— Euskaldunak sona besterik ez dezute! Zalaparta ugari; beartzean, ezer gutxi! Indartsuak zeratela, askotan entzun dit. Zuen artean bat baldin bada, datorrela! Jokatuko ziot nai duana, aurreko arri baldar au zeñek lenago jaso!

— Ekatzak bosteko ori! —bien eskuak estutuz erantzun zioteken—. Egiña zeok! Bai; lotsatuko aun baserritar txiki bat ekarriko diegu!

Etorri omen uan nere semea, eta, begiratuan, Dabid eta Goliat omen ziruditeken biak. Goliattek bereala jan zin bestea, aixa irabaziko ziolakoan. Txotx egin ziteken eta semeak irabazi. Onek aukeratu bear zein noiz asi, eta kankallua asi uan lenengo.

Zutik eta aurrez, egundoko saioak egin omen zizkin, baña ezin. Gerritara aixa ekartzen omen zin arria. Ura ta geiago jasotzeko indarra bai omen zeukaken arek, baño oso baldarra omen uan arria. Gerritik bizkarrera ezin jaso. Gero, autsetan etzanta jarririk, arria noizbait bizkarreratu omen zin, eta, bere ura bizkarrean zuala,

noizbait zutitu omen uan, arnaska, gorri-gorri eta autsez betea.

Ez uan oso legezkoa, baña jendeak ontzat eman omen zioken. Orduan, *zapla!*, bota omen zin arria, eta besteak zer egiten zuan zai-zai begira jarri omen uan.

Etzin semeak ortarako zaletasun aundirik, baña naiko oitu ta aritua zioken. Arria aurrez-aurre artuta, bi-iru minutuan jaso-aldiren batzuetan egin omen zizkioken, eta *zapla!*, bota zin arria arek ere; eta bere gañean oin bat jarriz, kankalluari begiratuaz ala esan omen zioken:

— Geiago balio ez ta desapio egin diguk bada ik!

Aragoitarra, zer pentsatu etzekila geratu omen uan, baña ez omen uan batere asarretu. Izena ezik, izana ere bazutela, bai, euskaldunak, mazal-mazal aitortu omen zin. Geroztik, on besterik ez omen zioken egin aragoitar arek semeari.

Beste puntua, berriz, au dek: bere batalloiko kapellau zeukatena, beñere apaiz egin bear etzuan oietako bat omen uan. Bere itzaldi guziak, asi ta buka, eten gabeko iseka besterik ez omen uan izaten: konbentu guziak erre zituztela, apaizak jatera atera al ziran... Beretararak egin zituzten okerrak, besteri bota. Errukiz, ez merezi zutelako, geratu zirala bizirik... Auek eta auen antzekoak zetozenak ere. Au, batalloi askotan gertatzen zana omen uan.

Pazko-garaiak iritxi itun. Lendik, beti betetzen oituak zeuden kristau sinismendunak izaki, eta kapellau biurri aren ondora urbiltzeko

biotzik etzeukateken, berriz; beste bat eskatzen bazuten, ekartzen bazuten ere, zer esana besterik etzutela jarriko, ta, arraisku guzien gañetik, ixilka beste batera joatea erabaki ziteken.

Aiek zeuden tokitik noski ez uan urruti egongo; ixilka, zortzi-amarren bat lagun, gauaz aterata, prantziskotarren konbentu bateko atearak jo zizkitek, goizeko irurak aldean. Caspe esan zutela uste dit, erriaren izena.

Subegorria baño erretxiñago erten omen uan bertako atezaiak. Aiek an ikusi zitunean eta zertara joan ziran jakiñagatik ere, urrutizkiñez kuartelera parte eman nairik asi omen uan.

Ango iskanbillak entzunta, leiora atera omen uan ango nagusi egiten zuana. Pusillatzera zeramatzutenak aitortzeko, len ere gaberdian orrelako deiak artzen oitua egongo uan. Laxterka jetxi, bialia omen zin atezai egoskor ura, eta ala galdetu omen ziken:

— Zer zabiltzate, garai auetan emen, orrelako mutil gazte pilla?

Zer gertatzen zitzaien eta zertara joan ziran esan ziotenean, elizako atea zabaldu ta sartu-erazi omen zizkin. Beste Aita batzuak ere jaiki ta antxe aitortu omen itun.

Andik ateeran, ala galdetu omen ziken:

— Iñondik ere zuek euskaldunak zerate?

Baietz, ala ziralak.

— Ez naiz euskaldunetakoa ni; baña España guzian zuetan bezelako gazterik ez dagola aitortu bearra daukat, egia badiot. Onuntz ige-sika aitortzera etortzen, etzerate lenbizikoak. Nai dezutenean etorri; zuentzat beti zabalik dau-

de emengo atea. Ez gera gu ere indarkeri onen aldekoak —esan ta biali omen zizkin.

Larralde'ko Madalenak egin zuana bera: ura arrapatu ta il egin zutela, eta auek etzituztela arrapatu.

Olakoxea uan Saturdino, olakoxeak itun Onrreta'n il zituzten Joxe Ramon ta Antonio, eta olakoxeak dituk gelditzen zaizkidan beste seiak.

Oiek orrelako zigorrik merezi bazuten, Jainkoarena dek pekatua, ez gurea; Arek egin baigaitzik euskaldun.

NERE AZKEN URTEAK GAUR ARTE

Seme maite ori galdu nuenean, batak eta besteak or asi itun auzitan: semea lanean erre ta il zalako, aitari zerbait ordaindu bearko zitzaiola, alde batek; besteak ezetz: seme geiago banitula ta zeñek jasoaren paltik ez neukala.

Azkenean, noski, batak eta besteak alkar artuko ziteken, eta, biak irabazi balute bezela, itxura pixar bat egin ziteken, illeroko amar duroko bat emanaz.

Ez dek ezer askorik, eta ni orrengatik berdintsu izango niñun; baña nere aita zanaren iritzikoa nak ni ere. Arek olakoetan esaten zuana esango dit:

— Utsa baño obeak dituk ogei milla duro!

Illero-illero, ura kobratzera joan bear izaten nin. Urruti xamar zeoken; baño illero bueltaxka bat egitea, neretzat oraindik ez uan beste munduko gauza.

Ez uan ori okerrena. Etxe artan lan egiten zutenak, geienak euskaldunak itun, baña oitura

gaizto bat bazeukateken: neri beti erderaz egin bearra; nik deus ere ez baidakit erderaz. Beti tripa jaten ateratzen niñun andik.

Azkenean, besteren diru-eske zijoakien lapur bat bezela artu nioteken: zaunkaka. Aien muturjea ikusita, izua ematen zidaken, gizona. Beti desairea, beti purrustada; biotz onekorik ez uan azaltzen aurrera.

Umore txarrean jetxi nintzan batean, amar duroko txar arengatik berdin izango nintzala, bai, ta ez nuala geiago an ankarik jarriko esanta aldegin nin. Orren billa ibilliko itun noski.

Egin bearren bat banin udaletxean eta txuxen ara joan niñun. Eskalleretan gora ninjoala, an topo egin nin Alberto bertako konserjearen alabarekin. Adiskide aundietakoa nin Alberto jauna, eta onekin bizi zan alaba ere bai. Eta, ain asarre ikusi niñunean, esan zidaken erdi parrrez, beti bezela:

— Asarre zabiltz, Joxe!

— Asarre? Ez daukat arrazoi-paltik ere!
—erantzun nioken.

— Zer dala-ta?

Esan nioken aspaldi aietan nola nebilkiten eta zer asmo artu nuan.

— Ori ere bai? —erantzun zidaken—. Utzi dana nere esku! Bear dan egunean eta bear dan orduan an edukiko naute! Ez didate neri zaunkarik egingo! Zu, nai dezunean, onuntz etorri, bai, ta emen edukiko dezu zure amar durokoa. Ez ote dabilta, zu biali ta berak jasotzeko asmoan?

Batere eskatu gabe, bere borondatez ori es-

keintzeak, uxatu zizkin nere asarre guziak. Jau-nari eskerrak, oraindik badituk biotz oneko kris-tauak.

Guda bukatu aurretik aldegin zin seme batek Prantzira. Beren asmoak bazizkitek; asko joan itun Europa'ko gudaren bukaeran onuntz sar-tutzeko asmoan.

Baña kukuak oker jo ziguk. Euskaldun oen ametsa, ametsa izaki; ango guda bukatutakoan onuntz sartuko zirala uste baigenun, eta aiekin batean sartzeko asmoan joan itun. Gu, beti be-zela, indarpean geratu giñun.

Orduan asi itun joan-etorriak: Prantzitik be-ren etxera bidean, gure mendi onetara azaltzen itun lenengo; emen eguna pasa ta gabaz beren etxeetara azalduaz.

Andik bereala, beste seme batek iges egin zidaken, baño pralle: bizardun kaputxino oietara sartu uan. Ori ez dek aita baten biotza mintzeko gauza; poztekoa baizik.

Urte oietan il zaizkidaken bi, asko maite ni-tunak. Bat, nere egun larrietan ainbeste lagundu zidan emaztearen anairik gazteena. Sasoiko gizo-na oraindik. Bestea, berriz, gure auzoko bat: Ai-tzondo'ko Jose Martin, gudatean gure etxea be-rritzen ainbat lan egin zuana. Mendian galdutako bonba zikin batek il zin.

Palta nuan semea, etorri uan noizbait Pran-tzitik.

Laster asi ituan Antxo'ko kai alde ortatik beste berri batzuak zabalitzen: itxas-ontzi asko sartzen zirala ta aiek zekartena antolatzeke leku geiago bearko zutela noski; kai inguru orretan

molle berriak egin ta lekuak azitzeko asmoan asi itun.

Orretarako, arria bear ziteken; ez nolanai gāñera. Laxter asi itun, jabearen berri ta baime-nik gabe, gure arkaitz alde au neurtzen.

Deitu nioteken bein, ta arrobi zakar aundi ura aiek bear zutela esan zidateken. Ogei milla metro inguru xamar izango uan noski. Nik ez nin orrelakorik nai, baña aiek agintzen omen ziteken; ta ordain-neurria ere berak jarri zidateken: iru pezta ta erdi metroko.

Neretzat lapurreta aundi bat uan; baña erriaren onerako zala egin bear zuten lana, eta, nai banuan edo ezpanuan, indarrean jabetuko zira-la esan zidateken.

Ez neukala ukatzeko asmorik esan nieken, erriaren onerako bazan. Aiek ainbeste edo geia-go maite nuala nik erria; baño ia zergatik beartsu gizarajo batek zeukan olako lanetan dana galdu bearra; ia zergatik berak ere etzidaten geixeago ordaindu bear; ez giñala gu ere auke-ran bizi-ta.

Etzidateken erantzun; ezta begiratu ere.

Alanbre lodi bat jarri ziteken arrobotik kai ondora, eta eraso zioteken lanari.

Kobratzeko asmoan joan niñun bear zan lekura. Beirok: paper aiek etzirala aski. Beste paper batzuek ere eraman nizkin, eta betiko leloa: etzirala aski. Urteetan olaxe ibilli niñun.

Aiek, gure arrobi zanetik eraman eta eraman, nai ziteken aña arri; eta gu, aiek ordaintzat jarri zizkiguteken txanpon pixarrak ezin ko-

braturik. Azkenerako, etzala gurea esanta biali nioteken.

Baserritar jendeak, geienetan, erriko apaizen batengana jotzen dik aolku billa. Nik etsi nuan ezkerro, semea joan uan, gaur dagon bikario orrengana. Gauzen berri jakin zunean, ala esan zioken:

— Nik ez dakit lege oien berri, baña nere abogadua Donostia'n daukat. Atoz olako egun ta ordurako, ta itzegingo degu.

Esan bezela egin zin. Paperak ikusi zitu-nean, buruari eragifiaz, ala esan zioken:

— Bi oek aski dituzu; beste oiek ateratzen, alper-alperrik nekatu zera.

— Lenengo joan zanean, oiek eraman zitun nere aitak.

— Gauz bat dago emen garbi: *Junta de obras*'ek dirua jarria daukala. Sos pixar oien atzetik ez dabil. Bitarteko oiek jarri zaizkizu erdian.

— Olako egunetarako ez badezute ordain-tzen, auzitara deituko zaituztet! —esan zieken bitarteko oieiri. Bai txuxen asko ordaindu ere.

Neregatik danak galduko itun; nik ez nin auzitara joko. Beartsueri, zenbat orrelako ez ote zizkiotek egiten?

Joanak joan, noizbait artu genin betiko martxa. Iru seme gazteenak ere ezkondu itun. Ogei ta amalau urteren buruan sartu uan emakume berria gurean. Billobak ere asi dituk ugaritzen. Iru senditako aita bezela, nai detanean beñepin, emen nebillek ara ta onera.

Zutik asi nintzan ezkeron, eraso nioken lanari, eta zutik nabillen arte etziot utziko.

Olaxe, nere maiteen erdian, leku askotatik igasi, erdaldun jendea besterik ez baidit billatzen, iritxi nak larogei ta iru urtetaraño. Osasun ona zeukat oraindik. Azkeneko urte ale auek bezelakorik ez dit egundo igaro. Naigabe bat zeramat: gure negar, oñaze ta odolaren saria ikusi gabe joan bearra mundutik. Bestean emango al ziguk Jainkoak!

Gaur arte olaxe joan dituk nere urteak. Onuzkeron ez gaitzik Jainkoak luzaroan edukiko. Ordu onean datorrela, bada, aldegitoko deia; beste gudate bat ikusi baño askoz naiago dit-eta.

Orra oroitzen naizen nere bizitzako goraberraren batzuen lardaska. Muturrik billatzen badiok, ik jakingo dek nondik asi ta bukatu.

— Nik ez det ezer askorik egingo noski; baño liburu-egille on batek aterako lioke bere mamia. Eskerrik asko, Joxe, ta urte askotarako osasuna eman deizula Jainkoak!

— Berdin, Ataño, eta agur! Gauza dan arte, emen ibilliko dek kantari *txantxangorri kantaria*.

Sega bizkarrean, txistuka euskal aire bat joaz, an jetxi zan, ordurako illunak mendean zeukan bere baserri xarrera.

ATEA ZABALDU

Andik zazpi bat illabetera —inguru xamar izango zan—, bazkalondo batean urrutizkiñez deitu niñuten:

Loiola gañeko gaixotegi berrian zegola Joxe, eta, ikusi nai banuan, joateko lenbailen.

Lekutara eraman dute! Zer gertatu ote zaio?

Urrengo goizean, lokatz artetik ezin aterarik aldapa gora ninjoala, ekaitz biurria baizebilen, auzoko andre xar bat topo egin nuan eta onela galdetu zidan:

— Joxe ikustera joango zera noski?

— Bai, alaxe noa!

— Gaxoa! Zeñek esan bear zidan? Igandegoizean ementxe bertan topo egin gendun! «Astigarraga'ra noa! Amarretako meza entzun nai nuke ta berandu xamarra izango det noski!» esanta, udaberriko txoria bezin alai ta arin, korrika txikin jetxi zitun aldapa oek danak. Mendiaren beste aldean ezkutatu zan arte, inbiriz egon nintzaion begira. Ura baño amabost urtez

gazteagoa naiz ni, eta bost minutuan pasa zitun aldapa oiek, ez nituzke ordu erdian pasako. Bi ordu etzan izango, au gertaturik. Astigarraga'tik zetorren alabak ala esan zidan:

— Bordaxar'ko Joxe, ondo-eza eginta, goiko gaixotegi berrira eraman dute, ama!

Ez nion sinistu, baña zoritxarrez egia izaki. Meza entzun ta tabernan bertsotan ari zala, perlesiak jo ta erori. Orrengatik eraman zuten gaixotegi berrira. Orduan arixe ori gertatu bear zitzaionik! Ez gera iñor! Nere aldetik meserez eskumiñak eman akizkiozu, mundu ontan noski ez degu geiago bizirik alkar ikusiko-ta. Bereak ikusita utziko du lur au!

Malda artan lokatz egin nitun oñetakoak, baserri batean garbitu nitun ta igo nintzan gaixotegi berrira. An zegon Joxe ixil ta geldirik. Etzan ala oitua. Eziñak menderatu ura ere. Emengo argira betiko itzalita zeuzkan begiak. Gorputzik ezin mugitu, ezker aieka illa baizeukan. Itzegin nionean, abotsera ezagutu niñun. Itzegin, itzegiten zuan; abotsik ezin garbitu. Entzun niñuneko, irriparez alaitu zitzaion arpegia eta luzatu zidan oraindik bizirik zeukan eskua. Exeri nintzan bere ondoan, eta, luzatzen zidan esku bakar ura nere bien erdian arturik, galdetu nion:

— Zer moduz, Joxe? Oñazerik bai al daukazu?

— Oñazerik ez, baña nereak egin dik! Aultzen, aultzen niak! Ez giñun ba gu ere betiko sortu-ta! Bizitza ontako itxas naspil oni alderikalde bira eman ziot. Ez nauk bidean galdu.

Illun-bistan iritxi nauk, egunsentian atera nintzan lekura. Bertan zeukat oraintxe atea; zabaldu-zai niok, dakardan gorputz xar, itxu, nekatu au utzita, aurrera sartzeko.

— Ordu ontan, azken pauso au emateko, lasai al daukazu biotza?

— Bejondeikela, motell! Bizitza triste ontan ainbeste naigabe pasata, bestera ere oñazetara juatezkeroz... Sinismenez jaso nizkin zetozkidan oñazeak, Jainkoaren borondatera danetan makurtuz. Agure zar au zigorpera botata, zer irabaziko likek Jainkoak? Mundu ontakoak bezelakoa balitz, orduan bai, errukarri niñuke. Alare, izugarria dek etorrerik ez duan agur au.

Beste mundura arte noski ez nuala ikusikotara agurtu nuanean, begi itxu aietatik malkoak ixuriz, ala esan zidan:

— Agur, Ataño! Nik bai ez autala ikusiko, itxu bainago! Nere adiskideei esaiek, onuzkero luzetetsirik dauzkadan nere emazte, seme ta guraso maiteak ikustera noala bizitza ontatik, eta ordu estu oetan, meserez, otoi egiteko nere alde.

Maitasunez estutu nuan bere esku xar ura bizitza ontan azkeneko aldiz, eta an geratu zan ixil da bakar; berak zionez, atea zabaldu-zai, barrura sartzeko.

Egia esatezkeroz, lasai zegon Joxe bere azken pausoa emateko. Arek ere, jakiña, bere pekatuak, bere utsegiñak eta bere gorroto-aldiak izango zitun. Ari egin zizkatenak eginta, nork ez luke izango? Azkenerako, ordea, danak menderatuta utziak zitun. Nik ikusi nuncan beñipin,

lasai zegon aitona. Bataio ezkeror erori gabeko-entzat egin bazun Jainkoak zerua, alperrik egin zun; itxi lezake.

Andik Donosti'ko klinika batera ekarri zuten, obe-bearrez, baña alperrik; an ere gero ta aulago zijoala bere buruari igerririk, ala eskatu zuan:

— Emen gaizki naukazute! Eraman nazazute etxera, artu nuan lekuan utzi dezadan bizia!

Etxera ekarri ta andik egun gutxiren burura, Ilbeltzaren ogei ta zazpian, jaio ta larogei ta lau urtean bizi izan zan baserri maitean, seme batzuak ondoan zitula, eman zuan azken arnasa. Jendetza izugarria lagun zuala, geiago etorrerarik izango etzun lekura eramán gendun. Txan txangorri kantaria ixildu zan betiko.

Urrengo Madalenetan seme batek bere jaiotetxean arkitu zun utsunari jarri zizkion bertsoak, ongi datoz lan onen bukaerako:

Oitu bezela erriko jaitan
igo nintzan baserrira,
txikitan alai eduki niñun
oroitz goxoen kabira;
sartu orduko biotza illun,
malko ixillak begira,
maitagarri bat palta dalako
gauzak aldatu baitira.

Biotz xamurrez artu niñuten
anaiak beren artera,

zenbat alegin etzuten egin
triste negon au poztera!
Ni bezelaxe itxuraz alai,
beren biotzak minbera:
igaz mai-buru egin zun aita
aurten palta gendun bera.

Berritutako etxe bikaña,
sukalde argi txukuna,
illoba txiki alaien salla
goxo laztantzen zaituna;
baña xar ura palta da ortik,
or dago bere utsuna,
mundu onetan beste inortxok
ongi beteko ez duna.

Nere abotsa entzun orduko
ezpañetan irriparra,
nun edo andik azalduko zan
atarira aita xarra:
«Ator, Bixente, ator aurrera!»
aren eskeñi biarra,
biotz xar artan etzan oraindik
auldu maitasun-indarra.

«Bazkal-ordua urruti zegok,
artzak zerbait bixigarri!»
Bati agindu, bestea deitu,
eraman eta ekarri;
gero patxaran nere ondoan
beraren aulkian jarri,
urte guziko gertakizunak
kontatu biar alkarri.

Igaz «Datorren arte!» esanta
lagundu zidan bidera.
«Etorri gero!» Ni etorri naiz,
baña palta zaigu bera;
eraman zuten ainbat jetxi-igo
egin zuan maldan bera,
azkenekua noizbait bear-ta
etzan itzuli etxera.

Sukal ondoan ez det nabari
gure aita xar iztuna,
orixe da gaur gure biotzak
arkitzen duten utsuna;
baldartuxia zebillen baño
bera zan biltzen giñuna,
biotz erori auek pozteko
palta bere maitasuna.

Mai-ingurura urbildu giñan,
gure biotzen goibela!
Ikusten gendun zizallu xarra
arek utzi zun bezela;
bi aita-gure esan ziran palta
zanaren alde orrela,
jakin zezala il ta gero're
semeak maite zutela.

Umore-naia bagendun danok,
itxuraz nagusi poza,
bañan aldizka biotz illunduz
palta zanaren oroitzza;
itza-jario aritu giñan,
ez gendun bazkari motza;

aitarik iñork etzun aipatu,
lotzen baizigun biotza.

Anaiok sorta batean lotzen
giñun lokarriya bera;
eten danian, orra erori
bakoitza bere aldera;
txoko bero au oztu betiko,
errira noa minbera,
gure sutondo xarrean berriz
noiz bilduko ote gera?

Nai ta nai-ezko gora-bera au
zeñek ez degu aitortzen?
Aitona eta aita juan ziran,
gu're baguaz erortzen;
ume txikiyak gain artu nairik
aldamenian koskortzen,
baña emendik bein joaten danik
ez da geiago etortzen.

Aren lekua bete da; aurki
gure lekuko berriya;
anai maiteak, ez negar egin,
illunak badu argiya:
bana-banaka goazeneko
Jainkuak dauka jarriya
danok bilduta poztuko geran
betirako aberriya.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. B. Iraola: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. A. M.^a Zabala: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. A. M.^a Labayen: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. P. Larzabal: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. F. Imaz: Bertso guziak. (*Aitua*).


25. A. P. Iturriaga: Jolasak. (*Aitua.*)
26. A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zala-partak. (*Aitua.*)
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua.*)
28. B. A. Mogel: Ipui onak. (*Aitua.*)
29. T. Alzaga: Burruntziya. (*Aitua.*)
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria. (*Aitua.*)
31. M. Soroa: Baratzan. (*Aitua.*)
32. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua.*)
33. M. Elizegui, A. Zavala: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua.*)
34. P. Larzabal: Senpere-n gertatua. (*Aitua.*)
- 35-36. J. V. de Echagaray: Festara.
37. A. Cardaberaz: Euskeraren berri onak. (*Aitua.*)
38. S. Salaverria: Neronek tirako nizkin. (*Aitua.*)
39. Bertsolariak: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua.*)
- 40-41. J. R. Zubillaga: Lardasketa. (*Aitua.*)
42. Uztapide: Noizbait. (*Aitua.*)
43. Bertsolari-txapelketa (1-I-1965). (*Aitua.*)
44. P. Larzabal: Hilla esposatu. (*Aitua.*)
- 45-46. J. M. Satrustegui: Bordel bertsolaria. (*Aitua.*)
47. J. M. Urruzuno: Iru ziri. (*Aitua.*)
48. P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe: Teatro zaarra. (*Aitua.*)
- 49-50. A. Zavala: Pello Errotaren itzala. (*Aitua.*)
51. P. M. Urruzuno: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua.*)
- 52-53. G. Anduaga: Bertso-bilduma.
54. A. Zavala: Pernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua.*)
55. Basarri: Laugarren txinpartak. (*Aitua.*)
56. A. Zavala: Udarregi bertsolaria. (*Aitua.*)
- 57-58. C. Beobide: Asis'ko Lorea. (*Aitua.*)
59. A. Zavala: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. A. Zavala: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua.*)
61. A. Zavala: Gaztelu bertsolaria.
62. A. Zavala: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. A. Zavala: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. J. M. Satrustegui: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua.*)
66. A. Zavala: Iru bertsolari. (*Aitua.*)
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967). (*Aitua.*)
- 68-69-70. A. Zavala: Alzo'ko Imaz bertsolaria.

- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua.*)
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua.*)
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan María Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua.*)
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua.*)
84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua.*)
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua.*)
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua.*)
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua.*)
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua.*)
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua.*)
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua.*)
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua.*)
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua.*)
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua.*)
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua.*)
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua.*)
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua.*)
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua.*)
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua.*)
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: ZapiRAIN anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.

127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J. M. Arrizabalo* - *A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.



1051010
G-128/21



AUSPOA
LIBURUTEGIA